y Delegado en Araba/Álava

BERRIOZAR

Andres Iñigo Ariztegi, delegado en Navarra de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia y presidente de su Comisión de Onomástica,

CERTIFICA:

Que la Comisión de Onomástica de Euskaltzaindia, tras estudiar la consulta realizada a esta Institución, como consecuencia de la traducción de topónimos realizada en la localidad navarra de **Berriozar**, en sesión celebrada en la sede de la delegación de Euskaltzaindia en Vitoria / Gasteiz, el día 8 de mayo de 2003, emitió el siguiente dictamen:

1. Un topónimo es un nombre de lugar, es decir, un nombre específico.

1.1. Los topónimos, tanto mayores como menores se escriben en la grafía del idioma correspondiente. Por ejemplo, en toponimia mayor: *Villatuerta* (no Billa tuerta), *Castejón* (no Kastejón) y en toponimia menor: *Etxape* (no Echape), *Irigoyen* (no Irigoyen).

1.2. Los topónimos no se traducen y, por tanto, no procede indicar en las placas de topónimos específicos las traducciones, etimologías ni significados aclaratorios entre paréntesis. No procede, por tanto, señalar en las placas casos como por ejemplo: *Pamplona* (la ciudad de Pompeyo), *Burgos* (fortaleza), *Lugo* (bosque), *Uharte/Huarte* (entrambasaguas), *San Cristóbal* (que lleva a Cristo), etc.

1.3. La información añadida (pero no la traducción, ni la etimología, ni el significado aclaratorio del nombre específico) se aplica en el caso de antropónimos, como por ejemplo: Calle *Amaia* (personaje mitológico) [no Calle *Amaia* (el final)], Calle *Arrieta* (músico navarro) [no Calle *Arrieta* (el pedregal)], y en el de topónimos que antiguamente tuvieron otra denominación, como por ejemplo: Calle de la *Mañueta* (antigua rúa de los baños), Calle de *San Nicolás* (antigua de las tornerías).

2. Topónimos de doble denominación. Cuando la doble denominación es tradicional, se emplean ambas. Por ejemplo: *Luzaide / Valcarlos*, *Puente la Reina / Gares*.

3. Nombres susceptibles de traducción:

3.1. Los nombres genéricos. Por ejemplo: *Cementerio / Hilerría*, *Ayuntamiento / Udaletxea*.

3.2. Los nombres que en una época determinada de la historia han sido traducidos, siempre que se documente su nombre original. Por ejemplo: *Piedras Negras* / *Arbeltza*.

3.3. Los neotopónimos. Por ejemplo: Poblado de Potasas / *Getzaurre*, *Nuestra Señora de las Nieves de Irati* / *Iratiko Elurretako Andre Maria*.

Y para que conste y surta efectos, expide la presente en Pamplona a diecinueve de mayo de dos mil tres.

Andres Iñigo,
Presidente de la Comisión de Onomástica

LITERATURA

KARDABERAZEN III. MENDEURRENA

Hernani, 2003-II-27

AGUSTIN KARDABERAZ:
Ongietorria

Hernani, 2003-II-27

Mertxe Etxeberria,
Hernaniko alkatea

Dakizuenez, aurten, Agustin Kardaberaz, XVIII. mendeko idazle eta aditu hernaniar garrantzitsua jaio zeneko hirugarren mendeurrena ospatzen dugu (bide batez esango dut haren aita Hernaniko alkatea izan zela 1708. inguruan).

Ez dagokit niri haren irudia aztertzea eta euskal idazle eta hizlari gisa di-tuen merezimenduak goratzea: badago gaur hemen hori hobeki egingo duenik.

Baina bai, Hernaniko herriaren ordezkari naizen aldetik, omenaldi-urte hau irekitzea eta urte guztian zehar haren oroimenez hainbat eta hainbat ekitaldi egingo ditugula jakinaraztea.

Nire zeregina da, halaber, hernaniar guztien izenean poztasuna adieraztea, historian zehar Euskal Herriari hainbeste eman dion gure komunitatea gure hizkuntzaren munduko pertsona ospetsu honen jaioterri ere izan delako.


* * *

Hala ere, poztasun hori lausotu egiten zaigu bizi ditugun egun latz haue-tan, izan ere, denok dakizuen moduan, euskara bortizki erasotzen ari dira, *Euskaldunon egunkaria* itxiz eta gure hizkuntza biziberritzeko lan egiten duen intelektual talde bat espetxeratuz eta torturatuz. Horietako bat, gainera, herri-tarra dugu: Pello Zubiria. Guztiontzat gure elkartasunik sutuena.

* * *

Baina gatozen berriz ere omenaldira, esan behar baita, omenaldi honek behar bada ez zuela izango merezi duen oihartzuna baldin eta XX. mende ha-sieran funtsean euskararen normalizaziorako sortutako Euskaltzaindia Erakun-deak emandako laguntza paregabea eman izan ez balio.

Euskaltzaindiak 2003. urtea Kardaberazi eskaini nahi dio eta, haren ome-nez, hainbat ekitaldi antolatu ditu. Horrez gain, urtean bitan egiten dituzten «Barne Jardunaldi» ibiltariak aurten Hernanin egingo dituzte, bihar eta etzi, hain justu.



Bukatzeko esan nahi dut niretzat ohore handia dela:

- Euskaltzaindia euskararen normalkuntzan eta eguneratze prozesuan jotzen ari den paper garrantzitsua aitortzea.
- Euskal Herriaren hizkuntzak mundu modernoan bere lekua behar duela lan eginez erabaki dutenak Erakunde horren bidez agurtzea.
- Eta bere kideei ongietorria ematea.

Hernaniren izenean: Ongi etorriak!

KARDABERAZEN MENDEURRENA

*Hernaniko Udaletxea,
2003-II-27*

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

Hernaniko alkate anderea.

Euskaltzainkideak.

Jaun-andereak arastiri on.

Ez da lehen aldia agertzen dela Euskaltzaindia Hernanin. Oroit naiz hermen egonik 1978an Iturriaga alegi egileari egin geniolarik omenaldia. Geroztik 25 urte iragan dira, mende laurden bat. Aurren, 2003ko urte honetan berriz bilduak gara beste hernaniar baten ohoretan, Kardaberaz idazlearen omenetan.

Horretarako Euskaltzaindiarekin agertzen da Deustuko Unibertsitatea, elgarrekin antolatzen baitugu Kardaberaz omenezko urte hau. Euskal munduari idekiak garelakotz, orain Deustuko Unibertsitatearekin egiten dugun bezala, Euskal Herriko Unibertsitatearekin edo Eusko Ikaskuntzarekin antolatu ditugu ekitaldi ospetsuak.

Mende laurden bat iragan da eta mende laurden horretan gauza asko egin da, aldatu da Euskal Herria, aldatu da ere bai ingurumena eta bai eguneroko giroa. Erran nezake goraki Euskaltzaindiak zerbait baino gehiago egin duela aldakuntzaren fagoretan. Duela 25 urte hain zuzen, bildua zen Euskaltzaindia euskaltzaleekin Bergarako Udaletxean aztertzeo zertan zegoen euskara Oñatiko Arantzazuko kongresu famatuaren ondotik, hamar urte iraganak zirela. Orduan argiki ikusi zuen Euskaltzaindiak hamar urte horietan eskaini zituen arauak onartuak zirela, gehienak bederen, euskaltzaleek izan zitezen idazle, erakasle, kazetari, bereganatu zituztela Euskaltzaindiaren proposamenak eta euskara batuaren bidea idekia zela. Orduan pozik neurtu zuen Euskaltzaindiak bere eta euskaltzaleen arteko atxikimendua.

Urte baten buruan, bilduak ginelarik Arrasaten, sortu ziren batzordeak, bost batzorde nagusiak: Hiztegegintza, Gramatika, Dialektologia, Onomastika, Literatura, horiek guztiak *Iker* sailekoak. Geroztik *Jagon* saila bi batzordeetan banatu da eta haien lana garrantzi handikoa da ikusiz zertan den euskara Eus-

kal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Iparraldean. Euskararen eskubideak zaintzen ditu *Jagon* sailak eta, hain zuzen, zuk, alkate anderea, *Euskaldunon Egunkaria* eta kazetarien kontra egin direnak salatu dituzun bezala Euskaltzaindiak *Jagon* sailetik argitaratu du adierazpen bat eta bihar, euskaltzainak bilduak izanen direlarik Udaletxe honetan beren hileroko bilkuran, bertze adierazpen bat agertuko du prentsaren aurrean, hortarako deitua izana baita. Nahi ala ez Euskaltzaindiak salatzen ditu, horretan betetzen duela bere eginbidea, euskarari egiten zaizkion eraso guztiak.

Mende laurden baten buruan neurt daiteke zer izan den Euskaltzaindiak euskal munduari eskaini diona: *Orotariko Euskal Hiztegia* (O.E.H.) bere hamalau liburukiekin, beste biga agertuko direlarik bi urte barne; Hiztegi Batu bat 23.000 hitzekin, bigarren txandan sartuak garena; Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa (EHHA) bere ahozko hizkuntzaren altxor paregabearekin, erakutsiko duela nola banatzen diren euskalkiak Euskal Herri osoan, lehen liburukia kaleratuko delarik aurten; Gramatika Batzordeak agertu ditu bost liburuki eta segitzen du bere lana euskal joskeran murgildua; Onomastika Batzordea harremanetan dago, besteak beste, udal guztiekin, Hernanikoarekin hain zuzen, aholkuak eskainiz bereziki Toponimian; Literatura Batzordeak ere segitzen du urratu duen bidea jardunaldi edo kongresuak apailatuz euskal idazleen ohoretan izan dituen Oihenart, Elissamburu, Lizardi, Orixé, d'Abbadie edo Kardaberaz.

Gure lanetan horretan gaude eta bi egunez biltzen baikara Hernanin Barne Jardunaldi kariatara, aztertuko dugu azken bi urteetan egin den lana, batzorde bakoitzak eskainiko duela zer egin duen zer egingen duen, datozen bi urteotan, zeri buruz doan. Beharrezkoak dira Barne Jardunaldiak orduan neuritzen baita zertan diren gure urratsak, zer aldatu behar den haien hobetzeko, nola sortu eta bideratu behar diren proiektu berriak. Horiek dira eztabaidatuko ditugun gaiak bihar eta etzi, denbora berean omentzen dugularik Herriko seme bat, XVIII. mendeko idazlea. Ez dut idazle horretaz deus erranen, Aita Patxi Altuna mintzatuko baita ene ondotik eta ni baino hobeki Kardaberazi buruz, aipatuz nor zen, zer izan den, zer idatzi duen.

* * *

Alkate andere agurgarria, ez dut ene mintzaldi hau bukatu nahi zuri eskerrak eman gabe : lehenik egin diguzun ongi etorriaren gatik eta gero Hernaniko Udalak eskaintzen digun egoitza bi egunentzat, preziagarri baita Euskaltzaindiarentzat. Beraz, Alkate anderea, bihotz-bihotzetik doaz, Euskaltzaindiaren izenean, ene eskerrik bizienak.

AITA KARDABERAZ ELGORRIAGaren BIZITZA (*)

Hernani, 2003-II-27

*Patxi Altuna,
euskaltzain osoa*

Hirugarren aldiz ekiten diot denbora gutxian Kardaberazen bizitzari, pixka bat berriturik zerbait hobetoxeago aterako delakoan. Egia da ikertzaile gutxi atzeman diotela haren irudiari eta nortasunari, eta neronek ere Euskal Filologiako eskoletan ez nuela zeharka baizik egin. Beste bi idazle handik kentzen zioten tokia eta egiten itzala, Larramendi-k eta Mendiburu-k-. Gaur ere ez da ene asmoa ikasientzat eta adituentzat hitzaldia egitea, ezta ere kanatu bat egitea Kardaberazen birtuteak eta jainkozaletasuna zuen aurrean gorai-patuz, nahiz esan diezazuekedan behintzat nola ene ama zenak kontatu ohi zuen etorri zela behin gazte zelarik Loiolara beste zenbait milaka jenderekin Erroman barrena Hernanitik zekartzaten Kardaberazen gorpuzkinei ongi etorri egitera eta gurtzera. 1908ko maiatzaren bira zen; norbaitzat zedukaten nonbait. Gorpuzkin haiek Loiolan daude kutxa eder batean gordeak. Ez neukan agian gauza hauek zer esanik, baina esan gabe ere ezin geldi nintekeela iruditu zait.

* * *

Hernanin sortu zen, dakizuenez, 1703an, abenduko «inozente» egunean, 28an. Egun horren kutsua ote zuen bizi guztian zeriona, haur errugabe-xalorarena? Herriko eskolan egin zituen lehen ikasketak, lagundurik –hori bai– bere osaba apaiz Martin de Kardaberazek, norekin urte askotan harreman estuak izan baitzituen. Izan ere, Kardaberaz etxe handiko semea zen. Aita Hernaniko alkate izan zen 1708an, Agustinen haurtzaroan. Deituraren bigarren zatiak, **beraiz**-ek, luzaro iraun zuen eta garaiko agiri batzuetan agertzen da. Gero 1713-1714an Donostiako apaiztegiko eta Udaletxeko eskribau izan zen eta hiri bereko artxibozain.

Herriko eskola utzi eta gramatika ikasteko Kardaberaz Donostiara aldatu zen, jesuiten ikastetxera (1714-1717). Hori dela eta, haurtzaroko eta gaztaroko

(*) Oharra: Aipamen guztiak Leon Lopetegi-ren AGUSTIN KARDABERAZ-en, *EUSKALAN GUZTIAK* liburutik eta Jose Ignacio TELLECHEA IDIGORAS-en *LARRAMENDI y CARDABERAZ* liburuxkatik hartuak.

zati bat Donostian igaro zuen; hangoa baitzuen ama ere, Maria Manuela de Elgorriaga. Aldiz ez zuen edo ez da behintzat inoiz aipatzen anai-arrebarik.

Beste jolas edo joko batzuetara izan zezakeen zaletasunen berririk ez dugu, bai, ordea, oraindik gazte zela sortu zitzaion pilotakoa. Esaten digu hamaika urte edo zituenean, oso pilotazalea zela eta batzuetan ikasteko denbora ez galtzearren, eguerdian jokatzan zuela eta bazkaltzera berandu iristen, harik eta behin bere izeba batek eman omen zion arte haserre serio samar bat eta gehiago ez jokatzea erabaki.

Konturatzeko nolako giroa izan zitekeen orduan Euskal Herrian eta inguruan, gogora ditzagun Espainiako «Guerra de Sucesión» eta Alberoniren ausarkeriak eta ondoren, 1718an, frantsesen eraso Hondarribiaren, Pasaiaren eta Donostiaren kontra. Beharrik orduko gure Agustín haize berriak arnastera aittak igorria zuen beste toki batera eta ez zuen berri zehatzik jakingo Donostian gertatzen zenaz. Bai bere aitak, noski, eta gau txar bat baino gehiago igaro zuela pentsatzea ez da arinkeria.

* * *

Gramatikan amaitzen ziren jesuitek Donostian ematen zituzten ikasketak eta hori ikasi ondoren filosofiari ekiteko aitak Iruñea hautatu zuen Agustínentzat. Bere arrazoiak izango zituen Bilboren aurretik jartzeko. Gauza da Iruñean burutu zituela hiru urteak (1717-1720). Baina egiantzeko da oporretan itzuliko zela Hernanira eta Donostiara egun batzuk igarotzera. Halabeharrez urte hartan Gipuzkoako Junta Jeneralak/Batzar Nagusiak Hernanin biltzekoak ziren eta, nork meza emango eta nork hitzaldia egingo, gure Manuel Larramendi hautatu zuten. Hor ditugu bi familiak elkartuak, lehendik ez bazeuden.

Askotan galdetu diot neure buruari non edan zuen gure Juan Ignazio Iztueta handiak bertso eder hau ontzeko informazioa:

«Ene biotzeko / aita Larramendi / bost egiya esanda / joan ziñen emendi».

Egundokoak esan zituen nonbait pulpitotik hizlari gazteak eta gero herri-herri barreiatu albistea, urte mordoxka bat geroago gure Iztuetaren belarrietara iritsi zen arte. Jakin behar da, izan ere, Larramendi hil zen urte berean jaio zela zaldibiarra (1767).

Agustínek orduko hamazazpi urte zituen eta geroari buruz zerbait pentsatu edukiko zuen. Aitak ere bai, ordea, bere asmoak behin eta birritan bere baitan hausnartuak, eta azkenik hau Valladolida igortzea erabaki zuen 1721ean, hango Unibertsitatean legegizon bikain egin zedin aitaren antzera. Semeak, ordea, aurea hartu zion; urtebete bakarrik ikasi zuen eta bitartean umotu zen, dirudienez, haren barnean jesuita egiteko erabakia eta halaxe egin ere zen han ondoko Villagarcía de Camposko nobiziadoan jesuita sartuz. Zer esanik ez, aittak bere biziko atsekabea eta haserre hartu zuela. Aski izan bedi esatea Aita Santuaren Ordezkoaren bulda bat lortu zuela eta harekin urtebete baino lehen

bere semea nobiziadotik atera eta San Francisco el Grande deritzan fraidetxean sarrarazi, haren bokazioa irmoa zen ala ez frogatzeko. Aitak ezarritako frogagaitu eta San Luis egunean, ekainaren 21ean, hangoxe San Inazioaren kolegiara itzuli zen.

Kardaberaz lagundiko ikasketak ohikoak izan ziren, hamaika urte denera: bi urte nobizio Villagarcian, urtebete kolegio batean mutikoen maisu, hiru urte Filosofia ikasten Palentzian, aita Inazio de Egiluz erretore zuela, eta teologia lau urte ikasten hastea zegokionean, halaberharrez eritasuna sortu zitzaion ustekabea eta Donostiara igorri zuten bost eguneko oporrak ematera eta handik Hernanira hiru hilabete bere osaba don Martinengana «esnea hartzera», hala dio karta batean, «eta zaldiz ibiltzera, Donostian ezin egin nezakeena». Teologia ikasten du gero Valladoliden 1726tik 1730era San Ambrosio kolegioan, aita Larramendi irakasle duela, eta teologia osoro bukatu baino lehen, hirugarren kurtsoa amaitzean, apaiz egiten da han bertan, abenduaren 26an. Hala ere ez zuen lehen meza eman geroago arte, 1730eko urtarilaren lehena arte.

Bitartean beste egiteko garrantzitsua gaitu behar zuen eta harekin izan zen oso arduratua egun batzuetan. «Acto Mayor de Teología» deitzen zen azterketa aprobatu behar zuen ikasle eta irakasleen aurrean, latinez noski, eta hamabost egun lehenago, 1729ko abenduaren 18an defendatu zuen zuzendari Aita Larramendi berbera zuela. Tesigaia *Aingeruak* izan zuen. Berehala Hirugarren Probandza hasi zuen urte bereko abuztuaren hogeita hamarrean. Zer esanik ez, ezin hobeto atera zela eta azken lau zinitzak egitea irabazi zuela. Honek erakusten digu bazela bi euskaldunen artean harremana eta estimua. Gehiegi pentsatzea ote da hitz egin zutela elkarrekin euskaraz eta Euskal Herriaz eta maisua saiatu zela berotzen bere ikasle azkarraren bihotza, baldin behar ere bazuen, biok hain maite zuten herriaren alde lan egiteko?

* * *

Kardaberaz guztiz baztertu gabe, hartaz ari baita ene hitzaldia, biribil dezagun oraino Larramendiz esana eta aipa dezagun hirugarren laguna, nahiz beti hirurok lagun min-minak izan ez ziren. Hiruretan zaharrena Manuel Larramendi andoaindarra zen, Kardaberaz baino hamahiru urte lehenago, 1690ean, jaioa. Ama alargundu, Bilboko jesuiten ikastetxera osaba jesuitak morroi-txiki –hala deitzen genien– lanetara eraman, bere adimen harrigarriaz guztiak, morroiak eta irakasleak, txunditurik utzi, ikasle izatera pasa eta Salamankako katedran irakasle apartekoa izatera heldu zen.

* * *

Mendiburu oiartzuarra, hiruretan gazteena, Kardaberaz baino bost urte geroago jaio zen. Honek ere Donostiako jesuiten ikastetxean egin zituen gatzetango ikasketak eta hamazazpi urte zituela Villagarciaiko nobiziadoan jesuita sartu eta botoak egin beste biek bezala –hantxe dago hirurok lehen bi botoak

egin zituzten erretaula ederra-, eta hamaika urte luzeko ikaskuntzen ondoren Valladoliden amaitu zuen hirugarren probantza 1736an, handik Iruñera joateko bederatzi urtez kolegioko mutikoen irakasle izatera eta ondoren Loiolara, Gipuzkoako eta inguruko herrietan misioak urtebetez ematera.

* * *

Hirurok aurkeztu ditugunez gero, itzul gaitezen jada Kardaberazengana. Hirurok elkarren lagun izan zirela esan dut, baina ez neurri berean eta ezaldi berean. Ikus dezagun. Elkar ezagutzen lehenak Larramendi eta Kardaberaz izan ziren. Ikusi dugu non eta nola. Kardaberaz eta Mendiburu, aldiz, urte baten aldearekin sartu ziren Jesusen Lagundian: hura 1721ean, hau 1725ean; hura 18 urte zituela, hau 17; beraz nobiziadoko urte bat batera egin zuten, nahiz kurtso banatan. Filosofiakoa eta teologiakoa ez, baizik bereiz: hernaniarrak Palentzian, non izan baitzuen Larramendi irakasle, eta Valladoliden; oartzuarrak Medinan eta Salamankan. Horrez gain Larramendi ez zen behin ere Mendibururen irakasle izan.

Ez hori bakarrik; Larramendi eta Mendiburu ez ziren behin ere elkarrekin etxe berean bizi izan, salbu lehentxeago esan bezala, Mendiburu Iruñeko lehen bederatzi urteak amaitu eta Loiolara urtebeterako, 37 urte zituela, joan zen arte (1745-1746). Eta urte hartan, halabeharrez, Kardaberaz ere han bizi izan zen; beraz hor ditugu hirurok urte hartan, eta ez beste inoiz, elkarrekin bizitzen. Lăstima Loiolan orduko hiruron argazkirik ez gordetzea! Egia da, bai, Mendiburuk sei edo zazpi irtenaldi egin zituela kurtso hartan misioak ematera, bai eta Larramendik sarritako irteerak egin bere arazoak konpontzera, baina ofizialki bederen eta katalogoari sinetsi behar badiogu, urte hartan hirurak etxe hartako biztanle izan ziren.

Baina hortik gutxi ateratzen dugu bien arteko onginahiez edo gaizkiahiez. Proba seguruak nahi ditugu. Bada, begira: denok dakigu Mendiburuk, Ciceron euskalduna deituak, urte hartan (1745) misioek uzten zizkioten tarteetan Aita Croisseten frantsesezko liburua moldatu zuela euskarara eta nagusiek Aita Larramendiri eskuratu bere iritzia eman zezan. Nola hartuko ote zuen? Hasi eta berehala honela dio:

«Jakin ez ecen, iracurri ere badet órrez ta ártetaz zure escuscribatua: eta icusiaz ta erabilliaz, are gueiago ezagutu det lan onén anditasuna. Gáyari banagóca bătetic eta béstetic hizeúntzari, baderitzat, guezurtatzen dituzulá Erdáldunen ta Euscáldunen ustéqueta charrac ta deseguiten ta ayenatzen gucien lausóac ta lli-luraménduac».

Dudan gelditu bazarete alde ala kontra ari zaion, entzun gutxi hauek: erdia eta laurdena ere aldatzea ezina baita. Entzun ia bukaerako hitzok:

«Aterázazu béráz zure libru hori, eta len baño len banaezazu Euscalerrietan; batézere non eta Jesúsén ballerá sántuac jasó dituzun, ta lenágo jasoac ceuden. Iracurricó dute alá Eleizetan nola echéetan, eta Eusqueraz utsic daquitenac ta Gaz-

telania arrastaca báicican eztaquitenac ere, naico dute beñ baño gueyágotan aditu, icasi eta gogoán sartu hitzéz predicatú ciniena ta oraingótz bearbadá azturic daucaten»

Ederra bi azken perpaus hauen lotura! Gutxitan ikusi da hainbeste laudorio eta gorapen batera! Bistan da Larramendik adiskideki eta gizonki jakatu zuela. Eta Mendiburuk? Gaur ere maiz egiten den bezala, Larramendik zentsuratu duen liburuari berak ezarri dio hitzaurrea –bi zati eder oraintxe entzun ditugu–; halaber Mendiburuk bere liburuari bi orrialde luzeko hitzondoa ezartzeko eskubidea duela iruditzen zaio –hik hitzaurrea eta nik hitzondoa!–, eta Larramendirena bezain txinpartatsua eta goragarria ez, baina bai zinezkoa eta bihotzekoa. Entzun:

«Aita Manuel de Larramendiren zerbait berri badezu: baina zembat gizon andi oni zor diogun Euskaldunak, ongi beintzat, ez dakizu. Zori onean utzi zituen Valladolidko ta Salamankako katedrak, baita Españiako Erreginareen konfesionarioa ere. Horiek utzi ta bere Aita San Ignazioren etxera bildu ez balitz, ezin egin zitzakean agertu dituen euskararen gainezko bere bi liburu andi ederrak. Nere esanak zerbait balio badu, esan dezaket (eta ez dut esaten bihotzean dadukadana baizik), ez nuela uste jayo edo jayoko zela, onek orietan ta lenago atera zuen *Euskararen ikasbidezko* libruan egin duena egin zezakeen Euskaldunik. Orain Aita Larramendik egin duena egin balu norbaitek orain mila urte, dadukanetik beste itxura izain zuen gure Euskarak. Badugu bizi garanak, eta izain dute gure ondoakoak nondik atera bear den guzia edertzeko ta apaintzeko euskarazko hitzkera leuna. Ondasu hau guziok zorko diogu Aita Larramendiri.

Nik besterik ere zor diot; bada Jesus maiteak nai izandu du zerbait arindu ilunsko zegoen nere bihotza Aita onen eskuz. Beldurrak nengoen Euskararen ta Jesusen Bihotzaren Debozioaren galgarria izan zedin nere liburu hau; aguertzeko zegoenean artu dut Obispo Jaunaren Lizenzia ren ondoan dagoen Aita Larramendiren karta: ta hau irakurtzearekin aienatu dira nere beldurrik geienak. Artu nuenean esaten zitzaidan ager nezala liburuarekin batean, ta zetorren bezala. Esan hau egitea zerbait kostatu zait, bada ikusiko dezun bezala badaude an lotsatzen nauten ta ez dagozkidan zenbait gauza, baina gal ez ditzatzun ango erakusteak eta gauza onak, egin dut azkenean. Kontuz irakurri zazu, ta siñistu zazu, geiegi nai ez balit, ezin esan zitzakeala nere fabore esaten dituen gauzak. Besteak artu itzazu ta egizu oriekin aditzera ematen dizuna».

* * *

Ez dirudi andoindarra haserre gelditi zitekeenik, halako ordain ederreko erantzuna harturik. Ezin uka estimatzen zutela elkar bi gipuzkoarrok. Hala izango al zen urte batzuen buruan? Larramendi bere neurri gabeko arazoetan –ia beti Gipuzkoakoetan– nahaspildua zebilen eta Loiolako txokora itzultzen zenean, bere *Corografía*, *Autobiografía*, *Fueros de Guipúzcoa* eta beste zenbait idaztitan/liburutan murgiltzen zen. Azken arte izan zen, ordea, jesuitek argitaratzen zituzten liburuen aztertzaile.

Mendiburu bere aldetik Iruñera itzuli zen Loiolatik eta eskolak ematen aritu zen, eta lehen bederatzirte bezala, orain beste bederatzikoa bi sail eman zituen irakasten. Horiez gainera ez zen nekatzen liburuak idazten eta beste bost edo sei egin zituen, hala nola *Otoitz-gaiak* (1759), *Jesusen amore-nequeei dagozten...* (1760), *Euscaldun onaren biziera* (1762), etab.. Zer esanik ez, lehen ere egin zuen bezala, misioak etengabe eman zituela Nafarroan batez ere, baina Gipuzkoan ere bai eta are Iparraldeko zenbait herritan. Hirutan esaten digu berak, nahiz eta ez digun esaten non. Baita Mariaren kongregazioak sortu ere, batez ere beste herrietatik Iruñera zerbitzatzera joaten ziren neskak.

Gauzak geroago hasten dira bien artean sumintzen, eta guztia, dantzei buruz Mendiburuk idatzi zuen beste liburu bategatik eta Larramendik epaitu zuenagatik. Ia-ia pardelak prestatzen ari ziren Carlos III.ak jaurtikita erbestera joateko. Bestela esan, Mendiburuk idatzi zuen azken liburua zen eta mila zazpiehun hirurogeita bostean –lehen Larramendiri buruz halako laudorioak entzun genizkion harengandik hona hogeirte baizik igaro ez direnean– aita probintzialari gutun bat idazten dio haserre bizia azalduz, Larramendiren azken epaia edo erabakia edo asmoa ezkutatu diolako: ez diola, Larramendik alegia, inola ere utziko argitara ematen aldatu eta bigundu gabe halako liburua, hain dotrina estua seigarren aginduko bekatuez eta dantzez ematen zuena. Larramendik ez zekien gauzak isil-misilka esaten eta bere zentsuran hitz hauekin tratatzen zuen Mendiburu:

«requemado, hijo de oiarzun, duro de juicio, temoso ruin, hoy-más-furioso-y-rabioso-que-nunca, transportado o loco que necesita volver en sí; oiarzuar isitia, buru gogorra, setoso charra, iñoiz-ere-baño-sutuagoa-ta-amorratuagoa-zaudena; zentza zaitez, bada».

Liburu lodia zela badakigu, dantzen kapitulua 699. orrialderaino iristen zela esaten baitugu, eta Mendiburuk ezin izan zuela berekin eraman desterrura. Ez dakigu, aldiz, non galdu zen edo zer gertatu zen hartaz, Carlos III.aren soldaduak jesuita guztiak bahitzeko hirian sartu zirenean. Bestalde bihotz oneko gizona zela ez da dudarik, nagusiari idatzi baitzion esanez, nagusien baimenik gabe ez zuela nahi letra bat ere inprima zedin. Azkenik Larramendiren osasunaz honela diosku:

«se halla hace seis meses tullido de piernas y con la proa de sus pensamientos vuelta hacia la eternidad».

* * *

Parentesi luze baten ondoren Kardaberazengana gatoz berriro. Larramendik eta Mendiburuk behartu gaituzte aurrena beren historia kontatzera, hirurak urte hartan Loiolan zirenez gero. Hura 1745-46an izan zen, baina orduko Kardaberazek Hirugarren Probantza Valladoliden bukatzean, Bilboko kolegiara joateko destinoa hartu zuen (1731-1734) eta lau urte osoak han egin, ikasleei eskolak ematen. Handik Iruñera, La Anunciadorakora eta hemen bi urte bakarrik

egin. Lehen udan misio bat eman zuen gaztelaniaz eta hiru euskaraz. Sermoi solteak Artziniegan, Bilbon, Donostian, Hernanin, Bilboko Begoñan. Urte horretantxe fama handikoa gertatu zen Lekeition eman zuen misioa, non orduan Jesusen Lagundiak kolegio txiki bat baitzuen herriko parrokiaren ondoan.

Corpus Christi / Gorpuzti / Bestaberri egunaren zortzigarren eguneko sermoia sona handikoa izan zen Bilbon eta oihartzunak luzaroan entzun dira toki askotan. Mila zazpiehun eta hogeita hamahirua zen. Egun horretan aita Kardaberaz bestetan baino goi-argi biziagoz igo zen pulpitora eta San Andresko elizan egin zuen predikua Jesusen Bihotzari buruz, Bilboko Udala bertan zela; Espainia guztitan lehenbiziko aldiz egiten zena izan zen.

* * *

Gazteago zenean ere ikusi dugu osasuna ez zuela oso sendoa. Orain aitzaki horrekin sendagileek 1734ko eta 1735ko udak Hernanin eta Donostian pasarazi ez ezik, aita Probintzialak bi urte Azkoitiko kolegiara igortzen du batez ere sermoiak egiten eta konfesioak entzuten aritzera, non jasan baitzituen barne-bakardade eta ilunaldi izugarriak.

Orduantxe ari ziren, 1736-1739an, inguruko langileak eta ez hain ingurukoak, baita Oñati bezain urrutikoak ere, bere gogoz hogeï edo hogeita bost egunetarako Loiolara basilika eraikitzen laguntzera etortzen, eta 1738an inauguratu zen basilika berria. Aita Agustin (Kardaberaz) misioak ematen ari zen etengabe Bergaran, Elgetan, Elgoibarren, Elorrrion, Oñatin, Eibarren, Mungian, Erandion, Munitibarren, Tolosan, Pasaian, Zaldibian, Zornotzan/Amorebietan, Getarian, Berrizen, Lizartzan, etab. Erraza da aipatzen, baina misio batean inor izan zenak, badaki nolako jipoia zen hura! Zinitz nagusiak deitzen zirenak –lau bototakoak, alegia– 1739ko otsailaren bian egiten ditu eta bertan Oñatira doa bi urterako destinatua Moraleko Kasuen irakasle. 1740ko oporretan, udazkenaren hasieran, misio handi bat eman zuen Azpeitian.

* * *

Zenbait euskaltzainen artean zenbait aldiz eztabaidatu izan dugun puntua egin genezake hemen ere, eta orain arte esandako kontu guztiak baino luzeagoa aterako litzaiguke, baina ez dugu astirik. Aita Lopetegik dioen hartaz ari naiz: ‘irudi dakiguke harrigarri nola hainbeste urte Castillan eman ondoren gordetzen zuen euskara, bere lagunetatik asko hizkuntzaren ezaguera galtzera iristen ziren bitartean, eta zer esanik ez, agerian ezin mintzatzera eta sermori ezin egitera. Eta Hernanin igaro zituen hiru hilabete haiek lagunduko ziotela dudarik gabe, esaten du, lehendik zekiena gogorarazten. Karta batean ere esaten zuen aita Kardaberazek:

«misioetara iretzeak ematen didan poza bezain handia da hartu behar izan dudana lana trebatzeko euskaraz itzultzen eta apaintzen hogeï orrialde baino gehiago, eta hori erdia baino pixka bat gehiago baizik ez da».

Beste batean hau: Beste gutun batean:

«Aintza Jesus maiteari, nahi izan ez zuelako niri euskara ahaztea: hau da elizkizunak eta sermoiak egin ditudan lehen aldia. Egia da mutikotan nik nekieleuskaraz ongienik eztabaidarik gabe, ez bainekien besterik, baina ez nuen inoiz misiorik entzun eta ez nintzen Lagundian ere hitz egiten saiatu. Eta horregatik denak harrituak zeuden ikusirik ene erraztasuna eta aisetasuna, esateraino dakite-nek berek ez dutela beste inorengan ikusi».

Nahi gabe ere Larramendiren beste hitz haiek datozkigu gogora:

«...me dediqué a aprender el bascuence.....» (*)

Gero dio:

«Todos los que salen fuera de este país ...han aprendido a hablar solamente dialecto de su tierra ... y por el ningún uso aun ése se les olvida con el tiempo. Esto me sucedió a mí como a todos los demás y me fue preciso renovar las especies del bascuence, imponerme primero en mi dialecto guipuzcoano y después en los otros...»

* * *

Baina lot gakizkion berriro Kardaberazi. Misioak ematen jarraitzen du etengabe eta kongreraioak eraikitzen. Eman zituen zenbaiteko aktak ezagutzen dira: Elorrio, Berriz, Zornotza/Amorebieta, Markina, Leza, Munitibar-Arbazegi-Gerrikaitz, Ataun, Abaltzisketa, etab. Askotan beste jesuita batek lagunduz ematen zuen misioa ez leher eginda akabatzeke; hala aipatzen dira Jose Zubimendi, azpeitiarra eta Tomas de Guridi, lehena Kardaberazi eta bigarrena Mendibururi laguntzen, lehena Hondarribian eta bigarrena Mutrikun. Esan dugu 1740an eman zuela misio bero bat Azpeitian eta gero ere segitzen du, neke seinale handirik eman gabe, Gipuzkoa guztian barrena, Bizkaiaren zati handi batean, Nafarroan eta are Araban misio bakar batzuk ematen. Geroztik guztiz Loiolan bildua bizi izan zen, gorputzeko oinazeak, buruko minak eta erreumak ere bizitu egin baitzitzaizkion. Orduko emanak omen zituen 100 misio baino gehiago, erraz esaten da!. Ez zion utzi halere Loiolako etxe barruan lagun talde txikiago edo handiagoei Gogojardunak emateari, hala gizonezkoei nola emakumezkoei, haien kontzientzien direkzio pertsonala bere gain hartzen zuela. Esan daiteke geroztikako Gogarte Etxea deritzanaren sortzaile bera izan zela. Garai horretakoa da (1745), esan dugun bezala, jada hamaika bider aipatu ditudan hiru jesuita famatuek Loiolan elkarrekin eman zuten urtea.

* * *

Hortik aurrera hasten da Kardaberazen bizimodu berria eta azken etapa. Loiolan bizi da ia erabat. Baina ez da Loiolan bakarrik bizi, baizik Loiolako azken urte hauetan bizitzen eta arintzen zaio ordu arte gelditua eta lo gisa edu-

(*) Larramendiren Hiztegi handiak gauza txar bat du, ez duela sekula datarik ematen.

ki duen eskua. Artean ez zen haren liburutik ezagutzen, non ez den hiru jesuiten artean Burgosen egina, Euskal dotrinatxoaz zeritzana. Ezagutzen ditugun gainerako guztiak geroagokoak dira. Aita Lopetegik «escritor nato» izan zela esaten du, baina abagune jakin batzuek eta batez ere bere apostoladutzako gogo biziak esplikatzen duela liburuak argitaratzen izan zuen atzerapena. Erlijioso egin zen bezain laster hasi zen bere barne bizitzako fenomenoak anatatzen. Literatura gizon izateko grinarik ez du, hori ez; baina horrek ez du esan nahi ez zituela ezagutzen humanista on baten gramatikako eta erretorikako legeak, bere *Euskeraren berri onak* liburutxoan azaltzen duen bezala. Hori bai: helburu praktikoa da berea, ez estilistikoa, aztertzaileei behin eta birritan esaten dien bezala, haiek Kardaberazek huskeriak deritzanak zuzentzen dizkiotenean:

«Aunque por ahora salgan estas cosas con muchos defectos en todo, como VV. RR. me aseguren en lo principal que mira a la doctrina sana y segura, lo demás me da poco cuidado y pena».

Eta hau ere bai:

«Si... gustase V. Rev. borrar lo que quisiere o que yo lo borre, lo haré con gusto, por dársele; pues como yo logre el fin de sacar algún bien de las almas, nada se me da que sea por este camino u otro, por este medio u otro».

Larramendi Kardaberazekin errukigabea dela esatera nindoan idazten dituen santukeria batzuk sartzen dituenean, baina ez, zinezko errukia eta maitasuna diola uste dut, nahiz batzuetan bereak eta bi esaten dizkion:

«Mal dicho, Cristo sufrió los tormentos, no se dió a su cuerpo». «No hay tal, de dónde lo sabe?». «Para qué son devociones mal fundadas?».

Kardaberazen erantzuna: «*No están mal fundadas*».

Ez ahanztz, izan ere, Kardaberazek *Acto Mayor* egin zuela nota on-ona atereaz eta teologia bazekiela, baina Larramendik askoz gehiago, zeren besteen teologiako lau urteak bukatzean, hiru gehiago ikasarazi baitzizkioten *Perficít* gisa –orduan *Colligit* deitzen zuten– irakasle heldu baten laguntzaile lanetan jarduteko eta bera egun batean Fakultateko irakasle izateko. Eta iseka dirudi, baina gertatua da: Kardaberazek aingeruei buruz egin zuen *Acto Mayor* hura; bada behin liburuxka batean horietaz ari zela, Larramendik hau bota zion aurpegira:

«Según la común sentencia, a san Gabriel se le encomendó todo lo que toca a la Encarnación. Quítese lo de esotros ángeles!».

Baina Kardaberazek ere bazekien erantzun sistariak ematen. Pasarterik ezagunena eta ederrena, nahiz eta luzeena, Larramendiren zuzenketez aspertuta, Kardaberazek aurpegira hau jarki zionekoa dateke:

«Pido perdón y tengo voluntad de enmendarme. Mas no prometo el acierto, por falta de conocimiento práctico y a lo menos actual advertencia. Son muy

pocos los que con rigor saben el bascuence según toda su extensión en nombres, verbos y la rarísima armonía de sus conjugaciones, ni yo soy de estos pocos, y acaso será V.R. solo, y no ay más. Si con reñirme más, más de gana, pudiera V. R. infundirme o meterme en esta mala y dolorida cabeza parte de su noticia y conocimiento de todo el bascuence, me haría un favor inestimable. ¡Válgame Dios por Maestro! Ya preguntaré algunas dudas sobre los artículos con varios nombres. V.R. que ha escrito a la maravilla y tantos libros sobre el bascuence o del bascuence, ni uno ha escrito en bascuence. ¡Ojalá hubiera escrito muchos y muchos sermones y aun más doctrina! Nos hubiera hecho a todos otro favor mayor y nos hubiera enseñado prácticamente a hablar, escribir, etc.»

Zati antologikoa!

* * *

Larramendik ez bezala, Kardaberazek dozena bat liburu idatzi zuen euskaraz. Hala modukoak, esango du norbaitek. Esan dugu erbestera abiatu baino sei urte lehenago arte ez zela hasi liburuak idazten eta ez zuela inoiz izan literatura bikaina ereiteko asmorik, baizik arimen ongia iristekoa:

«...como yo logre sacar algún bien de las almas, nada se me da que sea por este camino u otro...».

Argitaratzen zituen liburuen saltzaile eta banatzaile bihurtu zen, gainera, gure garaietako aita Placido Mugika bezala, bere kristauei on egiteko asmoz. Baina asmo garbi hori ere ez zion opa izan Madrilek, zeren desterrura abiatzeko ia bezperan, 1766an, Arandako Condeak eragotzi egin baitzion argitaratzea San Inazioren bizitza:

«Oraindik espetxean daude inprimatzaile batzuk»,

idatzi zion zenbait hilabete geroago iloba batek. Arandako Condeak berak debekatu egin zuen bizpahiru hilabete geroago liburutxo hori argitaratzea euskara ez zen beste hizkuntzetan ere.

* * *

Kardaberazek berak argitaraturiko bederatzi aipatzen ditu Aita Lopetegik. Hona batzuk:

- A) *Kristauaren Bizitza*, 1760.
- B) *Euskeraren Berri Onak*, 1761.
- C) *Aita San Ignazio Loiolakoaren Ejerzizioak*, lau obra, 1761.
- D) *Doktrina Kristiana edo Kristiñau Dotrinea*, 1762 (?)
- E) *Justuen ispilu argia*, 1764.
- F) *Jesus, Maria ta Jose*, 1764.

– G) *Senar emazte batzuk*, 1766. Horiez gainera bere bizian argitaratu ezin izan zituen beste lauzpabost.

* * *

Bi gauza ageri dira azken lerro hauetan. Bat, Kardaberazaren obra guztiak azken sei urteetakoak dira; bazuen erraztasuna euskaraz idazteko. Bi: haren obrak irakurtzean ulertzen du batek nolatan Larramendik sastakatzen zituen Kardaberazaren obrak teologiaren aldetik, ez ordea hizkuntzarenetik; aitzitik, nola alde horretatik ez zien behin ere zuzenketa txikiarik ere egin, erraztasuna izan ez ezik euskara zuzen eta jatorraren jabe baitzen.

* * *

Bukatzeko bi hitz haren heriotzaz. Loiolan bahitu zuten beste hamalau lagunekin batera 1767ko apirilaren bitik hirura bitarteko gauean. Hamahiru hilabete lehenago hil zen Larramendi. Hobe! Ez zuen desterruaren erresuminik ezagutu. Oñako mendixkara etxearen solairu gorenetik begira 1766ko urtarriaren hogeita bederatzian. Ongi hiltzen laguntzeko alde banatan izan zituen Kardaberaz eta aita Mendizabal lekeitiarra, erretore jauna. Kardaberaz bere lagunekin eta Gipuzkoatik eta Nafarroatik gehitu zitzaizkien beste guztiekin 26 egun egon ziren Donostian desagokitasun handienaz, harik eta ez dakit non aurkitu zituzten bi itsasontzi sastarretan *Civitavecchian*, Aita Santuaren lurretan, jo zuten arte. Baina honek Carlos III.ari men ez egitearren, ez zituen hartu eta Corcegan bildu behar izan zuten. Hamazazpi egun zain egon ondoren, Calvira iritsi ziren mila zailtasunen ondoren. Aita Kardaberazek Genovako/Genoako gogarte-etxean aurkitu zuen bere kabia gaixorik eta 1770ko urriaren 18an hil zen. Goian bego.

HERRI LITERATURA

MARIJESIAK

Jose Antonio Arana Martija (*)

Etno-kantu laburrak aztertzea jarri da helburutzat Eibarren antolatu diren VII. Herri Jardunaldietan, eta egitasmoan sartzeko eskatu zidan aspaldi Juan Mari Lekuonak zerbait presta nezan Marijesiei buruz. 2002.eko urriaren 4an eta azaroaren 15ean egin zizkidaten butxikako eta aneurismaren ebakuntzek ezindua utzi ninduten eta ezin izan nuen eskatutako hitzaldia idatzi, baina laburpen bat bidali nuen egitarauan agertzen zen egun eta ordurako, eta haren bilakaera da gaurko hitzaldi hau.

Etno-kantu laburrak aztertu ditu Jabier Kalzakorta adiskideak, *erronda-kantuak* eta *eske-bertsoak* azalduz eta herri-literaturaren mota hau xeheki iker-tuz. Jardunaldien gaiak prestatzen ari ginela bion arteko akordio batera heldu ginen, hots, berak ikutu duen esparru orokorretik kanpo utziko zituela Marijesiak, nik literatura berezia bezala iker nezan herriaren —edo herri batzuen, behintzat— Gabonetako misterio hau. Hasteko esan behar dut etno-kantuak badirela, baina ez laburrak, doinuaren aldetik hala bada ere, osorik kantatzen direnean hiru doinu labur desberdin abesten baitira. Baina testuaren aldetik ezin da gauza bera esan, ahapaldiak lau lerro txikikoak badira ere, 109 ahapaldiko testua, 1891koa, nire artxiboan badaukat eta. Batzuetan bi ahapaldirekin bat eginda zortzikoa osotzera heltzen gara eta orduan luzeagoa gertatzen da —ez beti— musikaren euskarria.

Baserriz-baserrri edo kalez-kale hirian, egunez gazteak eta gauaz nagusiak, errondan kantatzen eskale ibiltzen dira *marijesiak*, kantariei ere izen hau ematen zaie eta. Baina izatez, eta literaturari dagokionetik, Gabon egunean edo aurreko bederatziiurrenean (herri gutxitan hau) kantatzen diren ahapaldiei deitzen zaie *Marijesiak*. Izen hau ohitura honi hemendik datorkio: Bederatziiurreneko lehenengo lau gauetan kantatzen diren ahapaldiei gehitzen zaie leloa: «Maria Jose...» edo «Maria Jesus...» Hemendik «Mariajesiak» edo «Marijesiak». Gero ikusiko dugunez, hurrengo lau egunetako leloak arazo gehiago sortuko dizkigu.


Erronda-kanta honi Gabon eta Eguberri aroa dagokionetik, neguko solstizioarekin batera datorrela ikusten da, elizak giro sakratua eman nahi izan dio-


(*) Oharra: Herri Literaturari buruzko Jardunaldietan irakurria, Eibar, 2002-XI-29.

lako naturaren giroari Jesusen jaiotza bertan jarritz Neguaren hasieran kantatzen dute marijesiek Belengo gertaera eta orduan hasten da erronda-kanten aroa, neguan Santa Agedaren errondara arte heltzen dena. Bi hilabeteko aroa dugu hau, zeinetan hainbat erronda kantu egiten diren. Azkuek 90 bildu zituen kantutegian, baina askoz ere gehiago daude argitaratu gabe artxiboan gordeak. Baina esan behar dena da erronda-kantu guztiak ez direla eskaleenak, badaudelako ezer eskatu gabe kristau mezua dakarkigutenak.


Marijesiei buruz ikerketa luzea argitaratu nuen *Dantzariak* aldizkarian (1979). Ordurako baneukan eskarmentua, haurtzaroan Muxikan bizi ginela kantatzen genituelako dozena bete bertso hango doinuarekin. Gero Balendin Enbeitari grabatu nizkion bertso horiek doinu eta guzti, jakina. Gernikara bizitzen etorrita (1950), urte batzuk geroago, hemengo nagusien taldean sartu nintzen bederatziurren batzuk eginaz. Doinuen desberdintasuna eta testuen berdintasuna frogatuz, Marijesiak aztertzeke gogo bizia nabaritu nuen eta orain ere jarraitzen dut herri literatura mota hau ikertzen. Jardunaldi hauen gaia denez, baina ezin luzatuz gehiegi lana, argitaratutakoaren laburpena egingo dut eta orain arte inoiz egin ez dudana, hots, herriz-herri bildu ditudan testuak eman. Marijesien antologia izango litzateke, dena den errena: doinurik ezin dut oraingoan eman, antzerakoak badira ere, ñabardura asko daudelako eta doinu jarriez gero liburu bat beteko genuelako.

Dena den, doinuei buruz, aurrera jo orduko zerbaitek baieztatu behar dut: Gernikan kantatzen diren doinuak askoz ere aberatsagoak dira, melismatikoa-goa, nota gehiago dutenak, hiriko kantari kultoei aldatuak. Ez diot hobeak direnik. Albo herrietakoak sinpleagoak dira, arkaikoagoak, musika eskalan laburragoak eta melisma gabekoak. Hara bi adibide:

Muxika  A bendu Santu-honetan

Gernika  Abendu San tu hone - tan

Muxika  E guzkidi bi na la

Gernika  E guzki di binala

Doinuaren aldetik arkaikoagoak dirudite Muxika eta albo herrietakoak, zaharragoak beraz. Hala diosku Balendin Aurre Apraiz ajengiztarrak: «Gernika'ko Marijesiak deritxoe batzuk, baina ez dira Gernika urikoak bakarrik, inguruko errietan be abesten dira, edo abesten zirean, beintzat, eta urian barik

albo-errien baten sortu ta geroago Gernika'ko urira eroanak daitekez, antza denez» (1).

Ez nator bat «Aurraitz» gure olerkiariarekin eta hori frogatzera datoz hurrengo lerroak. Egia da zaharragoak direla albo herrietakoak, baina ez du horrek frogatzen ohitura zaharragoa denik, doinua hirian gehiago aldatu dela bai-zik. Marijesien jaiotza data aurkitzeko mota literarioari begiratu behar diogu gehiago, doinua beti izan delako testua memorian gordetzeko lagungarri, edozein testu, sortze eta mota desberdinetako testuak hain zuzen. Doinu berdinarekin kantatzen dira testu, bertso, olerki desberdinak. Goazen, labur bada ere, nire teoria aztertzen eta azaltzen.

Literaturak dauzkan motetan, zein da Marijesiei dagokiena? Sailkapen hau egiteko, oinarritzkoa dugu literatura idatzia, eta hobe argitaratua ezagutu. Ondo dakigunez, herri literatura ez da berandu arte inprimatzen eta izendunen egileak ere ez dira agertzen XVI gizaldira arte, gure artean Etxepare eta Leizarraga, adibidez. Eta herri literatura ez da agertzen, idatzia edo inprimatua, XVII. mendera arte. Hasieran hiru literatura mota nabarmentzen dira gure eta inguruetako literaturetan: bilantzikoa (hasieran Gabon kanta ez dena), erromantzea eta antzerki erlijiosoa. Hauetatik zeinetan koka dezakegu gure Gabonetako misterioa?

a) Bilantzikoa

Gaztelaniazko *villancico* hiriko kanta laburra da («pequeña canción de villa»), italieraz *villanella* eta frantsesez *voix de ville* edo *vaudeville*. Oraingo literaturan, Gabon Kantak adierazi nahi direnean, Noel, Nadal, Christmas Carol eta beste antzerako hitzak erabiltzen dira. Gabon kutsu hori hartu baino lehen agertzen diren bilantzikoak XV. mendekoak dira. Garai hartako Kantutegietan agertzen dira, lehendabizikoa delarik 1445ean azaltzen den Juan II.aren gortean Juan Alfonso de Baenak idatzia. Baina bilantziko izena ez da azaltzen 1870 urtean agertu zen *Cancionero Musical de Palacio* (1460-1504), Francisco Asenjo Barbierik 1890ean argitaratu zuena eta, berriz, Higinio Anglesek 1947an. Baina oraindik ez da azaldu Gabon giroa kantutegietan. Gabonetako misterioa lehendabizi azaltzen duen liburua Lope de Sosa-ren *Villancicos de Navidad* da (1603). Baina gure Marijesiek ez dute zerikusirik bilantziko hauekin, zeren lehen erakoak edo Gabon girokoak izan, egitura desberdina dute. Bilantzikoak bizpahiru lerroko bertsoak dira eta gai berezi bati lotuak; marijesiak, oster, lau lerroko bertsoak dira, bakoitzari lelo berdina atxikitzen zaiolarik, eta gaia luzea da, hots, munduaren sortzetik Jesusen jaiotzaren ingururainokoa. Hegoaldeko bilantzikoekin baino antz gehiago dute iparraldeko koplekin. Begira ditzagun Joannes Etxeberriren *Noelak* (1630), lau lerroko kopletan eginak, baina lelorik gabe. Honetan datza desberdintasuna, nahiz eta eredu metrikoa baliagarria izan, noeletatik hartuta marijesientzat.

(1) AURRE APRAIZ, Balendin. «Marijesiak» *Karmel*, 1989-4, 191 zb. 103. or.

b) *Erromantzea*

Ia «romance» hizkuntzarekin batera (gaztelania) sortzen den olerki mota da, *erromantzea* deitzen duguna, hasieran edozein neurrikoa baina beti binakako lerroak asonanteak dituen. Marqués de Santillanak idatzi zuen *Proemio-an* (1445-1448) irakurtzen dugu lehendabizi literatura motaren izen hau: «Infimos poetas son aquellos que sin orden, regla ni cuento facen estos cantares e *romances* de la que la gente baja e servil condición se alegran». Baina badaude Errege Katolikoen gortean olerkari kultoak bertso mota hau darabiltenek: Carvajal, Rodríguez del Padron eta beste.

Baina gure literaturan ere erabilia izan zen eta da bertso mota hau. Juan Carlos Guerrak (2) erromantzea aurkitzen du *Urrexolako Kantuan*, 1388 urtean gertatutakoak kantatzen duenean, eta ganboatarren *Mondragoiko kantuan* (1445). Guerraren iritzi hau baieztatzen du Mikoletak British Museum-en gordetzen den *Método breve de aprender la lengua vizcaina* (1653) non esaten digun honako hau: «ordinariamente ay en nuestra lengua dos modos de versos, y entrambas se componen de assonantes como los romances de la lengua castellana, y a este simil, los llamamos nosotros *vasquenses*. Adibide bat jartzen digu:

*Amoren kontentuiak
estaude irauten,
kampoan lorak legez
dira galsaiten.*

Hamazazpi garren mendearen erdian badugu ba gaztelaniazko erromantzearen eragina gure herri literaturan. Badaude beste adibide batzuk ere. Badago ba, leloak kenduta, gure Marijesiak erromantze metrikan eginak daudela pentsatzeko arrazoirik. Baina metrikatik aparte aztertu behar ditugu beste ñabardura batzuk, zeinekin azaltzen zaigun Marijesiak ez direla erromantze hutsa.

c) *Antzerki erlijiosoa*

Ferrán de Fandok diosku (3) «la historia de los villancicos está arraigada en la misma entraña de nuestra antigua escena religiosa. Antzerki erlijiosoa oso eza-guna zen Europan XIV. mendearen azkenetik XVI. akabura arte. Antzerki honentzat *mystère* izena Frantzian agertzen da 1374an agerraldi dramatiko bati atxikia. Ehun urtetik gora igarota, agertzen dira Espainian 1496an Juan del Encina-ren antzerkiak. Hainbat izen desberdin ematen zaizkie orduko antzerkiei: dantza, farsa, egloga, coloquio, historia, representación, auto, obra, diálogo, tragedia, comedia, eta Frantzian miracle, moralité, mystère, vie, histoire, jeu, comédie.

Gabonetako antzerki erlijiosoari dagokionetik, Juan del Encinaren *De las grandes lluvias* (1496) da lehen agertzen den egloga. Gil Vicente portugesak agitaratzen du gero *Auto pastoril castelhano* (1502). Etorriko dira gero Lucas Fernández-en *Auto o farsa del Nacimiento de nuestro Señor Jesucristo*

(2) GUERRA, Juan Carlos. «Viejos textos del idioma. Los Cantares del euskera» EEA, 1921, 1922, 1923

(3) FERRAN DE FANDO, «Villancicos» *La Constancia*, 23.XII.1928

(1514), Baltasar Dias-en *Auto do nascimento de nosso Senhor Jesucristo* (1537), Jorge Montemayor-en *Auto de Navidad* (1547) eta Pedro Suarez de Robles-en *Danza del Santissimo Nacimiento de Nuestro Señor Jesu Christo al modo pastoril* (1561). Ikusten denez, misterio hauei izenburua emateko *Auto* da gehien erabiltzen den izena, gure XVIII. mendekoek erabiliko dutena, tartean Barrutia, *Auto de Navidad* ematen diguna, Montemayor-en izenburu bera erabiliz. Izan ere, Montemayor portugesa ezagutzen zuen Oihenartek, bertso-gintzako eredutzat hartzen baitu 1665.eko *L'Art Poétique* liburuan.

Gerorako utzi gabe, azpimarra dezagun aipaturiko antzerkietan, eta antzerki erlijiosoan, testua eta musika ezin direla banatu. Gehiago esango nuke: doinuak eta dantzak hain nabarmenak dira sarritan dantza eta kantuzko komedia bihurtzen dutela jatorriz antzerki erlijiosoa dena (4). Dena dela, musika beharrezkoa da komedian eta *lirika* barik ez genuke agerpena ulertuko, bat egiten badute hitzak eta musikak. Jatorriz antzerkia izan denak denboraren poderioz eskena itxura galtzen badu baina ahosko tradizioan koplen neurrian jarraitzen badu, ez du galduko testua gogoratzeko daraman doinua.

Del Teatro Litúrgico en el País Vasco (5) lan interesgarria argitaratu zuen Julio Urkixok, euskarazko antzerkia aurkeztu zela Lesakan 1566an jakin zue-nean. Albiste hau ematen zuen dokumentua gezurrezkoa zela salatu zuen Urkixok eta Lesakan antzeztu zena gaztelaniazko Diego de San Pedro-ren *Passion trobada* zela frogatu zuen. Dakigunez, urte berean eman ziren antzerkiak Bilboko Santiagoren elizpean, eta zalantzarik gabe gaztelaniazko antzerkiak izango ziren, 1599an eta 1603an Erreterian egin ziren antzerakoak edo Bergaran 1631n. Baina guri interesatzen zaigunetik, Urkixok dioskun hau da azpimarratzekoa: *Passion trobada* hori ez zela eskenan antzeztu eta agerpen teknikarik gabe, bertsoen errenkada luze moduan adieraztera eman zela. Baziren orduan beste antzerki gaiak monologo gisa adierazten zirenak, nahiz eta hizlari –edo hobe kantari– bat baino gehiago izan. Ondo datorkigu hemen Hérellek esan ziguna: «Toute poesie dialoguée a quelque chose de dramatique, même lorsqu'elle n'est pas destinée à la scene» (6).

Lehendabiziko euskal antzerki erlijiosoak inguruetako literaturetakoa baino geroago agertzen da, XVI eta XVII. mendeetan. Baina eliza barruan antzezten ziren agerpen erlijiosoak, laster atera ziren kalera. Izatez, antzezketa oso hasi-masia zen eta ia gai bakarrak Jaiotza eta Pasioa. Gai hauek euskaraz aspaldi erabiliak ziren, ezagutzen ez dugun Sancho de Elsoeren Dotrinatik (1561?) eta gero Betolaza, Otxoa Kapanaga, Juan Beriain, eta abar dotrinetatik. Beraz, gai hauetarako mintzaira egin zen eta posible Jaiotzari buruzko antzerkia euskaraz egitea eta ematea. Baina oztopo larria sortzu zitzaion euskal eliz antzerkiari XVI. gizaldiaren erdiruntz. Trentoko Kontzilioak (1545-1563) arau gogorak jarri zituen liturgiari buruzkoak eta elizetan egiten ziren antzerkiak debekatu zituen, nahiz eta erlijiosoak izan, agerpenak kaleratuz.

(4) HESS, Rainer. *El drama religioso románico como comedia religiosa profana*. Madrid Ed. Gredos, 1976, 87. or.

(5) RIEV, XXII, 1931, 150-174. or.

(6) HÉRELLE, Georges. *Le Théâtre comique*. Paris, 1925.

Dena den, badirudi Trentoko arauak indarra galtzen joan zirela, eta antzerkiak ez badira ere, bilantzikoak eta historia sakratua kontatzen zuten monologoak gero eta gehiago ematen hasi zirela eliza barruetan. Berriz etorri zen debeku berri bat, hots, 1749.eko otsailaren 19an Benedikto XIV.ak kaleratu zuen *Annus qui* enziklika non ematen zituen musika sakratuaz aginduak, eta hau soilik erabiltzeko baldintzak. Aita Santuak zabaldutako ildotik, Gaspar de Miranda Argaiz, Iruñeko apezpikuak, Gutun Eragingarria argitaratu zuen 1751.eko abuztuaren lean, non argi eta garbi elizetan sartuak ziren ohiturei eraso egiten zien: «Destiérrense de las iglesias todas las músicas, villancicos, minués, arias, representaciones y farsas que no consuenen con las sapientísimas disposiciones de nuestro Santísimo Papa Benedicto XIV» (7). Antzerako erabakiak hartu zituzten Euskal Herriko beste apezpikuek.

Baina badirudi halako arau eta aginduek ez zirela beti betetzen. Debequaren sasoi berekoa dugu Bilboko San Frantzisko komentuko elizan kantatu zen Jarabeitiaren Bilantzikoa 1755an. Eta gero eta gehiago ugaritu ziren Gabon Kantak, ez bakarrik Jaiotzarekiko debozioak eraginda, elizak berak aginduta baizik. XVIII. azken urteetan eta XIX.aren hasierakoetan eliza nagusietako kaper maisuek derrigorrean konposatu behar zuten, musika eta guzti, bilantziko bat. Baina gaia kalean ere bizirik zegoen. Ez dago besterik Pedro de Barrutiaren *Acto para la Nochebuena* gogoratzea baizik. Beraz dikotomia hau mantentzen zen bi agerpen mota iraunaraziz. Adibide inprimatu argia dugu Debako bertso-paper honetan: «Zortziko para Gabon para Iglesia y Calle» non ematen zaigun ezkerreko zutabea Marijesien antzeko testua zortziko txikian elizarako asmatuta eta eskuinekoan kalean kantatzeko eskaleen istorioa, Bergarako J. Undiano inprimatzaileak 1851n emana. (Hurrengo orrialdean)

Baina ez da zortzikoa gure Marijesiek jarraitzen duten metrika. Lehen aipatu ditut Etxeberriek noletan erabiltzen duen metrika, hots, lau lerroko koplak. Lehenagotik dator metrika hori gure literaturan: Francisque Michel-ek (8) ematen dizkigu *Clovis Tragédie* pastoralaren ahapaldiak, Marijesien antzera dutenek bai metrikan eta gaian:

*Adoratcen çutut Jauna
celuco erreguia,
celiaren, lurrean eta
gaiça ororen creaçailia
.....
O Virgina Maria Santia
balia çakitizat arestuosa
Jesus Seme Jaunaren
Cretcian, othoi, onxa.*

(7) HERNANDEZ ASCUNCE, Leocadio. *Musica y músicos de la Catedral de Pamplona*. II. Documentos inéditos, 23b-237. or.

(8) MICHEL, Francisque. *Le Pays Basque, sa population, sa lanque, ses moeurs, sa littérature, et sa musique*. Paris. 1857. 66-75. or.

edo *Maria de Navarre Tragédie* pastoralaren beste hauek, Michelek berak ematen dizkigunak:

*Oi Jesus dibinoa
zure amodioa
hain da garbia
hain da eztia.*

Ahapaldietan zatitutako erromantzea oso erabilia zela XVII. mendean dirudi, antzerkian sartua gainera, Lope de Vegak adierazten digunez. Gure Herriak 1615ean igaro zenean nonbaiten entzun zuen gero *Los ramilletes de Madrid* antzerkian sartu zuena:

ZORCICO PARA GABON para Iglesia y Calle.

Iglesia.

1
Jesus jayo zaigu
Goberniz beknen,
Adoratu deragun
Cristaue len leiti len
Erreguen antzera
Presenta gaitteen
Jesus adoratera
Honilqui viotzez.
2
Egorki-Ilargui-lar
Fandatu leño len,
Junguico Cernue
Erebequi zuen
Jesus jayotzia
Portal polre baton,
Doncella batzandie,
Admira gaitteen!
3
Religio Santaco
Misterio andia,
Jequintao gocienat
Da miragarria:
Marie guedlorie
Doncella garbiya,
Bemis eguiya,
Fuloco eguiya.
4
Articula fedeco
Ezin neatus,
Emeri guireklis
Claro prodatus
Eliza Ama Santac
Oreduan sartua,
Ezin duletuco dan
Milagro santua.
5
Berotasun gozo bat
Soreen antzera,
Jesuac botatzen du
Gure viotzera:
Gosotasun onequin
Urietis urtera
Gabon gabien gaitz
Aurra-alabatera.
6
Cernue lurra just
Ielen portalian,
Mundua beietzen du
Jesuacn graciyan:
Gueciyoc parte degu
Chit zeri onian,
Aprovecha gaitteen
Gabon arratsian.
7
Elisan juntatorie
Devoto antziyo,
Guizon-te Emacume
Zar gaste gueciyo:
Enaten ari dira
Jesus graciyo,
Jauzac paga ditza
Cernue gueciyo. Amen.

Calle.

1
Miragarrico aur bat
Gaberdi-onetan,
Cernue ditorquiga
Doncella batagan:
Capoi musico gaitz
Goratan beragan,
Musica jotzen degu
Aurten ere Devan.
2
Urtetean urtera
Abendu Abendu,
Jesuacn jayotz
Celebratzen degu:
Alabatu deragun
Uda eta negu,
Urte «bunlosa»
Aurten eman digu.
3
Chit goguan dautzagu
Igaco capoyac,
Ogneta lauan pasa
Cernuen gueciyo:
Larvica-asco onian
Jauzari gueciyo,
Cienlo caritativa
Du Deva gueciyo.
4
Adi bezate ongui
Negu «checo» andia,
Gabon limosna dala.
Cernuan jabe:
Sari eler onetan
Prestatzen ladebe,
Limosnarien begu
Jungo eguarade.
5
Caridades heterie
Mirabe bez jechi,
Limosnarien begu
Ezin degokitali
Capoy caritativas
Escuelan senti
Jauzac eman deitza
Ugalmentz beiti.
6
Echeco andre nagusi
Aur-eta victar,
Viotzatic graciyo
Gugan artu hitz:
Capoy ederra degu
Beito aro bitze,
Eguarri jay onac
Urten pasa bitze.
7
Eguarri jay onac
Espira ditugu,
Emaquiba bat capoy
Zecuan baltugu:
Ongui ongui errota
Jan biar ditugu,
Adios gende osoo
Gabon: baguac gu.

*Zure vegi ederro
en el Astana
cattiatu rik naue
libre ninzana*

«ene laztana» ulertzea erraza da ahapaldi honetan, antzerkian elakrriketan era honetara jarraitzen duelarik: «en baylando esta folia, diga una *çatoz*, *çatoz*, y respóndanle *çatoz* Andrea, *vay*, *vay* Andrea *çatoz* *enequin*, y otra diga *vay jauna*, y éntrense con regocijo» (9).

Erbesteko literaturan azaltzen zaigun euskal lekukotasun hau ez da bakarra. Askoz ere urrunago Mexikon errondan kantatzen zirela bertsoak badakigu, «Las Posadas de San Jose y la Virgen» deitzen zirenak Juan Irigoienek esaten digun eran (10). Mexikon gabiltzaneez, eta behar bada sasoi berean, Bergarako aita zuen Juana de Asbaje (Sor Juana Inés de la Cruz) olerkaria dugu (1651-1695) zeinek Arantzazuko Ama Birjinari zuzendu zizkion euskara daramatena ahapaldiak, honako hau esate baterako:

*Guacen galanta contigo
guacen nere lastana
que al cielo toda Vizcaya
has de entrar.*

Garaiaगतik bada aipagarria bertso hau, honi eta segidako beste batzuei leloa jartzen diolako da:

*Galdunaiz ¡ay! que se va
nere vici gucico galdunaiz.*

Non eta Mexikon aurkitzen dugu ahapaldi bati gehitutako leloa zeinek adierazten digun ez zirela erromantze edo ahapaldi monologatu hutsak, baze-goela beste antzezle edo talde baten erantzuna edo parte hartzea, antzerki xume baten adierazgarria, beraz.

Mexikotik irten gabe hara non agertzen zaigun bila genbiltzan bitxia. Jose Lezamiz, Mexikon bizi zen apaiz durangarrak argitaratu zuen 1699an liburu mar-dul bat, *Vida del Apostol Santiago* izenburuduna, non kopiatzen dituen Nicolas Zubiak, beste apaiz durangar batek, 1691n Donostian argitara eman zuen Dotrina baten zatiak. Zubiaren liburua ez dugu ezagutzen, baina bai zorionez Lezamizena, Mexikoko Biblioteka Nazionalean gordetzen dena (11), Lezamizen liburutik ateratzen ditugu Zubiaren «Coplas a la Encarnación, y Nacimiento de Nuestro Señor Iesu Christo». Bi zati ditu testu laburrak: 1) Sei ahapaldi gaurko Marijesietan kantatzen diren berdin-berdinak; 2) «Coloquio entre los Pastores». Hamazazpigarren gizaldiaren azkenean topo egiten dugu Marijesien antzerkiarekin.

(9) LEGARDA, Anselmo de. *Lo vizcaino en la literatura castellana*. San Sebastián. Biblioteca Vascongada de Amigos del País. 1953. 161. or.

(10) IRIGOIEN GERRIKABEITIA, Juan. «La Navidad hogareña. La intxaursaltza y el zurrapapote» *La Gaceta del Norte*, 25.12 1952.

(11) Ikus *Dantzariak* aldizkarian, 1979, 37. orrialdeko oinoharra, 39.enean jarraitzen duena. ARANA MARTIJA, Jose Antonio. «Euskara dakarren XVII. mendeko liburu bat Mexicon». *Euskera*, 1979 - 2, 759-765. or.

COPLAS ✠ A LA ENCARNACION, Y NACIMIENTO de Nuestro Señor Iesu Christo. ✠

GAU ON SANCTU ONETAN
Jaunaren iaia cezan
pozgarugaitcan
gustioet mitorzean.

Ne garrez dago on
aimbat urtean,
Jauna ia fizaitz
ceruetarean.

Aita Adam eguinzan
lunauen ganean,
becatu eguin eta
iaulizan arcan.

Doncella ederbatec
Belengo errian
seña Iesu Christo
dauco fabelean.

Limboan egoan
bost mila urtean;
Jauna ia fizaitz
ceruetarean.

Eguzqui Druinala ✠
gauerdia hanean
etorrian lurren
guizonen soñean.

Coloquio entre los Pastores. ✠

Machinkito
cerdio Chetu?
atañe onat:
ce bari togu?

2. Baridoguce,
Angueru mila
gure mendicie
iragodira.



Nicolas Zubiaren jaioterria ezagutzen dugunez, nonbait Durangaldean kantatzen edo antzezten ziren koplak izango ditugu Lezamizen bidez ezagutu ditugunak. Baina gure egunak arte heldu diren orduko koplek ez daukate lelorik. Eta orain errondan kantatzen direnak leloarekin ematen dira. Lau lelo desberdin agertzen dira nik dauzkadan testuetan:

1. 1891: Jesukristo,
Geure Jauna da jaio,
Jesukristo.
2. Jesukristo.
Ay qué bonito es el niño,
Jesukristo.
Edo honen itzulpena:
Ai ze polita da
Jesukristo.
3. Seber Altubek sartu zuen aldaera:
Jesukristo.
Adoratzan zaitugu
Jesukristo.

4. *Segundo Olaetak sartu zuen aldaera:**Jesukristo.**Benetan maite zaitugu**Jesukristo.*

Zubiaren testuan lelorik ez bada agertzen, ezin dugu esan orduan antzerki moduan ez zela azaltzen jendaurrean. Aipatu sei ahapaldi agertzen diren orrialde berean artzainen arteko elkarrizketa dator, argi ematen duena antzerki eran azaltzen zela misterioa eta ordurako, hamazazpi garren gizaldian eliza barnean. Orain ez badira artzainen kanta edo elkarrizketak erabiltzen, orduko antzerkietan bai. Barrutiaren *Actoan* Beltran, Lorenzo, Gabriel, Tomas eta Aritxabal artzainak dira. Sor Luisa de la Misericordiak (Peñafloridako kondea) Tersis eta Filis artzainak sartzen ditu *Gabon Sariak* antzerkian. Gernikako Sebastian de la Gandararen Gabon Kantetan (1757 e.a.) Perico, Joanico eta Anchon artzainak agertzen dira. Urdaibai-Larrabetzuko Marijesietan «Cantos pasoriles» ematen zaizkigu, lelo luze batekin gainera:

*Pentsamentu onequin guasen Belenera**Jayo dan Erreguia an adoratzera,**Atensio osoas joaten baguera**Orain da gero beti Jesusen aldera.*

Zubiaren antzerkian (1691) bi artzain agertzen dira: Machiniquito eta Cheru.

Beste lelo batzuk ere badaude Marijesietan. Izatez, musika aldetik, hiru zati dituzte Marijesiek, eta bakoitzari dagokion testuak lelo berezia dauka. Lehen ikusi ditugunak, aldaerak dituztenak, bigarren zatiarenak dira. Eta lehenengo zatiari dagokiona, misteriori izena ematen diona, honako hau da: «Maria Jose; Jesus Maria», Gernikan, edo «Maria Jesus; Jose Maria» beste-herri batzuetan. Hirugarren zatiari lotzen zaion leloa denetan da berdina: «Bart Belenen, ta bart Belenen, jaio de Jesus Nazaren».

Urdaibaiko Marijesietan beste jatorrizko antzerkiaren aztarna dugu: artzainek, bat edo taldea direlarik, bakarlari edo koruan parte hartzen dute misterioaren jarraipenean. Sigla batzuk datoz lerroen aurrean: Es. = estrofa ; Ti. = tiple; To. = todos; S. = solo. Eta antzerki eran antzezleek kantatzen dutenaren bitartean, txertatzen dira «A coro» (a capella esango genuke gaur) abesten dute, adibidez:

*Ay se arco ederra**dator gure gana**atoste bera ikustera.**agudo Belena.*

Orain errondako kanta dena hasiera baten antzerkia izan zela baieztatzen digute aipatu elkarrizketa kantatuak, aldrak kantatzen dituen leloak eta bilan-

tzikoak, misterioan txertatuak eta amaieran aurkezle batek ematen dion akabukoa:

*Berri ederrak, zoragarriak,
gozotasunez beteak
entzun ditugu gaurko gabean
bai nere gente maitea.*

«Jende maitea» jendaurrean aurkezleak emandako amaiera horrek adierazten digu berri ederrak entzun eta ikusi ditugula antzerkian, artzainen agerpen gozoaz bukatua. Antzerki horrek hiru atal izango zituen, musika desberdinekin hornituak, lehen esan dugunez. Lehen atalak mundua sortu zenetik Jesusen jaiotzaraino gertatuak kantatuz erakutsiko zituen. Bigarren zatiak jaiotza bera eta erregen istorioa emango zuen, beste doinu batekin azalduz. Eta hirugarrena, artzainen bisita eta poza ematen ziguna izango zen. Hirurehun urte bizirik iraun duen misterio honek ahapaldien ordena aldatzen ikusi du, baina ez hiru doinuak, nahiz eta hauek ere melodian aldaerak izan. Baina bederatziurrena egiten den herrietan (Gernikan, esate baterako) hiru zatiak eta hiru doinu desberdinak irmoki mantentzen dira. Lehen doinua kantatzen da abenduaren 16an, goizeko lauetan hasita, 19garren goizaldiraino. Beste doinua 20tik 24ra doazen goizaldietan. Eta 24an, bigarren erronda baten, hirugarren doinua.

Badaude oraindik bizirik beste planta edo keinuak hasiera garaiko antzerkira daramazkigutenek. Hasieran, Andre Maria elizaren aurrean, eta edozein eliza aurretik pasatzen denean, geldi eta belaunikaturik, *Sakramentu santu Jauna* ahapaldia kantatzen da. Kantari bakarlaria ez da taldearen barruan sartzen, bospasei metro aurretik doa, protagonista agertuz misterioaren agerpenean. Bakarlariak aukeratzen du zein izango den kantatuko den ahapaldia, eta lehenengo bi lerroak berak bakarrik kantatzen ditu, koruak beste bi lerroak eta leloa abestuz. Erronda ez da ordu terditik gora luzatzen, gutxi gora-behera hori izan zitekeelako antzerkiaren iraupena. Hiria handitzera joan arren, ez da luzatuko erronda, aukeratzen diren kaleak iraupenera egokitu baizik.

Hainbat tokitan kantatzen diren Marijesien testuak emango ditut. Batzuk haurrek egunez kantatzen dituzte. Beste batzuk gauaz nagusiek. Bederatzi egunetan kantatzen direnak gutxi dira, normalean abenduaren 24an abesten baitira. Badaude tokiak non Marijesiak ez diren kantatzen baina aztarna xume eta laburrak bilantziko eran gordetzen dituzte. Bildu ditudan guztiak ezin baditut eman, luzeegia gerta ez dadin nire hitzaldi hau, hiru zatitan bananduko ditut eredutzat hartzen ditudanak:

1. Gernikan kantatzen diranak, inprimatuak edo eskuizkribuak.
2. Beste herrietan kantatzen direnak
3. Marijesiek zinikusirik duten toki batzuetako aztarnak.

1. GERNIKAN KANTATZEN DIRENAK

Lehen puntuan, konparaketak egiteko, Goitia moldiztegiak 1919an inprimatu zuena emango dut eta jarraian, testu bera harturik eta ortografia aldatuz, doinu eta guzti Gaubeka inprimatzaileak 1951an kaleratu zuena. Gero emango ditut beste testu batzuk, 1891ko daukadan zaharrenetik, baina luzeenetik hasita. Ahapaldi batzuen azkenean ematen dudan zenbakia, parentesi artean, 1919.eko ordena zenbakiari dagokiona da, hots, zenbakiak adierazten duen ahapaldiaren berdina. Oraingo honetan ez dut Marijesien musikari buruzko azterketarik egingo, beste baterako utziz ikerketa hau. Baina Gaubekak 1951n egin zuen argitalpenean badatoz orain ere erabiltzen diren hiru doinuak.

Aurrera jo baino lehen gogora dezagun Gabon Kantetarako lur aberatsa izan dela Gernika. Sebastian de la Gandararen hiru Gabon-Kanta aipatu behar ditugu, 1757, 1762 eta 1764 (12). Berrogei urte geroagokoa dugu «1801.eko Gernikako Gabon-Kanta bat», Adolfo Arejitak eman ziguna (13).




(12) ARANA MARTIJA, Jose Antonio. «Sebastian de la Gándara, Bizkaiko idazlea» *Euskera* 1984 - 2, 499-510. or.

(13) AREJITA, Adolfo. «1801.eko Gernikako Gabon-Kanta bat» *Litterae Vasconicae*, 6, 1993. 9-33. or.

- 2 -		- 3 -	
6	Edeguadiñe seruan ate diamantescuac arisequin batera bentana isarrescunc.	20	Astua eta idia deucas aldamenian arnasas berotzeon ostuten danian.
10	Nabegadua isansan bederatzí illabetian mundu onetaco ichasuaren ganian.	21	Astua eta idia jaten egonsanien sena euguela biyaren biarteian.
11	Esdator guisonetatic es guisonaren obratic elegiduric eguan etermidatic.	22	Astuaec arrantzia idia arnasa alan berotzen eben jayodan infantea.
12	Guisonice esdot esagun lurraren ganian eguinic deucat bato ni jayo nintzanian.	23	Iru erregue inaguac ain bida lusian milagrosamenian ajuntadu sirian.
13	Espiritu santu jaunac emonice arguia bati consebidua isanda garbia.	24	Iru erregue inaguac ain bida lusian bacoñac eroyela beren presentian.
14	Edeucat nic erruric banas ni esclabia	25	Iru erregue inaguac ain bida lusian
15	Jaunac ordenatudu ni onelan isatea.	26	ostatua artu eben ain eche probian.
16	Egusquia inolastaguan crisialaren artetic semia jayodala amaren sabeletic.	27	Belenengo portatera eldu sirianian ango saldiaren otzac espantadu seiquian.
17	Cristalian arguia besela pasatu egunda guerobere dontzella guelditu.	28	Aurra adoratzera iru erregue emen icusic pobresa n arritu siraden.
18	Nor emen mensa- teria	29	Erregaluac bere ecari situan urria, intenzua, mirra, irugarren.
19	San Gabriel ainguerua eguinic dabena, ondo jaunaren agundua.	30	Gasparréc intenzua Beltzotrec urria Baltasartec eroyan mirra presiosa.
20	Josepe dichosua yada demporia seugandic jayoteco Jesus salbadoria.	31	Erodesec esan eultzen erregulan gabian emendic salosela ni bere juan neltian.
21	Otraren icaras dabil jayodan infania beren amac dirantzo isi ene semia.		

- 4 -		- 5 -	
31	Erodes coiladua burladu seicue erreguac juandira seu icusi bague.	41	onelango mensajia noc ete lequian.
32	Erodes erreguia falzo traidoria seren, damueban, Cristoren jayotzen. <i>Maria y José, José Maria</i>	42	Agur dontzeilia gracias beha seure isenadosua Maria Virginia.
33	Uau eguneraco	43	Dontzella galantori orbanic baguia seure isenadosua Maria Virginia.
34	Mendian egosala jagoten ganaduac manifestadu yacon serutic aingueruac. <i>Jesucristo hay que boni to buen niño, Jesucristo</i>	44	Arcangel San Gabriel anunsiaoria escaliau espantadu ain jeite umidia.
35	Corrian los pastores dejando al ganado que daban grandes vo- ces Jesus sea adorado.	45	Dempora desiadua etorri sanian ya gara eldu. Cristoren echian.
36	Jose emandote Mariari esposu biac isandetesin Jesusen guraso.	46	Josepec dirantzo Maria Virginian nos declaratuco daben espantatu guerutiori.
37	Eracutzi biardau seregin biogun beraren alabantzac cantadu desagun.		
38	Jose emandote Mariari esposu biac isandetesin Jesusen guraso.		
39	Carguan jarri dia Jose eta Maria amparatzeco seme estima garric.		
40	Virginia arritisan agur egun eultzenian		
41	Biac Belenera dute cainnatu ara eldasiria nian ostatuaren itandu.		
42	Esquepe etze chubaten dagos aliac jaten guisona bentanara chito neques uriatzen.		
43	Guisonac bentanatic gau deu erantzuten norda ordu onelan aliac jaten.		
44	Nor eta nor bisida eteche sar orretan nor eta ser gurasendu- (que Jaunaren ordu onelan.		
45	Ara or etechu sar bat uriatzen acabuan abiriac eta baho estira sartzen barruan.		
46	Suchubat egulten asi		

6 — pescbre basterrian aisia eia biotze lenera eroyan. 53 Scha billosic dago tur otzaren ganiat zitia Belenico negarres aurrian. 54 Billosic basagos bere etzara seu pobria seruetan josiadago seueizaco eropia. 55 Bedarac alinueda ognetat pescbria aurrian Belenico beren ama unil dia. 56 Pobresan isandusan Jesusen Jayotza batican ilurretza besietan isotza. 57 Aniac artuchan senia beuelan senia eta Jaungoicua sitan adoretan.	58 Jose eta Maria euren Jesusarequin duas Belenera cumplietan leguinquin. 59 Obligasino bagaric cumplietan leguia guri eracustiarren seruco bidia. 60 Ara gura badosu artise dago bidia seren justodan Cristoren leguia. 61 Arantzaren arteco jaysanlan cumpila originala maucha baguia. 62 Seme Jauna deuetza urte aurdi eder balen beren ama Belenico aurrian adoratzen. 63 Sacramentu santu Ja (une	7 — celebratu santian isena imini eutzen Jesus Salbadoria. 64 Emen esan badogu berharic deungaro elesama santian para esque nayago. Asquenao egune- raeo 65 Ogueta laugarrena degu abenduan deseo guenduan lagradu guenduan <i>Bai Belen eta bari Belenen jayoda Jesus Nasoren</i> 66 Gabeo amabiak jodaben orduan guete Salbadoria jayoda munduan. 67 Belenengo portalan estalpe baitan jayoda Jesus ona ganaduen artian.	68 Belenengo urian gabongaitaren erdian Birgina Santissima dago consolasido auridian. 69 Mundu gustia dago gaur gosos beleric senia jayodalaco mancha bagaric. 70 Goico mendietatic pastoriae dotos esanic aingueriac jayo dala Jesus. 71 Pastore santu bituo (suac baitau saguicus gaur emen bar arratzian ser pasa (judan conta desagan Belenen 72 Corraletaco ardac bere jantzan ebisan orduan guete Salbadoria jayodalaco munduan.
--	--	---	--

— 8 — 73 Jesus dibino gauba- ren otza jantendian inefasise erlotjuben erdisan o- nelan badu ilda ganadu gustise. 74 Ortise gora ninoyela ospitelech sar baten ala San Josepe topadu astochua chalmatzen. 75 Nasaretaco templuan (dago	dama edesbat jarrie isena bere Maria deute ondo gracias beleric <i>Bai Belen eta bari Belenen jayoda Jesus Nasoren.</i> 76 Gura dituanac cantau Jesusen alabantzac emen imiten ditu Pedro Garraizac.	 IMPRENTA Y LIBRERIA GOITIA Y COMPAÑIA GUERNICA
--	--	---

Villancicos de NAVIDAD

(EN VASQUEÑE)

Como se cantan en GUERNICA y sus alrededores



GABONETARRAKO KANTAK

GERNIKA-n
eta
Albo-errietan
kantatzen
diran lez

Libreria Gaubea
Guernica

JESUS-EN JAYOTZERAKO GABON-KANTAK LENENGO LAU EGUNETARRAKO



Je - A - Gaude San - tu o - ne - lan
de - f - de - ga di - ra de - re - ko

knis lo - ren jaia go - tzi - a Ja - zo te - der o - ne - paz
a - le - ti - rre go - rris ho - ak la - ed - na - kin ba - le - na

Go - ti - na puz - ta - n lu - rre - ra Jose - de - sus Ma - ri - a
O - de - i - za - re - re - ko ak Ma - ri - a Jose - de - sus Ma - ri - a

1. Abendu santu onetan
Kristoren jayotzia,
kontenluaren andiz
gustioz poz - gaian.
*Maria, Jose,
Jesus, Maria.*
2. Adan formatu zan
lenengo lurrian,
pekatu egin eban
Paradiso eternalian.
Maria...
3. Linboan egozan denez
bost mila urtitan,
jauna Zerutik lurrera
jatzi daitean.
Maria...
4. Erabagi izan zan
Trinidadet alfoan,
beaz zala bidaldu
lurrera Aingerua.
Maria...
5. Beaz zala bidaldu
lurrera Aingerua,
eremiyatzeko
Adanen pekatua.
Maria...
6. Marabilla andi bar
Zengotik lurrera,
konsebidan izan zala
Zeruko Erregina.
Maria...
7. Eguzki dibinila
gaubaren gaberlan,
etorri zan mundura
gizonaren antzian.
Maria...
8. Trinitadet alfoa
bigarren Persona,
transformaturik dago
Belengo Portalian.
Maria...

- 2 -

9. Edegi dirade Zeruan
puz diamantezkuak,
arexele batera
benfana ixarrezkuak.
Maria...
10. Nabegadua izan zan
bederatzi ilabetian,
mindu onetako
ichasuaren ganian.
Maria...
11. Ez dator gizonetatik
ez gizonaren obratik,
elefduatik egun
eternidadetik.
Maria...
12. Gizonik ez doteragun
lurraren ganian,
egirik daukat voto
ni jayo ninfantian.
Maria...
13. Espiritu Santu Jaunak
emonek argia,
bela konsebidua
izan da garbia.
Maria...
14. Ez daukat nik erurik
Ni banaz miraben,
Jaunak ordenatu dau
ni onela izatean.
Maria...
15. Eguzki lanola dagoan
kristalaren arteik,
Senia jayo dala
Amaren sabetik.
Maria...
16. Kristalian argia
bezelu pasatu,
egin da gero bere
Dontzella gelditu.
Maria...
17. Nor da emen mensajerua
San Gabriel Aingerua,
egingo dabena ondo
Jaunaren agindua.
Maria...
18. Josepe dichosua
au da denporia,
Zeugandik jayoteko
Jesus Salbagillia.
Maria...
19. Otzaren ikaraz dabil
jayo dan infantia,
bere Amak dirantsu.
—Ix, ene Senia
Maria...
20. Astua eta idia
daukaz aldamenian,
arnasaz berotzeko
ostuten damian.
Maria...

- 3 -

21. Astua eta idia
jaten egon zanlan,
sena eukela
biyaren bitartean.
Maria...
22. Asuak arrantzia,
idiak arnasia,
alan berotzen eben
jayo dan infantia.
Maria...
23. Iru Erregue Maguak
ain bide luzian,
mirari ain andiz
alkartu ziran.
Maria...
24. Iru Erregue Maguak
ain bide luzian,
hakoak eroyela
beren presendiak.
Maria...
25. Iru Erregue Maguak
ain bide luzian,
Ostatua artu eben
ain eche probian.
Maria...
26. Belengo portalaria
eldu zirananean,
ango zaldiaren otzak
espantatu zeukian.
Maria...
27. Seina adoratzera
Iru Erregue emen,
ikustik probezan
arritu ziran.
Maria...
28. Erregaluak bere
ezarri zituen,
urria; inzentua,
mirra; irugarren.
Maria...
29. Gasparrek inzentua
Melchorrek urria,
Baltasarrek erroyan,
mirra preziosua.
Maria...
30. Erodesek esan eutsen
Erreguari gabian,
emendik zatozela
ni bere juan neitean.
Maria...
31. Erodes kottadia
burjatu zaitue,
Erreguak juan dira
zeu ikusi bague.
Maria...
32. Erodes erreguia
falsito traidoria,
zeren damu eban
Kristoren jayotzia.
Maria...

BESTE LAU EGUNETAN KANTATEKUAK



33. Mendian eguzila
jabeten ganadua
agertuten yakozan
Zerutik Aingeruak.
Jesuskristo ia i que bonito
buen Niño, ¡ Jesukristo!
Jesuskristo,
adoratzen zaitut,
Jesuskristo.

34. Cortian los pastores
dejando al ganado
que daban grandes voces
Jesus sea adorado.
Jesuskristo.
35. Chit egun dichosua
dagu Egun-baria,
Zegalitikan don Jesus
gugana etorria.
Jesuskristo...

36. ¡Ay! ze konsuelua
orain daukagun
Jaungoikaren Semea
etortu da lagun.
Jesuskristo...

37. Gustok blar dogu
era-orian jarri,
graziaz emateko
gaur Jayo-danari.
Jesuskristo...

38. Erakutsi bear dau
zevegul biogun,
Beraren alabantzak
kantatu daguon.
Jesuskristo...

39. Jose emon dautse
Maria-ri esposu
biak izan daitezun
Jesusen guraso.
Jesuskristo...

40. Karguan jarri dira
Jose eta Maria,
Amparatzeko Seme
etortuagaria.
Jesuskristo...

41. Birjina artitu zan
agur egin eutsenian,
onelako mensaia
Nok ete leukan.
Jesuskristo...

42. Agur dontzellia,
graziaz betia,
Zeure izena dozu
Maria Birjina.
Jesuskristo...

43. Dontzella galat-ori
orbanik bagia,
Zeure izena dozu
Maria Birjina.
Jesuskristo...

44. Arkangel San Gabriel
Anunziadoria,
ez gaizaz espantau
ain genie umilia.
Jesuskristo...

45. Dempora desiadua
etorri zanian,
laster gara eldu
Kristo-ren echiain.
Jesuskristo...

46. Josepe-k dirautso
Maria Birjinari,
noiz ageruko daben
Esperantza geure ori.
Jesuskristo...

47. Biak Belen-era
dira zuzendu,
ara eldu ziranian
ostalaren itandu.
Jesuskristo...

48. Eskape echehu balen
dagoz atiak jolen,
gizona bentanara
chilu nekez urteten.
Jesuskristo...

49. Gizonak bentanatik
bai dautse erantuten,
—nor da ordu onetan
gure atiak jolen?—
Jesuskristo.

50. Nor, eta nor bizi da
echehu zar orretan?
Nor eta zer gura zenduke
Jaunaren ordu onetan?
Jesuskristo.

51. Ara or echehu zar bal
urrian eitzean,
aherak eta bato
ez dira sartzen barjuan.
Jesuskristo...

52. Suetu bat egiten asi
kortachu basterrian,
aixiak eta otzak
jenera croyon.
Jesuskristo...

- 6 -

53. Seina billoixik dago
tur otzaren ganiin,
Amia belauniko
negarrez aurrian.
Jesuskristo...

54. Billoixik bazagoz bere
etzara Zeu probia,
Zeruetan josirik dago
Zeuretzako erropia.
Jesuskristo...

55. Bedarrak buraxpitat
ogetzat askachou,
aurrian belauniko
Bere ama umilia.
Jesuskristo...

56. Pobresan izan ba da
Jesusen jayotza,
batetik eurtzia
ta bestetik iotza.
Jesuskristo...

57. Amiak artu eban
Semia besueian,
Semia eta Jaungoikua
ebazun adoretan.
Jesuskristo...

58. Jose eta Maria
euren Semechugaz,
duaz Belen-era
beteten legilagaz.
Jesuskristo...

59. Obligazio bari
Legio betetuten,
guri erakustarren
Zeru irabasten.
Jesuskristo...

60. Ara gura ba dozu
orrixez dago bidia,
zuzena bai dalako
Kristoren Legia.
Jesuskristo...

61. Arantzaren arteko
jayo zanian,
kulp originala
mancha bagia.
Jesuskristo...

62. Seme Jauna daukela
urre aurki eder balen,
Bere Ama belauniko
aurrian adoretan.
Jesuskristo...

63. Sakramentu Santu Jauna
zelebratu zanian,
ixena imhi eutsen
Jesus Salbadoria.
Jesuskristo...

64. Emen esan ba dogu
berbarik deungaro,
Elciz Ama Santitari
parika eske nayago.
Jesuskristo...

59. Obligazio bari
Legio betetuten,
guri erakustarren
Zeru irabasten.
Jesuskristo...

60. Ara gura ba dozu
orrixez dago bidia,
zuzena bai dalako
Kristoren Legia.
Jesuskristo...

61. Arantzaren arteko
jayo zanian,
kulp originala
mancha bagia.
Jesuskristo...

62. Seme Jauna daukela
urre aurki eder balen,
Bere Ama belauniko
aurrian adoretan.
Jesuskristo...

63. Sakramentu Santu Jauna
zelebratu zanian,
ixena imhi eutsen
Jesus Salbadoria.
Jesuskristo...

64. Emen esan ba dogu
berbarik deungaro,
Elciz Ama Santitari
parika eske nayago.
Jesuskristo...

65. Ogueta laugarrena
dagu Abenduian,
deseo guenduana
logradu guenduian.
Bai, Belenen
eta bari, Belenen
jayo da
Jesus Nazareti.

66. Gabeko amabaiak
jo daben orduan,
gure Salbadoria
jayo da munduan.
Bai, Belenen...

67. Belengo portalian
estape batian,
jayo da Jesus onta
ganaduian artian.
Bai, Belenen...


68. Belengo urian
gabon gabaren erdian,
Birjina Santissima dago
consolazio audian.
Bai, Belenen...

69. Belengo urian
gabon gabaren erdian,
Birjina Santissima dago
consolazio audian.
Bai, Belenen...

70. Belengo urian
gabon gabaren erdian,
Birjina Santissima dago
consolazio audian.
Bai, Belenen...

71. Belengo urian
gabon gabaren erdian,
Birjina Santissima dago
consolazio audian.
Bai, Belenen...

AZKENENGO EGUNERAKO



65. Ogueta laugarrena
dagu Abenduian,
deseo guenduana
logradu guenduian.
Bai, Belenen
eta bari, Belenen
jayo da
Jesus Nazareti.

66. Gabeko amabaiak
jo daben orduan,
gure Salbadoria
jayo da munduan.
Bai, Belenen...

67. Belengo portalian
estape batian,
jayo da Jesus onta
ganaduian artian.
Bai, Belenen...

68. Belengo urian
gabon gabaren erdian,
Birjina Santissima dago
consolazio audian.
Bai, Belenen...

69. Belengo urian
gabon gabaren erdian,
Birjina Santissima dago
consolazio audian.
Bai, Belenen...

70. Belengo urian
gabon gabaren erdian,
Birjina Santissima dago
consolazio audian.
Bai, Belenen...

71. Belengo urian
gabon gabaren erdian,
Birjina Santissima dago
consolazio audian.
Bai, Belenen...

- 7 -

— 8 — 10. Mundu gustia dago gaur, gozoz, beterik. Semia jayo dalako mancha bagarik. <i>Bai, Belenen...</i> 11. Goiko mendietatik pastorik dator, esanik, aligeruakaz. jayo dela Jesus. <i>Bai, Belenen...</i> 12. Pastore Santo Birtuosak balaiu zakiuz, gaur emen bart aratziar zer pasatu dahi konta daigun Belenen. <i>Bai, Belenen...</i> 13. Korralietako ardiak bere jantziar ebiltzari ordian, geure Salbadoria jayo dalako munduan. <i>Bai, Belenen...</i>	13. Jesus Divino, gaubaren oltza jausten dan inestasiye, erleju bienerdian onelan be du ilda ganadu gustiye. <i>Bai, Belenen...</i> 14. Oritsek gara niñoyela ospitalaechu zar baten, aita San Josepa topatu neban ostochua chalmatzen. <i>Bai, Belenen...</i> 15. Nazaretako tenpluan dago dama eder bat jarririk, ixena bere Miria dauka ondo graziaz beterik. <i>Bai, Belenen...</i> 16. Gura daunak kantatu Jesusen alabantzak, emen dagozan lez gogo-gogotik kantau. <i>Bai, Belenen...</i>	GABON - KANTA ZARRAK Sukaldian Kantatekuak APARI AURREKUA Ator ator mutli echera! Gastaña zimelak jetera; Gabon - gaba ospatuteko Aitaren ta Amaren onduan, Ikusiko dok Aita barreka, Ama, be, poz - atsegiñez, Eragiyok mutli, Aurreko danbolin orri; Gastahak erre - artlan, Chi - pli, cha - pla, pun, Gabon - gaba - pozik lgaro daigun. APARI OSTEKUA Gabon - gabeen oltaren dogu Gustiyoq apari ona; Besigu, lebatz, makallau - saltza, Bakochak berak, al - dauna, Gero churrun plin - plan, Ardau ta paitarra, Katubak artu - ta Zabu - zabuka.
---	--	---

Gernika-n, Gaubeka Liburu-egileak.

MARIJESIAK

Conserva la Villa de Guernica sus múltiples costumbres peculiares para festejar con algo de simbolismo los meses y, casi todas las semanas del año, así resultan sus fiestas a cada cual más resonantes en las diferentes épocas, pero ninguna tan sugestiva como la que se practica durante el mes de Diciembre, para conmemorar el nacimiento del Niño Dios, el misterio más inefable y conmovedor de la Cristiandad.

Y los guerniqueses, para celebrar este sublime acontecimiento, se prestan, año tras año, a glorificar con un Novenario sumamente original y la efectúa un grupo de geminos guerniqueses, con el nombre hereditario de **MARIJESIAK**, que como representación del pueblo se brindan a proseguir la tradición.

Principia este piadoso ejercicio el día 16 de Diciembre, y para las 4 de la madrugada, los componentes de **MARIJESIAK**, se congregan en el atrio de «Andra-Mari» de Guernica, y de frente al tabernáculo, todos de rodillas, entonan la primera salutación a Jesús Sacramentado, con la estrofa:

**Sakramentu Santu Jauna — Zolebradu zanian,
Yzena imini dautae — Jesus Salbadoria.**

Igualmente, delante de la Iglesia de Santa Clara y Capilla del Asilo Calzado, elevan de la misma forma, la salutación sacramental y los naturales cantores, siguen su trayectoria por todas las calles y arrabales de la Villa Foral, entonando en sonoras melodías los Villancicos que la posteridad legó a Guernica.

Estos «Villancicos de Navidad» han sido recopilados por Víctor de Gaubeka y Duo. Se agradecerá la aportación de aquellos que no figuran en estas páginas, siempre que sean tradicionalmente populares, con objeto de editarlos en una publicación más amplia con sus correspondientes melodías.

GUERNICA
D i c i e m b r e
1 9 5 1



IMPRENTA DE GAUBECA

A. 1891.eko eskuizkribua

Aspaldidanik daukat eskuizkribu hau nire artxiboan, baina ez dakit noiz eta non jaso nuen. Daukadan fotokopiak ematen du letra garbia eta ondo ikasia duela, eta edukiaren aldetik hautatu dudan eredia baino askoz ahapaldi gehiago dituela, batzuk beste aldaeretan agertzen ez direnak. Originala, 19,5 x 19 zentimetroko orrialde soltetan dator, bi zutabe orri bakoitzak dituelarik. Azalean, gero lehen leloa izango dena dakar izenburutzat.

JESU CRISTO GEURE JAUNA DA JAIO JESU CRISTO

- | | |
|--|---|
| <p>1. Aguilla galant bat
lurrera Cerurian
aportadu yzanda
ain jornada lucian</p> <p style="text-align: center;"><i>Coro</i></p> <p style="text-align: center;">Jesu Cristo
Geure jauna da jaiο
Jesu Cristo</p> | <p>7. Egusquia bacenducadas
beso bien artian
milla apartadu lastan
neu ceure bioserian.</p> |
| <p>2. Navegadu yzanda
bederaci yllian
mundo onetaco
ychasuen ganian (10)</p> | <p>8. Egusqui dibinala
gaubaren gaberdian
etorri san mundura
guisonaren traguian (7)</p> |
| <p>3. Donsella galant batec
yzandau marquia
Espiritu santu Jauna
da aren patroia.</p> | <p>9. Trinidad altuco
bigarren personia
traspasaduric dago
belengo portalian (8)</p> |
| <p>4. Ceure eselencia
geuri contetian
lizaitaque ichasuan
Conchan sarsaitian.</p> | <p>10. Ceruan ediguiric
ecusesanian
espanturen andis
jodabe lurrian.</p> |
| <p>5. Ydiguidira ceruan
ate dia mantescuac
arequin batera
bentana yzarrescuac (9)</p> | <p>11. Arcangel Grabielec
anuncia cituan
espantau cedequisun
jente umildia (44)</p> |
| <p>6. Urteisu egusquia
édaien arterian
gosada zaquidazan
bisi nasan artian.</p> | <p>12. Ya yasu cumplidu
Ceuen esperancia
Jaioric daucasuela
ceruco erreguia.</p> |
| | <p>13. Zuec adora esasu
gustion erreguia
nic abisa desadan
limboco jentia</p> |

14. Contentuaren andis
alcarren artian
beriola juateco
prebenidu cirian.
15. Espiritualmente
apareja gaitian
errecibietaco
Cristo bioserian.
16. Jaio esquero Cristo
belengo portalian
circunciadu dabe
zorric garrenlan.
17. Sacramentu santuco
Celebrausidenian
Ysena yminideuse
Jesus salvadoria (63)
18. Obligacino bagaric
cumplietan lurrian
sugetadu ysanda
ceruco erreguia (59)
19. Odol preciosua
ain estimablia
Ceu ysangozara
guere errescatia.
20. Aita gure adanec
jan éban frutia
ceuc parean biarcosu
Ynfante gastia.
21. Bada salbaduco
munduco jentia
esta escusetan
ceure eriosia.
22. Bada cumplidudesagun
gustioc lurrian
guero yrebasteco
ceruetan palmia.
23. Berbo encarnadua
jaio cedenian
misterio andiac
descubridu sirian.
24. Yru erregue sabiuac
determinacirian
aren astrologuac
Yzarraren artian
25. Alcarren barri bague
Yrurac bidian
milagrosamentian
ajuntadu cirian (23)
26. Yrurac eroien
norberen ofrendia
proseguietan dabe
euren jornadie.
27. Jerusalemetic
ygaro cirian
gau ori eguin dabe
erodecen échian.
28. Aposentaduric
principien leguia
gosian Ytandudeuse
nora doiasania.
29. Darue biagia
belenera ustian
mesias jaiodata
aren adoracian.
30. Erodes cruelorrec
au ensun ébanian
entero urten deuce
juicio andian.
31. Eguin dosu berba
principien leguia
emendi etorteco
ona zatosanian.
32. Baiez esan eta
despedidu cirian
arian laster baten
beleneracirian.
33. Aren saldien osa
ensun ébenian
birginiari gorde deuse
semia alsorian.

- | | |
|--|--|
| 34. Agur donsellia
andie eta noblia
emen nun topacogu
jaio dan erreguia. | 44. Arzainac otzarren
ardian arterian
chacurra sotadueta
éurac lo astunian. |
| 35. Aseguraduric
bere sospechia
eracusi deuse
beriala semie. | 45. Pascualec yrasartudau
angueruen cantia
deadar egin eta
Yzartu gaitian. |
| 36. Respecto andiagas
belaun bico lurrian
adoradu equisu
gustion erreguia. | 46. Egasti andian dira
gaur geure ganian
beguiratu eguisu
seugana gaitian. |
| 37. Gasparri desiau jaco
zarraren ysatia
berelan urdindu jaco
buruco ulia. | 47. Saiac ardialegues
artundau leporian
saiac ardialegues
artundau leporian. |
| 38. Yrurac eroien
norberen ofrendia
manifestadu ében
éuren borondatia (24) | 48. Grabielec eransundau
orduan alturian
espantau sedequisun
basoco pastoria. |
| 39. Gasparrec yncensua
baldasarec urria
Belchiorrec éroien
milla precioia. (29) | 49. Seruco Jaunagandic
daucasu mensagia
jaiorin daucasuela
zeruco érreguia. |
| 40. Aric despediduta
angueruac bidian
ymini dituesa
yrurac bidian. | 50. Ori orrelan bada
alegradu gaitian
erdu bera eta
daysudan albistia. |
| 41. Señale andiac dira
judiaco partian
éguno onelangoric
esdacusen lurrian. | 51. Aric lasterbaten
belenera sirian
aric laster baten
belenera sirian |
| 42. Angueruan dabilas
urtenic serurian
musica andiacas
cantetan airian. | 52. Belenera eldueta
portale zarbatian
berielat zartundira
arguiaren artian. |
| 43. Gabasan yllunata
leiasan terriblia
ainsan otzase
erdiratu zaitian. | 53. Topadu dituesa
Josefa esposia
saludaten dabela
Gustion erreguia. |

54. Nogandic jaquindosu
esasu pastoria
angueruac esanda gatos
maria virguinie.
55. Ara nun daguean
lastuaren ganian
adoradu eguisu
gustion erreguia.
56. Respecto andiagas
gustiac lurrian
adoradu eben
gustion erreguia.
57. Agur donsellia
descuidu sinian
semia jaiodata
oiselic es éuquitia
58. Esdaucat nic erruric
banas ni esclabia
jaunac ordenadudau
onelan ysatia
59. Pascualec erancidau
soineiric capotia
émenchen batun bedi
geu gatosan artian
60. Beardan gustiagas
emen gara goisian
beardan gustiagas
emen gara goisian.
61. Millagro andiac dira
uste dogusanoc
belenen daucagoula
gustion erreguia.
* * *
- 62/1. Geure amodiguac
obligaduric
egusqui dibinala
jaisisan serutic

Coro
Jesus maria
maria jose
jesus maria
- 63/2. Doncella galanbatec
sabel garbi puruan
bederasi yllabete
equin situan
(leloa)
- 64/3. Gau dichoso onetan
zufridu ecinda
urteten dau mundura
guizon eguinda.
- 65/4. Zeruco Yzar gustiac
admiraduric
duren crusua dauque
determinaduric.
- 66/5. Arguia baga esta
égon Yrarguia
egusquiac prestetan deusa
beran arguia.
- 67/6. Angueruac dabilsas
contentus beteric
éuren desiatua
daucanian jaioric.
- 68/7. Pastoriac dabilsas
zoro biururic
ainbeste marabilla
atur diduric.
- 69/8. Enfin naturaleza
criadu gustiac
gaurco gabian dira
contentu andiac
- 70/9. Eabada geubere
gagosan alegre
merecidu dogulaco
ainbeste favore.
- 71/10. Adan formadusan
lenengo lurrian
pecatu egin éban
paraiso eternalian (2)
- 72/11. Zeinsan ordenadua
paraiso eternalian
andria formadusan
guisonaren saiesian

- 73/12. Jauna deies gagos
bosto milla urtian
jasi zaitesala
zeruetarian.
- 74/13. Norda emen mensagerio
San Grabiél anguerua
egingo dabena ondo
jaunaren aguindua (17)
- 75/14. Trinidadé altuco
bigarren personia
etorri da mundura
emoten ordenia (8)
- 76/15. Agur donsellia
andie eta noblia
zeure Izena dosu
maria virginia. (42)
- 77/16. Seure sabelian dago
geure salbadoria
ori selan liseite
neure gorpucian.
- 78/17. Estaucot nic guisonic
neure borondatian
esta esautuco bere
bisi nasan artian
- 79/18. Esposua ta esposia
ateric ate ébilsenian
losari andiagas
arturic probesia.
- 80/19. Doncellia ecusenian
zabelian frutua
gente cruelen artian
esteuce émon ostaturic
- 81/20. Guison Ygnorante bat
bidian topaduric
ari Ytandu deuse
nun leuquian ostatua.
- 82/21. Portale zarbat dago
uriaren acabuan
ganaduac eta baicen
esta sartuten barruan.(51)
- 83/22. Ara gura badosu
ara orti dago bidia
nasaren jalo jacu
gustion erreguia (60)
- 84/23. Josef dichosua
égurretan joian
eseban asco batun
gau Yllun postisuan.
- 85/24. Suori eguin dabe
pesebre basterrian
asiac ata édurrac
éñalian éroian. (52)
- 86/25. Belengo portalian
échechu sarbatian
astuac ata Ydiac
jaten egon sirian (21)
- 87/26. Seiña éduquela
bien bitartian
arnasias berosen ében
otza equcenian.
- 88/27. Semia ecusenian
otzac balcituric
virginia jausida
bertan des maiaduric
- 89/28. Ceu ene semia
ni sure amia
ceu ene jangoiéna
ni sure esclavia
- 90/29. Zerbiduco zaitudaz
bisi nasan artian
Zerbiduco zaitudaz
bisi nasan artian.
- 91/30. Arastuco saitudas
zuandien aldian
vesa émon eisu
neure bularrian.
- 92/31. Cantia asan naisu
neure gogorian
milla apasta lastan
naisu bioserian.

- 93/32. Esasu pastoria
cerdosun Ycusi
mendiriecan gatos
urira Ygasi
- 94/33. Laster jasi guinian
mendiric urira
Ycusi doguesanoc
contetan gas dira
- 95/34. Gloria Ynocensis
baquian guisonac
mundu gustian dira
barriac onac.
- 96/35. Mendian gagosala
jagoten ganaduac
manifestadu Yacus
cerutic angueruac (33)
- 97/36. Aita eternuaren
seme Yguala
esan deuscuese
belenen daguala
- 98/37. Au ensun esquero
ceri gogocos émen
guasen ene lagunac
parte emoten belenen.
- 99/38. pesebre probe baten
zeruco erreguia
seme jangoicuari
egosan beguira.
- 100/39. Biac serbietan
Josef dichosua
angueruaquin dago
umilde debotuan.
- 101/40. Cabidu esin sana
zeru sabalian
Ceuc erabili senduan
ceure zabalian.
- 102/41. Geurezat jaiozanda
gueurezat. euquisu
bai asi artian
zeugas erabillisu.
- 103/42. Abendu santu onetan
Cristoren jaiosian
contentuaren andis
gustioc pos gaitian (1)
- Coro a uno*
104. Jesus Maria
geure onian
etorri zan mundura
gabon gabian.
- Coro*
- Baibelenen
eta bart belenen
gaio da
Jesus nasaren.
105. Belenengo Urian
Gabon Gabaren erdian
Virgina santisimia dago
consolacino andian (68)
106. Ortisig gora ni noiela
Ospitelechu sarbaten
aita san Jose topadu neban
astochueri chalmasen. (74)
107. Corraletaco ardiac bere
danzan ébisan orduan
Jesus onaren barri gosoac
salbadutearren munduan(72)
108. Jesus divino gabaren otza
jausten dan inetasie
erloju bien onela bada
ylde ganadu gustie (73)
109. Nazaretaco templuan dago
Dama eder bat jarriric
Ysena bere maria deute
ondo gracias beteric (75)
110. Pastore santu virtuosua
lagun saquigus gaur emen
bar gabia ser igarodan
conta deusagun belenen (71)
111. Canta santu bein
ustes eguin badot deungaro
Elesa santiari
Parca esque nago (64)
- Año
1891

2. SAGASTIETXEBARRI BASERRIKOAK

Testu hau ere XIX. mendekoa dela dirudi. Koaderno zahar baten agertzen da eskuizkribua, neurriak 17 x 12 zentimetro direla. Gernikako hegoaldean, Muxikatik datorren errepidean Arana auzoa dago eta han dago Sagastietxeba-
rri baserria, bidearen ertzean. Armairu zahar baten gainean, aspalditik han gor-
deta edo ahaztua, aurkitu zen koadernotxo hau, hezetasunez hondatuta, biz-
pahiru orrialdeetan testuak ezabatuak dituela esku batek baino gehiagok idatzia
dela esango nuke, eta ahapaldi batzuk errepikatu egiten ditu bigarren eskuak,
eta errepikatuak ez ditut hemen emango. Hitz batzuen transkripzioa zalantzan
jartzen dut ez daudelako originalean garbi.

- | | |
|---|--|
| 1. Egusqui dibinala
Gabaren gaberdian
etorrisan mundura
Guisonaren traguian (7)
M J.J.M | 8. Nor da emen mensajerua
San Gabriel anguerua
eguingo dabenac ondo
Jaunaren aguingua. (17) |
| 2. Trinitade altuco
Bigaren personea
traspasaduric dago
Belenengo portalian (8) | 9. Osaren iqueras dabil
jayodan infantia
bere amac dirauco
isi ene semia (19) |
| 3. Abendu santu onetan
Cristoren gayocia
Contentuaren andis
Gustioc posgaitian (1) | 10. Adan formadusan
lelengo lurrian
pecatu eguin eban
paradisus eternalian (2) |
| 4. Marabilla andibac
pastorien artian
Consebidua ysansan
montaña batian (6) | 11. Ydegidira ceruco
Ate diamantescuac
eta arequin batera
benta(na) isarrescuac. (9) |
| 5. Astua ta idia
jaten egosanian
seña eduquela
Biaren bitartian. (21) | 12. Billosic basagos bere
esarasu pobria
Cerueta josiric dago
zurezaquo erropia (54) |
| 6. Astuac arranxia
idiac arnasia
Alan Berosen eben
Jayodan infantia. (22) | 13. Badarac almueda
oza prezebera
Auretic belau nico
ama humildia (55) |
| 7. Linboan egasan deyes
bosmilla urtian
Jauna jauna jatxiarte
Seruortaric (3) | 14. Iru erregue Mauac
Ain bidalusian
Bacochac eroyela
Noberen presensia. (24) |

15. Iru erreque mauac
Ain bida lusian
Millagrosamentian
Juntadu sirian. (23)
16. Iru erreque mauac
Ainbida lusian
ostatue artu eben
ain heche pobrian (25)
17. Herrodes erreguia
Burlatu zaytues
Erreguiac juan dira
Ceu ycusi бага. (31)
18. Belengo portalian
Eldu cirianian
Ango saldi aregrac
Espantadu euquian. (26)
19. Gasparec insenso
Belchiorrec urria
Baltazar eroyela
Milla presiosa (29)
20. Agur doncellea
Gracias betia
Ceure ysenadosu
Maria Virginia. (42)
21. Donsella galantori
Maria virjinia
emen nun jayo gacun
Mecias Erreguia.
22. Denpora desiadua
Etori sanian
Yzara eldu
Cristoren echian. (45)
23. Bedeincatua sara zu
Andra gustien artian
Bedeincatua ysangoda
Frutua sabelian
24. Mendian gengosanian
jagoten ganaduac
manifestadu escun
Serutic angueruac. (33)
25. Esasu pastoria
Cerdosun ycusi
Mendican satos
Urira iguesi
26. Egusqui nola urteten
cristalaren artian
semia sortu sala
Amaren sabelian. (15)
27. Corrian los pastores
dejando el ganado
que davan grandes voces
que tu sias Adorado. (34)

* * *

Fin de los María jeses

* * *
28. Josefec dirauso
Maria Virjiniari
(nois de)claratuco dosun
(espera)nsa geuriori. (46)
J. C.
29. Bai Amac Artueban
semia besuetan
semia ta Jan Goicua
Situan adore(tan) (57)
30. Nor eta nor b(isi da)
Echechu sar onetan
Nor eta sergura seuquen
Jaunaren ordu onetan. (50)
31. Arcanjel San Gabriel
Anunciadoria
Escaisus espantadu
Ain gente umildia. (44)
32. Semia billosic dago
Lur osa ganian
Amia belaunico
Negares Aurrian. (53)

33. A da señaren edera
Paderican vaguea
Estauco marabillaric
.....
34. (Joa)tia gura badosu
Ortisic dago bidia
Señaren Icusteco docu
uste edo fedia. (60)
35. Maria birjinia
Idiguisu Atia
ceren ycusidaigun
Mesias Erreguia.
36. Ea belenera dabe
caminandoan eldu
sirianian ostatua
ytandu. (47)
37. Nabegadua ysansan
Bederatsi ylla vetian
Mun(du) onetaco
itasuaregañian. (10)
38. Sacramentu santu jauna
selebradu sanian
Ysena iminideutse
Jesus salvadoria (63)
39. Iñoc esan badau emen
Berbaric deungaro
Eleisa Ama santiari
Parquesque nayaco (64)
- * * *
40. Belenengo urian
Gabon Gabaren erdian
Birjina Ama satisia dago
Consolasiño andian. (68)
B B J J N.
41. Nasaretaco tenpluan dago
Dama Ederbat Jarriric
Isena bere Maria dauco
ondo grazias veteric. (75)
42. Jesus dibino Gauaren otsa
jaustenda iñetasise
Erreloju bisen onelan
Ilda ganadu gustise. (73)
43. (Corralet)aco ardiac bere
(dan)san evisan orduan
(sal)badoria jayo dala
(B)elenengo portalian. (72)
44. (Ort)isi gora ninoyela
ospitelechu sar vaten
Aite Sa Jese topadu neban
Bere Astoa chalmatsen. (74)
45. Pastore satu birtuosua
(la)gun saguida gaur emen
bar Gaberdian ser pasatu sen
(conta) descun Belenen (71)
- (Oharra: B B J J N siglak esan nahi
dute lelo hau: Bart Belenen, jaio da
Jesus Nazaren)

3. URDAIBAITIK LARRABETZURA

Marijesien edo Gabon Kanten bi testu dauzkat, bata jatorria ezagutzen ez nuen mikrofilm batetik kopiatuta eta bestea *Anuario de la Sociedad de Eusko-Folklore* delakoan inprimatua (1922, 62-70. or.). Bien edukia antzerakoa zen, azkenengoarena oraingo ortografiara ekarria. Lehena suposatzen nuen Urdaibaikoa zela, eta bigarrena, *Anuarioan* esaten denez Larrabetzuko. Bion artean bi aldaera daude: Larrabetzukoak ez dakar besteak ematen digun 14.ahapaldia; eta Larrabetzukoak «Ekarten» dakar 19.ahapaldian, besteak «edetan» aditza dakarren tokian.

Hain berdinak izanik zein zen lehena? Urdaibai baserria, izen bereko dorrearen inguruan dago, eta lehen, 1929an dorrea erre baino lehen dorreari erantsita zegoen eta Foruko eremuan egon arren, Gernikari atxikitzen zitzaion ondarea eta jabearen herritasuna, sutegi erroldetan agertzen denez. Forutik Larrabetzura hurbiltasunik ez dagoenez gero, ez da posible ahoz aho batetik bestera igarotzea. Bateren batek eraman beharko zuen herri batetik bestera.

Anuarioan argitaratu ziren *Marijesiak* Kasimiro Barrenak Goikoeleizea-ko organistak zeukan koaderno batetik kopiatu zituen Tiburtzio Ispizuak. Antzinakoak zirela esaten omen zion Barrenak Ispizuari, baina antzina hitzak ez du neurririk iraupenean. Noiztik kantatzen ziren meza nagusiaren ostean Gabonetako jaietan? Nire ustea hau da: duela berrogei urte edo, Ricardo Zallo Gastelua, Gernikan zegoen Larrabetzun jaiotako apaiz batek (1930.04.03) bidali zizkion Antonio Zavala euskaltzainari Urdaibaiko baserrian aurkitutako *Marijesiak*. Zallo jaun eta adiskideak eman dit aita Zabalak itzuli zion eskuizkribuaren kopia makinaratuta. Ohar hau jartzen du kopiak bertsoak hasi aurretik:

Copiados de un viejo manuscrito que me proporciona el joven Presbitero, Organista de la Parroquia de Santa Maria y Director y Creador de la Coral Santa Cecilia de Guernica, Don Ricardo Zallo Gastelua. Dice que los cantaba su abuelo materno que a su vez los aprendió de su padre, de la Torre de URDAIBAI de Guernica.

Jose de Gastelua zen Urdaibaiko gernikar hau; eta honen semea, Zallo haurrari kantatzen zizkiona, Juan Martin Gastelu, Larrabetzun jaioa, eta Rosa Uriguen larrabetzuarrarekin ezkondua. Ezkontza honetatik jaio zen Francisca Gastelua Uriguen (Larrabetzu, 1898) Jose Zallo Rementaria larrabetzuarrarekin ezkondu zena, eta gure Ricardo Zallo apaizaren ama. Beraz, Urdaibaiko *Marijesiak* eramango zituen Larrabetzura Jose Gasteluak eta honen seme Juan Martin Gasteluak, apaizaren aititek, honi kantatu eta irakatsi. Kasimiro Barrenak zeukan antzinako eskuizkribua nork idatzia zen? Gastelua gernikarrak edo Gastelua larrabetzuarrak? Dena den, Gernikako Urdaibaitik joan ziren Larrabetzura Gabon Kanta horiek. Eta hau da eskuizkributik eta makinazko kopiatik (berdinak dira) ateratzen ditudan *Marijesiak*, dauden-daudenean, ezer aldatu gabe:

- | | |
|--|---|
| <p>1. <i>Dempora Santu onetan</i>
 <i>Cristoren jayotsian</i>
 <i>Guztiuoc voz batian</i>
 <i>alegratu gaitian (1)</i>
 <i>Maria Jose, Jose Maria.</i></p> | <p>3. <i>Jesus seure ama</i>
 <i>graciazco betia</i>
 <i>isena deu Santia</i>
 <i>Maria Virginiia.</i></p> |
| <p>2. <i>Eguzqui divinala</i>
 <i>gavaren gauerdian</i>
 <i>urten senduan mundura</i>
 <i>guizonaren trajean (7)</i></p> | <p>4. <i>Jose Santua eta</i>
 <i>seurorren esposa</i>
 <i>urten senduan mundura</i>
 <i>arturic pobresia.</i></p> |

5. *Esposua ta esposia
arturic devozifioya
Belenera joan sirian
cumpletan leguia. (59)*
6. *Icusiric dontzellia
sabel santia beteric
jente cruel geistoac
es emon ostaturic.*
7. *Guison ignorante bat
bidian topaduric
ari itandu eutsen
non leoquian ostaturic.*
8. *Portale sar bat dago
Belenen acabuan
lecuen igaro eta
goingo acabuan. (51)*
9. *Besteric esin bada
guasan ara bada
Jaungoicua dan lecu
ezta eser falta.*
10. *Ara gura badosu
Ara emetic bidia
cerren jausi al san
gustioen fedia.*
11. *Guasen Josepe ta
animadu gaitian
ordenaturic quenean
onelan ibiltia.*
12. *Eldu sirianian
Portale sar batera
ascachu sar baten bian
aportadu sirian.*
13. *Jaungoicua ciac alabatu
ceruen da lurrian
estadu onetara
eldu garanian.*
14. *Dempora desiaduak
cumplidu sirianian
Jayo san gure Cristo
Belengo Portalian.*
15. *Virgiñiac artu evan
semia magalian
Josepe Santuari
eucela escurrian.*
16. *Soas Josepe eta
ecatsu abarria
sua equin daiquen eta
berotu gaitian.*
17. *Otzaren negarres dago
Jayo dan infantia
bere Amac dirauco
o musica dulcia. (19)*
18. *Es eguisu negarric equin
es ene semia
seu isango cerade
ceruco Erreguia.*
19. *Jatsi da cerutican
lerrera mensagea
Gloria Inecelsis Deo
munduan bisbaquia.*
20. *Cein san mensagerua
Gabriel Ainguerua
ondo equin ebana
Cristoren agindua. (17)*
21. *Trinidad altuco
bigarren Personia
traspasaduric dago
Belengo Portalian. (8)*
22. *Jesus asca pobrian
sagodes negarres
Belengo Pastoriac
dansan eta barres.*
23. *Jayo gustioc eta
deuquesun contentua
Cergaiti falta yatsun
Belenen ostatua.*
24. *Jesus ipiñi yatsun
Trinidadeco echian
isena Jesu Cristo
Ceruen da lurrian.*

- | | |
|--|--|
| <p>25. <i>Urrun Orientiac</i>
 <i>Isarrerren arguira</i>
 <i>Maguac dira moguidu</i>
 <i>Cristoren icustera.</i></p> <p>26. <i>Aingueru San Gabrielec</i>
 <i>avisatsian</i>
 <i>suaste Belenera</i>
 <i>ikusten Infantia.</i></p> <p>27. <i>Jauna icusi dogu</i>
 <i>ostatu sar batian</i>
 <i>contentu andiagas</i>
 <i>gatos gueure bidian.</i></p> <p>28. <i>Erodesec urten deutse</i>
 <i>bidera preguntian</i>
 <i>esan deyuela</i>
 <i>nora datosean.</i></p> <p>29. <i>Erodes traidoria</i>
 <i>jausi da lurrera</i>
 <i>escurrian artu eta</i>
 <i>eregui dabe gora.</i></p> <p>30. <i>Sosegadu saites</i>
 <i>Erodes tiranua</i>
 <i>estator emoten baño</i>
 <i>edetan erreñua</i></p> <p>31. <i>Erodes Erreguia</i>
 <i>ai falso traidoria</i>
 <i>Cergaiti eban damu</i>
 <i>Cristoren jayotsia. (32)</i></p> | <p>32. <i>Virgiñe Santisimia</i>
 <i>gueure Abogadia</i>
 <i>Aren emon eguisu</i>
 <i>gloriasco baquia.</i></p> <p>33. <i>Eldu sirianian</i>
 <i>Jesusen aurrera</i>
 <i>Velaunbico echun eta</i>
 <i>adoratu eutsian.</i></p> <p>34. <i>Eseutu ebenian</i>
 <i>sala Jaungoicua</i>
 <i>ofrecidu eutsien</i>
 <i>lenengo incensoa.</i></p> <p>35. <i>Adoratu eta</i>
 <i>contentu andiagas</i>
 <i>biurtu citecian</i>
 <i>ceruco arguiagas.</i></p> <p>36. <i>Acabadu da</i>
 <i>idigui dabe arguia</i>
 <i>urria eta mirria</i>
 <i>ugueri erabiltia.</i></p> <p>37. <i>Emen esan badot nic</i>
 <i>bai barbaric deunguero</i>
 <i>Elesa Ama Santiari</i>
 <i>Parca-esque nayagoco. (64)</i></p> |
|--|--|

AL NACIMIENTO DE JESU CRISTO

Cantos pastoriles

1. *Jesus jayo bere lenagoti*
Berria banatusan Profetaren agoti
Etorrico sala Jesus mundura seruti
Doncella eder baten entrañetati.
(leloa)
Pentsamentu onequin guasen Belenera
Jayo dan Erreguia an adoratsera
Atensio osoas joaten baguera
Orain da guero beti Jesusen aldera.

2. *Maria Virgīnia Sagrario artatic
Bederatsi illebetian senduan gorderic
Danorican bat bere eguin bagueric
Belengo Portalian an dago jayoric.
Pentsamendu onequin ...*
3. *Avenduco illaren ogueta laugarrenian
Jesus jayo sagun Belengo urian
Pesebre gogor eta turcoren artian
Miserias beteric portale batian.
Pentsamendu onequin ...*
4. *Belengo Portalian jayo da Semia
Mundu gustian jabea eta Erreguia
Alegratu gustioci gueure biotsetan
goasen Belenera Jesus adoretan.
Pentsamentu onequin ...*
5. *Poses bete gaitian jayotsa onetan
Artsayec berera datos Jesus adoretan
Ay, Belen dichosoa sorionecoa
Jayoric bertan dago gueure Jaungoicoa.
Pentsamentu onequin ...*

AY SE ARCHO EDERRA

*Ay se archo ederra
dator guregana
atoste bera ecustera
Agudo Belena.*

*Ti. Gustis polita dago
Bay gaur gure Jauna*

*To. Lau mille urte onetan
Deseatu dana.*

*S. Jesus dala diote
gaur etorri dana
Salvatsaillia dala
esan nai dutena.
Ceru eder andia
Dator salvatsera
Bay ta mundu gustiya
Redimitutsera.*

(A Coro: Ay se archo ederra)

*Ay au notici ona
Aingueruarena
Cer eramango degu
emendic Belena.
Nic esnea badaucat
Nic ere arcumea
Guasen bisitatsera
Jaunaren semia*

(A Coro: Ay se arco ederra)

*Archo chuiqui eder bat
paregabia munduan
etorten saigu serutic
ematen gaur alegria.
Berri ederra soragarria
gosotasunes betiac
gaurco gabea entzun ditugus
bai nere gente maitia
Etorri dala ceru gustiya
portale pobre batera
Adanen seme desterraduac
Pecatutic libratsera*

(A Coro: Ay se arco ederra)

Tiburtzio Ispizuak esaten digu Larrabetzuko Marijesien ostean egiten di-tuen oharren artean, Larrabetzukoak ez ezik, Bizkaikoak ere ez direla Gabon Kanta hauek, edo ahapaldi batzuk behintzat, gipuzkerazko hitz asko txertaturik daudelako. *Anuario*ak ez dizkigu ematen es «Cantos pastorales» ez «Ay se archo ederra» bilantzikoa, non gehien ikusten den gipuzkeraren eragina. Urdai-baiko eskuizkribuan agertu arren nik esango nuke Marijesiekin ez dutela zeri-kusirik, artzain kantak baitira. Nik esango nuke Gipuzkoako fraide batek eginak edo handik ekarriak direla. Gogora dezagun Foruko frantziskotarren komentua 1719an zabaldu zela eta berrehun metrora daudela komentua eta baserria, edo garai hartan Urdaibai dorrea. Idazkera aldetik ere beste Marijesiak baino doto-reagoak dira, eta baliteke luma ondo zerabilen batek idatziak izatea. Gainera, 37 ahapaldietatik 9 baino ez dira kilometro batera dagoen Gernikakoetatik hartuak. Eta beste 28 ahapaldietatik asko dira bizkaierazkoak, dudarik gabe, Urdaibai in-guruko baserrietan kantatzen zirenak eta Larrabetzun hara eramán zirenetik.

Larrabetzuko Marijesien inprimaketa aurrean dagokien doinua dator. Bai-ta Gaubekak inprimatu zituenen aurrean. Azken hauek azaldu ditut txosten ho-netan, inprimatutako osoa eman dudalako. Baina Larrabetzu eta herrietako doi-nuak agertzen bazaizkit inprimaketan edo eskuizkribuetan, ez ditut emango, larregi luzatuko nuelako idazlan hau eta beste ikerketa berezia behar duelako. Egia da ez dagoela bertso edo koplá doinurik gabekoa. Baina Marijesien tes-

tuak ematea izan de nire helburua, Literaturari dagokiolako idazten ari naizena. Doinuek beste ikerketa interesgarria ekarriko digute, dudarik gabe.

4. EUSKAL ORTOGRAFIA BERRIA MARIJESIETAN

1922.eko *Anuario de la Sociedad de Eusko Folklore* atera zenean, urtekariaren zuzendaritzak argi ikusten zuen Euskaltzaindiak emandako ortografia arauak eta idazle askok erabiltzen zituenak errespetatu behar zituztela euskarazko testuetan. Eta bide honetatik jo zuten: «b» eta «v» ez, «i» eta «y» ez, «k» eta «c» ez, «f» eta «rr» ez, «z» eta «s» bereiztu, «x», «ts», «tz», «tx», «-ko», «-en» eta abar. Horregatik ASEFn agertu ziren Larrabetzuko Marijesiak arau berriei idatziak eta argitaratuak ziren, ez nik eman ditudan eran, hots, Urdaibaiko eskuizkribuan agertzen diren eran, gaztelaniazko ortografian.

Urtekari horretan badatoz beste Marijese batzuk ere. Hala agertzen dira 81-92 orrialdetan:

Canciones de Nochebuena

Las canciones que transcribo a continuación acompañan a la cuestión en Gernika, Mendata, etc., no así en Amorebieta, donde no existe tal costumbre. La cantan en cualquier ocasión.

Eta hemen ematen du doinua eta gero ahapaldi hauek:

- | | |
|---|---|
| <p>1. <i>Belen' en asi ziren
ostatuen bile
esanaz jentieri
eruki zirien.
Maria i Jose
Jesus Maria.</i></p> <p>2. <i>Josepek iru bider
atie joten deu:
gixonak bentanara
nekez urteten deu.</i></p> <p>3. <i>Gixonak bentanatik
deu erantzuten:
Geuaren tertziyo onetan
¿nor ete da emen?</i></p> <p>4. <i>Dontzela eder bat dakat
neronek aldien
semie dakarrela
bere sabelien.</i></p> | <p>5. <i>Semie sabelien eta
dontzela nola letzakien?
enbusteru aundije,
kenadi ofien</i></p> <p>6. <i>Ara or goijen etxe bat
urijen akabuen:
ije dago jeuzirik
sañaren puruen. (51)</i></p> <p>7. <i>Besterikan ezpada
guazen, Jose, ara
Jaungoikoa dauen lekuen
ezta eser falta.</i></p> <p>8. <i>Josepe ditxozua
ije da denporie
geugandik jaijoteko
Jesus Salbadorie. (18)</i></p> |
|---|---|

9. *Alegrese, alegre,
alegre Josepe,
gaur geure seme onek
jaijo bier leuke.*
10. *Josepe abafetan
joan zan basora;
amari zortu jakon
semie, altzoan.*
11. *Edegi dire zeruen
ate diamantezkoak;
arekaz batera,
bentana ixafezkoak. (9)*
12. *Otzak ikaraz dauko
jaijo dan infantie.
Bere amak dirautzo:
ixi ene semie (19)*
13. *Bildoxik bazagoz bere
etzara zu pobrie:
zeruen dago jozita
zuetzako eropie. (54)*
14. *Astoak afantzia,
idijek arnazia:
bijek berotzen dabe
jaijo dan infantia. (22)*
15. *Astoa ta idije
jaten egozanion
nor ledukien
bijen bitartien!*
16. *Bedefaz almuñe
ogetzat pesebrie
eufien beleuniko
bere ama umuldie. (55)*
17. *Iru Efege Magoak
ain bide luzien
ixer eder bat dute
zuzentzen bidie*
18. *Iru Efege Magoak
ain bide luzien
ostatu artu eben
ain etxe pobrien (25)*
19. *Kaspañek intzentzoa
Beltxiofek uña
Baltaspañek erioiala
miña prezioazia. (29)*
20. *Espiritu Santuak
emanik grazia
aren kontzeziñoa
beti da garbia.*
21. *Ogeta laugarrena
degu abenduena
desio genduana
logradu genduen (65)*
22. *Gaubeko amabijek
jo duten orduen
gure salbagilie
jaijo da munduen. (66)*
23. *¡Ai, ze konsuelue
artu biar degun!
Jaungoikoaren semie
etofi da lagun. (36)*
24. *Berak erakutziko deuzku
zer egin biar degun;
beraren alabantzak
kantadu dezaigun. (38)*
25. *Belengo portalien
estalpe batien
jaijo da Jesus umil
ganadu artien.(67)*
26. *Astoa ta idije
dauzka aldamenien
arnazaz berotzeko
otzitzen danién (20)*
27. *Kristalien argije
garbi da pasatu
jaijo ta gero bere
dantzela geratu. (16)*
28. *Espiritu Santuagandik
Sortu da gixona;
Trinidad santuko
bigañen persona. (8)*

29. *Deboziñoz jari dira
Jose eta Maria
anparatzeko seme
estima-gafia. (40)*
30. *Jose, eman diote
Mariari esposo
bijak ixan deitezen
aúf onen gurazo. (39)*
31. *Zorijonian, Jesus,
zu jaijo ziñian;
beztela zeruetan
sartzen ez-giñian.*
32. *Zorionian gixon
egiñ zara emen
gloria gozatzeko
zeruetan. Amen.*
33. *Befi onakin gera
jentia etofi,
ainguerauk zerutik
degute ekarri.*
34. *Geuk ere emon biar degu
geuk ere alkañi,
bijer zelebrazteko
Pasko eguafi*
35. *Pasatu biar degu
egun andijori
alabantzak emoten
zeruko efegeri*
36. *Oñek merezi ditu
baten lekuen bi:
beroñen etoñera
santifiketu bedi.*
37. *Ordenak emon diote
ango jentieri
Belen'en eñebista
presentatu bedi.*
38. *Beste diraden guztijak
alojatu dire;
Josepe ta Mariye
ostatuen biñe.*
39. *Amazazpi etxetan
egin dute oles,
alojamenturikan
ixengo ete dan galdez*
40. *Ainbat biñartetan
lekurik emon ez!
Josepe triste dago
penaz eta dolorez.*
41. *Kaletikan kampa
dirade atera:
eñetiratu dire
estalpe batera.*
42. *Gaurko alojamentuz
an doaz jartzera
astoa ta idijen
lastoen artera.*
43. *Añegatu zigutzen
gabaren erdijen;
Jesus irugañena
degu familijen.*
44. *Gaua ixenagaitik
bazan an argiye;
zerutik etofi de,
ñbai ikusgañije!*
45. *Abilien daukagu
aur jaijo-pañije:
arnazaz berotzeko,
astoa ta idije.*
46. *Bale triste onetan
egon bier beti
etofi ez-palixaku
Mesias zeruti.*
47. *Nazaretako tenpluan dago
dama eder bat jaririk; (bis)
ixena bere Marija dau te
dana da graziaz beterik (75)
Da bai Belen'en...*
48. *Ortixik gora niñoianian
ospñieletxu zar baten (bis)
Topadu neban añte San Jose
astotxu baten txalmatzen. (74)*

49. *Jesus dibiño jgauaren otza!*
jauzten da liñetazije: (bis)
Erloju bijen onela bada
il da ganadu guztije. (73)

50. *Bederatzi gau onetan*
egin doqu alegiñe (bis)
oñegaitik gura genduke
efieltxu biñe.

Hogeita hamairu ahapaldiaren hasieran ohartxo bat dakar testu honek:

«Las voces del dialecto quipuzcoano que abundan en esta canción demuestran que ésta procede de Guipuzcoa.»

Ezin daiteke oso-osoan ukatu baieztapen hau; baina esan behar da ia ahapaldi erdiak Gernikakoalakoak direla. Eta beste ohar bat, nire ustez garrantzitsua: Marijese hauek direla Gernikako euskararen fonetika edo ahoskera ondoen islatzen dutenak: «d», «l», «t» konsonanteen palatizazioa; -io -ijo egiten dute; -ia, -ije; -a, -e (semia, semie); -ea, -ie; eta abar.

5. EUSKAL HITZ BERRIAK MARIJESIETAN

Makinaz idatzitako bi testu desberdin dauzkate nire paperen artean, biak Seber Altubek idatziak edo berak egindako zuzenketa eta gehiketekin hornituak. Orain arte ikusi ditugun Marijesiek erderakada ugariak dituzte eta hitz berri asmatuak horien ordeztatu beharrean, euskarazko hitzak jarri behar zirela uste zuen Altubek, eta beste askok ere. Aipatu dugu lehen, nola «Ay qué bonito es el niño...» erderazko leloa euskaraz jarri zuela Altubek «Adoratzeko zaitugu...» bihurtuta.

Altubek makinazko bere testuetan eskuz sartutako hitz asko, erderaren ordeztakoak, erabili zituen Egurrola inprimatzaileak hiru orrialdeko inprimaki bat kaleratzeko. *Antxinako Gernikako Maria-Jese edo Gabon-Kantak* izenburukoak dira, urterik gabe inprimatuak.

Baina hitz berriekin hornituriko Marijesiek ez zuten Gabonetako kantarien artean eraginik izan eta gerra aurreko literatura eredu moduan geratu ziren. Izatez, urte askotan —edo gizaldiz gizaldi— kantatzen diren testuak ezin dira, herrian ondo sustraituak badaude, egun batetik bestera aldatu. Goitia inprimatzaileak 1919an argitaratu zituenak izan dira, aldaera batzuekin, eredu moduan jarraitu dutenak. Ia berberak izan dira Manuel Lekuonak argitaratu zituenak *Anuario de Eusko Folklore* urtekarian (1933), gero *Egan* aldizkarian (1956) agertu zirenak. Argitarazio honetan gehitu ziren bi ahapaldi hauek:

Ea bada Josepe
 arotza zara zu
 aurtxo txiki onentzat
 seaska egizu

Arrano galant bat
 zerutikan lurrera
 sujetadu izan da
 zeruko Erregea

Manuel Lekuonak 1933an argitaratutako testua harturik, Labayru Ikastegiaren *Mikel Zarate Iker Mintegiak* berrinprimatu zituen 1991n *Litterae Vasconicae* urtekarian (86-94. or.). Beste herri batzuetako Marijesiak ere agertzen dira azken urtekari honetan.

ANTXINAKO GERNIKAKO MARIA-JESE

EDO

GABON-KANTAK

(LENENGO LAU EGUNETARAKO)

5

10

(1) Sakramentu Santua Astoak arrantzia,
Jesus onen gorputa, Idiak arnasa,
Izan bedi munduan, Biak berotzen dabe
Beti bedinkatua, Jaro-dan Infantia
Maria, Jose, Maria, Jose,
Jesus, Maria, Jesus, Maria,

Espiritu Santuen
Egite ta graziaz,
Semia sorta izan da
Amaren Subellian,
Maria, Jose,
Jesus, Maria,

6

11

1 Abendu Santu onetan
Kristoren jaiotzian,
Albista oder onegaz
Guztiok poz gaitian
Maria, Jose,
Jesus, Maria,

Patriarka Santuak
Linduan doika dira,
Jauna etorri zaite
Zerura juan gaitian
Maria, Jose,
Jesus, Maria,

Mirari ikusgarri bat
Artzain askon artian
Bereetan igaro zan
Baso-mendi baitian
Maria, Jose,
Jesus, Maria,

2

7

12

Adan sortua izan zan
Laurian lenengia,
Ereku eguin eban
Paradisu dontsuan.
Maria, Jose,
Jesus, Maria,

7 Norda ba mandataria,
Gabriel aingerua
Ondo eingo dabena
Jainaren agindua.
Maria, Jose,
Jesus, Maria,

Mendian egozala
Jagoten gauduak,
Jatzi ziran zerutik
Kantetan aingeruak.
Maria, Jose,
Jesus, Maria,

3

8

13

Eguzki Jainkoakua
Gaubaren garardian,
Etorri zan mundura
Belengon naitan.
Maria, Jose,
Jesus, Maria,

Idigi dira zeruko
Aldiamanteakua,
Baita akekin datara
Beto zidarrezkuak.
Maria, Jose,
Jesus, Maria,

Bedarra burukoat
Ogetzat askatuak,
Billos-billosik dago
Jato-dan umetxua.
Maria, Jose,
Jesus, Maria,

4

9

14

Trinidad altuko,
Bigarren Persona
Gizon egink dago
Belengo portallan.
Maria, Jose,
Jesus, Maria,

Maria Birjinia
Grazia argiz botla,
Zengandik jaioko da
Jesus salagailua.
Maria, Jose,
Jesus, Maria,

Billosik bazagoz bere
Elizara zu pobria,
Zeruan jositik dago
Zuretzako erropia.
Maria, Jose,
Jesus, Maria,

(1) Berzozai, asiketan eta egunaro Andra Mariyako eleiza, aurrian
beleunbikotua kantetan da.

15
Oñez ikara dago
Jaio-dan Infantia,
Zeru eta lurreko
Jauna eta jaubia
Maria, Jose
Jesus, Maria,

16
Izar barri eder bat
Guztien mirarian
Agertu zan zernan
Jesus jaio zanian
Maria, Jose
Jesus, Maria,

17
Begara argi ederri
Lentaten bidia,
Nun jaioa dagan
Zeruko erregia
Maria, Jose
Jesus, Maria,

18
Iru errege Mago
Ain bide luzian,
Bakotxa bere aldetik
Mirariz batu ziran
Maria, Jose
Jesus, Maria,

19
Iru errege Mago
Belenera juan ziran
Bakotxak eroiela
Noberen doaia
Maria, Jose
Jesus, Maria,

20
Meltxorrek urria
Gasparrak intzentsua,
Baltasarrek eroien
Morra baliosua
Maria, Jose
Jesus, Maria,

21
Erregiak dirautse
Herodes deungiari,
Nun dago Jaoniko
Juduen erregia?
Maria, Jose
Jesus, Maria,

22
Jose igasi dago
Juan dira erregiak
Herodesek ill daitu
Umetxu ihosentiak
Maria, Jose
Jesus, Maria,



(ATZANEKO BOST EGUNETARAKO)

1
Ariñik arin dabiz
Diadarrez artzainak,
Gloria zeruetan
Bake ona lurrian
Jesu-kristo
Adoratzen zaituguz
Jesu-kristo

2
Nazaretik urtenda
Josepe eta Maria,
Juan ziran Belenera
Betotako logia
Jesu-kristo
Adoratzen zaituguz
Jesu-kristo

3
Alperrik zan Belenen
Ostatua eskatzia,
Danak beteta eukazen
Erbesteko jentia
Jesu-kristo
Adoratzen zaituguz
Jesu-kristo

4
Azkenez lotu ziran
Esetxu pobre baten,
Abercak bakarrik
Korta tokizat euen
Jesu-kristo
Adoratzen zaituguz
Jesu-kristo

5
Oñez ikara dago
Josepe eta Maria,
Bata bestian kontra
Etarte basterrian
Jesu-kristo
Adoratzen zaituguz
Jesu-kristo

6
A da gauban illuna
A da leku tristia,
A da negargarritzko
Biyen bakartadia
Jesu-kristo
Adoratzen zaituguz
Jesu-kristo

7	9	11
¿Zer da argitasunau?	Soñia billosik dago	Ama ta dontzellia
¿Nola sonu gozuak?	Zur otsaren gamian	Grazia argi betia
¿Nola dantza ta kantak?	Bere Ama Belaniko	Zeure izena doza
Zeruko atugeruak?	Adoratzen aurrian	Maria Birjinia
Jesu-Kristo	Jesu-kristo	Jesu-kristo
Adoratzen zaituguz	Adoratzen zaituguz	Adoratzen zaituguz
Jesu-kristo	Jesu-kristo	Jesu-kristo

8	10	12
Poztu gaitian danok	Maria Birjinia	Sakramentu santua
Poztu mundu guztia	Idigizuz atioak	Jesus onen gorpua
Orain jaio dalako	Geuk bere ikusi daigun	Izan bodi munduan
Jesu salbagillia	Zeure seme mailia	Beti bedinkatua
Jesu-kristo	Jesu-kristo	Jesu-kristo
Adoratzen zaituguz	Adoratzen zaituguz	Adoratzen zaituguz
Jesu-Kristo	Jesu-kristo	Jesu-kristo

(GABON EGUNEZ ETXERIK-ETXE IBILTEKO)

1	Betor Jaunaren graziye
Orti gora ninojela	Da bart Belenen
Ospitaletxu zar baten	Da bart Belenen
Aita San Jose ikusi neban	Jaio da Jesus Nazaren
Asto txiqui bat txalmatzen	5
Da bart Belenen	Nazareteko olixan dago
Da bart Belenen	Dama eder bat jarririk
Jaio da Jesus Nazaren	Izena bere Mariya deuko
2	Ondo graziyaz beterik
Belenengo urian	Da bart Belenen
Gabon gaubaren erdian	Da bart Belenen
Birjinia guztiz santia dago	Jaio de Jesus Nazaren
Atsegintasun andian	6
Da bart Belenen	Arantzaren arteko
Da bart Belenen	Azuzenia
Jaio da Jesus Nazaren	Jatorrizko pekatu бага
3	Kontzebidia
Korraletako ardiak bere	Da bart Belenen
Dantzan ebiltzan orduan	Da bart Belenen
Salbadoria jaio dalako	Jaio dan Jesus Nazaren
Geure amorez munduan	7
Da bart Belenen	Zorioneko arizain santua
Da bart Belenen	Lagun zakiguz gaui emen
Jaio da Jesus Nazaren	Gabon gaubian zer igaro dan
4	Kontau dezagun Belenen
Jesus mailia, gaubaren olza	Da bart Belenen
Jausten dan inbaziye	Da bart Belenen
Bazter onian gari ederraz	Jaio dan Jesus Nazaren

6. ORAIN GERNIKAN KANTATZEN DIREN MARIJESIAK

Beste idazlan baterako utzi behar dut Marijesien barne historia, hots, gero-koek jakin dezaten azken XX. mendean zelan, zelako taldeak, bakarlariak, eta abar nortzuk izan diren. Orain, eta VII. Herri Literatura Jardunaldi hauetan nire zeregina betetzeko, beste xehetasunak aparte utzita, testuak ematea dagokit. Eta aipatu behar dut Pedro Garratzak idatzi zituen 75 ahapaldietatik (Goitia, 1919) 28 kantatzen direla egunero, abenduaren 16an hasita. Hauek dira ahapaldi horiek:

- | | |
|--|---|
| 1. Sakramentu Santu Jauna
zelebradu zanian
izena ipini eutsen
Jesus Salbadoria.
Maria Jose / Jesus Maria | 9. Eguzkia zelan doan
kristalaren artetik
semia jaio halan
amaren sabeletik. |
| 2. Abendu Santu honetan
Kristoren jaiotzia
kontentuen handiz
guztiok poz gaitian. | 10. Nor da hemen mensajerua:
San Gabriel aingerua
egingo dabela ondo
Jaunaren agindua. |
| 3. Adan formatu zan
Lehenengo lurrian
pekatu egin eban
paradiso terrenalian | 11. Astoak arrantzia
idiak arnasia
halan berotzen eben
jaio zan infantia. |
| 4. Linboan egoan deiez
bost mila urtian
Jauna zerutik lurrera
etorri artian. | 12. Hiru Errege Magoak
hain bide luzian
ostatu hartu eben
hain etxe pobrian. |
| 5. Eguzki dibinala
gauaren gauerdian
etorri zan mundura
gizonaren antzian. | 13. Gasparrek intsentzua
Meltxíorrek urria
Baltasarrek eroeban
mirra preziosua. |
| 6. Trinidad altuko
bigarren personia
transformadurik dago
Belenengo portalian. | 14. Herodes Erregia
hain falso traidoria
zeren damua dozu
Kristoren jaiotzia. |
| 7. Idigi dira zeruko
ate diamantezkoak
hareekin batera
leiho izarrezkoak | 15. Mendian egon zala
jaboten ganadua
manifestatu jakon
zerutik aingerua. |
| 8. Nabegadua izan zan
bederatzi hillabetian
mundu honetako
itsasoaren gañian. | 16. Corrian los pastores
detras de su rebaño
y daban grandes voces
Jesús sea adorado. |

- | | |
|---|--|
| <p>17. Agur ba dontzellia
grazia asko betia
zure izena dozu
Maria Birjiñia.</p> <p>18. Arkangel San Gabriel
anunziadorea,
ez gaizuz espantatu
hain jente umildia.</p> <p>19. Josepek dirautso
Maria Birjiñari:
noiz deklaratuko dabe
esperantza gure hori?</p> <p>20. Nor eta nor bizi da
etxetxu zahar horretan?
nor eta zer gura zeunke
Jaunaren ordu honetan</p> <p>21. Billozik bazagoz bere
ez zara zu pobria
zeruan josirik dago
zuretzako erropia.</p> <p>Jesukristo,
Adoratzen zaitugu,
Jesukristo.</p> <p>22. Hotzaren negarrez dago
jaio dan infantia
bere amak dirautso
o ze musika dultzia</p> <p style="text-align: center;">* * *</p> | <p>23. Belenengo urian
Gabon gabaren erdian
Birjiña Santisimia dago
kontsolaziño handian</p> <p>Da bart Belenen,
da bart Belenen,
jaio da Jesus Nazaren.</p> <p>24. Korraletako ardiak bere
dantzan ebiltzan orduan
gure Jesus Salbadoria
jaio dalako munduan.</p> <p>25. Jesus Dibino gabaren hotzan
jausten dan inñetazixe
erloju bien honela bada
hil da ganadu guztixe.</p> <p>26. Hortixik gora ni noiela
ospitaletxu zahar baten
aita San Jose topatu neban
astotxu zahar bat txalmatzen</p> <p>27. Nazaretako Tenpluan dago
Dama eder bat jarririk
izena berak Maria dauko
ondo graziaz beterik</p> <p>28. Bederatzi gau tristetan
ibili gara hotzetan
emoten bazu limosnatxu bat
sartuko dogu poltsetan.</p> |
|---|--|

Hogeita bigarren ahapaldiraino denak kantatzen dira egunero; baina lehenengo lau egunetan (16-19) kopia guztiei gehitzen zaie lelo bakarra: *Maria Jose, Jesus Maria*. Hurrengo bost egunetan berdin kantatzen dira 22. arteko ahapaldiak, baina beste doinu batekin, hots, *Jesukristo, adoratzen zaitugu, Jesukristo*. Hogeita hirugarren koplatic aurrera, azken egunean, abenduaren 24 goizean, kantatzen dira *Da Bart Belenen* doinuarekin.

Hemen amaitzen dut Gernikako Marijesiei buruz esan nahi nuena. Hurrengo baterako geratzen da Marijesiak kantatzen diren herrietako testuak eta ikerlana, eta Marijesiak, osorik edo nahiko luze kantatzen ez badira, Gabon kantuetan herriek gordetzen dituzten aztarnen ikerketa. Doinuen ikerketa ere egiteke geratzen da.

ERRONDA-KANTUAK ETA ESKE-BERTSOAK

Jabier Kaltzakorta ()*

SARRERA

J. A. Mogelek *Peru Abarca* idatzi zuenetik hona edo gaurrera bi mende bete direla eta, erronda-kantuen gainean hitzaldi bat eskatu didate herri-literatura batzordeko neure adiskideek. Ezin esan ezetzik, inola ere. Ezer baldin bainaiz, koplazaharren maitale sutsua naiz. Ume umetatik etxean eta Markina inguruko baserri-atari aurreetan bizi izandako oroitzapen ezin ederragoak ekartzen dizkidate gizon-aldekan kantatzen dituzten koplek. Etxean esan dut, etxean bertan geneukalako, gainera, Markinalde inguruko koplalaririk entzutenetakoak: geure aita zena. Etxean bertan geneukan, gainera, esku-txilin handi-galant bat, makila-muturretan jarri ohi dena baino askoz handiagoa. Esku-txilin handi hori erronda-eskan ez zuen nornahik jotzen, esku-txilin handi hori koplari nagusiari zegokion, eta koplari nagusi hori ez zen besterik geure aita maitea baino. Etxean bertan kantatu ohi zizkigun gure aitak gaztetan ikasi eta berak ere asmatutako eske-koplak. Nik beti miraz eta irrikaz entzun ohi nizkion neure aitari ahots ederrez garantzen zituen koplazaharriak. Etxean bertan entzuten genuen koplazahar hiruogeita hamar koplazale baino gehiago zituen, eta geroago ikusiko dugunez, ordena jakin batean kantatzen ziren. Horrelako gomutak eta askoz gehiago osatzen dute nire barrundegiko kutxa. Eta, beharbada, era horretako barne-gomutarik ez baneuka, ez nuke koplazaharrik bildu eta ikertzeari denborarik eskeiniko.

Nire lantxo honek bere muga jakinak ditu. Mugak, gainera, estu-meharrak, aldzikari bateko artikulua bati dagozkionak. Gaia zabalegia bezain sakonegia bada, nondik heldu? Koplazaharrik asko badira, nola egin aukera on bat? Koplazahar mundua aztertu duten ikerlari guztien lanak eta ondorioak nola laburbildu? Koplazahar bildumen gainean, eta koplazahar aztertzaileen berri ematen duten lantxo bat badut. Lan hori «Santa Ageda koplazahar gerra aurreko txapelketak» *Karmel*, 239 zenbakia, 2002-3 Uztaila-Iraila, 3-26 or. Han esaten ditudan ez ditut lan honetara ekarriko. Badira lan honetan aztertu ez diren hainbat gai. Gerra aurrean, 1930 urte inguruan, eske-erronda berriak sortu ziren hiri handietan. Bilbo eta Donostia hiri ezagunetan ez ezik, Tolosa eta abarretan ere santa Ageda koroak

(*) Oharra: Herri Literaturari buruzko Jardunaldietan irakurria, Eibar, 2002-XI-29.

ibili ohi ziren kalez kale. Kantatzen zituzten kopla-sailak ez ziren lege zaharrekoak edo tradiziozkoak, berriak baizik. Era honetako eske-koplak ez ditugu lan honetan aztertuko. Kopla munduan dagoen gairik interesgarriena kopla zaharren teknika dugu. Kopla zaharrak euskal poesia zaharraren estetika fin eta ederrenaren erakusgarri dira. Euskal poesia zaharraren gaina eta bikaina dira kopla zaharrak, inolako dudarik gabe. Teknika horren berririk ere ezin dugu eman artikulu honetan. Hurrengo lan baterako azterkizun eta arakizun geldituko da. Oraingo lan hau batez ere erronda kantuetan egon ohi den gune berezi bati helduko dio, etxeokak gorapatzen dituen kopla-guneari.

J. A. MOGEL ETA HERRI-KOPLA *PERU* ABARCA LIBURUAN

Peru Abarca lanaren bigarren mendeurren honetan nahitanahiezkia iruditzen zait Mogelek Maisu Juanen ahoan jartzen dituen hitz laudagarriak. *Diálogo primero* edo lehen autuan, behin otordua egin ondoren, herri-kopla bat entzuten dute Maisu Juanek eta Peru Abarkak. Kopla hori, gaur egun ere herri-tradizioan bizi dena, honako hau da:

*Aita semiac edanda dagoz
Ama alabac jocuan;
Ostera bere egongo dira
Soñoco zaarrac cacuan.*

Koplaren ondorengo autua edo hizketa interesgarria bada ere, guri dago-kigun lan hontarako hitzik adierazgarrienak Mogelek Maisu Juanen ahoan jartzen dituenak lirateke:

«Verso asco iracurri ditut neure aldijan erdaldunen liburubetan; baña ez verba guichitan gauza gueijago esan gura dabenic. Ai ostera cantauco baleu! Ai! asi da... Gagozan issillic. Peru artu goguan.... Cantau ditu verso bi: ¿cer dino?»

Koplaren muina bi hitzetan laburtu du Maisu Juanek: hitz gutxitan gauza asko esaten ditu. Edertasun handikoak direnez gero, kopla gehiago entzun nahi ditu Maisu Juanek. Kontuan hartzekoa da, gainera, kopla-kantariak ez direla eskolatuak, sapaira igan diren aita-sume moskorak baino. Honela dio Praiska zerbitzariak Maisu Juanen «*Nor ete da cantoria?*» galderari:

«Aita seme batzuc juan dira sabaira, aita catu andijaz ta semia bere bai cerbaitacuan. Ló eguitemo asmoz igon dabee, baña emon deusa aguriac cantia-ri. Soñulari eder bat dozu ardaoz basa basa eguinda bere».

Mogelek Maisu Juanen ahoan jarri zituen hitzek gerora ere, mendetsu batera, oihartzuna izango dute. 1898an Azkue handiak *Euskalzale* aldizkarian (Epaillaren 3^a, 69or.), hitz hauek jarri zituen emakume baten ahoan:

«Santa Agedaren bizitzea kantariai entzueran, emakuma eldu-barriak esan eban: Eneban siniztuko, neuk entzun ezpaneu, perdulariotzat neukazan-mutilkote orrek ain gauza ederrak esaten ebezala.»

Hemen ere, aurreko adibidean bezalaxe, koplen edertasuna goratzen da, nahiz koplakantariak edo koplariak mutilkote perdulario itxurakoak izan. Azkuek aipamen honekin ez ote zion omenaldi bat egin nahi Mogeli? Hitz bere-tsuak eta egoera beretsuak ematen dira kasu bietan. Bietan koplak kantatzen dira eta koplakantariak ez dira itxura finekoak. Ez dira inolaz ere landu eta eskolatu horietakoak, baina hala ere koplak eder askoak kantatzen dituzte. Badago besterik ere. «Perdulario» hitza nahiz erderakoa eta erderatikoa izan, Mo-gelek Peru Abarcán erabiltzen dituenetako bat da. Hortik kanpora gutxitan do-kumentatzen da. Bergara aldean erabiltzen da, Apaolazaren *Patxiko Txerren* lanean zein J. M. Elexpuren lexikoan agertzen baita. Omenaldi ori, gainera, koplen ezagutzak dakarren koplak-estetika landua goratzeko ez ote zuen egin? Ni neu baiezkotan nago.

KOPLA ZAHARRAK NOIZ, NON, NOLA KANTATZEN DIREN

Urteko garai finko eta jakinetan kantatzen dira koplak zaharrak. Garai ja-kin horiek ez datoz bat Euskal Herri osoan. Hegoaldean Santa Ageda bezpe-ran kantatzen den «Santa (Ageda) eskea» dugu ezagunena bezain dokumenta-tuena. Santa Ageda bezperako usadio zaharra hainbat modutara esaten da. Ez da gure egitekoa denak hemen zerrendatzea. Bizkai aldean, erdialdean, «San-ta Ageda batzea» esan ohi da Mungia inguruan (Meñakan eta abar). «Santa Ageda kantatu», «Santa Ageda eskean ibili» eta abar forma arruntak dira. Gi-puzkoa aldean Ageda hitza aipatu gabe ezaguna da usadioa. Modu horretara, antonomasiak «Santa eskea» da.

Bizkaia aldean, batez ere Durangaldean, eskola-mutikoez koplak zaharrak kantatu ohi zituzten ihauterietako ostegun edo egun zuriz. Azkuek ihauterie-tako koplak hauek Berriz eta Arbazegin bildu zituen. Anton Mari Otxalorak Aba-diño, Garai, Berriz, Zaldibar eta Iurretan bildu ditu tankera honetako koplak. X. Amurizak Gizaburuagan ere bilduak ditu lau koplak. Aipatu diren Bizkaiko herri guztiek garai bateko hedadura zabala salatzen dute. Gaur egun, ordea, bizirik dagoen ia leku bakarra Abadiño omen da. Koplak guzti hauek ikusi nahi izatera, jo bedi X. Amurizaren *Bizkaiko bertsogintza I izengabeak*, 1995, 127-143. or. lanera. Bizkaiko erronda kantuak dira «marijesiak» ere. Bizkaian, gai-nera, Gernikaldekoek dute sonarik handiena. Gabonetan kantatzen diren kan-tu hauen gainean J. A. Arana Martijaren lanak, estudioak eta bildumak, ezinbestekoak dira.

Gipuzkoan Santa eskeaz gainera Gabon aroan ere kantatzen dira. Gabon aroko egun izentatuak Gabon egun-bezpera, Gabon Zaharrak edo san Silbes-tre eguna, eta Urteberri eguna dira. Urte berri egunean ur berria eskatzeko erri-to zaharra gorde da Nafarroa menditarrean. Gabon aroko eske-koplak bilduma politikak daude zenbait lan monografikori esker. Interesgarrietakoak aipatze-kotan, aita Donostiren «Canciones de cuestión» RIEV, Tome IX, 1918, 141-

172 or. eta J. M. Satrustegiren lanen artean, bete bete hartzen duena «Canto ritual del agua en Año Nuevo» in FLV Año III, nº 7, Enero-Abril 1971, 35-72 or. San Juan bezperako kopia bildumarik ia ez dut ezagutzen. Orixe handiak berak ezagutzen zuen erreskada baten itzulpena egin zuen. Nafarroako kopia bildumen artean, Aezkoan kantatzen zirenek munta handia dute. Azkuek bere «Aezkera edo Petiriberro-inguruetakoko mintzaera» *Euskera*, VIII urtea, III-IV zenbakia, 1927 bagilla-lotazilla, 248-254 or. argitara zituen «San martinen ataria» eta «Sugea dabil» izenburupeko hogeitakopla euskaraz dauden zoragarrietakoak dira.

Iparraldeko kopia zaharren tradizioaren gainean oso gutxi dakigu. Zube-roako Larrainek Albadak erabat interesgarriak dira. Ganderailu bezperan kantatzen ziren, hau da, otsailaren batean. Gazteak etxetik etxe ibili ohi ziren odolki eta abarren eske. Dugun lehen testigantzetako bat Edward S. Dogson-ek 1906 argitara emandako kopia-paper soltu bat da. Gerora eskeini zaizkion artikulak, R. Gallop «Collectanea vasca» *Gure Herria* 1930, 443 eta hurrengoak, Georges Lacombe-rena «A propos des aubades de Larrau» *Gure Herria* 1931, 257-259 or. eta Txomin Peilenen lanek korpua apur bat handitu badute ere, badago zeresan gehiago.

Kopia zaharrak nola kantatzen diren galdetuz gero, behin behineko zenbait zehaztasunez gainera ez dakigu ezer askorik. Gehienetan gizon talde edo aldra batek errepikatu egiten du taldeko koplariak kantatzen duena. Bestela esan, J. Arinek zioen bezala, lehenik koplariak kantatzen zuena gero «sailak» errepikatzen zuen. Martin Angiozarrek honela dio erderaz («Coros de Santa Ageda» *Yakintza* 1933, 65-67 or.): «El cantor solista entona una estrofa adecuada al hogar frente al cual se ha detenido el grupo, el cual repite aquel trozo de canción al compás de sus makillas usadas sobre los guijarros del camino, y así sucesivamente los demás versos hasta el final de la misma; que a veces se suele señalar especialmente con un *ujujú* vibrante, grito humano, *zantzo*».

Gauetz ibiltzen ziren gizon-sailak: abemaritako kanpaiak joz gero, ia eguna argitu arte askotan. Gauetz garai zaharretan kriselu-argia zutela. Kriselu-argiarekin ez ezik, lastazuziekin ere ibili beharra izaten zuten, mendi artean galduko ez baziren. Angiozar berak honelaxe dio (aipatu lanean): «Los tradicionales Coros de Santa Agueda, compuestos de alegres rondadores nocturnos, remozan en el País Vasco la costumbre de entonar de casa en casa típicas canciones del terruño en la noche del día 4 de febrero, víspera de la festividad de Santa Agueda, en honor de la cual una vieja tradición sugestiva y arraigada en el pueblo desde tiempo inmemorial rinde homenaje de cantares y poesía a la luz trémula de una linterna o de fulgurantes haces de paja seca que llamean en las laderas de las montañas».

Era honetako zehaztasun askorik ez dugu idatziz. Erronda-kantuan gehienetan gizonetakoak ibili arren, Bizkaiko ihauterietan eskola-mutikoak ibiltzen ziren. Nafarroako Baztango «Maiak» direlakoetan, ordea, zuriz jantzitako neskatxak.

KOPLA ZAHARREN ZAHARTASUNAREN ERDIAROKO AZTARNAK

Kopla zaharretan aintzinasun aztarnak aurki daitezke. Manuel Lekuonak bere lanetan Erdi Aroko kutsua aurkitu ohi zien kopla zaharrei. Kopla gotikoak, on Manuelek bataiatu bezala, Erdi Aroko aztarnak eskeintzen dituztenak dira. Manuel Lekuonak behin eta berririo idatzi zuen kopla zaharren teknika eta zahartasunaren gainean (1). Kopla zaharren gotikotasuna behin baino gehiagotan azaldu bazuen ere, argienik, gure ustean, «Santa Clara'ren kanta zahar bat» lanean ikus dezakegu. Guri dagokigun pasarte guztia hona aldatzea luzeegi litzateke, ekar dezagun, beraz, pusketarik interesgarriena:

*Eder zeruan izarra;
errekaldean lizarra...
Etxe ontako Nagusi Jaunak
urre gorritz du bizarra.*

Denok dakigu kopla au, Etxeko Jaunari loxintxa egin bearrez kantatzen zaiona. Bañan, bear bada, ez dute guztiok jakingo, oartuko, ez dute «xilatu-ko», kopla polit onek duen barrunbe guztia. Erdi Aroan, XII, XIII, XIV gizaaldietan, Jaungoikoaren eta Andre Mariaren eta Apostolu Santuen irudi ta imajiñai, illea ta bizarra urrez tatu egiten zieten. Olaxe: urrezko bizarra, urrezko illea. Ontatik atera dezakegu noraño loxintxa-indarra duan kopla onek. Etxeko Jauna, Aldareko Irudien pareko egiten du: ots, zeruko Santuen pareko:

*Etxe ontako Nagusi Jaunak
urre gorritz du bizarra
(aldareko eta zeruko Santu ederrak bezala).*

Bañan kopla oni, loxintxa-usaiez gañera, beste usai bat ere ba'dario bere lau alderdietatik: Erdi Aroko usai sendo-sendoa. Kopla au, kopla *goticoa* da bete-betean. Irudi gotikoak, imajiña gotikoak dira olaxe urrezko bizar ta urrezko illedunak. Orra, beraz, nondik eta nola atera dezakegun kopla baten gotiko-izaera.

Berdin esan bait-diteke Gabonzarretako beste zenbait koplaentzat ere. Adibidez arako beste arentzat:

*Orroko or goyen iturri;
ura txorrotik ixuri...
Etxe ontako galai gazteak
amalau urre-txintxarri;
amalau urre-txintxarriekin
zazpi damaen eguzki...*

(1) «La Poesía Popular Vasca» *Quinto congreso de estudios vascos*, Sociedad de estudios vascos, Vergara 1930, 133-174.or. *Poesía oral euskérica*, 1935, Donostia, 41. orrialdea eta hurrengoak. eta «Bertsolarien pentsamentu-ritmoa» *RIEV*, Julio-Diciembre 1983, 235-250. or.

Erdiaroko oitura zan, jauntxo aberatsak soñekoen ertzetatik urrezko txin-txarriak zintzilik erabiltzea... dama-jendeen zoragarri ta engañagarri.

Argiago, bear bada, izango degu oraindik lenengo koplaren ondotiko beste ura:

*Urre gorrizko bizarra, eta
zillar zurizko sorbalda;
erreal-bikoz egiña dauka
Elizarako galtzada.*

Zillar zurizko sorbalda orrek ba'du zer-ikusi, zalantzarik gabe, Erdiaroko Zaldunen altzairuzko armadurarekin; altzairuaren ordeztatu «zillarra diola ezik, lo-xintxaren loxintxa bearrez nunbait» (2).

Manuel Lekuonak kopia zaharretan ezagunenak eta barreiatuenak diren etxeko jaunaren lehen bietakoen segetua azaltzen du. Ekialdeko euskalkietan «segetua ziltzen edo xiltatzen» den bezala, berak ere kopia ezagun horien barrunbe desezagunaren alderdi bat behintzat agertu nahi du. Zilarrezko espalda delakoa ez da besterik garai bateko zaldunek eraman ohi zuten «armadura» baino. Beste lan batean gerrarako erabiltzen ziren armadak eta bakearoen erabili ohi zirenak ez direla berdinak esaten du. Bakealdian erabiltzen dena finagoa da, ez hain astuna, eta armadura dotore horrekin jantzita joan ohi da elizara gure koplako etxeko jauna. Ondorio berera ailegatu zen, esaterako, Juan Karlos Gerra, honelaxe idazten baitu:

«El vocablo zalduna=»caballero», añade en euskera el concepto castellano de generosidad y nobleza en el porte, el de juventud, aplicándose especialmente al heredero doncel de una casa antigua. Le he visto traducido por «caballerito» para expresar la idea de la mocedad, y también por «hijo», como en las canciones de cuestación, que, después de ponderar la magnificencia del Etxe-Jaun con sus barbas doradas y su espalda de plata (remembranza de la armadura), dicen:

*Etxeko zaldun noblia
Bera ezin da obia».*

Juan Karlos Gerra, beraz, ondorio beretara iritsi zen M. Lekuona baino lehenago (3), hau da, zilarrezko espalda edo «illar/zidar zurizko sorbalda» edo «diamantezko espalda» horretan zaldunaren armadura edo gudu-jazkia ikustera. Era honetako Erdi Aroko arrostak askoz gehiago daude. Baina alderdi hau hurrengo puntu batean ikusiko dugu sakonago.

(2) Manuel Lekuona: «Santa Clara'ren kanta zahar bat» in *Bi antzerki ta itzaldi bat*, Itxaropena argitaldaria, Zarautz 1965, 111-113 or.

(3) Juan Karlos Gerra: «Viejos textos del idioma Los cantares antiguos del Euskera» in *Euskalerraren Alde*, 1922, tomo XII, 8-9. or.

KOPLA ZAHARREN ERRESKADAREN EGITURA NAGUSIA

Kopla zahar biltzen ihardun dudanean, neure herrialde-inguruan ezagutu ditudan koplariak ezagunekin hitz egin dut. Koplariak diodanean, lege zaharreko koplagintzan iharduten zutenak esan nahi dut. Lege zaharreko koplagintza tradiziozko koplagintza zaharra da, eta, zoritxarrez, nire eskualde-inguruan genero horretako tradiziozko katearen azken katenmaila osatzen zuten nik elkarriketatutakoak. Aurkitu ditudan koplariak aberatsenen izenak hauek dira: Migel Ibarzabal, Erlatx baserrikoa, Markinakoa, eta bestea, neure aita zena, Paskual Kalzakorta, Etxano baserrikoa, Berriatukoa. Koplari hauek hogeitau urte baino gehiagoan etxerik etxe kantatu gabe zeudenez gero, egun batzuk eskatu zizkidaten koplak berriro memoriora ekartzeko. Gogoan dut, gainera, Migel Ibarzabalek aste bete eskatu zidala aspaldian kantatu gabeko koplak «buruan pasatzeko», eta gero niri sailean, bat banaka, kantatzeko. Bai egin ere aste bete pasatu ondoren. Bere etxeko sukaldearen erdi erdian sila bannan jarri, eta bi koplak sail desberdin kantatu zizkidan.

Koplak baserriko baserri kantatzeko behar zen dohaletako bat, jakina, ahots ederra edo gozoa izatea zen. Koplariak buruan erreperitorio finko eta luze xamarra zuen, eta kantatuko zuen baserriko bizilagunak ezagutu egiten zituen gehienetan. Koplariak duen erreperitorioko koplak ordena finko eta jakin bat dute. Koplak ezin dira nolanahika kantatu, ordena zehatz batean baino. Zein da ordena hori? Nahiz eta xeheki adierazirik leku gutxitan egon, ezagutzen diren koplak sail ia guztietan ematen da, urrezko lege bat balitz bezalaxe. Tradiziozko ohitura honek leku gutxitan du segida. Gaur egun, askotan behintzat, Santa eskean eta san Juan eskean ibili ohi diren bertsolari gehienak batbatean sortzen dituzte koplak berriak. Adibide ezagunenetako bat ematearren, Azpillaga eta Okelar anaiak Mutrikuko Olatz auzoan eta inguruetan urtero egin ohi duten Santa eskea aipatuko nuke. Bertsolari hauek egiten duten koplak-lantegi honetan, etxeko guztiak koplak dituzte errespetu-ordena bati jarraituz.

Migel Ibarzabal «Erlatx» koplariarekin orain duela hamar urte baino gehiago (1990an) elkarriketatu nintzen Markinako bere etxeko sukaldean, eta honelaxe esan zidan: koplak-kateak bi zati ditu, lehenengoa «notak» eta bigarrena «eskabidea». Notak etxekoei dagozkien koplak dira. Eta behin etxeko guztiak «notadu» edo koplak ondoren, eskabidea dator. Horra, beraz, lehen bi zati nagusiak koplak-sailaren ardatza edo bihotza osatzen dutenak. Bi zati hauek koplak-sailaren bizkarrezurra osatzen dute, eta zati bateko eta besteko koplak oso desberdinak dira. Bi zati nagusi hauek gainera, zati gehiago ere eman daitezke. Ahalegindu gaitezen, beraz, lan honetarako sailkapen luzetxoago bat egiten. Notak baino lehenago beste koplak-sail bat dator lehenago. Koplak-sail hau santa Ageda bezperan kantatzen bada, santa Agedaren bizitza izango da. Gabon zaharretan kantatzen bada, Jesusen jaiotzaren misterioa azalduko du eta abar. Zati nagusiarekin hasi baino lehen, notekin hasi baino lehen, badago notei egiten zaien sarrera ba. Sarrera hori baimen-eskatzea izaten da. Baimen

kontu horrek badu bere segida markatua ere. Lehenengo alkateari edo obispoari baimena eskatu diotela diote, gero etxeko jaunari edo nagusiari. Baimen eskatze hau askotan kantuz egin beharrean hitzez ere egiten zen «kantatu edo erreztatu» esanaz. Zergatik? Familian hilberriren bat izaten bazuten, ez zelako kantatzen. Kantatu beharrean, otoitz labur bat egiten zen.

Behin notekin bukatu ondoren, koplariak eskabideko koplak kantatzen ditu, harik eta etxeko norbait diruarekin edo jatekoarekin etorri arte. Etorri daiteke, jakina, zein diru zein jatekoarekin. Gerta daiteke, nola ez, kopla-sari laburrekin saritzea koplaria: diru gutxi edo jateko gutxi. Behin kopla-saria hartu ondoren, koplariak esker onezko edo esker txarrezko kopla edo koplak kantatuko ditu. Etxekoek esker txarra agertu ondoren koplariak kantatzen di-tuen kopla iraingarriak «listorrak» deitzen omen dira Oihartzun aldean.

Erronda-kantuetako nota-gunea zati nagusia dela esan dugu. Nekezen aldatzen dena eta Euskal Herri guztiko erronda kantu gehienetan ematen dena, hain zuzen. Gerta daiteke, inoiz edo behin, gune hori ez izatea kopla-sailean. Bizkaiko marijesietan, esaterako, gune hori ez dago inoiz. Kopla guztiak Jesusen jaiotzaren misterioaren gainekoak ditugu. Eskabideko koplak ere, bat edo beste bakarrik. Zergatik? Baliteke, J. A. Arana Martijak dioen bezala, aintzinako antzerki kantuetatik etortzea marijesiak. Era horretara, antzerkiko koplak erronda-kantuetan erabiltzean, ez dira etxekoak notatzen. Hau J. A. Arana Martijaren teoriari ematen diogun beste arrazoi bat da. Arrazoi honek, gainera, gure ustez badu bere pisua. Marijesiak nota gabeko erronda kantu bakarrek direlako.

NOTAK: KOPLA-SAILAREN GUNERIK SENDO ETA IRMOENA

Kopla-sailaren lehen zati nagusia «notak» direla esan dugu goraxeago. «Notak» hitzak zerikusia du Bizkaiko nota(d)u aditzarekin. Bizkaian «nota(d)u» esaten dena gainerako euskalkietan «koplatu (4)» esaten da. Bizkaian esan badugu ere, hobeki legoke Euskal Herriko mendebaldean esatea, Gipuzkoako zenbait lekutan ere –Gipuzkoa mendebaldean, Alzolan eta abar– halaxe izendatzen baitira. Honek ez du esan nahi, inolaz ere, Bizkaian gaur egun, eta askoz lehenago ere, kopla(d)u erabiltzen ez denik. Guk «nota» sustantiboa eta «notadu/-tu» aditza era jakin eta zehatz bateko kopla, eta, aldi berean, era jakin eta zehatz bateko koplazte-lana izendatzeko erabiliko ditugu. Kopla-sailaren egitura zehatza ulertzeko argigarri bat baino ez da izendatze hau. «Nota» hitzak eta guk erabiliko dugun «notatu» aditzak, beraz, hitz zehatzak dira: hiponimoak edo hitz markatuak. Kopla hitza, ordea, esangura zabalagoa, orokorragoa duena: hiperonimoa edo hitz markatu gabea. Kopla-sai-

(4) «Koplatu» aditzak uste baino aldaera gehiago ditu. *Kopelatu*, *koflatu*, *kopladu* eta abar. Ez da, ordea, gure lan honetako egitekoa aditz honen aldaerak zehatz ikustea.

leko nota guztiak koplak izango dira, nahitanahiez. Kopla guztiak ez dira, ordea, notak. Kopla-saileko kopla jakin batzuk baino ez dira notak izango. Be-reizketa hau behin behinekoa da. Lehen pausua da kopla-sailaren egitura eza-gutzeko. Behin honetaraz gero, eman ditzagun zehaztasun gehiago. Notak etxean edo baserrian bizi direnen loxintxak dira. Koplariak etxe jakin bateko-ak edo baserri jakin batekoak notatzen dituenean, loxentxatu, laudatu egiten ditu. Nota bakoitza loxentxa bat da. Etxekoan edo baserrikoan notak ordena finko bat izaten dute. Ordena hau, hitz ozen eta gizen xamarrek erabiltzeko, hierarkikoa eta protokolaria da. Koplak loxentxan eta errespetuan oinarritzen badira, errespetuari dagokion ordena batean kantatuko dira. Zein da, hortaz, ordena? Lehenengo «etxeko jauna» notatzen da, bigarren «etxeko andrea», hi-rugarren «zaldun nagusia», laugarren «dama nagusia», boskarren «zaldun gaz-tea» eta seigarren «dama gaztea». «Zaldun nagusia» etxeko maiorazkoa edo primua da. «Dama nagusia» etxeko alaba zaharra, gerora etxandere bihurtuko dena. Alaba zahar honek Bizkaiko zenbait lekutan «maiorazkea» da, maioraz-koaren (mutila) oposizioan. «Zaldun gaztea» etxeko mutila da, «zaldun nagu-sia» baino gazteagoa. «Dama gaztea» etxeko neskatila, «dama nagusia» baino gazteagoa. Baserrian mutil bakarra badago, ez da egongo zaldun gazterik, zal-dun nagusia baino. Berdin gertatzen da neskekin ere. Alaba bakarra badago baserrian, alaba bakar hau «dama nagusia» izango da. Ezin da inolaz ere or-den hau hautsi. Ezin da, adibide argigarri bakar bat jartzearren, dama gaztea etxeko jauna baino lehenago notatu. Beti ordena edo erreskada jakin batean egingo da notatze-lana.

Nik duela hamahiru urte, 1990ko abenduaren 9an, Migel Ibarzabalen aho-tik entzundako sailkapena jarri dut hemen. Sailkapen honetako hitzak ere ez dira nik asmatuak, koplariak erabiltzen zituen deitura edo izendatzeak baino. Beharbada sailkapen horretako hitzik harrigarrienak «zaldun nagusia» eta «zal-dun gaztea», batetik, eta «dama nagusia» eta «dama gaztea», bestetik, dira. Izendatze honek badu M. Lekuonak zioen gotikotasunarekin zerikusirik. Erdi Arotikako izendatzea da, artean zaldun eta damei pleitesia edo begirune han-dia ekartzen zitzaienekoa. Koplariak loxentxatzen dituen etxeko guztiak base-ritarrak edo kaletarrak baino gehiago jauregitarrak dirudite. Nahiz baserri-ata-ri aurrean nahiz kale-etxe atari aurrean kantatu, gaztelu, jauregi edo handi-etxe baten aurrean bezalaxe kantatuko du koplariak, nori bere ohore eta noblezia handia aipatuaz. Bestela esan, etxeko guztiak notatuko ditu koplariak noble edo errege-laguntzaile edo jaun-andre handiki balira bezala.

Noblezia da, hortaz, notetako berezitasunik nabarmenenetakoa. Etxeko-ak, koplariaren ahoan, urre-zilarra ugari izango dute, elizkoiak, nobleak, apai-nak, itxura onekoak, gorpuzkera ederrekoak, langileak, eskuzabalak izango dira. Horrexegatik deitzen diogu zati honi notak, notatzen edo gorai patzen di-relako etxekoak. Koplariak, hala ere, nota berak kantatuko ditu batean eta bes-tean. Baserri bateko etxeko jaunari urrezko bizarra eta zilarrezko espalda di-tuela badio, hurrengo baserrian ere berdin esango du. Koplariak, gorago esan

dugun bezala, errepertorio finko xamarra erabiltzen du, eta batari kantatzen diona besteari ere kantatuko dio. Finko xamarra badiogu, ez dugu esan nahi tartean koplak batbatean sortu eta kantatu ezin dituenik. Jokamolde hori ere izan dezake koplariak. Bada, hala ere, zertxobait aldatzen dena. Koplariak lekuan lekuko notak ondo kantatzeko, etxe horretan bizi direnen izenak jakin beharko ditu. Izenak eta etxekeen estadia eta abar. Zergatik? Nahiz nota bera izan, notaren hirugarren bertsolerroan etxekearen izena izentatzen da, modu horretara, beraz, loxintxak indar handiagoa hartuko du.

Juan Arin Dorronsorok bildu eta Isidor Baztarrikak (ikus *Jaunaren deia* Urtarila-Martxo, 1982, 78 zb. 69-97. or) argitara zuen Ataungo Santa Ageda kantatzeko usadioan erritual eta gizalege hau lau arau nagusitan biltzen da, honatx:

- 1) *Koplatzen den etxean ez utzi inortxo ere koplatu gabe.*
- 2) *Pertsona bakoitza dagokion ileran edo lekuan koplatu bear da. One-la: 1. Asierako koplak; 2. nagusi etxeakoandreak; 3. senar emazte gazteak; 4. alargunak; 5. mutilak zaarrenetatik asita; 6. neskak, oek ere zaarrenetik gazteenera; 7. morroi neskameak; 8. bukaerako koplak. Gai onetan deskuidoak gogoan estu artu oi dira.*
- 3) *Pertsona bat koplatu eta ondorengoak koplatzen asteko bakoitzean esan oi da: Orain aurrera goazen! (izena) ori koplatzen.*
- 4) *Kopla bat baino geiago kanta leizke pertsona bakoitzari, bainan al-bait ondo aukeratuak izan ditezela. Doia daukanak kopla berria as-matu dezake (somatu deike), baina ez inori mina emateko eran.*

Hona aldatu dugun pasarte hau *Jaunaren deia* aldizkarian dagoen bezala tiletez tilez jarri dugu. Egin dugun aldaketa bakarra hirugarren puntuan izena hitza parentesi artean jartzea izan da: (izena). Pasarte horretatik eta orain arte esandakotik hainbat ondorio atera ditzakegu. Kopla-sail osoaren pusketa edo zatirik axolagarriena da notek osatzen dutena. Axolagarri delako hitza erabiltzen dugu, Salvatore Mitxelenak bezala, nahiz hiztegiek jasotzen ez duten, gu-nerik guztizko eta bete-betekoena delako. Noten gune hau kopla-sailaren bizkarrezurra da alde historikotik zein estetikutik, inolako dudarik gabe. Alde historikotik notak osatzen duten gunea zaharrena da eta finkoena delako. Hor agertzen dira notarik zaharrenak belaunez belaun eta mendez mende gorde dira. Kopla-kopuru hau, aldaera dialektal eta estilistiko txikiak gora-behera, Euskal Herri osokoa da. Hasi Bizkaian eta Zuberoan bukatu arte. Koplariak batbatean sortzeko ahala eta gogoia badu, egin dezake kopla berriak, baina belaunez belaun transmititu den ondare hau jasotzen badu, gehinean ere pertso-na-izen batez aktualizatu edo egokitu lezake. Horrexegatik izena ere egokia dute: «kopla zaharrak».

Notak kantatzeko ordenan lege bera ematen da beti. Zaharrenetatik gazteagoetara doaz notak, batetik, gizonaekoetatik emakumezkoetara, bestetik.

Lehenak notatzen direnak, beraz, hasiera baten ondoren, nagusi-etxeakoandreak dira. Etxeko nagusiari hiru koplak kantazen bazaizkio, etxeko nagusiaren notak esan ohi du koplariak. Modu horretara, familiako bakoitzak familian bertan duen lekuagatik bere notak izango ditu. Esan beharrik ez dago familiako bakoitzaren notak oso desberdinak direla besteengandik. Familiako bakoitzak, zenbait kasutan, dozena erdi nota edo gehiago izan ditzake. Alargunak edo alkateak edo apezak edo mutil zaharrak, ordeak, oso gutxi; bi gehienez ere. Kasurik harrigarriena, neure ustez, Aezkoako «san Martin kanta» dugu. Azkuek dozena bat koplak bildu zituen eta denak dira apezaren notak. Denak dira apezaren loxentxagarri.

Dama nagusiaren edo dama gaztearen notek berezitasun apartekoa dute. Etxeko neskatila gaiean badago, koplaria bera edo talde osoa egiten da neskatilaren merkataria. Bestela esan, koplariak koplak-joko poetikoan bere burua eskeiniko du etxeko neskatilarekin ezkontzeko. Zergatik ezkondu etxeko neskatilarekin galdetuko balu norbaitek, erantzura erraza luke: neskatila ederra da, aberatsa, urre-zilarra nonahitik dariona. Inguruetakozaldun guztiak, gainera, errondan nekegabe dabilzkio. Neskatila hori ezkonduko balitz, ezta horietako handitasuna ere aipatzen da.

«Etxeko jauna» esateko beste modu bat, Gipuzkoa-Nafarroetako koplarien artean «nagusi jauna» da. «Zaldun nagusia-k» beste izen bat ere har dezake: «nagusi gaztea». Lege estua da ordena finko horretan hutsik ez egitea. Deskuidorik badago, gogoan estu hartzen delako. Begi-bistakoa da, esaterako, nagusi-etxeakoandreak seme-alabarik ez badute, ez dela notatzen ez dagoenik. Azken kasu honetan, sobra egongo lirakeke zaldun nagusi eta zaldun gazte zein dama nagusi eta dama gaztearen notak. Apaizak ere izaten ditu bere notak eta haurrak ere bai. Guk lan honetan eskeintzen ditugun koplak-erreskadan apaizaren nota xoragarri mordoa dago. Apaizaren nota hauek ez ditugu beste inon argitaraturik ikusi. Morroi-neskameen notak ez dira asko, nik dakidala, eta ikusi ditudan bilduma guztietan bat edo beste baino ez dut aurkitu. Ume txiki edo haurrena bat bakarria ezagutzen dut.

Etxekoen arteko ordena ikusi ondoren, badago beste galdera bat. Herrian bertan ere halako ordena bat jarraitzen al zuten? Hau da, lehenengo alkatearen etxean edo apezaren etxean edo noren etxean kantatzen zuten? Galdera honi erantzuten dion berri bakar bat baino ez dut aurkitu, Azkuerena (*Euskalzale* 1898 epaillekoa): «Illuntsean, *Aremaitakoak* ots egiten dabenetik, arimena ioarte Eliz-txiliñak *dinbi danba* ots egiten dabe. Txilin-danbadak io dabezanak ardaoa ugari ta bost makur edo peseta izaten dabez erriaren kontura. Txilin otsak amaituta gero asten dira eskea batzen, oraintxe dakutsun eran. Lenengo abadearen etxean ots egiten dabe, gero Alkatearenean, gero urren danetan. Al dabenak aldabena emoten dau: arrautza-lukainkaak, dirua... Dirua naienez izaten dabe. Auskarik edo burrukarik izan eztaitean, Alkateak batzuri baño eztautsee baimenik emoten; baiña aldra onetan bat eginda ioaten dira bitzuk edo irutzuk, baimen-billa ioanikoak. Gaberdi inguruan banatuten dira lotara.»

Abadearen etxea beraz, lehenagokoa zen alkatearena baino. Pentsatzekoa da alkateak eta abadeak ere beren nota berarizkoak izango zituztela. Lan honen lehen gehigarrian agertzen dira ezagutzen ditugun alkatearen nota bakar-txoetakoak. Apaizaren noten gainean bada gauza harrigarririk. Bizkai-Gipuzkoetako koplariak kantatzen zuten nota ia bakarra ezagutzen nuen orain arte. Lan honetako bi gehigarrietan nota gehiago agertzen dira. Lehen gehigarrian lan honen irakurleak aurkituko du ezuste gozorik. Parrokoak bere notak ditu eta apaiz soilak bereak. Parrokoaren notarik ez nuen orain arte ezagutzen nik. Lehen gehigarriko sei notak apartak dira.

Pentsatzekoa da etxerik gehienak baserriak edo baserri tankerakoak izango zirela, bestela etxeokak nola notatu? Kale erdian jarritz gero, nola notatu? Eske-koplak mendirik mendi ibiliz baserriero kantatzekoak izango ziren, itxura guztiak direnez. Gerora, usadioa kalera ez ez ezik, hirietako kaleetara ere jeitsiko zen.

NOTA KONPOSATU EDO ANIZKUNAK

Goragoko puntuan ikusi dugunez, etxeko bakoitzak baditu bere notak. Nota bakoitza loxentxa bat da, laudoriozko aipamen bat. Behin laudorio bat kantatu ondoren, behin koplak bat kantatu ondoren, beste bat kantatuko du koplariak. Laudorio bakoitzak, osterak, ez du hurrengoarekin zerikusirik. Bestela esan, nota bakoitzak mezu bat darama. Mezu hau, jakina, gorago esan dugun bezala, pertsona bakoitzaren noblezia, dotorezia, edertasuna, aberastasuna eta abarrak markatzeko da. Notetako koplak asko, hala ere, lotura bitxi batez eginak daude. Askotan noten sailean koplak bi lotuta agertzen zaizkigu. Adibide-rik famatuena etxeko jaunaren edo zaldun nagusiaren nota da:

*Eder zeruan izarra,
errealdian lizarra;
etxe ontako nagusi jaunak
urre gorritzko bizarra.*

*Urre gorritzko bizarra eta
zillar zurizko espalda.
Errial bikoiz egiña dauka
elizarako galtzada.*

Bi koplak hauek loturik daude. Bigarrenak lehenaren ondoan du zentzua eta ez alderantziz. Horrek, jakina, ez du esan nahi koplak askotan bigarrenak agertzen ez denik. Inoiz lehena bakarrik agertzen da. Gauza bat, ordea, seguru dago: ez da inoiz ere agertuko bigarrenak lehenik gabe. Noten arteko lotura hau gehienetan teknika berezi baten bidez ematen da. Teknika hori «ritornello» delakoa edo euskaraz «bihurkia» deitzen duguna da. Euskal izen-datze hau Manuel Lekuonak asmatu zuen eta horrexegatik darabilgu guk ere.

Manuel Lekuonak hainbat bihurki modu zeudela aztertu zuen. Koplatik koplarakoa, kopla barrukoa eta abar. (Ikus «Santa Clara'ren kanta zahar bat» *Bi antzerki eta itzaldi bat* lanean, Itxaropena Zarautz 126 or. aurrera). Lehen koplaren bukaera «urre gorrizko bizarra» bada, bigarrenaren hasiera «Urre gorriz du bizarra eta» dugu. Izan zitekeen beste modu batera ere: «Urre gorrizko bizarrarekin». Teknika honek koplariari koplak gogoratzen ez ezik, koplak elkarri itsasten ere laguntzen dio.

Baina oraingo galdera beste bat da. Nota-sailaren koplen artean bi kopla lotu baino gehiago ere agertzen ote dira? Erantzuna haxe litzateke. Zenbat eta kopla-sail aberatsagoa izan, hainbat eta aukera gehiago bi koplako notak edo hiru koplako notak aurkitzeko. Inoiz edo behin, are lau koplako nota aurkitu daiteke. Nekez ikusiko dugu, esaterako, bi kopla lotu horien segidako hirugarren kopla lotu bat. Are nekezago, gainera, laugarren bat. Guk hemen argitaratzen dugun lehen gehigarrikoa ezagutzen dugu bakarrik. Hona lehen eman dugun bikoarekin laukotea osatzeko beste biak:

*Erreal bikoiz galtzada eta
lauzurikoz ataria;
etxe barruan betik goraño
zillarrez eskillaria.*

*Eskillaratan bueltatu eta
kuarto txiki bat berria,
aretzek zeukak lau kantoietan
igeltsu orde z urria.*

Egia esan beharko banu, bi gainerako kopla hauek irakurri nituenean nagusi jauaren etxeko ateak baino zeruko edertasunaren ateak zabaldu zitzaizkidan parez pare. Bi lehen koplen mila aldaera ezagutu arren, ez nuen ezagutzen horrelako segidarik! Gainerako bi kopla hauetan agertzen dena bat dator gotikotasunaren kontzeptuan. Zergatik? Galtzada erreal bikoiz eginda badago, ataria lauzurikoz eginda dagoelako. Lauzurikoak errealbikoak baino balioitsuagoak dira. Eskilara, orde, zilarrezkoa. Eta gela, nola ez, urrezkoa! *In crescendo* miragarri bat ikusten dugu. Koplen lotura, gainera, bihurkiz osatua dago. Eman dezadan beste adibide polit bat (Aranzazu 1924, nº 34, año IV, 52. or.):

*Ormatik gora matspar gozoa
aldamenean lizar(r)a;
etxe ontako nagusi jaunak
urre gorrizko bizarra.*

*Urre gorrizko bizarra eta
azur ta mamiñ ezpada;
berak etxetik elizaraño
erreal bikoiz kaltzada.*

*Erreal bikoz kaltzada eta
peseta berriz plazara;
aien gañetik etxeko jauna
ibiltzen da mezetara.*

Zer ikusten dugu hiru koplako nota honetan? Aurreko notan bezala, hemen ere lehen koplari lotuak dauden gainerakoek koplatic koplarako bihurkia dute. Bihuririkik erabiliena dute, gainera: koplaren bukaera bera da hurrengoaren hasiera. Lehen koplak badu berezitasun nabarmena. «Eder zeruan izarra»/«Zeruan eder izarra» ezagunarekin ez da hasten. Bigarren koplak ere badu bere bestetasuna. Kaltzada hitzaren hoscidea ez da ez «espalda» ez «ezpata» beste zerbait den «ezpada» baino. Adizkia jarri duenez gero «azur eta mamiñ» jartzera behartu da koplaria. Era honetakoa beste bat baino ez dut ezagutzen Azkuek Etxebarrin (Bilbo ondoan) bildu eta *Euskalzale-n* argitaratu zuena. Hiru koplako nota hau honen aurrekoarekin alderatuz gero, zer ikusten dugu? Aurreko notak etxeko jaunaren etxerainoko bidea erakusten zuen. Etxean, gainera, nolako gela duen ere erakusten zuen. Oraingo koplak honek, ordea, etxetik elizarako ibilia egiten du. Aurrekoak barruranzko ibilia egiten zuen bezalaxe, azken honek kanporanzkoa egiten du, elizaranzkoa. Baina nota biak, muinaren munean eta hondarraren hondarrean, egitura eta bihotz bera dute: nagusiaren elizkoitasuna eta aberastasuna erakustea.

Eman ditzagun beste bi adibide. Dama gaztearen koplak biko nota bi emango ditugu atal honetan:

*Egun sentian kantari dago
landa berdetan eperra;
etxe ontako alabatxoak
ule mataza ederra.*

*Ule mataza ederra eta
begi gozoak dizdira;
maitetxon batek negarrez dio
ai, neretzako balira!*

Bi koplak hauek elkarri lotuak daude. Bi koplak hauen lotura, gainera, dagoeneko guztiz ezaguna da guretzat. Bi koplak hauek nota bakarra osatzen dute, behin eta berririo esan dugunez. Lehen koplak, koplak zaharren teknika zoragarria ere ikusten dugu, «Egun sentian kantari dago/ landa berdetan eperra» irudia zuzenagoa den «etxe ontako alabatxoak/ ule mataza ederra» deskripzio edo Aitzolek zioen «oldozkun»-arekin lotua dagoelako. Irakurle zoliak ohartuko du, era berean, nola agertzen diren ttikigarriak «alabatxoak» «maitetxon» hitzetan. Jokabide hori nota askotan ematen da, etxekoak maitez eta errespetuz tratatzen dituelako koplariak. Koplak-sailetan dagoen koplariak ezagunenetako sarrera bategi aurkezpen ezaguna du: «Joles ta joles etxekotxuok/ nik jotzen ditut atekak/...» Etxean daudenei «etxekotxuak» esaten die koplariak, maitez eta errespetuz. Baina guzti horrezaz landa, bada guretzat arraz interesgarri den kontzeptu

bat. Kopla-sail on batean, beharbada beste inon aurkituko ez dugun kopla bi edo hiruko nota bat egon daiteke. Guk hona ekarri dugun nota hau, esaterako, (Aranzazu 1924, nº 34, año IV, 52 or.) bildumakoa da, eta ez dugu beste inon berdunik aurkitu. Puntu honetan behin eta berriro ikusi dugu bihurkiaren bi-dezko lotura. Lotura guztien artean, gainera, indartsuena eta adierazkarriena da, gure ustean. Bihurkiz egiten ez diren nota bakarraren koplaren arteko loturak bigunagoak, belaxkagoak dira. Eman dezagun adibidetxo bat:

Zure ortuan madari,
adarrak ditu amabi;
etxe ontako alabatxuak
lirio eder bat dirudi.

Eraztuntxoa zillarrez,
belarritakoak urrez,
etxe ontako lirio ederra
edozeñentzat egon ez.

Etxeke alaba koplatzeko bi kopla hauek nota bakarra ote dira? Ba ote dago bien arteko loturarik? Lehen koplari «etxe ontako alabatxuak/ lirio eder bat dirudi» dio. Bigarrenean «etxe ontako lirio ederra/ edozeñentzat egon ez». Nolabaiteko lotura badago, begien bistan dagoenez, baina ez da aurreko adibideetan ikusi dugun bezain irmoa. Bigarren kopla berez edo solte ere kanta daiteke, eta ondo asko ulertzen da nori zuzendua dagoen. Baina, hala ere, bigarrena solte kantatu badaiteke ere, lehenaren segidan kantatuko da gehiengotik.

Kontuak honetara, galdera bat baino gehiago sortzen zaigu. Batetik, gure puntu honetako lau kopla lotu hauek zer dira nota bakarra edo lau nota? Gure terminologia edo izendatze honetan, lau kopla lotu hauek nota bakartzat hartuko genuke. Zergatik? Bigarren kopla lehenaren zehaztasuna da. Bere bakarrean eta hutsean ez luke zentzurik. Lehenaren segida den neurrian du zentzua. Hirugarrenaz ere beste hainbeste esan dezakegu, bi lehenen segida den neurrian du zentzua. Bera bakarrik ez da mezu oso bat. Eta laugarrenaz ere beste hainbeste: aurreko hiruren azken zehaztasuna da. Hitz batez adierazteko, «nota» deitzen dugu mezu hertsia duen kopla bakar edo kopla multzo kateatuari. Nota gehienak kopla bakarrekoak izaten dira. Badira nota batzuk bi kopla lotu edo segidako dituztenak. Hiru koplako notak nekez baino nekezagorik aurkitzen dira. Baina gerta daiteke, bakan bada bakan, lau koplako notaren bat aurkitzea kopla segida eder batean.

Lau koplako nota hau, beraz, nota konplexu edo konposatu bat dela esango nuke. Lau kopla horiek batasun bat dute, eta bigarren, hirugarren edo laugarren koplak ezin dira bereiz edo solte ibili. Nota konposatuek, beraz, kopla bat besteari datzezkiola, kate bat osatzen dute. Kate horiek, gorago ikusi dugun bezala, gainerako kopla-sail osoaren atal dira. Behin lehen galderari erantzunez gero, beste bat egin daiteke. Garai zaharretan ez ote ziren nota kon-

plexu gehiago? Garai zaharretan ez ote ziren bi, hiru, lau eta are kopla gehiagoko nota konplexuak? Baiezkoan gaude, inolako dudarik gabe. Zenbat eta kopla-sail zahar eta ederragoak aurkitu, hainbat eta nota konplexu gehiago aurkitzen ditugu.

Adibide gehiago ere eman daitezke. Lehen gehigarriko «Etxeko andrea-ren» 52 eta 53 koplak elkarren segidakoak dira. Gure terminologiaren arauera, bi koplak nota bakarra osatzen dute. Lehen gehigarriko «Zaldun gaztea-ren» 62 eta 63 koplak ere lotuak daude eta nota bakarra osatzen dute. Bigarren anexo edo gehigarrian ere badira adibide ugari. Nagusiaren 13 eta 14 koplak nota bakarrekoak dira. Andre gaztearen 31 eta 32a ere berdin. Bigarren gehigarrian, esaterako, 24 kopla bilduma gehienetan agertzen den kopla da baina ez ohi du izan segidarik. Kopla bakarreko nota dugu.

Behin honetaraz gero, zerbait gehiago gehituko diogu esandakoari. Notek elkarren artean ez dute inolako loturarik. Nota bakoitza mezu hertsia bat da. Bilduma batean etxeko batek hiru nota baditu, nota horiek ez ditugu ordena berean ikusiko bilduma batetik bestera. Badira, hala ere, aspalditik datoarren halako kateamendu egin bat. Nagusiaren edo etxeko jaunaren lehen nota, esaterako, ia beti izan ohi da «Eder zeruan izarra/./»

NOTAK IA BERBERAK DIRA EUSKAL HERRIKO BILDUMA GUZTIETAN

Kopla-sailaren ardatz eta bihotza etxekoen notak dira, behin eta berriro esan dugunez. Notak dira, gainera, euskaraz ditugun kanturik finkoenak. Kanturik finkoenak ez ezik, komunena ere bai. Komunena zentzurik onenena, hau da, batean eta bestean ematen direnak. Euskal Herriko ia lurralde guztietan nota berak aldaera gutxi dituztela kantatzen dira. Honezaz ohartuak dira orain baino lehenago hainbat ikertzaile. Satrustegik honelaxe dio («Canto ritual del agua en Año Nuevo» FLV 1971, 35 or.) «La versión actual recoge bastantes versos comunes a todos los pueblos de la geografía vasca; pero encierra también peculiaridades dignas de estudio». Orixe handiak ere berdintsu esaten zuen («Euskal literatura'ren atze edo edesti laburra» lanean): «Euskal-lerria'n geienean, ahapaldi berdintsuak esaten dire, eta bakan izanen dire errian beintzat ez dakitzenak. Ala ere ahapaldi batzuk aldakuntzekin eta idurin edo bekalde batzuk ipiniko ditut (...)». Nota komun hauek euskaraz zuen kantu *corpus* zaharraren berri ematen digute, inolako zalantzarik gabe. Badago besterik. Ia kopla berak kantatu arren leku batean eta bestean, kopla-segidak lekuan lekuko kolorea eta ezaugarriak ditu. Bizkaiko Uribe-kostako eske koplak Bizkaiko euskararen ezaugarriak izango dituzte, eta zehatzago esateko, bertako euskalkiaren kolorea izango dute. Bizkaiko zenbait tokitan, Lea-Artibai bailaran bereziki, kopla-sailak gipuzkeraz kantatu arren, Bizkaiko euskararen ukitu berezia izango dute. Altxor komun hori, beraz, berdintsua izan arren, ez da inolaz ere erabat berdina.

Euskalkiaren kolorea dela eta eman ditzagun zenbait adibide. Zuberoan, Larraine herrian, Albadak deitu eske-kantuak kantatzen dira. Hona etxeko jaunaren nota bat:

*Ogia houn da labeko,
erra-berrian jateko;
etche hortako etcheko jauna
zaldiz elizalako.*

*Zaldiz elizalako,
han urrhez obendatuko
hantik etchera jin denian,
zilhar kaideran jarriko.*

Iturrian datorren bezalaxe ekarri dut hona. Gure transkribatzeko moduan: «Ogia hun da labeko/ erra berrian jateko/ etxe hortako etxeko jauna zaldiz elizalako» «Zaldiz elizalako/ han ürrhez obendatuko/ handik etxera jin denian, / zilhar kaideran jarriko». Azken koplak honetan biltzaileak «urrhe» (*ürrhe* gure idazkeran) hitza ezabatu eta gainean *zilhar* jarri du. Bi koplako nota honek badiu antzekotasunak ia Euskal Herri osoko nota askorekin. Nik lantxo honetara Markinan (Bizkaian) Migel Ibarzabali bildua ekarriko dut. Zergatik Bizkaikoa? Are bazterreko lurraldeetan ere (Bizkaia eta Zuberoa) koplak antzerakoak kantatzen direlako froga argigarria delako.

Etxeko andrearen notak kantatzen hasi baino lehen, honelaxe dio aurkezpen-koplak: «Edar Sinsongo kordela/ jaunak eman dit ordena/ etxeko andria notadutzeko nagusiaren urrena». Behin aurkezpen-kopla honen ondoren, bi koplako nota dator:

*Zaldixe dago sillatzen,
lau oñetatik perratzen,
etxe onetako etxeko andria
zaldiz da eleizaratzen.*

1

*Zaldiz da eleizaratzen,
zidarrez openderatzen,
andik etxera datorrenian
urra sillan da jarritzen;
txokolatia artu bagarik
andik ez dela mogitzen.*

Zuberoako Albadetako etxeko jaunaren nota eta Bizkaiko etxeko andrea-rena bat datoz. Gure Markinakoa transkribatzeko orduan ortografia onartuan egin dut, ez gaur eguneko Bizkaiko ahoskeran («Saldixe dago sillatzen/ lau oñetatik perratzen/etxe onetako etxeko andrie saldis da eleixeratzen». «Saldis da eleixeratzen/...»). Eskalkiko ñabardurak gorabehera, «zidar/zilhar», «urre si-

lla/ ürrhe kaidera» eta abar, batean eta bestean esaten diren berdintasunak gorabehera, badira desberdintasunak ere. Zuberoako «Ogia hun da labeko/ erra berrian jateko» ez dago Bizkaikoan. Bizkaiko «Zaldixe dago sillatzen» lau oñetatik perratzen» ez dago Zuberoan. Gure lan honetako Ataungo adibidean «lau ointxoetatik ferratzen» ikusiko dugu, ttikigarri eta guzti. Bizkaikoan txokolatea hartzen duela dio, Zuberoakoan ez da horrelakorik aipatzen...

Lurraldetik lurraldera kopla komun batzuk izan arren, badira kopla desberdin asko ere. Are gehiago esango nuke, zenbait kopla-sailetan kopla gehienak batean eta bestean agertu arren, badago bat edo beste sail horretan bakarik aurkitzen dena eta ez beste inon.

Kontuan honetara, bi eratako desberdintasun moduak aipatuko nituzke. Batetik nota beraren aldaera interesgarriak. Eman dezagun orain arte lan honetan gehien erabiltzen dugun adibide bat. Etxeko jaunaren hiru nota desberdin ikusi dugu gorago, lau, hiru eta hiru koplakoak. Eman dezagun bestetxo bat. Oraingo hau Azkuek Altzolan, Gipuzkoan, bildu eta argitara gabea:

*Zeru altuan izarra,
landa berean lizarra;
etxe ontako ugazaba jaunak
urregorritzko bizarra.*

*Urregorritzko bizarra eta
diamantezko bizkarra,
erreal biko egiñik dauka
elizaraño galtzada.*

Zer du desberdin honek? Lehen koplari orain arte ikusi ez dugun «landa berean izarra» ikusten dugu, eta ez «errekaldean lizarra». Baina horrek baino gehiago harritu nau ni «diamantezko bizkarra» horretako «bizkarra» hitzak. Zergatik? Ezagutzen ditudan kopla-sail guztietan «ezpalda/ezpada/ ezpata» hitzak ikusi ditudalako. Hitz guzti horiek horkideago dira «galtzada» hitzarekin, «izarra» hitzarekin baino. «Bizkarra» hitza, ordea, beteago dator izarra/lizarra/bizarra horiekin. Aldaera berri honek, beraz, baditu bere enkantatu eta pameriak.

Bigarren desberdintasuna beste era batekoa da. Zenbait kopla-sailetan beste inon aukatuko ez dugun nota bat edo beste aurkitzen dugu. Guk lan honen bukaeran agertzen ditugun bi sailetan badira horrelakoak. Lehen gehigarrian 20-24 koplak, esaterako, parrokoaren notak, beste inon ez bezalakakoak dira. Eman dezagun beste adibide polit bat:

*Ardiak dabilta larrez,
belarrez ase bearrez;
etxe ontako Nagusi Jaunak
bular arteak zilarrez.*

Kopla hau lehen gehigarriko 34 kopla dugu. Etxeko jaunaren nota hau ez dut nik beste inon aurkitu. Hemen ere «bular arteak zilarrez» badio, gorputzeko korazari egiten dio aipamena. Baina koraza zilarrezko horren aipamean egin daiteke modu politagoan? Kopla zaharren teknika bidez egiten du irudi zoragarria bistaratuz: Ardiak dabiltza larrez,/ belarrez ase bearrez...

NOTAK EZ EZIK, GAINERAKO KOPLAK ERE BERDINTSUAK DIRA

Nota-gunean dauden adibide batzuk jarri ditugu aurreko puntuan. Orain gakizkion aurrera kopla-saileko beste guneetako koplen berri emanez. Kopla-sailaren gainerako guneak ez dira kopla-gunea bezain finko eta berdinak. Hala ere, antzerako koplak aurkitu daitezke. Eman dezagun Zuberoako Albadetako kopla bat:

*Eman gei badüzü, emazü
heben zer ari giaudezü?
Mithil gaztiak girade eta
dothia behar bilhatü.*

Bateratasunak gorabehera, badira, izen dotore bat jartzearen, kopla *hap-pax* zenbait ere. Hau da, beste inon ez bezalako kopla bat edo beste izan dezake bilduma batek. Eman dezadan adibide bakar bat. Barandiaranek bildu zuen lan osoan begira jardun ondoren, Zugarramurdi bildu zuen kopla sail polit bat badu («De la población de Zugarramurdi y de sus tradiciones» *Homenaje a Odon de Apraiz* 63-64. or.). Bilduma horretan kopla ezagunez gainera, bada bat beste inon aurkitu ez dudana. hona hemen:

*Aizkora-gider biribil,
Ezin egon ta banabil,
Etxe ontako nausi jaunak
saski bat bete biribil.*

Zenbaitetan kopla ezagun baten segida ere ikusten dugu. Eman dezagun, kasurako, eskabideko kopla bat:

*Etxe onetako Mariye
ointxe esangotzut egiye,
ainbat lasterren topau egizu
ollo pintoen abiye.*

Kopla ezagun honek zer du atzean? Badakigu eskabidean arraultzak eskatzen direna askotan. Baina arraultza horiek ez dira nolanahikoak, oilo pintoaren habian daudenak baizik. Zer ote dago horren atzean? Kopla horren segida bakarra aurkitu dugu. Segida hori Errose Bustintzak Mañarian bildua da. Hona hemen:

*Ortxe goiko sabayen,
estuen edo nasayen,
ollotxuen bat egongo dala
arrautzetxuekin abiyen.*

AURKEZPEN-KOPLA, SARRERA-KOPLA EDO ZUBI-KOPLAK EZAUGARRIAK

Etxekoak notatzeko orduan ordena jakin bat segitzen dela esan dugu gogo: etxeko jauna, etxeko andrea, zaldun nagusia... Batetik bestera pasatzeko, ordea, sarrera-kopla bat kantatu ohi du koplariak jauzia gogorregia gerta ez dadin. Kortesiak eskatzen duen aurkezpen-kopla bat da hau. Aurkezpen-kopla honek etxeko norbaiten gorantzak eta alabantzak bukatu direla esateaz gainera, beste norbait goraipatzen hasiko dela dio. Eman dezagun adibide bat:

*Nagusi jauna, parkatu,
ez bazaio ongi notatu.
Orain (h)asita gura genduke
etxeko andrea koplatu.*

Kopla hau nagusi jaunaren nota guztien ondorengoa da. Koplariak nagusi jaunari nota gehiago kantatuko ez dizkionez gero, barka eskatzen dio eta nor den koplaturiko duen hurrengoa adierazten du. Tankera honetako koplak notei dagozkien errespetu, kortesia eta gizalege goitarraren erakusgarri dira. Era honetako koplei «aurkezpen-kopla» edo «sarrera-kopla» edo «zubi-kopla» deituko diegu. Izendatzea gurea da, ez koplariak erabili ohi zuten hiztegiakoa. Migel Ibarzabalek esan ohi zidan etxekoak beti sarrera bat behar zuela, presentazio bat.

Jose Ariztimuñok bere ikerlanetan («Euskal olerti-kera berezia (Estetika)» *Yakintza* 2(1934, 345. or.), irudia eta oldozkuna zuten kopla zaharretan (Au aiziaren epela/ airian dabil orbela.../ Etxe ontako jende leialai/ gabon Jainkoak diyela»), lehen zatia «oiuegillea» litzatekeela eta bigarren zatia «oiuegillearen ondoren datorren zalduna» zioen. Oiuegille delako hori gaztelaniazko «heraldo» horren euskal ordaina litzateke. Erdi Aroan zalduna agertu baino lehen, zaldunaren berri ematen zuena zen heraldo edo delako «oiuegillea». Gure oraingo atal honetan ere imajina berbera har dezakegu. Aurkezpen-kopla etxeko norbaiten «oihugilea» dugu.

Behin kontuak honetara, egin dezagun galdera bat. Zer-nolakoak dira aurkezpen-koplak? Era askotako aurkezpen koplak daude, inolaz ere. Aurkezpen koplarik ezagunena:

*Arantza beltzak osto txiki
puntara zaio loratu.
Oran (h)emen be(h)ar genduke
Dama gazte koplatu.*

Aurkezpen kopla hau, begi-bistakoa denez, aldakorra izango da. «Dama gaztea koplatu» hori baino lehen «zaldun gaztea koplatu» erabiliko du eta aurrekoa «etxeko andrea koplatu» eta abar. Badago, hala ere berezitasuntxo bat. Aurkezpen-kopla askoren estrofako lehen zatia fruitu edo frutuarbola bati dagokio. Eman ditzagun zenbait adibide. Markinan Migel Ibarzabali jasotako kopla-sail berean aurkezpen-kopla bat baino gehiago erabiltzen zituen. Hona hemen bi:

*Madari txiki betie,
aurten dauke berak urtie.
Emendik asita gura nai ñeuke
etxeko andrian notie.*

*Arantza beltzak ostrua txiki
puntara dauke loratsu.
Emendik asita gura nai ñeuke
zaldun nagusioi notadu.*

Lehenean madari txiki betearen berri ematen du, bigarrenean arantza beltzarena. Azkuek Altzolan bildutako bi hauetan honela agertzen da:

*Negua da ondo neurtua,
udaberrira frutua;
orain emendik bear genduke
koplatu mayorazkoa.*

*Kerexa txiki betea
elduta libre jatea;
orain emendik bear genduke
koplatu mayorazkea.*

Bi hauetan ere frutuen berri ematen duenez gero, aurkezpen-koplaren ezaugarria hori ote da? Guk aurkitu ditugun gehienetan halaxe ematen da, zailtzarik gabe. Gure lan honetako bigarren gehigarrian 17 kopla holakoxea da: «baratzan eder txerrena/ ondotik gora lerdena». Badira, hala ere, joera hau betetzen ez dutenak. Ikus bitez bigarren gehigarrian 23, 39 eta beste.

Esan beharrik ez dago, azkenik, kopla-sail berean aurkezpen-kopla bat baino gehiago egon daitezkeela. Etxekoak beste aurkezpen-kopla desberdin ere egon daitezke. Inoiz, gainera, etxekoak baino aurkezpen-kopla gehiago ere bai. Gerta daiteke, jakina, aurkezpen kopla bera erabiltzea kopla-sail berean. Guk era guztietako adibideak ikusi baditugu ere, gura sail honetan –aberatsak diren ber- aurkezpen-kopla desberdin askotxo daude.

JAUN HANDIKIEI EGINDAKO NOTAK: ABBADIE JAUNARI ETA ADAN DE YARZARI

Bi jaun handikiri egindako nota-erreskadatxoak jarri nahi nituzke puntu honetan. Kopla-sailetako lehena Mario Adan de Yarza (1846-1920) jaunari eskeinia da. Hurrengo datozen hiru kopla-sailak Abbadie jaunari eskeiniak dira. Mario Adan de Yarzari izan zen «pinus insignis» delakoa gure artera ekarri zuena. Bizkaiko mendiak pinuz josiak ikusten baditugu, are pinuz hatsituak esango nuke, jaun horrek Kaliforniatik ekarri eta hemen zabaldu zelako da. Mario Adan de Yarza jauna Lekeition bizi zen, Zubieta jauregian, eta neure aitaren koinatu batek, «Zozobenta» izenekoak, zioen Gojenola delako batek 1910 inguruan kantatu zizkiola Santa eske batean kopla batzuk. Gojenola hau Mario Adan de Yarzaren senide egiten zen, lehengusua. Horrexegatik dio «eza-gun-jentea» eta «lehengusuak» direla. Kopla egokiak izan ziren edo behintzat jaun handiki hau hunkitu bide zuten, eta sekulako saria eman zuen, ehun pe-zeta garai hartakoak. Kopla hauek neure aitari entzun ohi nizkion nik. Neure aitari, jakina, bere koinatuak esango zizkion. Beharbada erreskada luzeagoa izango zen. Nik hemen jarriko ditudanak bakarrik entzun nizkion neure aita zenari. Hona hemen:

*Gure guraso lenago
Adan da Eba lenengo,
aren izeneko kaballerua
palazio onetan dago.*

*Bera entzuten balego,
danok genduke gurago,
limosna eder bat emongo
leku oberik zer dago?*

*Santa eske eguna da ta
joten gatoz gu atia,
pentzau deguna kuadrilla batek
kostunbre auxe amatzia.*

*Nola ibillera txarra den au,
geure buruen kaltia!
emen gauzkazu ate onduan
zeuen ezagun jentia.*

*Aterik ate kantatzen gabiz
akordatzen diran bertsoak,
despreziorik ez degu emango
nola geran legusuak.*

Hiru kopla-sail eskeiniko ditugu, bigarrenez. Kopla-sail hauek Antoine T. d'Abbadie (1810-1897), edo Antono Abadia, euskalzale handiari kantatuak

dira. Noiz ere badakigu 1889 urteko urriaren 31. Kopla zaharrak kantatu ohi diren bezala kantatuak daude Abbadiren etxeko ate aurrean. Kopla hauek Pariseko Bibliothèque National-eko, Celte & Basque ondareko 169 esku izkribuan daude. Azalpen hau dute: «Compliments improvisés a la porte d'Abbadie le soir du 31 X ie 1889. N. Ceux-ci sons le meilleurs ou moins mauvais de 3 groupes successifs de chanteurs». Ohar honen irakurleak erreparatuko du hitz hauek duten ziria «hauek direla onenak edo ez hain txarrak (los menos malos, erdaraz)». Hona beste gabe:

- | | |
|---|--|
| 1 <i>Usaya degu urtetik
Kanta dezagun gogotic,
M. D'Abbadie-ren ohoretan-
-Egun premisa degun partetic.</i> | 6 <i>M. d'Abbadie barkatu
Ez banaiz ongui portatu,
Zure premisuz nahi nuke-
-Madama ere koplatu.</i> |
| 2 <i>Agur Yaun zilharra
Ez dezu estatu miharra
Probiac emen bizitzekotan-
-Badegu zure biharra.</i> | 7 <i>Yainkoac gau-on Madama;
Dakit ainitzec errana,
Ondo horietan yakintzun garela
-Amoña eguilea zarela.</i> |
| 3 <i>Zu zera eguiaz puchanta
Badezu izate galanta,
Zembait amoña egiten dezu-
-Zehorri fidela izan-ta.</i> | 8 <i>Madama hau Zubernuan
Arras biharra guinduan,
Fidelagorik ez ditake izan-
-Probientzaric munduan.</i> |
| 4 <i>Zubernuako heguian
Yaun bat guzien erdian,
Fidelagorik ez ditake izan-
-Iduzkiaren azpian.</i> | 9 <i>Ez dut eskola handia
Bañan erraiñ dut eguia,
Madama hunek zembait proberi-
-Emaiten degu oguia.</i> |
| 5 <i>Ez da mundu hau berdiña
Bainan Yainkoac eguiña,
M. d'Abbadie, ai zu bezala-
-Guziac bizi baguiña.</i> | 10 <i>Yakiña da gutchi naizela
Mintzo naiz ahal dudan bezala,
Madama, zure karitateac-
-Yainkoac paga ditzala.</i> |

(Chalbador Manzizidor)

Lehen kopla-sail honek baditu koplen notan ezaugarri asko. Lehenengoz Abbadie jauna notatzen dute, eta hurrengo, Abbadie jaunaren baimenarekin, emaztea. Laugarren koplak badu antzekotasuna, modu batera behintzat, Atau-nen kantatzen den:

*Gure errian ardoa merke
kuartiltoa zazpian;
zu bezelako mutillik ezta
oskarbiaren azpian.*

Seigarren kopla leku askotan agertzen den zubi-kopla ezaguna da, inolaz ere. Kopla hauek Hendaiatik hurbil dagoen Zubernoako gaztelu-atean (ikus 8. kopla) kantatuak izango ziren.

Bigarren kopla-sail honek (2 Groupe Cumpliments du 31 Xre 1889) baditu beste bilduma askotan agertzen diren sarrera «Alabatua, benedikatua» eta bigarren kopla polit bat herri-kopla izan daitekeena. Gainerako asko puztuegiak dira...

- 1 *Alabatua, benedikatua*
Oi sacramentu santua.
Mantcharic gabe-
-Zeren den kontzebitua.
- 2 *Sasoin ascotan izaiten ihintza*
Yainkoac zerutic eguin-ta,
Yaunari urte on baten-
-Desiratzen gabiltza.
- 3 *Yakindu dut Galbarreta ondoko lur ttikiaren berria*
Nahasi bat omen zuen kontra, bertzia enochentegua
Yauna gachtoa izan bazen-
Merezi zuten presundegua.
- 4 *Yendeac behar dute izan tzarrac edo pozoñac*
Bichtan da yaunac bazituela arrazoñac
Agueriko da orai zoinec botako-
-Dituen horren lezoñac
- 5 *Yaunari egiten badiozkate kontrako aferac*
kasu eman dezatela ikusteac berac
Nahi ez badituzte izan-
-Ichtant bateko galerac.
- 6 *Nagusi yaun zilarra*
Puchant eta leyala
Ainitzec badugu toki hautan-
-Bizitzeko zure beharra.
- 7 *Obra handiac ditu gauza ongi eguinac*
Eman ere ditutzu kantitatezko primac
zu hilzen zarenean-
Izanen dire sabeleko minac.
- 8 *Guehienec estimatzen zaituzte*
Eta bihotzetic maite
Guciec ala ezaten dirate-
-Eguiten ahal dezu hainbeste.

(Pascal Maya)

Hirugarren sailak, laburrena bada ere, baditu bere enkantuak. Bigarren kopla, kopla zaharren tankerakoa du: irudi eta oldozkunarekin. Herri-kopla hau ez dugu beste inon aurkitu.

3 groupe compliments du 31 1889

1 -Bekatuaren mantcharic gabe
Kontzebitua izan zen,
Gure bekatuac diela mediante-
Gurutce baterat igan zen.

2 Etchian eder papera
Mahainean urhe flatera
Ahalke garela, etorri gare-
-Yauna, beroren athera.

3 Yauregui huntako Madama
Andre bat duzu ona
Pobrien sokorritzeko
-Yainkoac emana.

4 Zubernuako partian
M d'Abbadie
Nahi nuke ehun urte-
-Huntan bizi baledi-

(Juakin beltza)

ESKABIDEKO KOPLAK

Eskabidea noten ondoren datorrela esan dugu gorago. Hala da legezkoa eta bidezkoa. Behin losentxatu ondoren dirua edo jatekoa eskatzen da gizalegez. Ez dugu ahaztu behar errito edo ohikunde bat bete ondorengo helburuetako bat diru-jatekoak lortzea dela. Erdaraz ere «canciones de cuestión» edo «coplas de cuestión» bezala ezagutzen ditugu. Orixe handiak euskaraz «eske-leloak» bezala izendatzen zituen bere «Euskal-literaturaren atze edo edesti laburra lanean» (*Euskal Esnalea*, XVIII, 1927) (5) Eske-kopla gehienetan hala egituraturik badaude ere, ez da beti horrela izaten. Askotan etxeko andrea notatu behar denean limosnaria dela esan ohi da. Limosnari hitz honek baditu mila aldaera: limosnagilea, limosnerea eta abar. Era horretako izenla-

(5) Nikolas Ormaetxea «Orixe»-k hamar pusketatan argitaratu zuen «Euskal-literaturaren atze edo edesti laburra». Lehen hiru zatia 1927ko Uztaila 283 zenbakia, 148-156. or.; hirugarrenaren jarraipena Dagonilla 284 zenbakia, 169-173. or.; laugarren-bosgarrenak Irailla, 285 zenbakia, 191-196 or.; seigarren zazpigarrenak Urrilla, 286 zenbakia 205-215. or.; bederatzigarrena Azaroa 287 zenbakia 228-237. or.; eta bederatzigarren bukaera Lotazilla 288 zenbakia, 246-252. or. Pusketa guzti hauek liburu batean sarturik ikusi ditugu *Euskal literaturaren historia laburra* izenburuarekin (Utriusque Vasconiae, Donostia 2002). Liburuaren prestatzailea Paulo Iztueta dugu. Orixe egindako literaturaren artikulua ere biltzen ditu lan honetan Paulo Iztuetak. Guzti hauek gainera prestatzailearen hitzaurre argigarri bat ere badago.

gunak erabiltzea, begi bistako kontua denez, eskabidean ibiltzea da, neurri handi batean. Badira etxeko andrearen noten artean eske-kopla zuzenagoak. Guk lan honetako gehigarrian agertuko dugun Ataungo kopla-sailean, badira etxeko andrearen notetan eskabideko kopla argi argiak. Etxeko nagusiaren notetan ere inoiz edo behin eskabideko bat egon daiteke.

Eskabidea egiten denean, bi eratakoa da diru-eskatzea eta jateko-eskatzea. Jatekoa gehienetan «gazigarria» deitzen dena da, hau da, gatzun-askan gatz egin ondoren, neguari eusteko jatekoa, zezina, okela gatz hartua edo odolki, solomo, lukainka eta abar. Arraultzak ere biltzen ziren. Jateko hau Santa eskea egin ondorengo hurrengo egunetan jaten zen. Markinaldean «txitxi-burduntzi» deitzen dugun egunean. Bizkaiko beste leku batzuetan, batez ere Arratia aldean Aratuste aurreko lehen igandean. Honelaxe adierazten du Azkuek *Euskalzale* aldizkarian (1898, Epaillaren 3an 69 or.): «Aratuste-aurreko Domekan (Kanpo-martxo-ko Domekea esaten iako) goizeko zazpi-zortziretan Santa Agedaren altaran, edo beñik beñi Santa Agedaren irudia aurrean dala, Meza bat euren izenean aginduten dabe mutil kantariok; eta diru-enparauaz arratsaldean askari edo lauretako eder bat egiten dabe, baturiko arrautza-lukainka guztiak, bat saldu barik, iaten dabez, bildotsa edo artxoa ta tostada ta guzti; ta kitu urrengo urterarte».

Dirua ere eskatzen dela esan dugu gorago. Dirua, gainera, erruki gabe eskatzen da. Zergatik? Esaerak dioen bezala eskatzea libre delako. Baina bada-go besterik ere. Baldin etxean bizi direnak aberatsak badira, urre-zilarretan igeri badabiltza, nola eskatu ez urrezko txanponik? Urrezko ontzak edo ontzurreak ere eskatzen ziren. Garai bateko diru handiak dira urrezko ontzak edo ontzurreak. Badute izen gehiago ere: hamaseikoa eta hogeikoa. Hamaseikoa eta hogeikoa deitzen zieten hamasei duro eta hogeï duro dituztelako. Diru hauek ez dira atzo goizekoak. Diru zaharrak dira, inolaz ere. Felipe III (1578-1621) garaian hasi ziren korritzen eta Fernando VII (1784-1833) garaitsuan bukatu ziren. Hona adibide bat:

*Amaseikoak magala zabal
pesetak larogei ditu.
Andik pare bat emanagatik
irurogetaz gelditu.*

Hamaseikoa deitzen zen, hamasei duro zituelako. Hamasei duro laurogei pezeta dira, baina ez oraintsukoak orain baino ehun eta berrogeita hamar urte baino lehenagokoak! Horrexegatik laurogeiri zerbait kenduz gero, gelditzen dira hirurogetaz pezeta.

NOTEN EZAUGARRIETAKO BAT ABERASTASUNA: URRE-ZILARRAK, DIAMANTEAK...

Zenbat eta kopla-sail zaharragoak izan, hainbat eta urre-zilar gehiago izango dituzte notetan. Gerra aurrean santa eskean hiri handietan kantatzen zi-

ren kopla berriak ez dute holako berezitasunik. Notatzen diren nagusi-etxeako andreen notetan agertuko da batez ere aberastasuna. Zaldun nagusi/ zaldun gazte eta dama nagusi/ dama gaztearen notetan baino aberastasun gehiago agertzen da etxeako nagusi-etxeakoandreen notetan. Eman ditzagun zenbait adibide. Errose Bustintza «Mañariko»-k, Urkiola azpiko Mañaria herrian andra gaztearen nota hauek batu zituen (Euzko-Erri-Jakintza» *Euzkadi*, 28 de Junio de 1932):

*Baso zelattik gorantza
mendijan-ziar larrosa,
etxe ontako andre zintzuak
urregorritzko ardatza.*

*Urre gorritzko ardatza eta
diamantezko goruba.
Atorra pinak ondo etteko
onek ba-dauko moduba.*

Nota bakarra osatzen duten bi kopla hauetan urregorria eta diamantea agertzen dira. Hau da noten estetikaren ezaugarri nabarmenetako bat. Etxean dagoen emakumeak ardatzean edo goruan egiten badu, ardatza eta gorua ez dira nolanahikoak, dama handi bati dagozkion urre-diamantezkoak baizik. Eman ditzagun adibide gehiago:

1 *Eguben zuri onetan
asmo onagaz kantetan
masu jaunaren diszipulubak
emen gaukazuz atetan.*

2 *Etxeko nausi prestuba
bedeinka zeure eskuba;
etxe onetan lengo urtian
bete genduan sestua.*

3 *Etxeko andre madama
oin señoia ta len dama;
ortxe bidian esan dauskube
limosnagiña zarala.*

4 *Etxeko dama gastia
ointxe da zeure astia;
modu onetan kantau ezkeru
biar geunke irabaztia.*

5 *Ikusirikan zeure modua
zeure aman dauko gogua
Paris'tik zeuri ekarriteko
diamantezko gorua.*

Bederatzi kopla dituen sail batetik lehen bostak aldatu ditugu hona. Al-
datu, gainera, inolako ortografia aldaketarik gabe. Iturria «Euzko-Erri-Jakin-
tza» *Euzkadi*, 1932 urteko uztailaren 9koa da. Kopla zahar hauek ihauterie-
takoak dira. Honelaxe dio biltzaileak: «Apatamonasterio'ko mutiltxubak
abestuten dabez neurtitz oneik, eguben-zuri edo jueves gordo deritxon egu-
nan. Eresi politta daukee». Paristik ekarritako diamantezko gorua agertzen da
boskarrenean. Zergatik? Aberastasunaren seinaleak nondinahi agertzen dire-
lako notetan. Lauaxetak honelaxe iruzkindu zuen sail hau: «Erri, orretako gas-
tiak Parisén egonak dira-edo. Madama irakurten dot ahapal baten-eta... Gero
ostera Paris'tik diamantezko goruba ekarriko dautsola bera ameak dirautse
neskatil gaztiari. (...)». Gure sail honetako hirugarren koplak berdintasun
handia du Abbadie jaunaren emaztearen nota batekin (ikus lehen koplariaren
7 kopla):

*Yainkoac gau-on Madama;
Dakit ainitzec errana,
Ondo horietan yakintzun garela
-Amoña eguilea zarela.*

Aberastasun honen seinale, eman dezagun Azkuek bere paperetan bildu-
tako adibide polit bat (Koaderno gorria 1495 zenbakia, 81 orrialdea):

*Eguerri gabeen
gu gera lengo legean
gazteak emen eldu gira
guziok umildadean.*

*Nagusi jauna barkatu
etzaitut ongi koplatu,
koplari onak baitugu
bainan gaiso zaizkigu gertatu.*

*Zeruan eder izarra
errekaldean laizarra,
etxe onetako nagusi jaunak
urregorritz du bizarra.
maukian urre sagarra
bera maiteak emana.*

Hemen zer degu berri? Bestetan agertzen ez den zerbait ikusten dugu he-
men. Etxeko jaunak badu mahukan urre sagarra ere. Zer da urre sagar hori?
Garbizaleek laranja adierazteko erabiltzen zutena edo beste zerbait? Guri orain
dagokigun kontua da aberastasunaren agergarri aparta agertzen dela azken ko-
pla honetan. Adibide askoz gehiago eman daitezke, baina bego honetan atal
hau.

NOTETAN ERREGEAK, PRINTZEAK, JAUREGIAK... AGERTZEN DIRA

Aurreko atalean bezalaxe hasiko gara oraingo atal honetan ere. Zenbat eta kopla-saila zaharragoa izan, hainbat eta noblezia arrasto gehiago agertuko dira. Era horretara, etxeokak errege-erreginen ezagun eta adiskide dira. Gortera elizara bezalaxe, zaldiz joaten da etxeko nagusia zein etxeko andrea. Noblezia hau, jakina, bat dator aurreko puntuarekin: aberastasunarekin. Gazteluetako handikiak, gorteko errege-erreginak bezalaxe, aberatsak dira. Era honetako koplak batez ere Ataungo kopla-erraskadan agertzen dira, gure lan honetako bigarren gehigarrian. Aitorpen bat egin beharko banu, hemen jarri beharko nuke Joxe Arratibelekin behin baino gehiagotan mintzatu naizela honenezaz. Arratibelen iritzia Isidor Manzisidorrenarekin bat datorrela uste dut. Ataundar hauen iritziz, kopla zahar hauek Nafarroatik etorriak dirate. Nafarroan, Erdi Aroan gortea zegoen garaikoak dira kopla zaharrak. Iritzi honek badu bere oinarria. Erdi Arotikoak badira kopla zaharrak, kopla gortesauak dira neurri batean. Garai bateko handikiak, gaztelutarrak zein jauregitarrak, notatzekoak dira nota zaharrak. Gerora gaztelu, jauregi eta handietxeetatik gainerako etxeetara etxeokak notatzera pasatuko ziren koplariak. Trobadoreak jauregiz jauregi ibili ohi ziren bezala, *ceteris paribus*, gure garai bateko koplariak ere halaxe ibiliko ziren. Nobleziaren arrasto hau Euskal Herri osoko kopla zahar askotan ikusten dugu. Eman ditzagun bazter euskalkietako bat. Zuberoako kopla argitaragabe batean, (*Albadak* direlakoetan kantatzen zirenak) honelaxe esaten da:

*Etxeko jauna bidian,
urrhe kana eskian
erregeri mintza litezu
bere bouneta burian.*

Gure gaurko erara transkribaturik: Etxeko jauna bidian/ ürrhe kana eskian/ erregeri mintza litezü/ bere buneta bürian. Guk hemen transkribatua etxeko jaunaren nota bat da. Era honetakoak askotxo ditugu. Hona bi baka-rrik:

64 *Errekatxoan arri limuri
zaldi urdiñe igari;
orra bada ta (...N) ori
zazpi erregen kriadi. •*

65 *Bestela gizon ona dalarik
jekerea do nagie,
baldin erregek jakiten bado
orren tretaren berrie,
sari batean bialduko lioke
ezpatarekin zaldie.*

XIX MENDEA BAINO LEHENAGOKO TESTIGANTZAK

Guk ditugun kopla-bilduma gehienak hogeigarren mendean eginak dira. Hemeretzigarren mendean egindako kopla-bilketa gutxi ditugu, zoritxarrez. Horrek ez du esan nahi askoz lehenagokoak ez direnik, gorago ikusi dugun bezala. Nahiz eta kopla-bilketa zaharrik ez dugun, baditugu koplak aspaldi kantatzen zirelako froga argigarriak. Uste dugu udal-agiri askotan ikusi daitezkeela koplak kantatzeagatik kendutako multa edo isunak. Gu ez gara era horretako lanketan abiatu baina aipamen bat edo beste aurkitu dugu. Uste izatekoa da askozaz gehiago egongo direla. Guk bi baino ez ditugu ekarriko. Lehena Markina-Etxebarriko on Bernardino abadeak idatzia da berak zuzentzen zuen parroki- horrian. Hona *Gure Erria* aldizkariko 1957ko, Otsailaren 14 zenbakian, lehen orrialdean agertzen dena:

«¿Santa Ageda zein izan zan? Santa Ageda besperan kantuan ibiltea ez da ingoa. Orain 258 urte etorri zan Obispoa Etxebarrira eta ikusirik zelako zalapartak egiten ziran, Elizako kanpaiak ez joteko Santa Ageda bezperan agindu eban. Joten zituenak exkomulgauta geldituko ziral».

Gertaera hau, itxurak direnez, 1699koa da. Zalapartak egiten ziren kanpaiak joaz, baina ez da esaten kantatzen ibiltzen zirenik. Aurkitu dugun bigarren adibidea guri dagozkigun erronda-kantuen berri ematen du (lehenago aipatu Isidor Baztarrika *Jaunaren deia*, 1982, 73. or.):

«El año 1702 la villa prohíbe «salgan por Santa Agueda y al tiempo de bodas ninguna persona a pedir limosna ni cantar pena de 1000 mrs. por cada vez y 15 días de carcel y además se procederá por inobedientes a este mandato».

«El año 1894 seis mozos de Arinbarrioa durante dos noches que anduvieron de casa en casa cantando coplas de Santa Agueda recogieron seis cestas grandes de pan (sei lepasaski), 18 docenas de huevos, abundante tocino y chorizo y 40 pts. en metálico. En algunas casas les dieron un pan de kilo y una docena de huevos.»

Bi testigantza hauetako lehenean, eskean ibiltzeagatik mila marabidiko multa kenduko dutela dio. Lehen testigantza hau oso hurbil dago denboran gorago jarritako Markina-Etxebarriakotik. Duela mende bateko Ataungoak zernolako sariak hartu zituzten dio. Euskarazko azalpena «sei sepasaski» ez da udal-agirikoa, artikulua egilearena baizik.

XIX MENDEKO TESTIGANTZAK KANTUTEGIETAN ETA ABARRETAN

Hemezortzigarren mendean dugun kantutegi bakarretakoa Patri Urkizuk argitaratua da. Kantutegi horren izenburua «Recueil de quelques pièces de vers anciens et nouveaux-1798» da, eta ez dugu guri dagokigun moduko kopla zaharrik aurkitu. Hemeretzigarren mendekoetan ere ezer gutxi. Augustin Chahok bi aldiz-

karitan argitaratzen zituen kantuak *Ariel* eta *Courrier de Vasconie*. Bi aldizkarietan *Ariel* osorik ikusi dugu eta *Courrier de Vasconie* arakatzeko betarik ez dugu izan. Chahoren kantutegia goitik behera traskribatzeko astia hartu dut, hala ere. Kantutegi honetan ez dut eske kopla zaharrik aurkitu. 1857an *Le Pays Basque, sa population, sa langue, ses mœurs, sa littérature et sa musique*. Paris: Didot, 1857 (547 or. 22cms) lanean ere beste hainbeste. Madame de Villehelio (izenez, Julie Adrienne Carricaburu Roger 1827-1898) zuberotarrak argitaraturiko *Souvenirs des Pyrénées. Douce aires basques choisis et notés* liburuxkan ere ez dago ezer. Guk, jakina, Aita Donostik argitara emandako BRVAP, 1954, X, 309-337 or. horretan ikusi dugu. J. D. J. Sallaberryren *Chants populaires du Pays Basque* lanean, 1870koan, ere ez dago eske koplarik. Askoren artean egin zen *Tradition au Pays Basque* lanean, 1899urtekoan, ere ez dago ezer. Ezagutzen dugun guztietan aberatsena Julien Vinsonen *Le folk-lore du Pays Basque* dugu. Liburu honen ataltxo bat, 230-233 artekoa, «Chants de quête» delakoa da. Hona zer dioen:

I

Le dimanche de la Chandeleur (2 fevrier ou jours suivants) les enfants de la commune de Sare se rendaient, il y a une cinquantaine d'années, au pont de portua, situé à l'entrée principal sur la route de Bayonne, et là, ils s'amusaient à se jeter des pierres d'un bout du pont à l'autre. Cet amusement a eu trop souvent de déplorables conséquences.

Le même soir, ils se réunissaient et parcouraient le village en tenant à la main de grands bâtons au bout desquels étaient fichées des chandelles de résine, et ils chantaient:

*Igande chiribitakoa,
Goizik afaritaina!
Eltzean urde kochko:
Guzietan mama gocho!*

(M. C. Dihursubéhère, Sare, 21 octobre 1881)

II

Dans le pays de Soule, les enfants, armés de bâtons, parcourent les villages le premier jour de l'an en frappant aux portes et en chantant:

*Pika, haur! haur! haur! haur!
Sagar eta intzaur!
Pika hera! hera!
Sagar eta pera!
Estrena
Ahalik haboroena!
Besterik ezpada,
Artho tresna!*

(Archu, 13 novembre 1854)

M.J.DJ. Sallaberry me fait observer que, dans certains endroits, cette coutume s'observe, non le jour de l'an, mais le jour des rois (en souletin Apharizio).

III

Dans quelques communes de la Soule, les jeunes gens se présentent, le soir du 24 décembre, devant les maisons où il est né un enfant dans le courant de l'année, et chantent ce qui suit:

Sühülao liu lao!
Etcheto gainean sühülao!
Etcheto gaineke haurtto hori
Zilhar kaideretan dago:
Zilhar eta zilhar tresnak,
Etchen behar diren gaizak;
Etcheto gaineke haurtto hori
Aingürien bihotzeko:
Etcheto gaineke jaun anderiak
Hoiek dira zirentako!

(Archu, 13 novembre 1854)

M. Sallaberry m'écrit que cet usage n'existe pas en Soule, mais, à sa connaissance, dans le pays de Mixe et à Saint-Palais. Il corrige *chirulao*, *etche-tto*, *aingurien*.

IV

Lorsque le quêtes sont contents de la quête, ils chantent:

Etchek'andera, eman düzü ederki,
Kumpaňak re badaki;
Zelian sarthüren zira hamabi aingürüeki.

Si les quêtes sont mécontents, ils chantent, au contraire:

Etchek'andera, eman düzü tcharki,
kumpaňak ere badaki;
Ifernian sarthüren zira hamabi debrüeki.

(Sallaberry, 18 mai 1883)

Testigantza hauek guztiak gehiegi izan ez arren, dauzkagun ia bakarretakoak dira. Zergatik? Artean jakintsuek ez zietelako eske-kantuei beren balio handia eman. Eske kantuen benetako balioa XX mendeko bigarren hamarkadan emango zieten. Azkue handiak bere *Euskalzale* (1898, Epaillaren 3, 69. or.) aldizkarian agertzen duen testigantza lehenetakoa da. Hona:

- | | |
|---|---|
| <p>1 <i>Keriza txiki betea
aurten da zure urtea:
Orain emendi kantauko dogu
Etxeko Iaunen koplea.</i></p> <p>2 <i>Etxe onetako ugazaba iaunak
Urregorritzko bizarra,
Urregorritzko bizarra eta
Azur ta mamin ezpada.</i></p> <p>3 <i>Etixerik eta Elizaraño
Erreal bikoiz kaltzada,
Erreal bikoiz kaltzada eta
Peseta berriz plazara.
Aien gaiñetik etxeko iauna
ibiltan da Mezatarra.</i></p> <p>4 <i>Arantza-baltzak orria txiki
puntarantz dauko lorea.
Etxeko andara noblearentzat
orai eldu da suertea.</i></p> <p>5 <i>Bera notadu bear da lenengo
alargun bedeinkatea:
begiratuta bere etxean
dirudi erregiña.</i></p> | <p>6 <i>Berriz bidean dabilenean
ziertu soberanea:
Santa Agedak gorde daiola
gaur daukan ermosurea.</i></p> <p>7 <i>Ortxe goian errota
Uruna ongi eiota,
Etxe onetako etxeko Andrea
Santa Agedaren debota.</i></p> <p>8 <i>Santa Agedaren debotatzurik
bein bere ezta galtzien
bir milla Aingeruk laguntzen dio
bera dan leku guztien.</i></p> <p>9 <i>Zaldi eder bat ekarri diot
Kanpoti etxeko iaunari:
orrenbesteko erregalu bat
ezteutsat egin iñori.</i></p> <p>10 <i>Aren gaiñean jartzen danean
bere ezpatea artuta
denpora asko pasau bagarik
dago Madrillen sartuta.</i></p> |
|---|---|

Nota hauek santa Agedaren bizitzaren ondoren kantatuak dira Bilbo ondoko Etxebarri herrixkan. Ez ditugu hona aldatu santa Agedaren bizitzaren berri ematen duten koplak gure lana gehiegi ez puztearren. Badu sail honek edertasunik. Nagusiari zaldi bat ekarri diola dio Madrilen bizkor agertzeko. Hiri handiak agertzeko joera hori nabarmena da kopia zaharretan. Hiri handietan jauregiak eta handietxeak ez ezik, Erregeren gortea ere egon ohi delako. Zaldi gainea, gainera, ezpata hartuta joango da. Nola ez? Garai bateko Erdi Aroko kutsua alderdi guztietatik darie kopia-sail zaharrei.

LEHEN GEHIGARRIA

Lehen gehigarri hau Donostiako Koldo Mitxelena liburutegiko ondarean agertzen den kopia-bilduma ederra da. Dokumentuaren izena: «Urte-zar, Egua-ri, San Nikolas, Iñauteritan ta Santa Agedatako kopia zarrak». Bilduma hori nongoa den ere badakigu: Oiartzungoa. Kopia bakoitza paper batean idatzia dago. Badirudi koplariak buruz ikasteko edo kantuan ari zela gogoratzeko kopia bakoitzari paper karratu bat eskeini ziola. Koplariak egin ohi zuena egin ote zuen biltzaileak? Biltzailea Miren Pilar Lekuona dugu. Garai bateko koplariak –denek ez bazuten egiten ere, zenbaitek egin zezaketela dirudi- egin ohi

zutena egin bide zuen berak ere: kopla bakoitzari paper bat eskeini. Kopla-bil-keta hau nola egin ote zen? Erantzuna bilatzen aritu ondoren, hona zer aurkitu duan. *Euskal Esnalea* aldizkariak egindako deialdi batera hainbat kopla-bilduma agertu ziren. Bai kopla batzuk argitaratu ere. Gure sail honek «Nik zaldi ttiki-ttiki bat illa non den badakitt» lema du eta lehen paperean biltzailearen izena. Badirudi agertu ziren bilduma guztietatik gutxi batzuk baino ez zirela argitaratu *Euskal Esnalea* aldizkarian. Gutxi horietatik, gainera, zati bat edo pus-keta bat baino ez. Gure oraingo hau 1931-Dagonil-Irail-Urril 32-33-34 zenbakia «Santa Ageda kantak», 175-177 or. argitaratu zen. Santa Agedaren bizitzaren berri ematen duten koplak baino lehen, argitasun hauek agertzen dira:

«EUSKAL-ESNALEA'K eragindako batzaldira salla eder eta bikaña etorri zitzaigun. Batzuen-batzuk, askoren artean, aukeratzea, ez da asmabide egokiya izaten, irakurleen gogoia oso-oso asetzekotan batez ere. Aukeraren maukera, okerrena.

Bateri au gogoko: besteari alako, ez dakigu zein lili aukera, baratz-ate-on-doan daudenai alaikun zakona ezartzeko.

Beste-alde berriz, ezin argi-matazetara igorri genezazkike begi-aurrean dauz-kagun paper-txorta danak. Euskal usain gozoa orok duten eskeroz, txortetara jo degu, irten-ala argitaratu ditzagun.

Ona emen, txorte-mortez atera zaizkigunak. Lekuona'tar Miren Pilarrek bil-duak dira.»

Miren Pilar Lekuonaren bilduma honetan guztira ehun eta hirurogeta sei paper-puska daude. Guk lan honen gehigarrian denak transkribatu ditugu 138 zenbakitik 145 zenbakietara bitartekoak izan ezik. Zenbaki hauetan Altzoko bertsolariak jarritako zazpi bertso daude. Gure lan honetako asmoa kopla zaharrak agertzea da eta ez bertsolariak jarritako bertsoak. *Euskal Esnalea* aldizkarian argitaratuak 153 zenbakitik 166 zenbakira bitartekoak dira. Bilduma osoko azken hamalau kopla, beraz. Badago besterik ere, *Euskal Esnalean* argitaratuak ez dira eskuidatzitik egindako transkripzio zuzenak, apurren bat orraztuak edo txukunduak baizik.

Bilduma zoragarri honen titulua liburu-azal batean dago. Liburu hori Isaac Lopez Mendizabalen *Manual de Conversación Erdera=Euzkera segunda edición* 1918. Liburu azal horretan, gorago esan dugun bezala, biltzailearen izena ere agertzen da. Biltzailearen izena garai hartako erara agertzen da: Lekuona'tar Miren Pilar. Bilduma, beraz, 1918koa edo geroagokoa da inolaz ere. Gutxi gora beherako data honek izan dezake zehaztasun handiago bat. Zergatik? Oiarzungo alkatearen notan, «Pedro Arbide Aldakokua» izena agertzen delako. Pedro Arbide honen agintaldia Oiarzunen 1926ko otsailaren hamairutik 1928ko urriaren bederatzira artekoa izan zen. Koplak kantatu ziren garai zehatzago bat badugu, beraz. Horrek ez du, hala ere, bilketaren zehaztasunik ematen. Badakigu, koplak 1927an edo geroago bildu zirela, 1926an ezinezkoa baitzen kantatzea, artean, Eguerrietan Pedro Arbide ez zegoelako alkate. 1931 urtean argitaratu bazen, badugu beste zehaztasun bat. Kopla bilduma hau 1928tik 1931urteen artean egin zen.

Orain goazen beste sail batera eta hitz egin dezagun biltzailearen gainean. Zein da Lekuona'tar Miren Pilar? On Manuel Lekuonaren arreba izango ote zen susmoa izan genuen. Baita asmatu ere. Maria Pilar edo Miren Pilar Lekuona Manuel Lekuonaren arreba izan zen. Bederatzi neba-arreba edo senideren artean Miren Pilar zazpigarrena izan zen. *Argia* astekariko korrespontsal edo idazle izan zen 28 urterekin ezkondu zen arte. *Argia* astekariko artikulua «Mirentxu» izenez izenpetzen zituen. Zehaztasun hauek berorren alaba Pilarrek eman dizkit. Baita jaiotze eta heriotze datak ere: 1906-1999. Behin honetaraz gero, hainbat galdera erretzen dira. Miren Pilarren koplak eta Manuelenak berdinak dira? Miren Pilarrek Manuelek egindako uztatik ere hartuko ote zituen? Miren Pilarrek Oiarzunen jasotako koplak asko ez dira on Manuelen bilduman agertzen. Bestela esan, Miren Pilarren Oiarzongo bilduma on Manuelena baino aberatsagoa da. Aberastasun hori, uste izatekoa denez, koplari aberatsago bati biltzetik datorke. Baliteke, bestaldek, Oiarzongoak ez diren zenbait koplak on Manuelen bilketatikoak izatea, baina, jakina, azken hau gure ustea da. Eta uste guztiak edo gehienak bezala erdi ustel atera daitezke. Miren Pilarren bilduma hau gure lan honen aberagarri eta hornigarri agertu dugu, guk ezagutzen dugun koplak-sailik polit eta xarmantena delako. Polit izateaz gainera, ez da, nik dakidala, bere osoan inon agitaratu.

Behin kontuak honetara, egin dezagun beste galdera bat. Koplak hauek zertxobait ukituak ote daude? Lehen koplak zertxobait ukituak egon daitezkeela dirudi. Baina honetan ere ezin dugu ezer ziurtatu. Garai bateko hitz asmatu-rik edo garbi usainekorik ez dago. Lege zaharrako koplak-saila dugu, inolaz ere. Pentsatzekoa da herri berean ere koplak berak edo beretsuak kantatu arren, koplari batetik bestera alde apurren bat izango zela. Gainerako Oiarzongo bildumekin erkatzeko modua izan dugunez, eman ditzagun zenbait adibide. Manuel Lekuonak bildutakoetan «La Poesía popular vasca» *Quinto congreso de estudios vascos 1930*, Nueva Editorial 1934, 132-174 or. Honela datoz: 1) Be-deinkatua, alabatua/ Aldareko Sakramentua;/ pekatuaren mantxarrik gabe/ zeña dan kontzebitua. 2) Au aiziaren epela!/ Airian dabil orbela;/ etxe ontako jende leyalak,/ gabon Jainkoak diyela. 3) Zapata txuri paperez; euri denian bate-rez;/ Nagusi Jauna, esan bizaigu/ asiko geran edo ez. 4) Gizon txiki bat golbero;/deitzen diyote barbero;/ lizentziyarik izan ezpalitz/ esan ziguten gaurgero. 5) Lezo ta Errenterriya;/ irugarrena Oyartzun;/ nere lagunak, *Dios te salbe!* garbuarekin erantzun. Coro: *Dios te salbe!* Ongi etorri!/ Gabon Jainkuak diyela!/ Legiarekin konple dezagun/ Urte-berriren sarrera.

Beharbada lehen sei koplak hauek ematen dute Manuel Lekuona eta Miren Pilar Lekuonaren arteko aldetxo. Batean «baimen» hitza agertzen da, bestean «lizentziya». Batean «sortua», bestean «kontzebitua» eta abar. Urtezaharretako hasierako aldaerak zilegi hauezaz gainera, –koplari batetik bestera egon daitezkeenak, hain zuzen–, koplak-saila ez dago inondik inora ere, guztion zorionean, txukundua ez garbitua. Uste dut, hemen ere, Lekuonatarren herri literatura sen jatorra garbi bezain argi ikusten dugula. Herri sen jatorra ez

ezik, mendez mendeko ohitura jatorra guganaino iritsi den bezala jasotzeko arreta zentzuzkoaren erakusgarria ere bada koplak-bilketa hau.

KOPLEN GURE TRANSKRIPZIOA DELA ETA

Nola aldatu koplak gure artikulura? Ez dugu pentsatu gure aldizkari honetako irakurle landuari gaurko ortografiara egindako transkripzio bat ematea biderik egokiena denik. Koplak jatorrizko iturrian dauden bezala aldatzen aha-legindu gara, beraz. Egin dugun aldaera bakarra r eta l gangarduna, -rr- eta -ll- transkribatzea izan da. Hutsen bat zuzendu dugunean, parentesi artean jarri dugu zuzenketa. Ondo irakurtzen ote dugun seguru ez bagaude, parentesi artean jarri dugu galde-marka. Koplek duten numerazioa dela eta jatorrizkoa jarri dugu geure lanean. Zergatik? Norbaitek jatorrizkoarekin erkatu nahiko balu, askoz errazagoa izango lukeelako lan hori. Numerazioaren kontu horretan badago zerbait hona aldatu ez duguna. Etxeko bakoitzaren paper-puskaren ondoan beste numerazio bat ere jarri du. Eman dezagun parrokoaren koplak, parrokoaren notak gure deitzeko moduan, 19-24 artekoak direla. Zenbaki horiek ezkerretara izango du paper bakoitzak. Baina ezkerretara zenbaki-era berria izango du. Hemeretziak 1, hogeia 2. Era horretara, badakigu 6 kopla dituela parrokoak. Sei kopla hauetatik gure notak izendatzeko moduan 5 nota lirateke. Hirugarrenak eta laugarrena nota konposatu bat egiten dutelako.

Era horretara, lehen zenbakia duen paper-puskak «Urte-Zarretan» jartzen du. Bigarrenak «Sarrera» hitzaren azpikaldean ohartxo bat. Honela dio («Oarra: Nunguak diren ez diotenak Oyartzun'guak dira»). Bilduma honetan gehien harritzen gaituena duen aparteko aberastasuna da. Etxekoen zenbait nota hemen bakarrik ikusi ditugu. Bizkaiko notak eta Zuberokoak ere harritu gaituzte, baina ezagunak dira, inolaz ere. Harrigarrienak Oiartzungoak berekoak eta Nafarroakoak dira.

URTE-ZAR, EGUARRI, SAN NIKOLAS IÑAUTERITAN TA SANTA AGEDATAKO KOPLA

- | | |
|--|---|
| <p>3 <i>Bedeinkatua, alabatua
aldareko sakramentua!
Eta pekatu-kutsurik gabe
Birjiña garbi sortua!</i></p> | <p>5 <i>Zapata txuri paperez,
euri denian baterez;
Nagusi Jauna, esan bizaigu
asiko geran edo ez.</i></p> |
| <p>4 <i>Au aiziaren epela!
airian dabil orbela;
etxe ontako jende leyalak
gabon Jainkoak diyela!</i></p> | <p>6 <i>Gizon txiki bat golbero
deitzen diyote «barbero»;
baimenarikan izan ezpalitz
esan ziguten gaurgero.</i></p> |

- 7 *Lezo ta Erreteriya,
irugarrena Oyartzun;
nere lagunak Dios te salve
garbuarekin erantzun.*
- 8 *-Dios-te-salve! Ongi etorri!
-Gabon Jainkoak diyela!
Legiarekin kumpli dezagun
Urte berriren sarrera.*
- 9 *Urte berriren sarrera da ta
eskian gatoz atera,
Birjiñ Amaren Seme garbiya
dijualako pontera.
Guztiok: Dios-te-salve!*
- 10 *Santi Silvestrek ekarri digu
izar eder bat giyari,
gaba ementxen igarotzeko
ate onduan kantari.
Guztiok: Dios-te-salve.
(Naparrukua)*
- 11 *Juntaturikan etorri gera
kompañia bat fidela:
agur etxeko jente leialak,
Jainkuak gabon diela.
Guztiok: Dios-te-salve.
(Naparrukua)*
- 12 *GUZTIOI*
- 13 *Gabon Jainkuak, Nagusi:
Txapela dizut erantzi;
zuregandikan orain bear dut
kantuz asteko lizentzi.
Guztiok: Dios te salve. (6)*
- 14 *Eder Elizan liburu,
usuak aren inguru;
Etxe ontako txiki-aundiak
paradisuan aingeru.*
- 15 *Eder Elizan aldare
arri labratuz pillare;
Birjiñ Amaren maitatzalliak
etxe onetan dirade.*
- 16 *NAGUSIARI*
- 17 *Lagunak asitzen zaizkit
aldamenetik legatzen:
asiko baniz asi nadilla
Nagusi jauna koplatzen.*
- 18 *Uso txuriyak kotara,
nere begiya lotara;
Nagusi jauna, oraintxe nua
berorren koplaetara.
(Naparrukua) Parrokoa bada.*
- 19 *Etxean eder mandio,
mandazai orrek adio;
erri ontako, Yaun Erretoreak
zazpi erreinen balio.
(N)*
- 20 *Etxean eder gerrena,
gerrian goru-kertena;
erri ontako Yaun Erretora
Paradisuan goiena.
(N)*
- 21 *San Gregorio-n atari
argin-maisuak ezarri;
erriko gure Yaun Erretora
antxe sartzean ederki.
(N)*
- 22 *Antxe sartzean ederki eta
ateratzean obeki;
ateratzean obeki eta
bidez yoaitean egoki.
(N)*
- 23 *Mantu beltza lurreraño,
kabardiña erdiraño;
Yaun Erretorak parerik ez du
Salamanka-tik onaño.
(N)*

(6) Beti berdiñ, kopla bat edo biren ondokik....

- 24 *Oin zuri zapatapeko
aztal txuri galtzetapeko;
eskuak berriz kotsagratuak
Sagaran Jauna altxatzeko.*
- (N) Apaiza bada:
- 25 *Elizan eder liburu
urre albiñuz inguru;
Etxe ontako Apaiz Jaun ona
Paradisuan aingeru.*
- (N)
- 26 *Sagarra da sagartzean,
erori da lur otzean;
etxe ontako apaiz jaun onak
sei aingeru biotzean.*
- (Urkiakua)
- 27 *Eder eskuan kaliza,
soñean sobrepeliza.
Txit sermolari sonatua da
etxe ontako apaiza.*
- (N)
- 28 *Ezkillak errepikatzen,
jendiak zer dan galdetzen,
etxe ontako apaiz jaun ona
aingeruekin mintzatzen.*
- (N) ALKATEA BADA:
- 29 *Oyanian zein den eder
arbola luze lerdena;
Jaun erretora lenengo eta
alkate jauna urrena.*
- (N)
- 30 *Sagar gorri gezatea,
gerrian bere ezpatea;
Pedro Arbide Aldako'kua
Oyartzun'go alkatea.*
- ETXEKO JAUNA BADA
- 31 *Orroko or goyan elorri,
ondua jota erori,
itxi ontako Nagusi Jaunak
Errejidore dirudi:*
- 32 *Esku txuritan papera,
mayian urrez platera;
lotsa gogorrez eldu gerade
jauna berorren atera.*
- 33 *Eder soluan goldia,
soñian kapa moria;
etxe ontako Nagusi Jauna,
ondo gizontxo noblia.*
- 34 *Ardiak dabiltza larrez,
belarrez ase bearrez;
etxe ontako Nagusi Jaunak
bular arteak zillarrez.*
- 35 *Eder zeruan izarra,
errealdian lizarra;
etxe ontako Nagusi Jaunak,
urre gorritz du bizarra.*
- 36 *Urre gorritzko bizarra eta
zillar zurizko espalda,
errial bikoz egiña dauka
elizarako galtzada.*
- Antzuola
- 37 *Errial bikoz galtzada eta
lau zurikoz ataria;
etxe barruan betik goraño
zillarrez eskillaria.*
- 38 *Eskillaratan bueltatu eta
kuarto txiki bat berria;
aretzek zeukak lau kantoietan
igeltsu orde z urria.*
- 39 *Etxe ontako Jaun zalduna
Jesukristo'ren laguna;
biar ta askotan goza dezagun
Urte-berri jai-eguna.*

MUTIL ZARRA BADA

40 Nagusi Jauna barkatu
ezpana(i)z ongi mintzatu;
ustez beñepeñ seaskan aurrik
eztizugu gaur esnatu.

41 ETXEKO-ANDREARI

42 Nagusi Jauna, barkatu,
ezpanaiz ongi mintzatu;
zure baimenez nai nuke oraiñ
Etxeko andria koplatu.

43 Eder intxoren kordena
alaxen degu ordena;
Etxeko Andria koplaturteko
Nagusiyaren urrena.

44 Emen burrunzti deitzen diyogu
Napar aldian gerrena.
Etxeko Andrea kopladezagun
nagusiyaren urrena.

45 Baratzan dago txermena,
ondotik gora lerdena;
Etxeko andrea kopladezagun
Nagusiyaren urrena.

46 Orrako or goyan errota
iriña dago iyo-ta.
Etxe ontako Etxeko Andria
Birjiñ Amaren debota.

47 Orrako or goyan elorri,
ondua jota erori;
Etxe ontako Etxeko Andriak
Ama Birjiña diruri.

48 Gure soroa sakona dago,
aldamenean egia;
San Pedro txikiz edi nedilla
esan ez badet egia.

49 Gure soroa sakona
orra Etxeko Andre ona;
Pazku goizean jantziko ditu
bere soñean sei gona.

50 Txuri nabarra azpiko,
gorri ederra gañeko;
Andria zure parerik ez da
plaza bat ondraturteko.

51 Zaia duzu lurreraño
sederia erdiraño;
zure parerik ez dela jaio
Londres'tik eta onaño (7).

52 Etxe ontako Etxeko Andria
zaldiz da elizaratzen
zaldiz da elizaratzen eta
zilarrez du ofrendatzen.

53 Andik etxera datorrenian
urre-sillan da jarritzen
txokolatia artu artian
ez dek andixik mugitzen,
txokolatia artutakoan
kalera pasiatutzen.

54 Eder basuan ezpela,
nik eziñ esan bestela;
zure besoan lo egiñ leike
paradisuan bezela.

55 Ametzak eder azala,
aritz gazteak bezala;
Etxeko Andrea etxe onetan
ba-dago zure bearra.

56 (Naparroa)
Alarguna ba'da:
Aristuz danok leiotik
batetik eta bertzetik;
emen bizi den alargun onak
urre zakuak kutxatik.

57 ETXEKO SEMEARI

58 Illarra zaigu loratu,
oraindik ez da lekatu.
Etxeko Seme ezkongai ori
orain nai degu koplatu.

(7) Jatorrizkoan /.../.../ *Londes'tik eta onaño*.

- 59 *Urian eder antzara;
Etxeko Seme nun zera?
Gu emen guaz mundurik-mundu
limosnatxo bat biltzera.*
- 60 *Eder urian antzara.
Etxeko seme non zera?
Gu zuregana etorri eta
iñon ageri etzara.
(Napar.)*
- 61 *Urian eder lotria,
aren gañian kofria;
Etxe ontako mutill gaztiak
kutxan daduka dotia.
(Goierri)*
- 62 *Orroko or goyan iturri,
ura txorrotik erori;
Etxe ontako zaldun gaztiak
amalau urre-txintzarri.
(Goierri)*
- 63 *Amalau urre-txintzarri eta
zazpi damaen eguzki;
oyek guztiyok ala izanik
geyago ditu merezi.*
- 64 *Au arratsaren illuna!
Etxeko seme zalduna,
orla bakarrik txarki zaude ta
bear zenduke laguna.
Mutill-zartzen badijoa:*
- 65 *Orroko or goyan antzara,
Praxkantonio non zara?
Kaxka urdintzen asi baño len
zertan ezkondu etzara?*
- 66 **ALABARI**
- 67 *Arantza beltzak ostua txiki
udaberrian loratsu;
oraingotikan bear genduke
dama gazte bat koplatu.*
- 68 *Etxeko Alaba non zera?
Iñun ageri etzara.
Atoz lenbailen ate-ondora
gabeko illunak kentzera.*
- 69 *Emen eldu naz bellari....
gabak eguna diruri;
nik bear nuen dama gaztia
amak lo ote ezarri?
Nik irazarri al ba'nezake
asi biar dut kantari.*
- 70 *Larre gorrian eperrak aide,
pagadietan usua,
neskatxa gazte airodua da
Paula Mendiberrikua.*
- 71 *Xulufriña ta larrosa
andere (i) eder garbosa;
Naparruako Errege Jaunak
zu omen zaitu promesa.*
- 72 *Orroko or goian otia,
guziya lorez betia;
etxe ontako dama gaztiak
kutxan daduka dotia.*
- 73 *Iru seme ditu amak eta
iruetan bat arrosa;
ederren ori zuretzako da
neskatxa eder garbosa.*
- 74 *Etxeko alaba, non zera?
Iñon ageri etzara.
Lau galai gazte ditut eta
jarriko dizut aukera;
neroni ere gayian nago
baldiñ gustatzen ba'zera.*
- 75 *Arrosa, lilia, lore,
zure masallen kolore;
gaztetan ama ederra ba'zan
ba-zera bat-txo zu ere.*
- 76 *Damatxo txukun, garbiya,
azal piñ txuri gorriya;
zure masalla iduritzen zait
krabeliñaren orriya.*

- 77 *Krabeliñaren orriyarekiñ,*
arrosa Mayatzekua:
zuri begira ementxe nago
damatxo biyotzekua.
Neskazarra bada:
- 78 *Orroko or goyan antzara,*
Joxepiñazi non zara?
Beste guztiyak ezkondu eta
zu zertan egiñ etzara?
- 79 **ESKEA**
- 80 *Orroko or goyan ermita,*
San Gregorio deritza;
ango prailiak agindu eta
limosna biltzen gabiltza.
- 81 *Etxeko Andre zabala,*
toki oneko alaba;
bidian nator informaturik
emalle ona zerala.
(Napar.)
- 82 *Supazterrean jarririk*
musua gorri-goririk;
guri zerbaitxo ematearren
jeiki bear dezu ortik.
- 83 *Landan eder mitxeleta,*
Goyerriyan Amezketa;
guk ere zerbait merezi degu
andikan etor(r)i-eta.
- 84 *Prantzizatikan Españaia-ra*
etorri zaigu kazeta:
etxe ontatik ateratzeko
erriela ez bada pezeta.
- 85 *Gaztain egosi intxaurrek eta*
sagarrarekiñ ogia;
berdin da ekartzen ba-diguzu
urdai puska bat lodia.
- 86 *Dios te salve, bakallo jale,*
bost eta sei amaika;
txorixorikan ez baldin ba'da
igual dela lukainka.
- 87 *Lukainkatxuari tiraka zebilek*
sillatxuaren ganetik;
bat delakuan bi askatuta
or ekarriko al dizkik.
- 88 **ESKERRAK**
- 89 *Eder ezpata magiarekiñ,*
magia prontalarekiñ;
etxeko Andria etorri zaigu
eskupeko ederrakin.
(Napar.)
- 90 *Eman diguzu ausarki*
konpañak ere badaki;
eman diguzun diru orrekiñ
egingo tugu tortxa bi.
- 91 *Tortxak bear du arie,*
ariek argizarie;
danok onela emanezkero
bigar a! zer aparie!
(Napar.)
- 92 *Eman diguzu ederki,*
kunpañak ere ba-daki;
zeruan sartuko zerade zu
amabi aingerurekiñ.
- 93 *Arboletan den luziena da*
ibai-ertzean makala;
neri eskia eman didana
Jainkuak bedeinka (de)zala.
(Urkia ?) (8)
- 94 *Errekan dago igela,*
preskoa dauka gibela;
orain emendik bagoaz eta
gabon Jainkoak diela.
(Zubero)
- 96 *Baratzan (9) da belar on,*
gabek eman ttu lau oron:
gu ba'goatzi emendik eta
Jainkoak diela gabon.

(8) Ez dut ondo irakurtzen zein herritakoa.

(9) «Baratzan» horren gainean e dakust,
«Baratzean», beraz?

- 97 *LIXTORRAK* (Napar)
- 98 Ari naizela, ari naizela
nekatu zaizkit ezpañak;
etxe ontatik espero ditut
errial bi ta gaztañak.
- 99 Ematekotan emazu,
bestela ezetz esazu,
ate-onduan otzak iltzera
amak ez gaitu bialdu.
- 100 (Napar.)
Etxe ontako Etxeko Andria
ezin jeiki da oietik:
sangri txiki bat komeni luke
i...-zuloko zañetik.
- (N)
- 101 Urian eder xalanta,
airian eta galanta;
itxe ontako Etxeko Andria
alperra eta garbanta.
- 102 (Antzuola)
Etxe ostian asuna,
Etxeko Andre lizuna;
eman bearrak egiten dizu
estemanguko illuna.
- 103 (Napar.)
Goazen goazen emendik
emen ez ditek urdairik;
etxe ontako gazi kutxean
saguak ume egin dik.
- (Goierra)
- 104 Armariuan sagua,
arri begira katua;
etxe ontako limosnarekin
ez-tek beteko zakua.
- (Bizkaia)
- 105 Or goien goien landetan,
eperra dabil kantetan:
etxe ontako ugazabeak
k--- egin dau praketan.
- 106 *Dios te salve*, bakallo jale,
legatza balitz obia;
Itxi ontako Etxeko Andriak
atorra k.. betia.
- (Antzuola)
- 107 Eder kakuan uztarri
gure astuak p... bi;
bata etxeko Jaunarentzako,
bestia Etxekoandriari,
gañerontzeko txiki aundiak
muñ ip... alkarri.
- (Antzuola)
- 108 Mendi altuan gau illunian
pasiatzen du otsuak;
lepa-zorriak itoko al ditu
etxe ontako atsuak.
- (N)
- 109 Akio eta makio!
lepua austen ba-lakio!
Ni mediku eta zu barbera
sendatzen ezipalakio!...
- 110 *OSTATURAKO*
- (Aya)
- 111 Astoak on dik oloa,
idiak arto-lastoa;
festa onetan edan dezagun,
Petiri, ekar ardoa.
- 112 (Aya)
Eder olaan gabia,
larre onean ardía;
Nafarra baño obe diagu
Zaragozako zuria.
- 113 *OLENTZERO-EGUERRITA-
RAKO KANTAK*
(BETERRIKOAK)

- 114 *Emen eldu gerade
berri on batekiñ,
gaur Belen'en jayo dan
Aurtxo Jesus' ekiñ.*
- 115 *Otzak dardaraz dago
askatxar batian,
siaskatxorik gabe
negu gogorrian.*
- 116 *Josepe gizon ona
arotza zera zu
aurtxo polit oneri
siaska egiyozu.*
- 117 *Artzai buru txuri bi
Antton eta Peru,
Belengo estalpera
etorri zaizkigu.*
- 118 *Sartu dira barrena
Manueltxo' gana;
presente egin diyote
arkumetxo bana.*
- 119 *Batek arkumia ta
bestiak ardiya;
alkar aditzen dute
Jose ta Mariak.*
- 120 *Agur! eskerrik asko
agur etxeakuak!
Urrengo urte-arte
emendik ba-guaz.*
- 121 *GABON-EGUARRITARAKO
KANTAK
(GOIERRIKOAK,
URKIAKOAK)*
- 122 *Joles ta joles! Etxekotxoak,
nik jotzen ditut ateak;
nik jotzen ditut ateak eta
ondo erantzun jendeak.*
- 123 *Agur ta (i) agur, jende leialak,
gaur berri on bat dakargu;
ernai dagola pixka batian
iñork aditu nai badu.*
- 124 *Adan da (i) Ebak egin zutean
Paradisuan pekatu;
gure lan eta neke guztiyak
andikan ziran gertatu.*
- 125 *Jaun zerukoak orduxetikan
nunbait zuan asmo artu
gero denboraz Adan berri bat
bearko zuala sortu.*
- 126 *Eba berria Josepe-rekin
Belenen degu topatu:
ango estalpe xar-xar batean
arkitu dute ostatu.*
- 127 *Deo gracias joles ta joles
guztiok gabon-gabea!
Belen'dik gatoz poztu-pozturik
Jesus an jaio denean.*
- * * *
- 128 *OLENTZERO KANTAK
OYARTZUN'GOAK
Guztiok*
- 129 *Emen eldu gerade,
berri on batekiñ;
gure «Enbajadore»
Olentzerorekiñ.
Koplariak*
- 130 *Olentzero joan zaigu
mendira lanera
bere uste osuan
ikatz egitera.
Aditu duanian
Jesus jaio dela,
laisterka etorri da
parte emantera.
Guztiok Orra! Orra!*
- 131 *Gure Olentzero!
Pip'ortzian duela
exerita dago,
kapoyak ere battu
arrautzatxuakiñ,*

- biar berendatzeko
botilla-arduakiñ.*
- Koplariak:*
- 132 *Olentzero guria
zorion gabia;
jantziyak saldu dizka
bere emaztiak.*
- Guztiok: Orra! Orra!...*
- 133 *Koplariak:*
- Olentzero iñundik
eziñ degu ase:
Osorik jan dizkigu
amar zerri gazte;
saieski ta solomo,
makiña bat este...
Jesus jaio da eta
kontsola zaitezte.*
- Guztiok Orra! Orra!*
- 134 *(Urte-zarrekuak bezela kanta-
tzen dira onelako bat edo bes-
te:)*
- Dios te salve! Ongi etorri!
-Gabon Jainkoak diela!
Legearekiñ kunpli dezagun
Eguarriren bezpera.*
- 135 *Gabon jaieko gabian
gaude lengo legian:
Guztiak emen eldu gerade
guztiok umildadian.*
- Guztiok: Dios te salve!...*
- 136 *Ari naizela, ari naizela
nekatu zaizkit ezpañak;
itxe ontatik espero ditut
bi errial ta gaztañak.*
- 137 *Ematekotan emazu,
bestela ezetz esazu;
ate-onduan otzak iltzera
amak ez gattu bialdu.*
- 146 *SAN NIKOLAS' ETARAKO
KANTA*
- 147 *San Nikolas txikia
gure ganbaran azia
-Gure ganbaran zer dago?
-Andre Joana Maria.
Ave ave Maria!*
- 148 *Dios te salve! Bakallo-jale!
Bost eta sei amaika!
Txorixorikan ez baldin bada,
igual dela lukainka.*
- 149 *Guztiok:
-Dios-te-salve! -Ongi etorri!
-Gabon jainkoak diyela!
Legiarekiñ kunpli dezagun
San Nikolas-en pezpera.*
- 150 *(Urte-Zarrekuak bezela kanta-
tzen dira onelako bat edo bes-
te:)*
- Batek:*
- Samikolas-ek ekarri digu
izar eder bat giyari;
gaba ementxen igarotzeko
ate onduan kantari.*
- (Iñauteritan len kantatzen ziran,
Urte-Zarretan bezela, aietako
bat edo beste:)*
- 151 *Eldu gerade urrundik,
gaba bidian emanik,
gaba bidian emanik eta
iyote dela entzunik.*
- Guztiok: Dios te salve!...*
- 152 *SANTA AGEDARENAK
(Ez dira Oyartzun'en kantatzen)*
- 153 *Santa Agedatan*
- Santa (i) Agedak ekarri digu
izar eder bat giyari,*

*gaba olaxen igarotzeko
ate-onduan kantari.*

Guztiok: Dios-te-salve.

Santa Ageda-tan

154 -Dios-te-salve! –Ongi etorri!
-Gabon Jainkuak diyela,
legearekiñ kunpli dezagun
Santa Ageda-ren bezpera.

155 Koplariak:

Agur etxeko jende leiala!
Santa Agedaren eskea.
Berak danontzat lortu dezala
osasuna ta pakea.

Guztiok: Berak danontzat....

156 Koplariak:

Katana eta Panorini
Itali'n dira erri bi;
Ageda, nungo lorea ziñan
iñork oraindik ez daki.

Guztiok: Ageda nungo...

157 Koplariak:

Aurpegiz eder Ageda,
biotzez da ederrago;
Kintziano nagusi jaun ori
beraz zoratua dago.

Guztiok: Kintziano...

158 Koplariak:

Bañan Ageda kristaua izan
ta bera jentil gaiztoa;
«Nor(k) jentilduko (i) ote-dit neri
nere Ageda gaxoa?»

Guztiok: Nor jentilduko...

159 Koplariak:

Aprodizi atsotzarra
alegiñez saiatzan da;

*bañan alegiñak egiñ arren
len bezin garbi Ageda.*

Guztiok: Bañan alegiñak...

160 Koplariak:

«Aprodizi, zuk ezin ba' dezu
neronek dakit zer egin:
makillazoka dana ebaindu
gero burni goriakin»

Guztiok: Makillazoka...

161 Atera beso-ezurrak
gero ebaki bular(r)ak.»-
Neskatz gaxoak negarrik ez du
bañan bai lotsa gogorrek.

Guztiok: Neskatz

162 Koplariak:

«Bular ebakitzea biotzak
biar lizuke galazi;
ez al zinduan, aurra ziñala,
amak bularrean azi?»

Guztiok: Ez al zinduan...

163 Koplariak:

Alper-alperrik egiñak
Kintziano'n alegiñak;
aingeru batek agertu eta
sendatu dizkio miñak.

Guztiok: Aingeru batek...

164 Koplariak:

«Zeruak orla sendatzen duna
berriz zauritu nai dezu?
Or(r)enbeste biotzgabekeriz
lurra ikaraz daukazu.»

Guztiok: Orrenbeste...

165 Koplariak:

Len zauriz orain geyago,
gaxoa azkenetan dago;

-«Jesus maitea gertu naukazu
zure (i) eztaietarako.»

166 *Koplariak:*

*Len Siziliako lore guztitan
zan lorerik ederrena:
orain zeruko izar-soroan
dan izarrik argiena:
berak iltzean sartu gaitzala
zeruan zuzen zuzena.*

Guztiok: Berak iltzean...

BIGARREN GEHIGARRIA

Euskaraz dugun eske-kopla bildumarik eder, luze eta zaharrenetakoa Isidor Baztarrika beneditarrak argitaratua da. Isidor Baztarrika ataundarrak «Ataungo Santageda kantak» izenburuko artikulua argitaratu zuen *Jaunaren Deia* aldizkarian (Urtarrila-Martxo, 1982, 72 zenbakia, 69-97 or.). Isidor Baztarrikak lan hau burutzeko Ataungo lau koplariaren lau eskuidatzi zahar erabili zituen. Isidor Baztarrikak lan hori zehaztasun egokiz jazteko beste ataundar baten laguntza ere izan zuen, Jose Arratibelena. Bazekien eskuarteaz zeuzkan aleak ederrak ez ezik, garrantzitsuak ere bazirela, honelaxe esaten baitu bere lan-hasieran: «Oraingoan beste bat bakarrik argitaratzen dut, baina, hori bai, luzea, garrantzitsua eta Ataunen oso ezaguna: Santa Ageda kantak.» Garrantzia horren berri argiagoa ematen du geroxeago: «Ageri denez, bada hor gaia. Eske kanta eta kopla hauek, Euskal Herrian bai Onentzaroz, bai Santagedatan, bai Samikolasetan, bai Donianetan eta bai... kantatuak, merezi luketa bilketa oso bat egitea, eta ondoren azterketa sakon bat. Horien balioa, lehen ere adierazi nuenez (ikus *Jaunaren Deia* 74, 67or.) alde askotatik azpimarra eta azter bait daiteke. Eta kontuan edukitzekoa da, kopla horietako asko gure herri literaturan zaharrenetakoak ditugula, Erdiarokoak alegia, Manuel Lekuonak zuzen azaldu duenez (ikus *Egan* 5-6 (1956) 12-15. or.).

Ataun izan da, zalantzarik gabe, Euskal Herri osoan santa Ageda bezperan kopla zaharrak kantatzeko tradizio zaharra izan duen herrietako bat. Isidor Baztarrikak bere herriko usadioaren berri ondo jakinik, lau koplariaren koplak sailak bateratu eta guztiekin sail osoago bat argitaratu zuen. Ataungo koplez gainera, bibliografia eta zehaztasun asko eman zituen Isidor Baztarrikak. Guk lau horietatik bat baino ez dugu eskuratu, Juan Arin Dorronsorok makinatua. Eskuidatzi horren transkripzioa da guk artikulua honetako bigarren gehigarrian egin duguna. Ezagutzen dugun kopla-bildumarik ederrena dela esan dugu. Zergatik? Gehienetan hogeitamar koplak goragoko sailik nekez aurkitzen da. Ataungoak ehun ale inguru ditu. Baztarrikak osatua 119 aleko segida da. Kopla-bilduma honetan, gainera, agertzen den beste kopla gotikorik ez da inon

aurkitzen. Garai bateko Erdi Aroko koplak nola izan zitezkeen jakiteko ez dugu modu hoberik Ataungo sail honi erreparatzea baino. Erregeak, zaldunak, gortea... agertzen dira. Ataungo sail hau euskaraz dugun aberatsena denez gero, edizio kritiko bat merezi du, zalantzarik gabe. Dugun urrezko bitxitegi hau nola utzi aztertu gabe?

Gure oraingo helburu eta jomuga, ordea, apalagoa da, inolaz ere. Kopla-sail bat dagoen dagoenean argitaratu nahi izan dugu oraingo aldi honetan. Baina nola argitaratu? Iturrian agertzen den bezalaxe, Goierriko euskarak dituen ezaugarriekin. Gerora, inork nahi badu euskara zabalago batean eman, baduke oinarri finkatua. Eman dezagun, kasurako, adibide bat. Har dezagun hogeitalaugarren koplak. Honelaxe agertzen da Juan Arinen kopian:

*Ostri altuan eder izarra
errekaldean lizarra;
etxe ontako nausi gazteak
urre gorritz do bizarra.*

Guk modu berean transkribatu dugu. Ez dugu jarri, esaterako, Baztarrikak bezala, «urre gorritz du bizarra.» Zergatik? Ataunen «du» adizkia «do» diotetako. Koplarik ezagun bezain enblematikoenetako batek Goierriko euskararen kolorea hartzen du hango koplari batek kantatzen duenean. Badago besterik ere koplak honetan. Orain arte ezagutzen ditugun alderetan «zeruan eder izarra /./.../» eta abar agertzen dira. Hau da, «zeru» hitza eta ez «ostri».

Hegoalde zein Iparaldean aspaldi galdu zen «ostri» hitza zerua esateko. Hitz konposatuetan, ordea, agertzen da *ortz-/ost-* «ortzadar», «oskarbi» «ostarku» eta abarretan. Bere betean argertzea ez ote da zahartasunaren seinale? Ez ote gaude arkaismo baten aurrean? Guk baietz uste dugu.

Juan Arinek makinaz idatzia hona aldatu dugunean, zuzenketaren bat egin badugu, parentesi artean jarri dugu. Zuzenketa delako hori ez da besterik, gure ustean, makina-akats bat baino. Guk halaxe aldatzen dugula adierazteko, parentesi artean jarri dugu gure aldaketa. Hitzen bat ondo irakutzen ote dugun zalantzan bagaude, galde-marka jarri dugu parentesi artean. Hitz bera bi modutara agertu arren, guk jatorrizko erak errespetatu ditugu. *Kopelatu* eta *koplatu* aditzak era bietara agertzen badira, guk ere halaxe transkribatu ditugu.

Guk hemen eskeintzen dugun bilduma honetan badira bi ale Baztarrikak transkribatu ez zituenak. Besteak bezain agerri ez direlako? Gure ustez ale horiek ere ederrak direnez gero, bilduma honetara jaso ditugu. Bi ale horiek 19 eta 69 zenbakia duten koplak dira. Baztarrikak ale bat gaizki oker aldatu zuen:

6 *Santa (i) ageda andrea,
Birjinearen amea,
Birjinearen amea da ta
bigarren ezelentea.*

Guk jatorrizkoan bezalaxe egin dugu eta «Birjinearen amea» jarri beharrean, «Birjinearen damea» jarri dugu.

Numerazioa dela eta eskuidatzian 92 zenbakirainoakoak agertzen ditu. Zenbaki batek ordea ez du azpian koplarik: hamairugarrenak. Horrexegatik guri kopla bat gutxiago ateratzen zaigu: lauetan hoge eta hamaika.

1 *Sarrera.*
Bedeinkatue, alabatue
da sakramentu santue,
pekatuaren mantxarik (10) gabe
Jesus da konzebitue.

2 *Astigarraga, Erretererie*
irugarrena Oyarzun;
Dios te salbe, nere lagunak,
altu ta berdin erantzun.

3 *Dios te salbe, nere lagunak,*
gau on Jainkoak diela,
gau on Jainkoak diela eta
biar egun on diela.

4 *Sukaldeetan eder dirade*
apal berriak letonez;
nagusi jauna, esan beza(i)gu
asiko geran edo ez.

5 *Otsa(b)ilaren (11) laugarrena da*
Santa Ageda bezpera,
auzoetako galayak gatorz
gaur zuek konsolatzeraz. (12)

6 *Santa Ageda andrea*
Birjiñearen damea,
Birjiñearen damea da ta
bigarren exzelentea.

7 *Martirioa martirizaten*
irukiarren fedea,
ark arekintxe irabazi zon
zeru altuan sillea,
zeru altuan sillea eta
mundu onetan lorea.

8 *Or goyen dago ermita*
Santa Ageda deritza;
ango segore serbitzariantzat
limosna biltzen gabiltza.

9 *Santa Ageda, Santa Ageda*
Santa Ageda gaur degu,
Santa Ageda gaur degu eta
aretzek bialdu gaitu gu;
kopela zaintzagula zu
ongi artu gaitzatzula gu.

10 *Gazte jendea pestaegunean*
plazara gera juntatu,
plazara gera juntatu eta
andik onera pasatu.

11 *Uso txuriak zabaltzen ditu*
goizen goizetik egoak;
etxe santu onek bedeinkatuak
ateak eta leyoak.

Baimena

Etxe ontako jende noblea
bear genduke koplatu.

12 *Bayonan degu erosi*
piparrarekin espezi;
nagusi jaunai eskatzen diogu
kopelatzeke lizentzi (13).

(10) Jatorrizkoan «pekatuaren mentxarik gabe» agertzen da. Guk Manzisidorrek bezala transkribatu dugu: «mantxarik gabe».

(11) Bastarririkak «Otsabilaren» transkribatzen du. Jatorrizkoan -b-rik gabe agertzen da, baina Ataungo kanta famatu batean «Otsabilko, Otsabilko...» kantatzen zuten haurrek.

(12) Jatorrizkoan «Otxaillaren» jartzen du. Aldaera gurea da. Adizkiak direla eta «gatoz» izango da aoskera arrunta eta ez «gatorz».

(13) Jatorrizkoan «lizenzi» hitza agertzen da.

NAGUSIARI

- 13 *Asiko banaiz, asi nedilla
nagusi ori koplatzen,
zaldie dago sillatzen,
lau o(i)ntxoetan perratzen;
etxe ontako nagusi jauna
zaldiz da eleizeratzen.*
- 14 *Zaldiz da eleizeratzen,
zillarrez ofrenderatzen,
andik etxera datorrenean
urre-sillan da esertzen.*
- 15 *Nagusi jauna berori
kortean eztala agiri,
bikorra sarri botatzen zayo
beorren eskuko pirmari.*
- 16 *Eskuan eder bastoya,
illean seda-kordoya;
nagusi jaunak bere eskutik
botako digu dobroya.*
- ETXEKO ANDREARI
- 17 *Baratzan eder txermena,
ondotik gora lerdena;
etxeko andrea kopla dezagun
nagusiaren urrena.*
- 18 *Etxeko andrea zabala
leku oneko alaba,
bidean gatoz impormaturik
limosnerea zerala.*
- 19 *Zinta ederra petxean,
ordena ederra etxean;
etxeko andrak gustoa bado,
pasea lezake kotxean.*
- 20 *Udaberrian zeña dan der
lino txikiaren azie,
etxe ontako etxeko andreak
guztiantzat bado grazie.*
- 21 *Etxeko andrea gugana
argie eskuan duala,
esku batean ogi aundie
bestean lukai(n)ka pare;
ori guztieri gutxi deizkiela
buruan urdai baldea.*

- 22 *Guretzat ere zerbait bada ta
beretzat berriz ondrea,
etxe ontako etxeko andrea
txit emakuma noblea.*

NAGUSI GAZTERI

- Orain aurrera goazen
nagusi gaztea koplatzen.
- 23 *Usoak dira kotara,
nere begiak lotara;
nausi gaztea oraintxe goaz
beror(r)en koplaetara.*
- 24 *Ostri altuan eder izarra,
errekaldean lizarra;
etxe ontako nausi gazteak
urre gorritz do bizarra.*
- 25 *Eder soroan goldea,
soñean kapa morea;
etxe ontako nausi gazteori
ondo gizontxo noblea.*
- 26 *Baratzan eder azea,
gizon onaren trazea;
zeori ede zerbait zerala (14)
noblea dezu andrea.*
- 27 *Sentitzen z(a)itut sentitzen
nola zabiltzen jeikitzen,
beror(r)en ointxo politen otsa (15)
sala berrin det aditzen.*
- 28 *Nagusi gazteori zaldune,
urrezko ezpatadune,
semea eiteko omen daukazu
emazte parpalladune (16).*

(14) Hemen badakigu zer esan nahi duen:
«Zerori ere zerbait zerala».

(15) Jatorrizkoan «otxa» dakar.

(16) Makinaz idatzitako jatorrizko testuan
honelaxe dira lehen bi bertsoleerroak: *Nagusi
gazte ori zaldune! Urrezko ezpata dunel! Guk
artikulu hurbila itsatsi egin dugu «gazteori» eta
berdin «ezpatadune».*

- 29 *Txoria dago sasian,
birigarroa esian;
zu bezin gizon presturik ezta
eguzkiaren azpian.*

ANDRA GAZTEA

- 30 *Eder intxoren kordena,
alaxen degu ordena;
andra gaztea kopla dezagun
nausi gaztearen urrena.*
- 31 *Etxeko andrea orra ona
zere gauzaren doi ona,
Pazko goizean jantziko (d)ituzu
zere soñean zazpi gona.*
- 32 *Txuri nabarra azpiko,
gorri ederra gañeko,
andrea zure parerik ezta
plazea onratutzeko.*

ALARGUN GIZONEZKOARI

- 33 *Orain aurrera goazen
(...N...) ori koplatzen.
Elizan eder mantue
seda piñez forratue;
Orra bada ta (...N) ori
alargun bedeinkatue.*
- 34 *Alargun orren etxean,
santuak daude oltzean,
guztiak lagun izango (d)ituzu
eriotzako trantzean.*

EMAKUMEZKO ALARGUNARI

- 35 *Orain aurrera goazen
(...N.) ori koplatzen
Umildadean, karidadean,
bizi zerade munduan,
gero leku onen jarriko zera
paraisuko koruan
paraisuko koruan eta
Birjiña Amaren ondoan.*

- 36 *Armarioan sague,
kontrarioa katue;
orra bada ta (...N) ori
alargun bedeinkatue (17).*

- 37 *Or goyen dago errota,
iriñe dauke igota;
orra bada ta (...N.) ori
Birjiña Amaren debota.*

- 38 *Etxaburuan goldea,
aren gañean belea;
orra bada ta (...N.) ori
emakume txit noblea,
pobreake ere egiten dute
nun zeran zure galdera.*

MOTIL GAZTEK

- 39 *Iruñak bado zerkea,
zerka barruan dendea;
merezi do ta kopla dezagun (18)
emengo gazte jendea.*
- 40 *Sasirik sasi birigarroa,
pagadietan usoa;
etxe ontako gazte jendeak
aurten badute jaso.*
- 41 *Preskorik zaude preskorik,
ez al dezu ezkonasmorik?
Goyerri ontan eztet barrunda
olako mayorazgorik.*
- 42 *Zapata eder soñean,
kapa berrie soñean;
bosteun zezen jokauko di(r)e (19)
zu ezkontzen zeranean.*

(17) Jatorrizkoan «Arramarioan sague /.../...».

(18) Jatorrizkoan «merezi do ta kopla dezagun» dakar.

(19) Jatorrizkoan: «bost eun zezen jokauko die».

- 43 *Zazpi dambolin, zor(t)zi gitarra,
musikeroak amabi,
oyen danaren danza aurretik
ibilliko da berori.*
- 44 *Or goyen dago iturri,
ura txorrotik erori;
Orra bada ta (...N.) orrek
amalau urre-txintxarri.*
- 45 *Amalau urre-txintxarrikin
zazpi damaren eguzki,
oyek guztiak ala izanik
geyago ditu merezi.*
- 46 *Etxaburuan babea,
erdie leka gabea;
orra bada ta (...N.) ori
ezta motille gabea.*
- 47 *Jira batera, jira bestera,
nundinai zure pamea.
Bost milla dukat malen ditula
omen dakarzu andrea.*
- 48 *Udaberrian zeña dan eder
ostoz jantzirik basoa;
zure emazte egiten dana
zorionean jayoa.*
- 49 *Eskuan eder eskuko seda,
lipo zurie soñeko;
orra bada ta (...N.) ori
ona da lagun arteko.*
- 50 *Ona da lagun arteko eta
are-area korteko,
bosteun zaldun balio ditu
dama bat kortejatzeko.*
- 51 *Eskil ondoan astoa,
botatzen zayo lastoa;
dama gazte bi engañatzeko
etzera motil gaiztoa.*
- 52 *Sibili eta Granada,
Katalunian gerra da,
oyen artean pakeak eiteko
Juan Antonio ori ona da.*
- 53 *Basoan eder ayena,
beyen artean zezena;
arra bada ta (...N.) ori
urre-lirantxo txuxena (20).*
- 54 *Sala berrian jartzen danean
amabi donzellarekin,
ayetatik bat aukeratzean
gelditu Jaungoikoareki(n).*
- 55 *Gerrian eder ezpata,
etzaitzela espanta;
Jaun zerukoak gorderik dauka
zuretzat nes(ka)tx galanta.*
- 56 *Zelayen eder ardie,
beltzen artean zurie;
orra bada ta (...N.) ori
lagunen ondragarrie.*
- 57 *Etxaburuan otea,
auntzek jan dio puntea;
(...N...) or(r)en maiteak
bost milla dukat dotea.*
- 58 *Basoan eder gorosti,
auntzak argana kutesi;
Orra bada ta (...N) orrek
dama eder bat merezi.*
- 59 *Illaren bian kandelario,
ogei ta lauen San Joan;
bear doana etortzen bada,
a ze motille dagoan.*
- 60 *Keiza txiki betea,
aurten do bere urtea,
merezi do ta kopia dezagun
Josantonio orren partea.*
- 61 *Pagoak adarrak zabal(a)k ditu,
usoak umeak an ditu;
orra bada ta (...N.) orrek
adiskideak baditu.*

(20) Jatorrizkoan ilunune bat dagoenez gero, Isidor Baztarrikak bezala transkribatu dugu.

- 62 *Errekaldan igela,
preskoa dauke gibela;
zu bezelako galai gazterik
berri da errian eztala.*
- 63 *Ekaitz gogorra pasatu dezu
ekaitz ondoa biguñe;
Jose Antonio pama daukazu
zerala artzai bikañe.*
- 64 *Errekatxoan arri limuri
zaldi urdiñe igari;
orra bada ta (..N) ori
zazpi erregen kriadi.*
- 65 *Bestela gizon ona dalarik
jekerea do nagie,
baldin erregek jakiten bado
orren tretaren berrie,
sari batean bialduko lioke
ezpatarekin zaldie.*
- NESKARI**
- 66 *Sazerdoteak garbitzen ditu
meza emateko eskuak;
dama gazteak, esango ditugu
zuen merezimentuak.*
- 67 *Illargiaren argitan
artu gaituzte begitan,
erregaloak bildu leizke
dama gazte oyen bisitan.*
- 68 *Arantza bel(t)zak ostoa txiki,
puntea zayo loratu;
orain emendik bear genduke
(..N..) ori koplatu.*
- 69 *Aran(t)za bel(t)zak ostoa txiki
sagar gaztea urritsu (?) (21).
Kristau umea mundu onetan
apartatue zera zu.*
- 70 *Larrosa dago zabaltzen
usai gozoa banatzen,
asiko banaiz asi nedilla
(...N..) ori koplutzen.*
- 71 *Txorie dago sasian,
birigarroa esian;
zu bezelako damarik
ezta Ataungo errian.*
- 72 *Uretan eder antzara (22)
(...N..) eder nun zera?
Nun zera, bada, nun zera?
Emen agiri etzera!*
- 73 *Etxe ontatik plazara
Arleunez dago gal(t)zara,
(..M..) ori aterako da
jai aundietan dan(t)zara.*
- 74 *Konsejupetik plaza berri(r)a
asko dauzkatzu begira,
zu bezelako dama gazterik
errin eztala berri da.*
- 75 *Usoak egoa(k) zabalak ditu
lepo aldea lumatsu,
orren aingeru txiki polita
nundik agertu zera zu?*
- 76 *Basoan eder elorri,
ondoan jota erori;
Orra bada ta (..N) ori
Ama Birjiña dirudi.*
- 77 *Eder basoan ezpala,
nik ezin esan bestela;
zure besoan lo egin leike
paraيسان bezela.*
- 78 *Etzetik asi eta plazara
arriz daukazu kal(t)zada
(..N..) ori jai aundietan
atera oi da dan(t)zara.*

(21) Jatorrizkoan: "Aranza belzak ostoa txiki/sagar gaztea urritxu/kristau umea mundu onetan/apartatue zera zu".

(22) Jatorrizkoan: «Uertan eder alzera/ (...N..) eder nun zera/ Nun zera bada nun zera/ Emen agiri etzera».

- 80 *Gonea dauke josteko
jai aundietan jazteko,
zazpi kriada balio ditu
etxea gobernatzeko.*
- 80 *Damatxo gazte konponitue
ori kolore gorrie,
zure matralla iru(d)itzen zait
krabeliñaren or(r)ie (23).*
- 81 *Udaberrian illarra berde,
udaizkenean latza da;
dama gaztea badaukazu
besteak aña patxada.*
- 82 *Preskorik zaude preskorik
ez al dezu ezkonasmorik?
Goierrri ontan eztet barrunda
donzella ederragorik.*
- 83 *Baratzan eder lirio,
usai gozoa dario;
sei galai gazte ementxe gaude
zu ikustea medio.*
- 84 *Zu ikustea gaur guretzako
ze gusto biotzekoa!
Len-bait-len bada agertu zait
(..N) biotzekoa.*
- 85 *Lezoak or do Urbide,
Pasaiak Erretererie;
eraztuntxoan pasa liteke
damatxo orren gerrie.*
- 86 *Eraztuntxoa diamantea,
ukalondoa berdintsu (24);
orren damatxo konponitue
nork eramango zaitu zu?*
- 87 *Basoan eder albitze,
aizeak dan(t)zan dabilte;
erri ontako galai gazteak
zure ondoan dabilte.*
- 88 *Palsoen batek engaña etzaitzen
aren kontuan zabilta,
Jaun zerukoak bialdu gaitu
a(d)itzera ematen gabilta.*
- 89 *Baratzan eder salbie,
pipatxo kirten gorrie;
orra bada ta (...) orrek
illea dauka orie.*
- 91 *Illea dauke orie,
besoa bizin lorie,
edozeñentzat ezta egongo
zure musu gorrie.*

(23) Jatorrizkoan: «krabelinaren or(r)ie».

(24) Jatorrizkoan: «ukalondoa bernisu».

BI GEHIGARRI HAUEK DIRELA ETA OHAR ZENBAIT

Hitz laburretan zenbait ohar egin nahi nituzke, azkenik. Lehen gehigarriko 30 koplak antzekotasun handia du Iztuetak bere *Guipuzcoaco condaira edo historia* liburuan agertzen den harako *Sagarra eder, guezatéa/ Guerriyan ere ezpatéa/ Domenjon de Andía/ Guipuzcoaco erreguia* miragarri harekin. Iztuetak dioenez, Gipuzkoako tradizioan bizi zen jaun handi haren aipamena hamaboskarren mendetik zetorrena zen, Domenjon de Andia hau 1489 urtean hil baitzen. Gure koplak, ordea, Iztuetak dakarrena baino betegoa da neurri alde-tik, «gezatea» eta «ezpatea» hitz hosi-kideei «alkatea» eransten zaielako. Gure sailekoa tradiziokoa da edo Iztuetaren liburutik moldatua? Guk tradiziokoa iza-tea nahi genuke, inolako zalantzarik gabe.

Lehen saileko 32 kopia Antonio Abadiaren gorantz an agertzen den hirugarren saileko bigarren koplarekin bateratasun handiak ditu. Parrokoaren notak direla eta Azkuek Aezkoako «San Martinen Ataria» horretan agertzen diren modukoak dira (Ikus «Aezkera edo Petiriberro-inguruetak mintzaera» *Euskera*, VIII urtea, III-IV. zenbakia, 1927 bagilla-lotazilla, 249-254. or.). Gure lehen bilduma edo gehigarriko koplari artean aparta iruditzen zait etxe-ko alabaren edo dama gaztearen 69. nota: *Emen eldu naiz bellari.../ gabak eguna dirudi;/ .../.../*. Kopia horretan *beillari* hitza ez da ez «velador, el que vela» ez «peregrino, romero». Kopia horretan J. M. Barandiaranek bildu zuen «rondador, mozo que anda rondando para galantear a las mozas» dugu (Ikus «Hitz batzuek eta beren esan-nahiak, gehienak Ataunen» *P. Lafitteri omenaldia* Iker-2, 1983). Ostaturako koplei dagokienez, 111 eta 112 Manuel Lekuonaren «Gabon-kantak» (*Egan* 1956, 5-6 zenbakia 9-44 or.) artikuluko Aiako Laurgaingo ganbara batean aurkitu zen kanta zaharretik (1705) hartu da, edo tradizioan bizi dena? Tradizioakoa dela izateko badugu Martin Ugartek bildu zuen erretrau batekin antzekotasunik. Pentsatu daiteke, hala ere, Manuel Lekuonaren bildumatik ere har zezakeela Miren Pilar Lekuonak «Zorion aundi batez ba'degu esku-artearen XVIII gizaldi-asierako bat, polit askoa. Orain ogeitamar urtetsu Laurgain'go ganbara batean aurkitua bera.» Ohar guzti hauezaz egin daiteke besterik, baina bego oraingoz horretan.

FEDERIKO BELAUSTEGIGOITIARI OMENALDIA

Laudio, 2002-XII-20

FEDERIKO BELAUSTEGIGOITIARI OMENALDIA:

Ongi etorri!

Laudio, 2002-XII-20

*Pablo Gorostiaga Gonzalez,
Laudioko alkatea*

Goizeko ekitaldia.

Jaun-andre euskaltzainok.

Ongi etorri Laudiora.

Ohore handia da herri honetarako, Euskaltzaindiaren osoko bilkura, gure herriaren bihotzean, hau da, Udaletxean egitea.

Ez dira atzo goizekoak Euskaltzaindia eta Laudio herriaren arteko harreman estuak.

Eta lekukorik agerikoena, bilera hau ahalbidetu izan duen gaia: Federiko Belaustegigoitia Landaluze audioar entzutetsua.

Hura izan zen benetako Akademia eraginkorra bultzatu zuen horietakoa: Akademiaren estatutu arautzaileak idatzi zituena eta ezagun zaigun hainbat gauza gehiago.

Hala ere, haren bizitza ez zen honetara mugatu. Harago joan gaitezke. Esan daiteke haren euskararen aldeko jarrera, gaur egunera ekar genezakeen eredia izan zela.

Pozez beteta gaude audioar guztiok, Federiko Belaustegigoitia izen handiko euskaltzalea gure artekoa izateaz. Hala islatu izan da herriko elkarte guztiek haren figuraren inguruan bultzatu duten *Abendua euskaraz* kanpainan.

Laudio eta Federiko Belaustegigoitia. Federiko Belaustegigoitia eta euskara. Euskara eta Euskaltzaindia. Euskaltzaindia eta Laudio. Laudio eta euskara. Euskara eta Euskal Herria. Konbinatzeko aukera asko eta guztiak ezin egokiagoak.

Lan egin dezagun, bada, euskararen alde.

Ongi etorri, beraz, Laudiora eta euskarara.

Estimados/as Srs/as académicos.

Bienvenidos a Laudio.

Es un gran honor para este pueblo el que se celebre la sesión plenaria de Euskaltzaindia en el corazón de nuestro municipio, es decir, en su Casa Consistorial.

No son nuevas las cordiales relaciones entre Euskaltzaindia y Laudio.

Y la mejor prueba de ello es la figura que ha posibilitado este encuentro: el renombrado laudioarra Federiko Belaustegiogitia Landaluze.

Él fue uno de los impulsores de una Academia efectiva e influyente: fue el redactor de sus Estatutos Reguladores, entre otras más cosas que sobradamente conocemos.

Pero su vida no se limitó a esto. Podríamos ir más allá. Se diría que su posicionamiento a favor del euskara es un modelo que perfectamente podríamos trasladar a la actualidad.

Todos y todas los laudioarras estamos plenamente orgullosos de que un vascófilo de la talla de Federiko Belaustegiogitia sea de nuestro entorno. Así ha quedado demostrado en la insuperable adhesión que las asociaciones populares han demostrado en la campaña *Abendua euskaraz* diseñada en torno a su figura.

Laudio y Federiko Belaustegiogitia. Federiko Belaustegiogitia y el euskara. El euskara y Euskaltzaindia. Euskaltzaindia y Laudio. Laudio y el euskara. El euskara y Euskal Herria. Muchas posibles combinaciones y todas inmejorables.

Trabajemos para impulsar el euskara.

Sed bienvenidos, por tanto, a Laudio y al euskara.



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



Laudio Llodio
LAUDIOKO HARAN NOBLEAREN UDALA
AYUNTAMIENTO DEL NOBLE VALLE DE LLODIO

F. BELAUSTEGIGOITIAREN OMENEZ

Laudion, 2002ko abenduaren 13an.

*Pablo Gorostiaga Gonzalez,
Laudioko alkatea*

Jaun-andre agurgarri hori:

Dagoeneko jakingo duzunez, Federiko Belaustegigoitia Landaluze euskaltzalea Laudion jaio zela 126 urte bete direlarik, zenbait ospakizun berezi ari da egiten Arabako Laudio ibarrean.

Horien artean, abenduaren 20an Euskaltzaindiak egingo duen osoko bilkura, bilkura teknikoa eta agerraldi publikoa Laudioko Udaletxeko batzar-areto nagusian.

Honekin batera, Laudioko Udalak eta Euskaltzaindiak omenaldi bat egingo diete Federiko Belaustegigoitiaren bizirik dauden Jone eta Maitena izeneko alabei. Ordua, arratseko 18:30etatik aurrera.

Ekitaldiak, ondoan adierazten diren atalak izango ditu. Laudioko Alkatea den Pablo Gorostiaga Gonzalez jaunaren agurra entzun ondoren Jean Haritschelhar jaunak hartuko du hitza Akademiaren izeneko agurra adierazteko. Ostan ohorezko aureskua dantzatuko da eta *Agur jaunak* abestuko. Jarraian, oroitarri bat emango zaie Jone eta Maitena Belaustegigoitia ahizpei, Federikoren alabei. Honen ondoren, Euskaltzaindiak ohorezko diploma batzuk banatuko ditu zenbait hizkuntzalariren artean: atzerrian, euskararen gaitan gailendu izan diren ikerlariei, hain zuzen ere.

Ekitaldi xumea izango den arren, berebiziko garrantzia du senitarte horientzat eta, bereziki, Federiko Belaustegigoitiak euskararen alde emandako bizi-tza, merezi bezala goraiatzeko.

Honela gauzak, biziki eskatu nahi dizugu ekitaldi horretan izan zaitezen, gorazarrea nahi bezain distiratsua izan dadin.

Etorriko zarelakoan, har ezazu agur bero bat.



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



Laudio Llodio
LAUDIOKO HARAN NOBLEAREN UDALA
AYUNTAMIENTO DEL NOBLE VALLE DE LLODIO

Laudio, 13 de diciembre, 2002

*Pablo Gorostiaga Gonzalez,
Alcalde de Laudio*

Como probablemente ya conozca, en el valle de Llodio se están desarrollando una serie de actividades en torno al 126 aniversario del nacimiento en dicho municipio del vascofilo Federico Belaustegigoitia Landaluze.

Dentro de dichos actos, el día 20 de diciembre, Euskaltzaindia celebrará su sesión plenaria, una reunión técnica y una comparecencia pública en el salón de plenos del consistorio de Llodio.

Dentro de esta última, se ofrecerá un emotivo homenaje a Jone y Maiteina, actualmente, las dos únicas hijas de F. Belaustegigoitia. Será a partir de las 18:30 h.

Constará de unas breves palabras de bienvenida por parte del Alcalde de Llodio Sr. D. Pablo Gorostiaga González así como por el Presidente de Euskaltzaindia, Sr. D. Jean Haritschelhar. A continuación se bailará el aurreku de honor y se cantará el *Agur jaunak*. Seguidamente, se hará entrega de un presente conmemorativo a Jone y Maiteina Belaustegigoitia.

A continuación, Euskaltzaindia procederá a la entrega de varios diplomas a varios lingüistas que, desde el extranjero, han destacado en su labor investigadora en torno al euskara.

Aún tratándose de un humilde acto, lleva implícita una gran trascendencia, tanto para los familiares como para reconocer en la medida que merece, la importancia de una vida entregada al euskara por parte de F. Belaustegigoitia.

Esperando contar con su presencia, reciba un entrañable saludo.

ARRATSEKO HITZAK

Laudio, 2000-XII-13

*Pablo Gorostiaga Gonzalez,
Laudioko alkatea*

Pozgarria da guretzat, Federiko Belaustegigoitia euskaltzalea Laudioko seme kutuna izatea.

Jakin, badakigu, era guztietako merituak dituela honelako gorazarre bat hari egiteko: euskara eta Euskal Herriaren alde emandako bizitza ez zen nolanhikoa izan. Konpromisoa eta lana. Hauexek dira haren ibilbidea hoberen definitzen duten hitzok.

Tamalez, Federiko ez dago herri honek eskaini nahi eta behar dion berotasuna sentitzeko. Gertatu ohi den moduan, berandu gabiltza honelakoetarako.

Baina, Federikori diogun zor historikoa gaur bertantxe kitatu nahiko genuke, era xume eta apalean bada ere.

Eta nor baino hobeto haren alabak baino?

Jone... Maitena... Ongi etorri gure artera. Zuoi egiten dizuegu omenaldi hau, jakinik, zuon aitak, inon balego, eskertuko lukeela. Zeuok zarete, beraz, herri honen maitasunaren eta eskerronaren jasotzaileak.

Jone, Maitena... Federiko: bihotz-bihotzez, eskerrik asko.

BELAUSTEGIGOITIAREN OMENEZ

Laudion, 2002.eko abenduaren 20an

Jose Luis Lizundia Askondo

Pablo Gorostiaga, Audio araneko alkate jauna; Jean Haritschelhar, euskaltzainburua; Jone eta Maitane Belaustegigoitia Ortueta andere agurgarriok; alderdi desberdinetako zinegotzi; euskaltzale agurgarriok; Aiarako kuadrilla Batzarreko buru, alkate eta herri hautetsiak.

Benetan atsegingarra zait, gaur eta, hemen, Laudion, Arabako bigarren hiri, Aiarako koadrilako Udal nagusi den herri honetan, Federiko Belaustegigoitiari omenezko hitzak esatea.

Felix Muguruza adiskideak, aspaldiko adiskide dudana Pablo Gorostiagaren izenean, eskatu zidanean gaurko ospakizun honetan, hitz batzuk nik esan behar nituela, arrazoi bikoitzez, behintzat, atseginez natorkizue.

Lehendabizikoz, Federiko Belaustegigoitia 1919an sortu zenean, euskaltzain urgazle arabar izendatua zelako. Euskaltzaindiaren Arautegiaren egile. Haren biobibliografiaz ez dizkizuet gauza gehiegi esango. Henrike Knörr, euskaltzainburuorde eta Arabako ordezkariak, Arabako Batzar Nagusien aretoan, sarrera hitzaldia egin zuenean (ikus *Euskera* 1978-1, 17-38. orr.), arrazoi franko agertzen ditu. Geroago, zenbait bibliografok, hala nola, Gregorio Arrien pasiotar historiagileak eta Lagranja jaunak jorratu dituzte, besteak beste.

Niretzat, bazen bigarren arrazoi bat, Euskaltzaindiak 1919an sortu eta bi urtetara, 1921ean beraz, bere I. Biltzarra egin zuen, hain zuzen, Durangoko urian: *Lehen Euskal Egunak* deitutakoa. Txostengileen artean, Resurreccion Maria Azkue, Orixe, Barandiaran, Gabriel Manterola, Georges Lacombe, Tellesforo Arantzadi eta Juan Bautista Eguzkitza aurkitzen dira. Niretzat, behar bada, nire ikuspuntutik, ez bainaiz ikerlea, ez literatura ikerlea, gehien interesatu zitzaidana, Federiko Belaustegigoitiaren txostena zen, hara hor, bere izenburua eta kapituluak banan-banan: EUSKERAZKO ESKOLAK: “ume ikastolak eta beste ikastolak: gure lan nagusia; nai dogun ikastola; ikastola barriak Diputazioño ta udalen egitekoa; eskola liburuak eta Euskaltzaindia auzo ikastolak”. Oker ez banago, Mikel Zalbide, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Euskara zerbitzuburu den euskaltzain urgazlearekin mintzatu naiz horretaz, Federikok sortu ez bazuen ere eta, badirudi, hitz larramendiarra zelakoa ze-

goen Mikel Zalbide, baina Larramendik **ikasola** dakar. **Ikastola** hitzaren he-
dadura, Federiko Belaustegigoitiari dagokio lehenengo Euskaltzaindiaren Bil-
tzar horretan. Hara hor horren lekukotasuna.

Euskararen ofizialtasunaz, irakaskuntza publikoan, jakin behar dugu ga-
rai horretan, Bizkaiko Diputazioa zela auzo ikastolen «escuelas de barriada»
deritzanen elebitasunaz arduratuta, Landeta diputatua. Ramon de la Sota, Di-
putazioko presidente zelarik eta Kosme Elgezabal eta Felix Landaburu, Eus-
kaltzaindiaren sortzea aurkeztu zuten diputatuak izan baziren ere, han bertan,
irakaskuntzaz arduratu zen Luis Eleizalde euskaltzain osoa. Horretarako eka-
rri zuen, besteak beste, Bizkaiko Diputaziora, Arabako institutuan irakasle edo
katedradun zen bergarra, Luis Eleizalde, hain zuzen. Iniziatiba horiei esker,
planteatu zen, besteak beste, Euskal Herrian lehendabizikoz Irakaslego Esko-
la elebiduna. Ez zuten gure Diputazioek irakaskuntzan eskuduntzarik, bai, or-
dea, Kontzertu Ekonomikoak. Horri esker, sor zitekeen Bizkaian Irakaslego
Eskola elebiduna. Non kokatuko? ez Bilbon, hiriburu erdaldunegia baizen, bai-
zik eta Bizkaiko lau eskualde Arratia, Uribe, Busturialdea eta Durangaldearen
ardatzean, Zornotzan. Han sortzekoa zen, baserri bat erosi eta hor kokatzeko
asmoa zegoelarik. Diputazioen aldaketa, abertzaleak kanpora, laster, Primo de
Riveraren diktadura eta geroztik ezagutu dugu «guardia civil»en kuartela,
orain urte gutxirarte, ertzainak ordezkatu arte.

* * *

Ikertzekoa litzateke, iniziatiba horretan ere tarteko izan ote zen gure Fe-
deriko. Euskararen batasunean ere, lehenengotarik konturatu zen gizona dugu
Federiko Belaustegigoitia. Hara hor, zer esaten zuen Henrike Knörrek 1978an
egindako bere sarrera hitzaldian, 28. orr. zera dio:

“Euskera bardindu, garbitu eta aberastea... jakintza hutsezko gai ta lanetan
ez da Euskaltzaindia galdu bear”.

“Euskaltzaindia euskerearen alde lan egiteko sortu zan; Euskaldun guztien,
bai nazionalista, bai jaimista, bai tradizionalista, Alderdi guztietako euskaldunen
izkera garbia dan Euskera jazotzeko”.

Noa orain bigarren zatira. Jone eta Maitena Belaustegigoba Ortueta ahiz-
pei eskaintzea, bai Laudioko Udalak eta bai Euskaltzaindiak. Utziko didazue
biok gure euskarari, Durangoko uriko euskarari hitz batzuk esatea.

Belaustegigoitia ahizta maitagarriok. Noizean behin ikusten dogu Duran-
goko kaleetan, zoritxarrez, Uribarriko Andra Mariaren elelpean. Hainbeste
maite izan dozuen Euskal Herriari eta euskaltzaletasunaren lekuko zarie. Le-
kuko, zure aitagandik eta Ortuetarrengandik jasotako mezua izan dozue, ni bizi
nazen kalean, kale berberean, daukazuen etxe horretan. Oraintsurarte kale ber-
berean bizi izan baikara. Uriaren gerra aurreko euskaltzaletasunaren lekuko za-
rie. Durango beti izan da euskaltzaletasunaren habia. Astarloaren garaitik eta
1886an Jaialdi Euskerazkoetan, 1921eko Euskal Egunetako I. Kongresuan ere

zuen aita izan zen hizlari eta antolatzaile. Geroztik 1936ko gerra zibilaren ondoren —Durangon gehiengoa errepublika garaian ere karlistak gehiengo izan eben— eskuma nagusitu zan eta abertzaleak eta errepublikazaleak baztertuta. Dana dala, interesgarria litzateke oroimena, zenbait lekukotasun jasotzea. Durangoko urian, euskeraz ondo berba egin daben asko egon dira euskera berreskuratzeko ahaleginak egin ditu, kale berean dogun ikastola lekuko eta orain baita ere ingelesarekin eta frantsesarekin batera, Hizkuntza Eskola Ofizialean ere euskerak bere indarra dauka. Une honetan, beste durangar baten, aita Daniel Baertelen oratoria baldin baneunka, batzuk esaten ebenez, predikaririk hoberenatarikoa, Hego Euskal Herrian XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran, bohemiarra jatorriz hain zuzen luzatuko neunke neuk sermoi zibila, baina amaitzea hobe izango da.

* * *

Besterik ez eta, orain, Pablo Gorostiaga Laudioko alkate jauna eta Jean Haritschelhar euskaltzainburu jaunak emongo deusue zuen aitaren omenezko ezaugarria. Zorionak eta *ekin* eta *jarrai*.

GURE AITA FEDERIKO BELAUSTEGIGOITIA

Laudioko Udaletxean, 2002-XII-20

Maitena Belaustegigoitia

Gure aita Federiko Belaustegigoitia, Laudioko lehenengo abertzalea eta Laudioko lehenengo euskaldun abertzalea izanik besteak beste, pozik eta lasai egon gara. Baina, omenaldia Federiko Belaustegigoitiaren alabei egina ikustean, ez egonik ohituta ibiltzen *komediante bezala* haserretu egin ginen... Eta, gorazarerako gure meritua? Bizirik egotea. Ondo pentsatuta, baina, bada meritua zerbait bizirik egotea. Eskerrik asko ba, kontuarazte eta gorazarrea-gaiztik... Eta barkatu!

* * *

Jone eta Maitena gara alabok! YONE izena, aitak berak, Y GREKOZ jarria, inoiz berak JON eta JONE entzunik, euskera argi jarri nahiez. MAITENA, gure ahizpa nagusi Lurdes amabitxiaren erabakiz. Durangon, F. Francoren lendabiziko urteetan, andra bati 4-5 urteko bere alabaren izena, LOURDES esaten *Lurdes es vasco*, dinotso bulegokoak.

«Como que es vasco; ¿no ha oído vd. hablar de la Virgen de Lourdes?

¿Pues no se llamaba así la de Belaustegigoitia? Beraz, gure sendikoa izanik, izenokina bakarrik ere, nahiko zeregin.

Nahiko zeregin izan dogu bai, izen eta guzti osorik, ekin eta jarrai ekiteko. Bizirik urten lenengoz, 1937ko martxoaren 31n, Durangon, bonbaketa barrik geratu zan Santa Ana elizan; Santa Susana, Andra Maria eta Jesuiten elizak apurtu zituztenean. Hementxe, jesuitenean hil zan Itziar gure ahizpa, beste 26ekin batera. Gero, 1943an jesuitek egindako eskelari esker daukagu haren heriotzaren agiri ofizial bakarra.

1937ko apirilaren 26ko egun sentian Laudiora, amamarenera, etorri ginen igesi: «Han venido los probres de Durango», iñoen Laudion, Eta gero, egun osoa, hegazkin barik, «parece que habéis traído la paz». Baina laster, Gernika kiskalia/errea... izan zenaren barria.

Itsasoz joatea... Capbreton... Gero Kanbora heltzean, estasiñoan, geltokian... guk ezagutu genduan lenengo euskaldun laudioarra: Patxi Errotakoa!

Gure aitaren poza!... «Ikus, nolako andereño txarmantak dauden», basetxe batekoak.

Kanbo ondoren, Angelu... Hantxe, besteak beste ezagutuak Gavel sendia; Lafitte... Eta gero nazi-alemanak; eurokin Hendaiako zubia igarota, F. Franco-gana... Donostiatik Laudiora..., amamarekin... Areetan-etxea hartu, aitaren etorrera gertatzeko: 1940. urtea zan. Eta hantxe, Afrikatik etorritak, 1947an, aitaren heriotza.

1952an edo Duangora, azkenez. Eta orain 2002. urte honetan, Laudiora ekarri gaituzue omenaldia egiteko, bizirik gauden FEDERIKO BELAUSTE-GIGOITIAREN ALABOK! Hamaikatxo ikusteko jaioak gara! ESKERRIK ASKO, ba, bihotzez eta txarto pentsa eta esanak barkatu!

BARTOLOMÉ DE CARRANZA-ren V. MENDEURRENA

Miranda Argan / Argako Mirandan, Udaletxea, 2003-V-29

**BARTOLOMÉ DE CARRANZA-REN V. MENDEURRENA
DELA ETA, EUSKALTZAINDIAK MIRANDA ARGAN
ANTOLATUTAKO EKITALDIAK**

Prentsaurrekoa Euskaltzaindiaren Iruñeko ordezkaritzan, 2003-V-28

*Andres Iñigo,
Nafarroako ordezkaria*

Mahaikideak:

- Maria Teresa Iradiel, Miranda Argako alkate andrea.
- Martintxo Elcano, Miranda Argako zinegotzia eta ekitaldi publikoko hizlaria.
- Jose Luis Lizundia, Euskaltzaindiaren idazkariorde eta kudeatzailea.
- Andres Iñigo, Euskaltzaindiaren ordezkaria Nafarroan.

Eguerdi on!

Jakina da, 2002-2003an Miranda Arga Bartolomé de Carranza bertako seme eta Nafarroak izan duen gizon ospetsuenetakoaren V. Mendeurrena ospatzen ari dela.

Hori dela eta, Miranda Argako Udalak Euskaltzaindia gomitatu zuen ospakizun horietako partaide izan zedin eta, ahal izanez gero, maiatzeko osokoen bilkura herri horretan egin zezan.

Euskaltzaindiak hagitz gogo onez hartu zuen gonbita, bertzeak bertze, bi arrazoi nagusi hauek zirela medio:

– Bata, ohoretzat hartzen zuelako Nafarroak izan duen gizon ospetsuenetako baten ospakizunetan partaide izatea, non eta bere sorterrian, Miranda Argan.

– Bertzea, Miranda Argara joateak erranahi berezia duelako Euskaltzaindiarentzat. Bertako Udalari esker gure Akademia inoiz izan ez den Erriberriko Merindadean izanen baita, orain arte publikoki agertzeko aukerarik izan ez duen Nafarroako merindade bakarrean, alegia.

Beraz, maiatzaren 29an eta 30ean, hots, bihar eta etzi, izanen gara han eta bertako Udaletxean honako programa hau garatuko dugu:

29an (ortzeguna):

– Arratsaldeko 5:00etan: Euskaltzaindiaren Zuzendaritzaren bilkura.

– 8:30etan: ageriko bilkura, Miranda Argako alkate andrearen eta Euskaltzainburuaren burutzapean. Hiru txosten azalduko dira:

- «MIRANDENSIS, Fray Bartolomé de Carranza de Miranda», Jose Ignacio Telletxea Idigoras euskaltzain urgazle, historialari eta Carranzaren ikertzaileak adituenak.
- «Toponimia vasca de Miranda de Arga en tiempos de Bartolomé de Carranza», Martintxo Elcano, Miranda Argako zinegotziak.
- «Benjamin Elcanok bildutako Miranda Argako hiztegiari iruzkinak», Ismael Cuesta Teologian lizentziadunak.

30ean (ortzirala)

– 10:00etatik 13:30ak arte eta arratsaldeko 4:00etatik 6:30ak arte, Euskaltzaindiaren hileko bilkura.

– 13:30etan euskaltzainek parte hartu ahal izanen dute Jose Luis Orella Unzué historialariak Bartolomé de Carranza-ri buruz emanen duen hitzaldian eta arratsaldeko 6:30etan Miranda Argan lehendabiziko aldiz izanen den Liburuaren I. Nazioarteko Azokari emanen zaion hasiera ekitaldian.

Ageriko ekitaldirako gonbitak, bertzeak bertze, honako hauei igorri zaizkie: Nafarroako agintariei, Gobernuari, Parlamentuko taldeen ordezkariei, erkidegoko eta udaletako bertze zenbait agintariri, hezkuntza eta kultura arloetakoiei, Miranda Arga inguruko ikastetxe eta kultura taldeei, eta abarrei.

**ACTOS ORGANIZADOS POR LA REAL ACADEMIA DE LA
LENGUA VASCA – EUSKALTZAINDIA EN MIRANDA DE
ARGA, CON MOTIVO DE LA CELEBRACIÓN DEL
V CENTENARIO DE *BARTOLOMÉ DE CARRANZA***

**Rueda de prensa en la Delegación de Euskaltzaindia en Pamplona.
Día 28-V-2003**

*Andres Iñigo,
Delegado de Navarra*

Presentación de la mesa:

- María Teresa Iradiel, alcaldesa de Miranda de Arga.
- Martintxo Elcano, concejal de Miranda de Arga y ponente en el acto público.
- José Luis Lizundia, vicesecretario y gerente de Euskaltzaindia.
- Andrés Iñigo, delegado de Euskaltzaindia en Navarra.

* * *

Bienvenidos todos:

Como es sabido, Miranda de Arga está celebrando a lo largo de los años 2002-2003 el V Centenario de Bartolomé de Carranza, insigne mirandés y una de las figuras más prestigiosas que ha tenido Navarra.

Con tal motivo, el Ayuntamiento de Miranda de Arga cursó una invitación a Euskaltzaindia, solicitándole se sumara a este importante centenario, incluyendo en las actividades académicas del presente año la celebración de la sesión plenaria mensual del mes de mayo en aquella localidad.

Euskaltzaindia acogió con sumo agrado la invitación cursada por el Ayuntamiento de Miranda de Arga, por una doble razón:

– En primer lugar, porque es un honor para la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia participar directamente en los actos del Centenario de una de las personalidades más relevantes que ha tenido Navarra en su historia.

– En segundo lugar, porque el Ayuntamiento de Miranda de Arga le ha brindado a Euskaltzaindia la ocasión de celebrar, por primera vez en sus 85 años de vida, una reunión plenaria académica en la Merindad de Olite, única de las merindades de Navarra donde aún no había estado Euskaltzaindia de forma oficial.

La Academia, por tanto, estará presente en Miranda de Arga los próximos días 29 y 30, es decir, mañana y pasado mañana, y desarrollará en la Casa Consistorial de aquella localidad el siguiente programa:

Día 29 (jueves)

– A las 17:00 horas: reunión de la Junta de Gobierno de Euskaltzaindia.

– A las 20:30 horas: acto público, presidido por la alcaldesa de Miranda de Arga y el presidente de Euskaltzaindia, y que contará con las tres siguientes ponencias:

- «MIRANDENSIS, Fray Bartolomé de Carranza de Miranda», por José Ignacio Telletxea Idígoras, académico correspondiente de Euskaltzaindia e historiador y máximo especialista de la figura de Carranza.
- «Toponimia vasca de Miranda de Arga en tiempos de Bartolomé de Carranza», por Martintxo Elcano, concejal del Ayuntamiento de Miranda de Arga.
- «Comentario al vocabulario de Miranda de Arga de Benjamin de Elcano», a cargo de Ismael Cuesta, licenciado en Teología.

Día 30 (viernes)

– A partir de las 10:00 horas y en jornada de mañana y tarde: sesión plenaria de la Academia correspondiente al mes de mayo.

– Al mediodía, a las 13:30 horas se interrumpirá la sesión para la asistencia a la conferencia del historiador Jose Luis Orella Unzué sobre Bartolomé de Carranza y por la tarde el pleno académico finalizará a las 18:30 horas para asistir al acto inaugural de la I Feria Internacional del Libro en Miranda de Arga.

Para el acto público se ha cursado invitación a las autoridades navarras: Gobierno, grupos con representación parlamentaria y demás autoridades provinciales y municipales, cargos de responsabilidad de educación y cultura de Navarra, centros educativos y entidades culturales de Miranda de Arga y su entorno, etc.



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE

JEAN HARITSCHELHAR DUHALDE
Euskaltzainburuak



MARÍA TERESA IRADIEL IBÁÑEZ
Miranda Argako alkate andreak

Atsegin handiz gonbidatzen zaituzte *Bartolomé de Carranza*-ren V. Mendeurrena dela eta, **Miranda Arga** herriko udaletxean, maiatzaren 29an, arratsaldeko 8:30etan izanen den ageriko ekitaldira.

EGITARAUA

- Alkate andrearen ongietorria.
- Euskaltzainburuaren agurra.
- "MIRANDENSIS, Fray Bartolomé de Carranza de Miranda", Jose Ignacio Telletxea Idigoras euskaltzain urgazle eta historialariak.
- "Toponimia vasca de Miranda de Arga en tiempos de Bartolomé de Carranza", Martintxo Elcano, Miranda Argako zinegotziak.
- "Benjamin Elcanok bildutako Miranda Argako hiztegiari iruzkinak", Ismael Cuesta Teologian lizentziadunak.

Miranda Arga, 2003ko maiatza.



JEAN HARITSCHELHAR DUHALDE
Presidente de la Real Academia de
la Lengua Vasca



MARÍA TERESA IRADIEL IBÁÑEZ
Alcaldesa de Miranda de Arga

Se complacen en invitarle al acto público que, con motivo del V Centenario de **Bartolomé de Carranza**, tendrá lugar en el Ayuntamiento de **Miranda de Arga**, el próximo día **29 de mayo**, a las **8:30 horas de la tarde**.

PROGRAMA

- Bienvenida de la Alcaldesa.
- Saludo del Presidente de Euskaltzaindia.
- "MIRANDENSIS, Fray Bartolomé de Carranza de Miranda", por José Ignacio Telletxea Idígoras, académico correspondiente de Euskaltzaindia e historiador.
- "Toponimia vasca de Miranda de Arga en tiempos de Bartolomé de Carranza", por Martintxo Elcano, concejal del Ayuntamiento de Miranda de Arga.
- "Comentario al vocabulario de Miranda de Arga de Benjamin de Elcano", a cargo de Ismael Cuesta, licenciado en Teología.

Miranda de Arga, mayo de 2003.

“MIRANDENSIS”, FRAY BARTOLOME DE CARRANZA DE MIRANDA

Miranda de Arga, 29 de mayo de 2003

José Ignacio Telletxea Idígoras,
Académico correspondiente de la Real Academia
de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia
e historiador

En esta conmemoración de Carranza en su villa natal en el V.º Centenario de su nacimiento sin duda agradecerá a sus paisanos el saber que cuando este hijo de Miranda de Arga se asomó al escenario europeo en el Concilio de Trento como teólogo enviado por el Emperador Carlos V, fue conocido —y así lo recogen las Actas del Concilio— como *Mirandensis*, el mirandés. Tal procedimiento era usual en la designación de los obispos según su sede o diócesis: así *Guadicensis*, *Civitatensis*, *Oxomensis*, etc. Pero no era usual en el caso de los teólogos, conocidos por su nombre. ¿Significa esto un deseo por parte de Carranza, o una voluntad expresa, por honrar la villa de su nacimiento, inclusive renunciando a su nombre de religión dominicana, fray Bartolomé Carranza?

Una obra que editó durante el Concilio y que tuvo gran resonancia, la *Controversia de necessaria residentia episcoporum*, se dice escrita en latín: “per fratrem Bartholomaeum Carranzam de Miranda”, con su apellido latinizado y en acusativo *Carranzam*. Y sin embargo en el Concilio, como he apuntado, se le conoce como *Mirandensis*.

* * *

En Miranda de Arga nació en 1503, cuando Navarra era todavía reino independiente, pero ya su apellido denota otro origen. En efecto, su abuelo paterno nativo del Valle de Carranza en las Encartaciones de Bizkaia, fue el primero que vino a Miranda. Sus hijos y nietos serían mirandeses. Esto lo sabemos por las informaciones que hiciera la Inquisición dentro del proceso instruido al ya Arzobispo Carranza para averiguar si tenía ascendentes judíos. Este proceso se hizo en Calahorra y fue entregado en Valladolid el 10 de noviembre de 1559, es decir dos meses y medio después de la prisión de Carranza. Por cierto y como es normal comparecen en él como testigos varios mirandeses, el escribano Miguel Alonso, el sacerdote Gil Clemente, Juan Garcés y un pariente del Arzobispo, Miguel Bueno. Gil Clemente, de 66 años, ha-

bía tratado con los Carranza desde hacía más de cincuenta años y fue amigo del célebre Sancho Carranza de Miranda, tío del Arzobispo, catedrático de la Universidad de Alcalá. El abuelo Bertol se había casado en Miranda con una de Castejón, y fue albeitar lo mismo que el padre del Arzobispo.

De judío, nada de nada. En cambio alegan los testigos la probanza de limpieza de sangre que se hizo cuando fray Bartolomé ingresó en el Colegio de San Gregorio de Valladolid y además la ejecutoria de hidalguía por línea paterna que otorgó Carlos V en favor del citado Sancho Carranza de Miranda y del padre del Arzobispo, Pedro de Carranza. Por todo ello el propio Arzobispo, al comienzo del proceso inquisitorial llamado de abonos, pudo escribir con verdad que era:

«natural del Reyno de Navarra, de la Villa de Miranda, hijo de Pedro de Carranza y de María Musgo y nieto de Bartolomé Carranza, hombres hijosdalgo, limpios y de limpia sangre, fieles catholicos christianos, sin tener raça ni mácula de judíos, ni moros, ni herejes, y por tales fueron avidos y tenidos ellos y los otros sus ascendientes, assí por la parte masculina como por femenina, antes fueron muy obedientes a la Santa Madre Yglesia Cathólica Romana y perseguidores de herejes y assí lo fue el Doctor Miranda canónigo de la Magistral de Sevilla y inquisidor en Calahorra y persona de gran doctrina y authoridad en estos Reynos y Corte de Roma, con el qual se crió desde la edad de diez años el dicho Reverendísimo de Toledo por ser tío hermano de su padre».

De paso llamo la atención sobre el olvido de Miranda de este tío del Arzobispo, que además de los cargos que desempeñó, se codeó con el mismísimo Erasmo de Rotterdam.

Mencionado quedó el expediente de hidalguía obtenida por Sancho y Pedro de Carranza. Por primera vez voy a hablar de él, pues lo he tenido en mis manos. Es un documento de enorme tamaño, por el que sabemos que actuó como procurador en favor de los Carranza Juan de Zubiri. Carlos V se dirigió para ello a D. Luis de Beaumont, Condestable y Chanciller de Navarra, Conde de Lerín «cuya es la Villa de Miranda», y al Alcalde, jurados y vecinos de la villa, enviándoles la solicitud de hidalguía de Sancho y Pedro de Carranza que decían ser

«fijosdalgo de nobleza y antiguo linage, decendientes de legítimo y antiguo linaje de hijosdalgo conozidos», de la casa y solar conocidos de San Esteban de Concha, que es en la Villa de Carranza del Condado de Vizcaya».

Gracias a este documento sabemos algo que hoy por primera vez voy a desvelar: el apellido *Carranza* fue sin duda el modo de designar y conocer en Miranda al vizcaíno procedente de Carranza, al igual que hoy mismo llamo *Fiter* a un fiterano afincado en San Sebastián y cuyo apellido desconozco. Mas en el documento carolino aparecen designados los dos pretendientes a la hidalguía como el

«reverendo, fiel y bien amado nuestro don *Sancho de Sant Esteban, alias de Miranda*, doctor en la Santa Theología, y *Pedro de Sant Esteban* escudero su hermano».

En el documento citado se describen las armas de los Sant Esteban, alias Carranza,

«un pendón y tienda en un campo verde con sus calderas y unos fuegos debaxo, y otro escudo en una encina y dos lobos y una corona de Rey sobre la encina».

El procurador fiscal, Licenciado Egués, impugnó la pretensión de los Carranza alegando que el abuelo Bertol

«fue tenido y reputado por hombre labrador y bil, y acostumbraba pagar e contribuir en los echos y qualesquier derechos que solian pagar los labradores de la dicha villa»;

y si fuese cierta su ascendencia, habría perdido la hidalguía

«por uso y ejercicio de artes billes y officios mecánicos».

Los implicados tuvieron que defenderse:

«somos, ablando sin jatancias, homes hijosdalgo de nuestra origen y dependencia de padre y agüel y antepasados por tales abidos, tenidos y reputados»; alegan que no obstable que el abuelo hubiese sido albeitar y herrador, «por quanto se alla en drecho que por ussar de officio mecánico se pierda nobleza e ydalgua, si no fuesse por costumbre de la tierra que se perdiessse por exercicio de officio mecánico y tal costumbre no la ay en este Reyno de Nabarra, antes segund costumbre obserbada y guardada de tiempo prescripto e inmemorial en acá, en este Reyno los que son hijosdalgo de su horigen y dependencia por ussar de officio mecánico no pierden su nobleza e ydalgua, y de qualquier officio que sea, si son desendientes de hijosdalgo, son abidos, tenidos y reputados por homes hijosdalgo y gozan de las libertades y exempciones de los hijosdalgo de la tierra, porque en este Reyno por la poca facultad del, nenguno o muy pocos, aunque sean hijosdalgo, biben ni pueden bibir sin algún officio mecanico, y el officio de albeytar es officio honrrado, en el qual se requiere más ciencia y saber que en otro ningún officio mecánico, assí por la dificultad que tiene como por lo que ay mucho escripto en el arte y officio de albeytar; y los albeytares, aunque sean herradores, si son dezedientes de hijosdalgo, en este Reyno son tenidos y reputados por homes hijosdalgo y gozan de las libertades y exempciones de los otros hijosdalgo del Regno.»

Los melindres castellanos contra los officios viles y mecánicos, que tanta huella dejaron en los comportamientos sociales, no habían lugar en el Reino de Navarra, como tampoco en Guipúzcoa, según mostré en el estudio de parecidas dificultades opuestas a que el General de mar D. Miguel de Oquendo fuese agraciado, por Felipe II, por sus méritos, con el hábito santiaguista.

Oídas las partes en litigio, el Emperador dio por legítima la hidalguía de los Carranza, su solar y armas, y les permitió gozar de los honores, libertades, privilegios, inmunidades, oficios y beneficios de los hijosdalgo conocidos. El documento con sello de la Chancillería imperial está otorgado en Pamplona el 5 de marzo de 1529. Por aquella época fray Bartolomé estudiaba Teología en San Gregorio de Valladolid, donde pronto sería profesor y Regente de estudios. Firman el documento los alcaldes de Corte mayor Miguel de Aoiz, Miguel de Ulzurrun y el Dr. Pedro de Goñi.

He de añadir que el apellido originario de los Carranza –Santesteban– sigue siendo hoy frecuente en el Valle vizcaíno de Carranza según me comunicaba amablemente el Vicesecretario de la Real Academia de la Lengua Vasca, Sr. Jose Luis Lizundia.

* * *

No sabemos cómo cayó la noticia de la hidalguía de los Carranza en Miranda de Arga. Para entonces constituían ya una familia numerosa, porque hay que decir que el padre del Arzobispo se casó sucesivamente tres veces. La primera vez con Catalina Musco o Musgo, la segunda con una Ezpeleta, la tercera con Teresa López. De las tres tuvo descendencia, tema predilecto para conversaciones de mujeres de buena memoria. –Que no, que no, que te confundes. Mira de la primera son fray Bartolomé, Miguel y María; de la segunda, Medel y Celedón; de la tercera, fray Bernardino, Pedro, Marcoantonio, María y Ana Teodora.

Fray Bartolomé era el primogénito, con otros dos hermanos enteros y siete hermanastros. Antes quedó dicho por el mismo fray Bartolomé, que se crió «desde los diez años» con su tío, el catedrático de Alcalá. ¿Sería con motivo de la muerte de su madre de las segundas nupcias de su padre por lo que salió de casa?

Cuando años más tarde Felipe II llevó consigo a Inglaterra a fray Bartolomé y se casó con la Reina María Tudor, los mirandeses, parientes y no parientes, quisieron marcharse a servirle en su alto cargo en la Corte. El 5 de octubre escribía desde Londres fray Bartolomé a su hermano entero Miguel, el que le seguía en edad. Había recibido cartas de la familia. Se preocupa del casamiento de su hermanastra Ana Teodora, envía una vajilla de peltre señalando con una MG las piezas para Miguel y con una MA las regaladas a su hermana entera María. Algo mandaba también para Jorge Gómez, cuyo hijo le servía de paje en Inglaterra y le acompañó luego muchos años en la cárcel durante el proceso. También le habían escrito Jorge López de Chaves y Juan Bueno el de Berbinazana, y hasta el párroco de Miranda. A este último le dedica un párrafo sabroso en su carta:

«Si él viese esta tierra, le pesaría de vivir en ella, sino que habla de lejos. Y atento que dé gracias a Dios, porque tiene de comer y en España, que, si Dios

quiere que nos veamos en ella, entonces verá cuán engañado vive. Que agora me crea a mí y no le pase por el pensamiento de dejar su casa».

Su casa dejó un Vergés —la hermanastra María se casó con un Juan Vergés de Aragón—, pero fray Bartolomé juzga que hizo mal dejando su casa y mujer y los demás dejándole venir. El hermanastro Marcoantonio le había escrito a fray Bartolomé mostrando deseos de pasar a Inglaterra, pero le desaconseja diciéndole que no entrará en su casa:

«Y así lo decid a cualquier otro que esta locura se le metiere en la cabeza, porque en esta tierra no hay seguridad, especialmente agora que por mar y tierra hay siempre guerra».

Aún sigue ocupándose en una postdata de la carta de la boda de la hija mayor de Miguel, aconsejándole a éste que tome un yerno que le ayude a llevar la hacienda de la casa. El consejo final es muy hermoso:

«No tengo más de decir sino que pongáis vuestros hijos en leer y escribir y cómo sean buenos christianos, que ésta es la mejor herencia que les podéis dejar.»

Pocos años después fray Bartolomé volvía a España, pero ya como Arzobispo consagrado de Toledo. A los pocos días de haber llegado a Valladolid, un 23 de agosto de 1558 escribía una breve misiva:

«A mi muy amado hermano Miguel de Carranza, en Miranda».

Miguel le había dado cuenta de sus necesidades. El Arzobispo le escribe:

«Al presente yo no puedo remedarlas como deseo, pero de lo que tengo haré principio para quando Dios quisiere que lo pueda hacer como vos merecéis. El Doctor [Falces] os lleva cien escudos en oro y treinta para Pedro de Carranza, vuestro hermano. Quando yo pueda, os ayudaré mejor... Dios os guarde en su servicio... Vuestro hermano, f. b. Arzobispo de Toledo.»

* * *

Eran los días de gloria, de misterios gloriosos para el mirandés hijo del albeitar, que un año después se convertirían en dolorosos, en el largo calvario de diez y siete años largos de proceso inquisitorial, primero en Valladolid, luego en Roma, donde apenas gozó de veinte días de libertad una vez concluido el proceso. En las horas de desgracia la familia Carranza se apiña en la defensa y servicio de su vástago más ilustre. No tengo espacio para ocuparme de todos ellos con detalle, pero sí he de advertir que llegaron a Roma, un hijo de Miguel llamado Bartolomé que era sacerdote; un hijo de la hermana mayor María llamado Francisco; un hijo de la hermanastra Ana Teodora llamado Martín Ezquerro, que vestía hábito clerical y estudió en el Colegio Germánico de Roma, fundado por San Ignacio. También estuvieron en Roma Celedón y Alonso Armenteros, hijos de una sobrina-hermana del Arzobispo, y Diego Ravanera, hijo de otra sobrina-hermana. Y ¡cómo no recordar a Ro-

drigo Carranza, a quien el Arzobispo hizo Deán de Talavera, que vivió y murió en Roma defendiendo la causa del Arzobispo!

Muchos de éstos vivían en suma pobreza. El Arzobispo antes de morir suplicó al Papa que ayudase económicamente a éstos y a los otros parientes que quedaron en Miranda. Las cuantiosas rentas de Toledo daban para eso y mucho más, pero no podía disponer de ellas el Arzobispo preso y por ello suplicaba esta gracia especial al Papa. Su ruego fue atendido y se asignaron cantidades varias a la larga nómina de parientes, que en total ascendieron a cincuenta mil ducados. ¿Os diré que todo quedó en agua de borrajas? Los días de gloria, ya lejanos, tuvieron este final triste.


* * *

Como triste debió ser el día en que llegó a Miranda la noticia de la muerte del Arzobispo en Roma el 2 de mayo de 1576. El Cabildo de Miranda, noticioso de la muerte, acordó el 20 de agosto de 1576, que

«se ponga por un año al lado derecho del altar mayor una efigie para que las gentes le tuviesen más presente y rogasen a Dios por él.»

¿Se cumplió el acuerdo? ¿Dónde ha ido a parar la efigie o bulto? En este año Centenario el recuerdo del Arzobispo Carranza está más vivo que nunca en su villa natal. Estos recuerdos recogidos en pocas páginas os ayudarán a descubrir las raíces mirandesas de quien en el Concilio de Trento fue conocido como el *Mirandensis*.

**EUSKALTZAINDIARI MIRANDA ARGAKO
ALKATEAK EMANDAKO PLAKA**



V CERTIFICADO
DEL AYUNTAMIENTO DEL ANEXO
MAYORADO CARRERA/1 DE MIRANDA

El Ayuntamiento de la M.M., M.L. y M.H.
Villa de Miranda de Arga, en agradecimiento
a Euskaltzaindia por la celebración de
su reunión plenaria extraordinaria
los días 29 y 30 de mayo de 2003



Ayuntamiento
Miranda de Arga

29 de mayo de 2003

Kaixo, egun on guztioi:

Lehenik, agur bero bat eman nahi dizuet, eta, espero dugu antolatu dugun Euskararen Egun honetan primeran pasa dezazuela. Izan ere, egun berezi hau prestatu dugu gogoan izan dezagun euskara gure arbasoen hizkuntza dela. Hori dela eta, *Mendigorria*, *Larraga*, *Berbinzana*, *Artaxoa* eta *Mirandako* «Euskararen lagunak» Kultur Elkartekoak orain dela 9 urte hasi ginen euskara berreskuratu eta indartzeko festa-egun berezi hau antolatzen.

Eta amaitzeko, inguruko beste edozein herri ere gonbidatu nahi dugu gurekin elkartu daitezen.

Ongi etorri Euskararen Egunera!

Mirandan, 2003ko maiatzaren 31n.

Maria Jose del Rio Artaso-Rafa Miranda Egea

JAGON SAILA

EUSKALTZAINDIAREN BARNE-HISTORIA

EUSKALTZAINDIAREN BARNE-HISTORIAZ

*Xabier Kintana,
idazkariak*

Gure Hizkuntzaren Akademiak aspaldidanik ikerketa eta arautze arloan egiten dituen lanak eta euskara sustatu eta jagoteko asmoz ematen dituen pausoak gero eta ezagunagoak dira, eta horiek gure gizartean sorrarazten duten oihartzunak eta dituzten aplikazio zabalek aski ongi erakusten digute jendeak zer nolako interesa duen gure egitekoez.

Badira, ordea, gure erakundearen historian hain ezagunak ez diren puntuak, beraren sortze, jardunbide eta bilakaeraren gorabeherei buruzkoak, horhan-hemenka gutun argitaragabe, artikulua eta dokumentu sakabanatuetan barreiatuak. Horietan guztiotan nolabait Euskaltzaindiaren barne historia dei genezakeena datza, maiz, zoritxarrez, aski ezezagun eta gaizki adituen eta ulerkera okerrean iturri, eta, horrexegatik, gure ustez, barne historia horretako zokomokoak argitu eta gure argi-ilunak islatzea egokia bezain komenigarria litzateke. Beraz, xede horrekin, zenbaki honetan hasi eta hemendik aurrera osatuz joan nahi genukeen atal honetan, Euskaltzaindiaren ibilbide historikoa hobeki ulertzeko lagun dezaketen era guztietako agiriak eta lekukotasunak agertzen hasiko gara, P. Xarrittonek oraingoan argitaratzen dituen dokumentu baliotsuak lehenbiziko urratsak izanik.

PIERRE BROUSSAIN-EN GUTUNDEGIA

Hirugarren gutun azaoaren aurkezpena

P. Charritton eta J. P. Ouret

EUSKERA agerkariaren 2002ko 1. eta 2. aleetan argitaratu ditugu lehen aldian Piarres Broussain euskaltzainaren gutundegian dauden Manex Hiriart-Urruty kalonjearen 30 gutunak. Bigarrenean aldiz, J. P. Arbelbide, J. B. Darriacarrère, Félix Larrieu, Martin Guilbeau, Etchepare anaiak idazle ezagunen beste neurri beretsuko azaoa.

Hirugarren alean eta gero etorriko den laugarrenean berriz guretzat aski arrotz diren sinadurak aurkituko ditu irakurleak, ez direlaketz baitezpada agertzen izen horiek ez euskal literaturaren ez euskal herriaren beraren historian.

Diren bezala aurkezten ditugu bizkitartean: lehen hiru hamarrak, aldi honetan argitaratzen ditugunak, Piarres Broussainek mediku-gai gazte zebilelarik Parisen gaindi XIX. mende hondarrean ukan eta begiratu zituen, beste hiru hamarrak berriz, bestaldian etorriko zaizkizuenak, sorterrira itzuli orduko Broussainek eraman batailen lekuko izan daitezke.

Aitortu behar dugu halere euskarazko idazki batzuetan apur bat aldatu, gaurkotu, zuzendu (?) edo egokitu (??) dugula ortografia eta berdin hitza bera ere. Horra zergatik nahi izan dugun Piarres Broussain oraino Parisen ikasle zelarik, berak han gaindi lagundu zituen Hazparneko herritarren ganik ukan bizpalau esker onezko gutunen artetik, Jeanne-Marie Beheranen lehen orrialdea fotokopian hemen berean eskaini.

Ageri den bezala, zakur errabiatuek ausikirik joanak ziren Parisera, Pasteur-en erakundeari buruz, Hazparne Labiri gaineko herritar horiek.

Ondotik datoz beste berri asko, gehienak Hazparneko auzapez Piarres Broussain 1905ean hautatua izan zen arte horretan gertatuak.

L. H. S. p. a. n. le 10 Février 1891

Gure adiscide Brusein Maitea

ari' isiriatcen daitut bi les gure
gure berien curi emaitco gu aras untse
guira gaincoari ester eta guisa bera
disiraten daitut letra hau erecelitciari
eta curi vici gucian osyari or iat
ar aribatu guinen bayonan cuse
eran beca aratseco eta laurcedonelan
aras fite guan caudeun bide norri
ceren eteberat ari' baiguinen santegielaco
garan aribatu eta harapatu guinuen
posteluna carosarebin gure lauan beha
eran caungun igori saconta gure tantac
depecha egoiteco gure beha v. guinetguinela
bayonarat sarji. bibe guinuen balere
guin baiguinuen depecha i. H. Brusein
parisetic pharlitciari egun bat goicago
aribatu guinen egun bat goicago
hasiaren ceren gure eteberac igori
cuden bayonarat carosa scimari etar

Hazparnen egina Otsailaren 10ean, 1891

Gure adiskide Broussain maitea,

Izkibatzen daitzut bi lerro gure berrien zuri emaitako: gu arras untsa gira, Jainkoari esker, eta gisa bera desiratzen dautzut letra hau errezebitzean eta zure bizi guzian, osagarri on bat.

Arribatu ginen Baionan zuek erran bezala, arratseko 7 eta laurdenetan. Arras fite juan zaunkun bide hori, zeren etxerat ari baiginen. Sant-Espiritako garan arribatu-eta, harrapatu ginuen postilluna karrosarekin, gure lauen beha.

Erran zaunkun igorri zankola gure tantak depexa, egoiteko gure beha, jinen ginela Baionarat zazpitan. Parisetik partitzean egun bat goizago, arribatuko ginen egun bat goizago Hazparnen.

Zeren gure etxekoek igorri zuten depexan karrosazainari, arribatu ginen etxen arratseko hamarrak eta erdietan. Manez eta Paxkal berantago, zeren urruu-baitute etxea.

Beraz zuk erran bezala, Monsieur Broussain, erran nankoten Munhoko Xemartin eta Dominizeri (1) goraintzi eta ontsa zinela. Eta hasi zaundan Xemartin berehala heia ikusi ginuen bazter. Baietz erran nankon. Erran zaundan arrapostua: «Ez dine Hazparnen nahi duten guziek ikusiko Parise.» Erran zaundan: «Sofritu dun biziki!». Erran nankon: «Ez!», haroa zela handienik.

Ez zaundaten sinetsi nahi Hazparnen. Erraiten zaundaten: «Janamari gaitxo, odol guzia kendu dautzu mirikuak eta gero berriz erakirik, xartatzeko untzi harekin barnerat eman».

Erran nankoten gezurrak zirela horiek oro.

Ez zaundaten sinetsi nahi eta erran zaundaten «Monsieur Pasteur»-ek matzen zuela ez erraiteko han zer sofritzen zen.

Erran dakotet oro gezurrak zirela, eta hala baitira.

Ikusi izan dut zuen Barrandeiko (2) «filla», Katrina eta erran, ontsa zirela eta erran zaundan segurki amak ere ontsa plazer hartu zuela zuk, Pariseko zokoan Eskualduner erakustea.

(1) Hazparne Zelai Munhoan zeuden Piarres Broussainen osaba-izebak.

(2) Hazparne Barrandegia deitzen da Piarres Broussainen sortetxea eta hor zeuden Piarresen ama, Marie Moreau Broussain etxekanderea eta honen zerbitzuko Katrina Pierris ezpeletar «filla» edo neskatoa.

Huntan finitzen dut zure Hazparnen ikusteko esperantzan.

Goraintzi familia guziaren partez eta partikulazki aitaren eta ene partez!

Jeanne-Marie Béhéran

Hazparnen egina, Otxailaren 10, 1891

Ene adiskide maitea,

Hasten niz zuri bi lerroren egiten gure berriez: biziki ontsa arribatu gira. Ez dugu batere makurrik izan gure paperetan. Baionan arribatu ginen zazpiak eta erdietan. Han ginuen Piarres xerka jina. Batere Baionan egon gabe jin ginen etxerat.

Guichenné baitan (3) izan ginen, baina ez ginuen etxen nehor hatxeman. Gero zure letra eman nuen amari.

Hazparnen arribatu ginen hamarrak eta erdietako eta gure etxera gauerdiko. Etxen ere guziak biziki ontsa harrapatu ditugu.

J'ai recueilli aussi d'autres mots que je vous ferai passer.

La femme de S' Jean-le-Vieux sur laquelle je comptais est malade; on m'a annoncé qu'elle a reçu samedi les derniers sacrements.

La Baïgorrienne est rentrée hier par le premier train.

Aujourd'hui dans l'après-midi je vais à S' Jean-le-Vieux chercher une académicienne (24) on est averti chez Laphitzondo où on me donnera des renseignements.

Très pressé.

Je vous serre cordialement la main.

Mocoçain

(24) «académicien» deitzen zituen Resurrección M.^a Azkuek urte haietan, Bilboko, Donostiako edo Hazparneko zahar-etxetan, Baigorri edo Ligiko toki berezietan bere euskal hiztegi aipatuaren egiteko biltzen zituen lekuko hautuzkoak.

Irouléguy, le 17 août 1901

Mon cher ami,

Je comptais cette semaine faire une visite à Barrandegia en compagnie de Charles qui pensait pouvoir être libre hier dans l'après-midi; mais jeudi soir il est venu m'annoncer qu'il lui était impossible de s'absenter, et nous avons dû renvoyer notre voyage jusqu'après la session du conseil général.

Vous pensez bien que je prends une part très vive au deuil cruel qui vient de frapper toute votre famille; la petite Chabala ne sera pas vite oubliée. Mais j'espère que Dieu vous donnera le courage et la force de supporter ce coup terrible (25).

Recevez, cher ami, pour vous et pour tous les vôtres, l'assurance de mes sentiments bien dévoués.

Mocoçain

(25) Dolumin hauek helarazten dizkie Mocoçainek Barrandegiko Broussaindar guztiei, Ma-drileko Broussain-Dangereteguy sendian galdu dutelakotz Marie Broussain 11 urteko alaba gaz-teena, *Xabala*, amultusuki deitzen ohi zutena.

Irouléguy, vendredi 1/08/1902

Mon cher ami,

Je suis revenu bredouille de S' Jean-le-Vieux; comme je vous le disais hier, la femme sur laquelle je comptais est malade et on ne peut pas songer à l'envoyer à Licq, d'autant plus qu'elle est asthmatique; j'ai prié les Laphitzondo, ainsi que M. le curé et son vicaire, de faire des recherches à S' Jean-le-Vieux et aux environs.

Vous avez dû certainement entendre parler du P. Mortara: dans le temps, les journaux ont assez parlé d'une nourrice qui avait (à Rome) baptisé un enfant juif en danger de mort; l'enfant revint à la vie, et Pie IX le retira à ses parents pour l'élever dans la religion catholique: c'est le P. Mortara.

Vers Avril-Mai a eu lieu un pèlerinage à Jérusalem; parmi les pèlerins se trouvaient quelques prêtres basques et aussi le P. Mortara; un jour celui-ci fit sur le bateau une conférence intéressante sur le jeune Mortara et sur son affaire, et en terminant ajouta qu'il habitait actuellement un pays curieux, le Pays Basque; il ne pensait pas qu'il y eût parmi les pèlerins des personnes originaires de ce pays. Mais on lui répondit: «*Bai, jauna, bai*» alors en basque il continua: «*atsegin izanen dut zuekin elkartzea*». Et depuis il a souvent fréquenté les prêtres basques.

Le P. Mortara connaît beaucoup de langues; il sait aussi le basque, et il habite actuellement S' Sébastien; j'espère pouvoir vous donner bientôt son adresse, si vous voulez aller le voir avec Azkue; il paraît qu'il est très fort et très savant.

Pour les noms de plantes que je vous ai envoyés hier, il faut dire: *ahuntz-korna*, au lieu de *koma*, *muitu ondo bat*, *muitia*, *golderna* se dit *ozkorrona* à Garazi.

Ephaitza, *mendoitza*, *phendoitza*, tout cela signifie «*talus*», je crois.

Je viens de trouver deux livres basques:

1. Alphonse Rodriguez, *Jesusen companiaco aitaren guiristinho perfeccionarean...* etc., Avignon, Antonio Aubanel, MDCCLXXXII en bas-navarrais.

2. *Meditacioneac gei premiatsuenen gainean cembait abisuekin...* etc., Bayonne, Cluzeau, 1809.

Que valent ces acquisitions? J'ai promis à une personne de lui donner en retour un beau livre de messe.

Votre frère et sa famille (26) arrivent-ils bientôt à Hasparren?

Je vous serre cordialement la main.

Mocoçain

(26) Piarres Broussainen anaia zaharrena Batista Broussain (1854-1906) Madrilén ezkondua zen Marie-Louise Dangereteguy mendiondoar anderearekin eta bi alaba izan zituzten: Marie Terexa, gehiena (1888-1954) eta Marie (1890-1901) hil berri zitzaiena.

Irouléguy, le 20 février 1903

Mon cher ami,

Il m'a été impossible de venir vendredi dernier à Hasparren et j'ai bien regretté de n'avoir pas mon temps à ma disposition.

J'ai vu mon cousin au sujet de votre voiture et il m'a dit qu'elle est en assez bon état; seulement je ne sais comment faire pour la transporter ici. Qu'en dites-vous?

Pourriez-vous l'envoyer en gare de Cambo, ou bien jusqu'à Louhossoa ou Bidarray? Si vous l'envoyez à Cambo, il faudrait l'expédier par le train en gare de S' Jean-Pied-de-Port ou Baïgorry; si vous la faites conduire jusqu'à Louhossoa ou Bidarray, quelqu'un viendrait la prendre avec un cheval.

Mais en attendant vous devriez faire arranger le garde-crotte en bois; la dépense est minime; à défaut de charron, un charpentier vous arrangera facilement la chose. Que dirait-on en voyant passer une voiture dans cet état?

Je ne sais pas encore trop où je devrai garder la voiture; je n'ai pas d'emplacement moi-même, et c'est si ennuyeux de déranger les autres. Mais enfin cette difficulté sera facilement résolue.

Ecrivez-moi au plus tôt pour me donner votre avis et me fixer sur le jour et le mode de transport.

J'ai trouvé le numéro des Annales qui manquait à la collection: après avoir écrit aux Aldudes, à Bayonne, à Ustaritz, à Larressore, à Bonloc, à Hasparren, j'ai dû m'adresser à M. le curé de Louhossoa qui a été plus heureux que le curé d'Ainhoe, de Jaxu, d'Ahaxe, de Mendive et beaucoup d'autres que j'avais en vain sollicités. La collection est chez le relieur.

J'ai toujours des tracasseries avec mon instituteur, mais je me défends *unguibus et rostris*. M. le Préfet laisse traîner les choses; il m'avait promis d'examiner les diverses questions avec la plus grande impartialité, et c'est tout ce que je demande.

Je vous serre bien cordialement la main.

Mocoçain

Irouléguy, le 19 mars 1904

Mon cher ami,

J'ai reçu la carte postale de Tours et la lettre de Hasparren. Merci.

Puisque vous avez vu Pochelou jeudi dernier, il a dû vous dire que je lui ai fait une demande de journaux pour le curé d'Estérençuby; celui de Lécumberry écrira aussi incessamment, et Mendive sera desservi par Lécumberry; lundi j'ai été par là avec Charles qui m'a entraîné facilement.

Je connaissais les ventes de S' Pée, Guéthary, Hendaye, etc. (à propos, il me tarde de vous voir pour vous parler d'Hendaye confidentiellement).

Arnéguy vend 30 numéros; aurait l'emploi de 32, mais attend d'arriver à 35 numéros assurés pour en demander 40; c'est un ancien brigadier cantonnier (révoqué pour élections Etcheverry) qui mène la campagne. Homme très digne et très respecté même par ses adversaires: je l'ai vu mercredi, et il est sûr d'arriver à ses 40 numéros pour s'y fixer mais vous savez que cette organisation ne plaira pas à tout le monde, et je crois qu'on pourra nous ennuyer; pour la vente des journaux il faut faire une déclaration à la mairie ou à la Sous-Préfecture, et moi au moins je n'ai rien fait.

Ne pourriez-vous pas demander des renseignements à ce sujet? Il y a lieu d'abord de faire une différence entre vendre et distribuer; celui qui remet à domicile le journal et touche les cinq centimes, vend-il le journal ou le distribue-t-il?

Si vous allez à Bayonne, M. Guichenné ou le directeur de la *Presse libérale* vous renseigneront; il faudra demander la formule qu'on doit déposer à la mairie pour faire sa déclaration, et à mon avis on devrait l'adresser sous enveloppe à tous ceux qui s'occupent de vendre l'*Eskualduna* en leur demandant de ne pas tarder à faire les démarches nécessaires à la mairie, qui est obligée de leur délivrer un récépissé. Alors on sera tranquille.

Je vous prie de vous occuper de cette question pour qu'il n'y ait pas d'ennuis qui pourraient causer un retard, un arrêt, ou un recul dans la marche brillante de l'*Eskualduna*. Mon rêve était d'arriver à 4000 pour Pâques.

Il m'est difficile de m'absenter d'ici à Pâques. Dans la semaine de Pâques, nous avons le jeudi l'adoration d'Urepel, et le vendredi celui(sic) d'Arnéguy; on n'admet pas les laïques aux dîners d'adoration, mais je pense bien

que j'obtiendrai dispense pour vous, surtout si vous me promettez de venir prêcher l'action libérale populaire auprès de nos curés endurcis et encroûtés.

Je crois que le lundi de Pâques vous avez concours agricole. Mardi le marché: voulez-vous ou pouvez-vous arriver chez moi le mercredi?

Mais non, c'est mauvais; l'abbé Duhau et Méharuberry ne pourront pas venir ce jour-là à Irouléguy parce qu'ils seront occupés à confesser les gens d'Arnéguy, et j'ai promis moi-même d'aller les aider; il est vrai que je me ferai lâcher pour vous accompagner.

Enfin dites-moi quel jour vous venez; le 12 avril, je suis invité aussi au mariage de M^{lle} Mondran. Il faut pourtant que nous fassions ensemble campagne pour l'Action libérale populaire (27); en attendant faites le petit travail en basque que je vous ai demandé pour nos paysans qui ne comprennent rien aux feuilles qu'on leur distribue; je demanderai qu'on le fasse imprimer aux frais de l'Action libérale populaire, et en avant! arche!

Envoyez-moi au plus tôt les mots mal écrits ou douteux, pour que je prenne des éclaircissements sur place: je vous répondrai immédiatement après avoir eu les informations nécessaires.

Ainchart m'a demandé hier si l'*Eskualduna* marchait bien. Charles demande toujours s'il y a beaucoup d'annonces. Ils ont eu ensemble une explication au sujet des affaires de la commune qu'Ainchart voulait céder à Minjonnet; celui-ci a refusé, il a dit à Ainchart que le moment était mal choisi pour se retirer; en cas de lutte, Ainchart lui a demandé son appui effectif et a promis de rester sur la brèche. Tout est bien qui finit bien.

Je vous serre cordialement la main.

Mocoçain

Vous ne me donnez pas de nouvelles de M^{me} Moreau (28). J'interprète votre silence comme favorable.

(27) «Action Libérale Populaire» zen Jacques Piou frantses erregeazale ohi aberats okituak 1901.ean, Leon XIII.ak sustaturik errepublika onartzen zuten katolikoekin sortu zuen alderdi berria; deputatu multzo bat bildu zuen behin, baina gero 1908an Pio X.ak bazter utzi zuen. Lapurdi aldean, berriz, Manex Hiriart-Urruty apezaren *Eskualdunari* esker Léon Guichenné hautatu zuen alderdi berriaren kontu.

(28) «Madame Moreau» zen Marie Salagoity-Broussain, Pierre Broussainen ama, Jean Moreau bere bigarren senarra galdurik 1902.an, bera zendu baitzen 1904.eko abuztuan.

Irouléguy, le 6 mai 1904

Mon cher ami,

Je suis en retard pour vous dire combien je suis heureux de la nouvelle que vous m'avez annoncée et pour vous adresser mes vœux les plus sincères avec toutes mes félicitations. (29) L'arrivée de mon frère, une visite à Arnéguy auprès de mon ami Méharuberry qui a gardé le lit pendant quelques jours, une nouvelle promenade à Espelette et à Ustaritz, tout cela m'a empêché de vous écrire plus tôt; mais je vous ai fait présenter mes excuses par l'abbé Duhau et par mon frère mardi dernier pour vous prouver que je ne vous oubliais pas et que j'étais du cœur avec vous.

J'ai compris que M^{me} Moreau allait un peu mieux: est-ce vrai? Il est bien regrettable que l'état de sa santé ne vous permette pas de vous réjouir; je suis sûr pourtant qu'elle a été enchantée de votre décision et que rien n'était plus capable de la ranimer.

La nouvelle de l'arrivée de Fernandez (30) m'a certainement surpris et m'a causé beaucoup de plaisir: peut-être grâce à lui pourrons-nous enfin vous voir dans nos parages?

Demain nous avons à Baïgorry l'enterrement de M^{me} Harispe (31), la belle-mère du Lieutenant Colonel Iraçabal: n'avait-elle pas failli être aussi votre belle-mère?

Je vous serre cordialement la main.

Mocoçain

(29) Hauxe da berri ona: Piarres Broussain ezkontzen dela Bordeleko eliza batean familia osoa eta Azkue eta Dibildos bi apez adiskide minak dituela lekuko, Amélie Baratchart (1879-1960) Amendüze Larragoieneko alaba gaztearekin. Bi alaba izanen dituzte Maddalen 1905.ean sortua eta Jenofa 1911.an sortua.

(30) Francisco Fernandez mirikua, 1857.an Montevideon jaioa, Piarres Broussainen Paris-eko ikaskide ohia, askotan Euskal Herrian ibilia zen eta Ameriketara itzuliz geroz, Uruguay-ko San Gregorio de Polanco-tik harreman jarraikiak bazituen hemen gaindiko adiskideekin.

(31) Harispe anderea, Isidore Harispe, Harispe marexalaren ilobaren emaztea zen; Baigorriko elizaren lehen auzo ziren eta hiru alaba bazituzten, hauetarik bat, *Olympe* izenekoa begiztatu omen baitzuten Broussainen andregaitzat Baigorriko bikarioak eta haren lagunek.

Espelette, le 13 septembre 1905

Bien cher ami,

Dès que j'eus appris le décès de Morrochko (32), j'avais prié notre ami Minjonnet d'insister auprès de vous pour vous obliger à poser votre candidature à la mairie, au conseil général, et même à la députation; vous me paraissiez tout désigné pour recueillir la succession politique du richissime millionnaire, et j'étais décidé à venir vous trouver à Hasparren pour tenter une démarche personnelle, si je n'avais pas la bonne fortune de vous rencontrer aux fêtes de Sare ou à la réunion des anciens élèves du Séminaire.

Mais on m'a dit hier que vous étiez à Amendeux, et que vous ne rentreriez pas probablement de quelques jours; aussi me voilà contraint de me mettre à écrire, au lieu de jouir tranquillement de mes vacances, parce que vous avez besoin de quelqu'un pour vous aiguillonner; vous savez très bien penser et dire ce que doivent faire les autres, mais *bertzentzat mediku eta zuratzat barber ere ez*.

J'ai appris avec plaisir que M. Guichenné par devoir se laissera porter à la députation; il sera très heureux de vous voir maire de Hasparren et conseiller général du canton. Il faut donc absolument que vous posiez votre candidature, et si vous le faites immédiatement, toutes les candidatures plus ou moins préfectorales seront écartées; personne ne songera même à vous opposer de concurrent. Il est absolument nécessaire que vous sacrifiiez vos goûts de tranquillité, d'indépendance... et de paresse: vous devez vous secouer, et permettre à tous vos amis de mettre à Hasparren un maire et conseiller général qui ne soit pas à la dévotion du Préfet.

Plus vous vous hâterez, et moins il y aura de difficultés; certainement on a dû déjà vous demander de prêter votre nom pour ces deux prochaines élections: qu'attendez-vous? Vous verrez combien vous avez de sympathies, et je pense que même mes cousins vous laisseront le champ libre.

(32) Saint-Martin Harriague-Morroxko bapatean hil zen Parisen, 1905.eko udaminean, bere ondotik uzten zizkiela ontasun handiak bere alargunari eta bi arrebei, eta bere karguak hautetsiak izanzen ziren hautagaiei: Hazparneko auzapezgoa hartu zuen horrela, 15 urteentzat Piarres Broussain mirikuak, diputatugoa Léon Guichenné abokatak eta kontseilu jeneral kargua Piarres Broussainek uko egin ondoan, Emile Larraidy mirikuak.

Si je connaissais mieux M^{me} Broussain, je me serais adressé à elle pour vous donner un peu d'élan; vous voudrez bien lui présenter mes sentiments respectueux.

Je vous serre cordialement la main.

Mocoçain

J'étais à la Guadalupe vendredi dernier (33), et j'ai bien regretté de ne vous avoir pas à mes côtés; vous auriez joui en entendant le sermon, excellent basque, beaucoup de monde, une vingtaine de compagnies, un général avec huit officiers d'état-major à cheval, un capitaine d'artillerie pour les deux canons, les courses avec Tancredo qui a dû poser deux fois, un chahut épouvantable parce qu'il s'était échappé trop vite la première fois, les courses interrompues n'ont pu être reprises que sur la promesse faite par le crieur public au nom du président de faire revenir Tancredo au quatrième tau-reau.

Samedi j'ai aperçu votre belle-soeur du côté de Socoa; j'étais en voiture avec des compagnons et je ne me suis pas arrêté; j'ai été le lendemain chez Hiribarren demander son adresse, mais figurez-vous que je n'ai pas eu un moment pour aller faire une visite. Il paraît que Jean-Baptiste doit arriver bientôt; j'irai voir toute la famille.

Et vous, je ne viendrai pas vous voir, si vous ne vous présentez pas au conseil général: annoncez-moi au plus tôt que vous êtes un vaillant. Ch. Minjonnet sera enchanté de vous avoir pour collègue.

(33) Bere «Alarde» aipatua zuten ospatzen horrela hondarribitarrek.

EUSKALTZAINDIAREN ADIERAZPENA

EUSKALTZAINDIAREN ADIERAZPENA EGUNKARIAREN IXTEAREN GAINEAN

Euskaltzaindiak, Hernanin bildurik, *Euskaldunon Egunakariaren* ixtea aztertut du, besteak beste, eta honako adierazpen hau aho batez onartu:

Euskaldunok euskaraz dugun egunkari bakarra epaile-aginduz itxi izanak eta horren inguruan atxiloturiko pertsonak aspaldidanik euskara eta euskal kulturaren alde lan handia egindakoak izateak, horietako bat, Joan Mari Torreal-dai euskaltzain urgazlea izanik, harriduraz bete du Euskaltzaindia, eta gertakari hauengatik bere kezka larria adierazi nahi du. Orobat, Martin Ugalde jaun euskaltzain ohorezkoraren egoeragatik.

Euskaltzaindiak, beti egin duen bezala, oraingoan ere argi utzi nahi du euskara eta euskal kultura gure gizarte osoaren ondareak direla, inolako ideologia bereizketarik gabe. Horren ondorioz, Erakunde honek, Zuzenbideko Estatutaren egoera aintzat hartuta, ezin onartuzkotzat jotzen du, gertakari hauen aitzakiaz, zenbaitzuen gure hizkuntza eta kultura terrorismoarekin elkartzeko darabilten bidegabeko interesa.

Adierazpen honen ale bana helaraziko zaie berehala agintariei, bai eta komunikabide guztiei ere, jendartearen ezaguna izan dadin.

Hernanin, 2003ko otsailaren 28an

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

EUSKALTZAINDIAREN ARAUAK

124
HIZTEGI BATUA
*analogo - antzoki*¹

analogo
anana iz. *Ananas sp.*
anarkia
anarkiko
anarkismo
anarkista
anarte iz. Batez ere leku-denborazko kasuetan erabilia.
 anartean
 anarteraino
 anarterainoko
anatema
anatomia
anatomiko
anbar iz.: *anbarezko bitxia*.
anbiguetate h. **anbiguotasun**.
anbiguo
anbiguotasun
anbiolako izlag. *g.er.* 'behinolakoa'.
anbizio iz. *g.g.er.* h. **handinahi**, **lehia** (bizi), etab.
anboi
anbulakro iz. *Zool.*
anbulantzia
anbulo iz. *Asphodelus albus*.
anbulo gaizto iz. *Pseudonarcissus*.
anda iz. *Batez ere Pl.:* *elbarri bat andetan zeramaten*.
 anda(-)izara 'hilotza biltzen duen oihala'.
anda bide iz. 'hilotzak (andetan) elizara eramateko bidea'.
andaerri iz. *g.er.* 'pleura'.
andaitz* e. **endaitz**.
andaluziar
andaluziera
andana
andanaka adlag. *Ipar.*
andar iz. *Ipar.* 'aldaroka'.
andare iz. *Heg.* 'panpina'.
andari iz. *g.er.* 'hilotzak (andetan) eramaten dituen pertsona'.
andarka adlag. *Ipar.* 'aldaroka'.
andazain iz.: *andazainek eria bere gelara eraman dute ospitalean*.
anddere
anddereder iz. *Ipar* 'erbinudea'.
andeatu, **andea**, **andeatzen**. *da/du* ad.
andel iz. *g.er.* 'ontzia'.

¹ *Arau* honk osatu eta eguneratu egiten du 46. *Arauan* argitaratutako Hiztegi Batuko zerrenda, **analogo - antzoki** larteko hitzei dagokienez. *Arau* berria da, beraz, kontuan hartzekoa.

anden* e. **kai, nasa.**

anderauren iz. 'andre noblea': *Erreginaren anderaurenak.*

andere iz. *lpar.* 'andrea'.

andere-belar 'begonia'.

andere-mahats *Ribes sp.*

andere-serora *lpar.* 'elizaren ardura duen andrea'.

andere xuri 'Maskaradetako jokalaria'.

andereder* e. **anddereder.**

anderegai* e. **andregai.**

andereño

andoila iz. *g.er.* (hestebete-mota).

andorratar (herritarra).

andraize iz. *Batez ere Bizk. Lgart.* 'hego haizea'.

andrakila iz. *Bizk. Sin.* **panpina.**

andrakume iz. *Bizk.* 'emakumea'.

andrazko iz. *Batez ere Bizk.*

andre

andre gehien *Zah. g.er.*

andre-ikuste

Andre Maria: *Itziarko Andre Maria* (mendebalean, tradizioko eliza batzuetan 'Andramari(a)').

andre-gizonak 'senar-emazteak'.

andregai

andrekarri izond. 'andrezalea'.

andreña iz.: *Matricaria parthenium.*

andrerrai* e. **andaerrai.**

andreteria iz. 'andre-taldea'.

andrezale

androgeno iz. *Biol.*

androgino izond. *Biol.*

andui iz. '(zuhaitzaren) motzondoa'.

andur izond. *g.er.* 'doilorra, zikoitza'.

andura iz. *Sambucus ebulus.*

andurreria* e. **handurreria.**

anega iz. (edukiera-neurria).

anegaka

anei* e. **mila.**

aneka iz. *g.er.* 'zakutoa'.

anekdota iz. 'gertaera, istorioa, kontua, pasadizoa'.

anekdotiko

anelido

anemia

anemona iz. 1 [landarea] *Anemone sp.* 2 [animalia] *Anemonia sulcata.*

anerdí iz. 'anega-erdia'.

aneroide izond. *Fis.*

anestesia

anestesiatu, anestesia(tu), anestesiatzén. *du ad.*

anestesiko izond. *eta iz.*

anestesista

aneta iz. *lpar.* *Anethum graveolens.* *Sin.* **ezamihilu.**

anexio iz. *Pol., Admin.*

anexionatu, anexiona, anexionatzen. *du ad. Pol., Admin.*

anezka iz. (ehungintzako tresna).

anfetamina

anfibio izond. *Sin.* **urlehortar.**

anfiteatro

anfora

anfotero izond. *Kim.*

angarila iz.

angarilari iz.

angabetu, angabe, angabetzen. *da ad. Naf. g.er.* 'ahuleziak joa gertatu'.

angeles* e. ingeles.

angelu

angelu kamuts

angelu lau

angelu zorrotz

angelu zuzen

angeluar izond. *Mat.*

angeluberdin izond. *Mat.*

angelus iz. 'hitz horrekin hasten den otoitza'.

angeluzuzen izond. *Mat.* 'angelu zuzenak dituen lau aldeko figura geometrikoa, edo angelu bat zuzena duen hiru aldekoa'.

angina iz. *Med.*

angiospermo iz. eta izond. *Bot.*

angles h. ingeles.

anglikanismo

anglikano

anglikar* e. anglikano.

angolar (herritarra).

angula iz. *Sin. txitxardin.*

angurri iz. *Citrullus lanatus.*

angustia* e. **larritasun**, **nahigabe**, **ezinegon**, etab.

anhidrido *Kim.*

anil iz. 1 [landarea] *Indigofera anil.* 2 (tindua, tindatzeko gaia).

anima* e. **arima**.

animalia

animatu, anima, animatzen. *da/du ad.*

animatzaile

animismo

animista

animo 1 iz. *Beh.* 'adorea, kemenen'. 2 interj. *Beh.*

animoso izond. *Heg. Beh.*

animotsu izond.

anioi iz. *Fis.* eta *Kim.*

anis iz. 1 'landarea, anis-belarra'. 2 'landare horren hazia'. 3 'edaria'.

anis(-)belar *Pimpinella anisum.*

anis(-)sagar

anisoptero iz. *Zool.*

anitz 1: *jende anitz etorri da; anitz jende etorri da; anitz urtez* ('zorianak, urte askotarako'). 2 *industria anitza** e. askotariko industria.

anitzetan adlag. 'askotan'.

anitzez adlag. 1: *anitzez jakintsuago bilakatuko zara.* 2: *bere egunak anitzez laburtzen dituztenak.*

anizdun* e. **aniztun**.

anixko 'askotxo': *orain duela anixko urte.*

anizkoitz

anizkoiztasun

anizkun

aniztasun

aniztu, **anitz/aniztu**, **anizten**. *da/du ad.*

aniztun

ankarar (herritarra).

anker

ankerkeria

ankerki

ankertasun

ankila iz. *Bizk. g.er. h. aingura.*

anoa iz.: *biderako anoa edo jana prestaturik, biak abiatu ziren.*

anodo

anomalia

anomalo

anonimo

anontziatu, **anontzia**, **anontziatzen**. *du ad. Ipar. Zah. 'oliadura eman'.*

anontzio iz. *Ipar. Zah. 'oliadura'.*

anorak

anorexia

anorexiko

anormal

anparatu, **anpara**, **anparatzen**. *du ad. Heg. Beh. h. lagundu, zaindu, etab.*

anparatzaile izond. *Heg. Beh. h. zaintzaile.*

anparo iz. *Heg. Beh. 'babesa': seme-alaben anparooan bizi dira zahartzaroan.*

anpere

anperemetro

anple izond. 1 *Zub. 'barea, ezti'*. 2 *Ipar. Beh. 'zabala'.*

anpleki adlag. *Ipar. g.er. 1 'bareki, eztiki'. 2 'zabalki'.*

anpletu, **anple(tu)**, **anpletzen**. *daldu ad. 'baretu'.*

anplitude iz. *Fis.*

anpoila iz.: *beirazko anpoila bat.*

anpolai iz. *Prunus avium var. Duracina.*

anpor iz. *Bizk. h. enbor.*

anproi* e. **lanproi**.

anpulu iz. 1 'malko handia': *begietako negar anpuluak*. 2 'burbuila'.

antagonismo

antagonista iz. 'aurkaria, aurkakoa, aitzikoa'.

antananarivoar (herritarra).

antapara iz. 'errotara ura daraman ubidea'.

antartiko izond.: *Ozeano Antartikoa.*

antekristo* e. **antikristo**.

antena

antepara* e. **antapara**.

antera iz. *Bot.*

antibiotiko

antidoto

antieuskaldun

antifaxista

antifona iz. *Erl.*

antifrankista

antigeno

antigoaleko izlag. *Heg. Lgart.*

antigorputz

antiguar (herritarra).

antiinperialista

antiklerikal

antiklerikalismo

antiklinal

antikristo

antilope iz. *Antilope sp.*

antinatural

antiojo iz. *Heg. Beh. Pl. h. betaurreko.*

antiparasitario izond. *Med., Elektr.*

antipar* e. **betaurreko**.

antipoda

- antisemita
antisemitismo
antiseptiko
antisorgailu
antitesi
antizikloi
antoisin* e. antoxin.
antojagarri izond. *Heg.* 'aspergarria, gogaikarria'.
antojatu, antoja, antojatzen. *da/du* ad. *Heg.* 'aspertu, gogaitu'.
antoju iz. *Heg. Beh.* 1 *Zah.* 'apeta'. 2 'nazka, higuina'.
antolabide
antolabidetza* e. antolaketa.
antolera iz. *g.er.* 'antolaketa, antolakuntza'.
antolaketa
antolakidetu* e. koordinatu (eta batu, bateratu, etab.).
antolakizun iz. 'antolaketa'.
antolakunde iz. 'organizazioa'.
antolakuntza
antolaldi iz. *Ipar.* 'konponketa'.
antolamen* e. antolamendu.
antolamendu
antolarazi, antolaraz, antolarazten. *dio* ad.
antolatu, antola, antolatzen. 1 *du* ad. 2 *da* ad. *Ipar.* 'bat etorri'.
antola hor! *Ipar. Sin.* hor konpon!
antolatzaile
antologia
antologiko
antonimo iz. *Hizkl.*
antoxin
antoxinkada
antozoo iz. *Zool.*
antrazita
antropoide
antropofagia
antropofago iz. eta izond. 'gizajalea'.
antropologia
antropologiko
antropologo
ants* e. antz 2.
antsia 1
antsia izan *da/du* ad. *Zah.* Batez ere *ez da antsia, zer da antsia, biharraz antsia ez dute bezala-*
ko esapideetan erabiltzen da.
antsia 2 iz. 'hasperena, intziria'.
antsiatsu izond. *Ipar. Zah.* 'arduratsua, arretatsua'.
antsiatu, antsia(tu), antsiatzen. *da* ad.
antsika adlag. 'hasperenka, intzirika'.
antsikabe izond. 'arduragabea, axolagabea'.
antsikabeki
antsikabetasun
antsikabetu, antsikabe(tu), antsikabetzen. *da* ad. *g.er.*
antxera iz. *Ipar.* 'enkantea, errematea': *hilaren ondasunak antxeran saldu ziren.*
antxeta iz. *Larus sp.* eta *Rissa sp.*
antxintxika adlag. 'lasterka'.
antxintxiketa iz. 'lasterketa'.
antxintxiketan* e. antxintxika.
antxitu, antxi, antxitzen. *du* ad. *Bizk. Zah. g.er. h.* atzitu.
antxoa iz. *Engraulis encrasicolus. Sin.* bokarta.

antxu iz. 'bildotsa, arkumea'.

antxumatu, antxuma, antxumatzen. *du* ad. '(besoak edo hankak) bata bestecaren gainean jarri'.

antxume

antxumeki iz. 'antxume-okela'.

antz 1

antza denez

antza hartu: *nire herriari zerutxo baten antza hartu nion.*

antzean: *gaixo antzean dabil.*

antzeko iz.: *norbaiten antzekoa izan; ipuin antzekoak.*

antzera 'gisara': *egin dezagun gizona geure antzera.*

antz 2 iz. *Bizk. h. hats.*

antza adlag. 'dirudienez': *asmoren bat bururatu zitzairen, antza, eta zirt-zart bururatu eta egin.*

antza dagoenez* e. **antza denez**.

antzakabe* e. **antzegabe**.

antzalda iz. *Goi. g.er. h. antzaldatze.*

antzaldarazi, antzaldaraz, antzaldarazten. *du* ad.

antzaldatu, antzalda(tu), antzaldatzen. *da/du* ad.

antzaldatze

antzandobi iz. *Lanius sp.*

antzara iz. *Anser sp.*

antzara ferratzera: *antzara(k) ferratzera joan, bidaliligorri esapideetan erabiltzen da.*

antzara-joko

antzara-xori *Ipar.* 'antzandobia'.

antzarakume

antzarazain iz.

antzarka adlag. *Naf.* 'arnasestuka'.

antzatsu* e. **antzetsu**.

antzatu, antza(tu), antzatzen. *du* ad. 'trebatu'.

antze iz. 'trebetasuna'.

antze-lan 'artelana'.

antzegabe izond. 'antzekaitza'.

antzekaitz izond. 'antzerik, trebetasunik gabea'.

antzekotasun

antzelari iz. 'artista'.

antzean, antzematzen. *dio* ad.: *antzean diot ez dela hemengoa (ezezkoetan, ez diot antzik eman eta ez*

diot antzean, biak onartzen ditu).

antzemate iz.: *susmo, intuizio eta antzemate sakonak.*

antzera* e. **antzara**.

antzeratu, antzera(tu), antzeratzen. *du* ad. 1 'imitatu'. 2 'irudikatu, tankeratu'.

antzerki

antzerki(-)lan

antzerki(-)talde

antzerkigile

antzerkigintza

antzerkilari

antzetsu

antzetsuki adlag. *g.er.* 'trebetasunez'.

antzezale izond. *g.er.*

antzezkizun iz. *g.er.* 'antzezlana'.

antzezko* e. **artifizial**.

antzezlagun iz.

antzezlan

antzezleri iz.

antzezle

antzezleku iz. 'antzeztokia'.

antzezen

antzeztalde iz. 'antzerki-taldea'.

antzeztoki

antzeztu, antzez, antzezten. *du ad.*

antzigar

antzina 'aspaldi'.

antzinako

antzinaera iz. *Zah.* 'antzinatea'.

antzinaldi iz. *g.er.* 'antzinatea'.

antzinaro

antzinakotasun

antzinatasun iz.: *euskararen antzinatasuna; lanpostuko antzinatasuna.*

antzinate

antzinatxo adlag. 'aspalditxo'.

antzirudi

antzo adlag.: *gazteak gazte antzo behar du bizi; basakatu zauritua (edo zaurituaren) antzo.*

antzora *Zah.*: *haur baten antzora.*

antzoki iz. 'teatroa (tokia)'.

Euskaltzaindiak, Bilbon, 2003ko urtarrilaren 31n,
martxoaren 28an eta apirilaren 25ean, onartua.

125

SAN, SANTU, DONE ETA BESTEREN ERABILERA

Santu izendegia onartu ondoren, beharrezkoa ikusten du Euskaltzaindiak izen horiekin joan ohi dena, aurrean edo atzean, arautzea. Gure tradizioa aztertu ondoren, hau da Akademiaren araua:

1. Euskara batuan *San / Santa* erabiltzen dira eskuarki santu izenekin: *Santa Elisabet, Santa Katalina, San Simon, San Frantzisko...* Hau da, beraz, gomendio nagusia.

2. *Done / Dona* ere erabil daitezke, bereziki gure onomastika tradizioan aurkitzen diren honako hauekin¹, hots:

- Dona: *Alodia, Garazi, Julia, Maria, Mariana, Pia.*

- Done: *Agustin, Bartolome, Bikendi, Bladi, Emiliano / Millan, Erroman, Eztebe, Felix, Jakue, Joane, Julio, Jurgi, Justi, Kosme, Kristobal, Laurendi, Leon, Martie, Martzelo, Mateo, Meteri, Mikel, Paulo, Pellaio, Petri, Salbatore, Saturdi, Sebastian, Tomas, Zipriano.*

Aipatu izenen kasuan *Done*-ren aurrean *Jaun* ezar daiteke, hitz bakoitza bereiziz: *Jaun Done Petri.*

3. Lapurdin eta Nafarroa Beherean bizirik dauden *Jondoni* eta Zuberoako *Jondane* (hitz batean) erabil daitezke tradizioa halakoa izan denean, hala nola, santu izen hauekin:

- Jondoni: *Batista, Eztebe, Joanes, Laurendi, Murtuts, Paulo, Petri, Salbatore, Saturdi.*

- Jondane: *Joane Batista, Eztebe, Paulo, Petri.*

4. Antzinatik heldu zaizkigun kasu berezi batzuetan *Santi*-dun hagianimoak ere erabil daitezke: *Santi Kurutz, Santi Mami...*

5. Orobat, Kristoren ama aipatzeko hurrengo forma hauek onartzen dira: *Andre Maria* (Hegoaldea), *Andra Maria* (Hegoaldeko erdi-mendebaldea), *Andredena Maria* (Iparraldea), *Andre Dona Maria* (tradiziozkoa).

6. Euskara baturako² euskalkietan dauden aldaeren artean *santu / santa* erabiltzea hobesten da.

7. *Deun / Deuna* ez bitez erabil *San, Santu* edo *Done*-ren orde. Beraz, **Mikel Deuna, *Tiburtzio Deuna* ez dira egokiak; bai ordea, *Done Mikel, San Tiburtzio.*

8. *Santo* ere ez bedi erabil: *San Domingo, San Tomas, San Toribio*³.

9. Leku askotan erabiltzen diren *sanferminak, santakatalinak, sanprudentzioak* eta beste ontzat hartzen dira auzo, herri edo hirietako jaiak adierazteko garaian. Adibideetan ikusten den bezala, letra xezhez idatziko dira honelakoak, eta pluralean deklinatuko.

¹ Segur aski ikerketak aitzina egin ahala orain ezagutzen ez ditugun (*jaun*) *done*-dun eta *dona*-dun hagianimo gehiago kausituko dira. Arrazoi honengatik uste dugu hemen ematen den zerrenda behin betiko ezin dela itxi.

² Ikus Hizitegi Batua.

³ *Santo* duten toki eta herritarren izenetan (*Santo Domingo, santadomingoar*) forma hori ontzat emana da. Ikus 38. araua eta Hizitegi Batua.

10. Idazkerari dagokionez, *San, Santu, Santa, Santi, Done, Jaun Done, Dona, Jondoni, Jondane, Andre, Andra, Andredena* eta *Andre Dona* letra larritz erabiliko dira: *San Martin, Espiritu Santua, Begoñako Andra Maria. Santu, santa* eta *done*, aldiz, izen arruntak direnean, letra xehez emango dira⁴: *santu handia* izan zen *Frantzisko Xabierkoa*; *santa* horren mirariak kontatzen ditu liburuak; *Katalina santua oso aipatua* izan zen. Orobat, *santu* eta *done* izenondoak direnean.

Euskaltzaindiak, Bilbon, 2003ko martxoaren 28an onartua.

⁴ Ikus "Letra larrien erabilera euskaraz, Euskaltzaindiaren gomendioak" *Euskeraz*, I, (2.aldia) 36. liburukia, 1991, 85-87.orr.

126

HIZTEGI BATUA

*antzu - arbindu*¹**antzu****antzutasun****antzutu**, antzu(tu), antzutzen. *da/du* ad.**anu** iz. *g.er.* 'nekea'. Batez ere *anu* *egin* esapidean erabilia.**anulatu*** e. **balio**gabetu, **deuseztatu**, **ezeztatu**, **indargabetu** bezalako kideak.**anuntziatu**, **anuntzia**, **anuntziatzen**. *du* ad. h. **aditzera eman**, **iragarri**.**anuntzio** iz. h. **iragarki**, **iragarpén**.**anuro****añen** iz. 1 *g.er.* 'deabrua izendatzeko leungarria'. 2 'madarikazioa'.**añeneko** iz. 'biraoa'.**añenti** izond. 'biraolaria'.**aorta****apa 1** iz. *Bizk.* 'musua'.**apa 2** *Haur.* 'haurrak esertzeko edo eserarazteko erabiltzen den hitza'.**apaburu** iz. 'zapaburua'.**apa eman*** e. **pa eman**.**apailamendu** iz. *g.er.* 'apailatzea, prestakuntza'.**apailatu**, **apaila**, **apailatzen**. *du* ad.**apailatzaile** iz. *g.er.***apailu** iz. 'prestamena, prestalana'.**apain****apainarazi**, **apainaraz**, **apainarazten**. *du* ad.**apaindegi****apaindu**, **apain(du)**, **apaintzen**. *da/du* ad.**apaindura****apainduria****apaingailu** iz. *Ipar. g.er.* 'apaingarria'.**apaingarri** iz. eta izond.**apaingela****apainkeria****apainketa****apainki** adlag. *g.er.* h. **apain**, **apaintasunez**.**apain-mahai****apaintasun****apaintza** iz. 'prestaketa, apainketa'.**apaintzaile****apaintze****apairu** iz. *Ipar.* 'otordua, jatordua'.**apairuztatu**, **apairuzta**, **apairuztatzen**. *da* ad. *Ipar. g.er.:* *ongi apairuztatu gara*.**apaiz****apaiz nagusi:** *Kaifas apaiz nagusiarengana eraman zuten. Sin. apaizburu.***apaiz(-)sagar** 'anis sagarra'.

¹ Arau honek osatu eta eguneratu egiten du 46. Arauan argitaratutako Hiztegi Batuko zerrenda, **antzu - arbindu** taricetako hitzei dagokienez. Arau berria da, beraz, kontuan hartzekoa.

apaizaita iz. *g.er.* h. erretore.
 apaizburu iz. *Sin.* apaiz nagusi.
 apaizeria
 apaizetxe
 apaizgai
 apaizgaitegi
 apaizgintza
 apaizgo
 apaiztar* e. apaiztiar.
 apaiztasun
 apaiztegi iz. 'apaizetxea'.
 apaiztiar
 apaiztu, apaiz(tu), apaizten. *da/du* ad.
 apaizurren* e. diakono.
 apaka
 apakin iz. *g.er.* 'ibaia ekartzen duen hondakina'.
 apal 1 izond.: *pertsona apala; boz apala.*
 apal 2 iz.: *apal herriak jarri ditugu paretan.*
 apalaldi
 apalarazi, apalaraz, apalarazten. *du* ad.
 apalategi
 apaldu, apal(du), apaltzen. *da/du* ad.
 apalesgarri izond. 'apalgarria'.
 apaletsi, apalets, apaletsen. *du* ad. 'gutxietsi': *bere burua apaletsi zuen zergalariak.*
 apalgarri izond. '(norbait edo zerbait) apaltzen duena'.
 apalgune iz.: *bideak apalgune bat zeharkatzen zuen.*
 apalgura izond. *Ipar.* 'apala'.
 apalik
 apalkeria
 apalki
 apalkiro
 apalkuntza
 apalmendu iz. *Ipar. Zah.*
 apaltasun
 apaltze
 apalxko izond. eta adlag.
 apapa adlag. *Haur.:* *goazen apapa!*
 apar
 aparailu iz. 1 'arrantza tresneria'. 2 'zamarien tresneria'.
 aparantzia iz. *Ipar.* 'itxura, funtsa'. Batzuetan harridurazko esapideetan erabiltzen da: *hori ministro?*
Aparantziarik ere ez!
 aparatu 1 iz.: *arnas aparatua.*
 aparatu 2, apara, aparatzen. *du* ad. 'helburuan jo, zerbait(ean) jo': *harria bota eta begi-begian aparatu zuen; heriotzak berdin aparatzen ditu zaharrak nahiz gazteak.*
 apardun
 aparejadore iz. *Heg.* 'arkitekto teknikoa'.
 apareju h. aparailu.
 aparexu* e. aparailu.
 aparizio iz. *Batez ere Zub. h. agerkunde, epifania.*
 aparkaldi
 aparkaleku
 aparkatu, aparka, aparkatzen. *du* ad.
 apart* e. aparte.
 aparta izond.: *trebetasun aparta du neska horrek.*
 apartamentu
 apartarazi, apartaraz, apartarazten. *du* ad.
 apartatu, aparta(tu), apartatzen. *du* ad. *Lgart.* 1 *Gip.* eta *Bizk.* 'aukeratu'. 2 'bereizi'.

aparte h. bereiz, urruti.

apartean adlag. *Heg. Beh.* 'urruti'.

aparteko

apartekotasun

apartsu

apartu, apar(tu), apartzen. *da/du* ad.

apasta iz. *Gip.* eta *Naf.* 'arrainak erakartzeko uretara botatzen den janaria, beita'.

apatia

apatiko

apatx 1 iz. 'animalien adarkizko azal lodia, azazkala'.

apatx 2 interj. *Haur.:* *apatx hementxe!;* *egin apatx!*

apatx egin *Haur.* 'eseri'.

apatxe iz.

apatz izond. *Bizk.* 1 'biguna, harroa'. 2 '(pertsona) xaloa, adeitsua'.

apazegatu* e. ematu, eztitu.

apea h. **enborki**.

apelatu 1, apela, apelatzen. *du* ad. *Zuz.* 'gora jo'.

apelatu 2, apela, apelatzen. *da* ad. *Lap.* eta *BNaf.* 'osasunez hobetu': *ene semea ahul egon da eta orain apelatu da*.

apellidu* e. **abizen**, **deitura**.

apen iz. *g.er.* h. **mendeku**.

apenas adlag. 'ez dirudi': *apenas entzun zezakeen hitz hori Azkuek Lekunberrin*.

apendize iz. *Anat.* (heste-zatia).

apendizitis

apendu, apen(du), apentzen. *da/zaioldu* ad. *g.er.* 'mendekatu'.

apentzaile izond. eta iz. 'mendekatzailea'.

apeo iz. 'zerbaiti eusteko jartzen den zurezko zutabea'.

aperitibo iz.

apeta

apetaldi

apetatsu

apetitu

apeu iz. 'usoak sareetara erakartzeko hegazti-irudia, abata'.

apex iz. *lpar.* 'tximeleta'.

apez h. **apaiz**.

apezpiku iz.: *apezpiku laguntzaile;* *apezpiku-hiri*.

apezpikugo

apezpikutasun

apezpikutegi

apiar (herritarra).

apika

apikal izond. *Hizkl.*

apikultura* e. **erlezaintza**.

apio iz. *Apium graveolens*.

apiriku iz. *lpar.* 'ataria, bereziki arkupekoa'.

apiril

apiril arrain *Zub.* 'apirilaren lehenean egiten den txantxa'.

apit iz. *g.er.* 'aldapa handia'.

aplazatu* e. **atzeratu**, **luzatu**, etab.

aplikabide* e. **aplikazio**.

aplikagarri izond.

aplikapen* e. **aplikazio**.

aplikarazi, aplikaraz, aplikarazten. *dio* ad.

aplikatu, aplika, aplikatzen. *du* ad.

aplikazio

apo 1 iz. *lpar.* eta *Naf.* '(lehorreko) zapoa'

apo-belar *Verbascum thapsus*

apo-ilar *Vicia leitea*

- apo 2 iz. *Bizk.* 'zenbait ugaztunen adarkizko azal lodia, apatxa'.
 apo 3 iz. 'aketza'.
 apo-apoan adlag. *Bizk.* 'nekez, ozta-ozta'.
 apoarmatu iz. 'dortoka' (*Emys orbicularis*).
 apobelatz iz. *Ipar.* 'zapelatza'.
 apobikoitz izond. 'apoa bitan banaturik duena'.
 apodun
 apogeo iz. *Astron.*
 apoita iz. *g.er.* 'behartasun larria'.
 apokalipsi
 apokaliptiko
 apoki iz. 'apoaren okela'.
 apokrifo
 apolitiko
 apologetika
 apologetiko
 apologia
 apologista
 apopperrexil iz. *Anthriscus cerefolium*.
 apopilo *Heg.*
 apopilo egon
 aportazio* e. ekarpen, etab.
 aposizio iz. *Gram.*
 apostasia
 apostata
 apostoladu* e. apostolutza.
 apostoladutza* e. apostolutza.
 apostoliko
 apostolu
 apostolutasun
 apostolutza
 apostrofo iz. 'idazteko zeinua'.
 apostu* e. apustu.
 apostura h. apustu.
 apote
 apotema
 apotz* e. apatz.
 apotzar
 aprendiz iz. eta izond. *Batez ere Ipar.*
 aprendizaia* e. aprendizgo.
 aprendizgo
 aprendizko* e. aprendizgo.
 apreta iz. *Heg. Beh.* 'espartina'.
 aprobatu, aproba, aprobatzen. *du ad. Ipar. Zah.* 'onartu'.
 aprobetxagarri izond. *Heg.*
 aprobetxamendu iz. *Heg.*
 aprobetxategi iz. *Heg. Herr.*
 aprobetxatu, aprobetxa, aprobetxatzen. *da/du ad. Heg.* 'baliatu'.
 apropos I adlag. 'berariaz'. 2 izond. 'egokia'.
 aproposko izlag. *Heg. Beh.* 1 'benetakoa ez dena'. 2 *Bizk.* 'egokia, aproposa'.
 apuko iz. 'aitzakia, estakurua'.
 apuntatu, apunta, apuntatzen. *du ad. Heg.*
 apunte iz. *Heg.* 1 'idatziz hartutako oharra'. 2 'marrazki-zirriborroa'.
 apur
 apur bana *Ipar. Zah.* 'apurka'.
 apur bat

apurka
 apurkeria
 apurketa iz. 'apurtzea'.
 apurkin iz. 'hondakina'.
 apurkor
 apurño
 apurreria iz. *Bizk.*
 apurtasun
 apurtio* e. **apurtxo**.
 apurtu, apur(tu), apurtzen. *da/du* ad.
 apurtxo
 apurtxo bat
 apurtzaile
 apustu
 apustu egin
 apustulari
 apustuzale
 aputio iz. *Zah. g.er.* 'iraina'.
 aquarium* e. **akuario**.
 ar izond. eta iz.: *arrak eta emeak*.
 ara 1 iz. *Ipar.*: *Euskal Herriko ara eta ohiturak; mutil honek bere nagusiaren ara egiten du; gure arak eta sinesteak ez dira harenak*.
 ara 2 iz. *Ara sp.*
 arabaki * e. **adabaki**.
 arabar
 arabarba iz. *Rheum rabarbarum*.
 arabazozo iz. *Sturnus sp.*
 arabe* e. **arabiar**.
 arabego iz. 'hego-mendebaldeko haizea'.
 arabera
 araberako
 araberan adlag. *Ipar.* 1 'konformidadean'. 2 'arabera'.
 araberatu* e. **arautu, araupetu**.
 arabiar (herritarra).
 arabiera (hizkuntza).
 arabisagar iz. *Citrus paradisi. Sin. pomelo*.
 arada iz. *Ipar. Zah. g.er.* 'oihartzuna'.
 arai^z 1 adlag. *Ipar.* 'noski, jakina': *ezagutu zenuen? bai arai^z!*
 arai^z 2 adlag. *Ipar.* 'oxala!': *bakea eginen dugu arai^z!*
 arakaitz
 arakaketa* e. **araketa, arakatze**.
 arakarri iz. *g.er.* 'sardioa'.
 arakatu, araka, arakatzen. *du* ad.
 arakatz iz. *Ribes uva-crispa*.
 arakatzaile
 arakatze
 araketa iz. *Sin. arakatze*.
 aralde iz. *Ipar.* 1 'taldea'. 2 *g.er.* 'bikotea'.
 araldi
 aramu iz. *Bizk.* 'armiarma'.
 aran iz. *Prunus domestica*.
 aran merlatu Sin. aranpasa.
 aranbeltz iz. *Bot.*
 arangorri iz. *Bot.*
 aranpasa iz. *Sin. aran merlatu*.
 aranatu, arana(tu), arangatzen. *da/du* ad. *Zub.* 'oihartzuna egin'.
 aranondo iz. *Prunus domestica*.

aranots iz. *Zub.* 'oihartzuna'.

arantza

arantzabeltz iz. *Batez ere Gip. eta Bizk. Prunus spinosa.*

arantzadi iz. *g.er.* 'arantzaz, elorritz beteriko alderdia'.

arantzadun

arantzatsu

arantzatu, arantza(tu), arantzatzen. *da/du ad. Zah.* 'arantzaz bete'.

arantzazko izlag. *arantzazko koroa.*

arantze iz. 1 'elorrria'. 2 *Zub.* 'aranondoa'.

arantzurde iz. *Hystrix cristata.*

arao iz. 1 'biraoa'. 2 'exorzismoa'.

araoka adlag. 'biraoka'.

araolari iz. *g.er.* 'exorzista'.

arartekari iz. *Zub.* 'arartekoa, bitartekoa'.

ararteko

arartekotasun

arasa

aratean adlag. *g.er.* 'aratinek'.

aratinek adlag. 'etxanda ahoz gora'.

aratu 1, ara(tu), aratzen. *du ad. Bizk.* 'arakatu'.

aratu 2, ara(tu), aratzen. *du ad.* 'areaz landu'.

aratuste iz. *Bizk.* 'inauteria'.

aratxe

aratxeburu iz. 'zapaburua'.

aratxeki iz. *Ipar.* 'aratxe-okela'.

aratz

arau 1 iz. 2 postpos. a) 'ahala': *sartu arau hiltzen zituen*; b) '-en arabera': *leku arau sortzen dira landa-reak.*

arauaz 'arabera'.

arau-hauste

arauko izlag. 'araberakoa'.

arauzko izlag. 1 'araberakoa': *eredu batzuen arauzko idazkera*. 2 'arauarekin bat datorrena'.

araubide

araudi

araudun izond. 'arau baten arabera'.

arauko* e. arauko.

arauemaile

arauez* e. arauz.

arauezko* e. arauzko.

araugabe izond.

araugintza

arauka adlag. 1 'arabera'. 2 'proportzioz'.

araukaria iz. *Araucaria.*

arauketa

araupeketa* e. arauketa.

araupetu, araupe(tu), araupe(tzen). *du ad.*

araupide* e. araubide.

araurren iz. *Gip. Zah.* 'azken muga'.

arautegi

arautu, arau(tu), arautzen. *du ad.*

arautzaile

arautze

arazeria iz. *g.er.* 'ardura'.

arazketa

arazki adlag. *g.er.* 'araztasunez'.

arazle

arazo iz.

arazotsu

arazotu, arazo(tu), arazotzen. *da/du* ad. 'arduratu, lanpetu'.

araztaile

araztasun

araztegi

araztu, aratz/araztu, arazten. *da/du* ad.

arba

arbalda iz. *Zah. g.er.* 'basta'.

arbaso

arbastatu, arbasta, arbastatzen. *du* ad. 'landu nahi den egur, harri eta abarri zatirik handienak kendu'.

arbazta iz. 1 'adar xehe zuhaitzetik erauzia'. 2 'lihoaren azala'.

arbel

arbel egin *g.er.* 'huts egin'.

arbeletxeko iz. *Ipar.* 'abrikota'.

arbendol iz. *Prunus dulcis*.

arbendolondo

arbi iz. 1 *Brassica napus*. 2 'arraba'.

arbi-txori 'berdantza'.

arbin izond. eta adlag. 'urduri, larri': *andre hau beti egoten zen arbin eta larri*.

arbindu, arbin(du), arbintzen. *da/du* ad. *Batez ere Bizk.* 'urduritu, larritu'.

Euskaltzaindiak, Bilbon, 2003ko apirilaren 25ean eta,
Miranda Argan, maiatzaren 30ean, onartua.

BATZAR-AGIRIAK

Laudion, 2002.eko abenduaren 20an

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua,
Henrike Knörr, euskaltzainburuordea
Xabier Kintana, idazkaria,
Beñat Oihartzabal, Iker Sailburua
Andres Urrutia, Jagon Sailburua,
Miren Azkarate (goizez),
Jean Louis Davant,
Andolin Eguzkitza,
Andres Iñigo,
Juan Mari Lekuona (goizez)
Emile Larre,
Patxi Ondarra,
Txomin Peillen,
Pello Salaburu,
Jose Mari Satrustegi,
eta Piarres Xarritton,
Jose Luis Lizundia idazkariorde-
-kudeatzailea, Juan Jose Zearreta
ekonomi eragilea eta Rikardo Badiola,
argitalpen eragilea.

Ezin etorriak: P. Altuna, J.A. Arana
Martija, I. Sarasola eta P. Goenaga, (be-
ronek bere ahala P. Salabururi utziz).

Batzarra goizeko 10,15etan hasi da Lau-
dioko udaletxearen bilera-aretoan, ezke-
rreko zutabearen ageri diren euskaltzainak
bertan direla.

Akta onartzea

Aurreko bileraren akta ontzat eman da.

Ongi etorria

Hasieran Pablo Gorostiaga alkate jaunak,
Euskaltzaindiari ongi etorria egin dio,
F. Belaustegigoitiaren omenez Laudio-
ko herrian abenduan zehar egiten ari
den euskararen hilabeteko ospakizunen

barrutian audioarrek Akademiaren etorrera gertakizun pozgarria dutela azalduz. Eus-
kaltzainburuak eskerrak eman dizkio.

I. Sarasolaren aitaren heriotza

I. Sarasolaren aita abenduaren 14an hil dela jakinarazi da. Euskaltzaindiak bere
doluminak adierazi dizkio.

P. Altunaren ondo eza

Berriki jakin denez, P. Altuna euskaltzainak ondoeza izan du Loiolako bere
egoitzan. Zorionez, laster bere onera egin du eta jadanik osasunez ongi dagoela ja-
kinarazi da.

1.1. Hiztegi batua

Analogo-antzoki zerrenda aztertzen hasi da, euskaltzainek bidaliriko oharrak ba-
nan-banan ikusiz.

Ordu bietan batzarra eten egin da, bazkaltzera joateko.

Arratsaldeko 4,45etan goizeko bilkurak segitu du. Hiztegi Batuko zerrendako *Andredena* hitzaren eztabaidara heltzean, Onomastika batzorde-buruak datorren bilerarako aspaldian erabakitzeke utzi zen *done* hitzerako proposamen berria ekarriko duela esan du, euskaltzainei aurkezteko.

Hiztegi batuko berben zerrendan *análogo* hitzetik *andreteria*-raino heldu da.

2. 2003. urterako egutegi nagusia

LL. Lizundiak, Zuzendaritzak onarturiko 2003. urterako 2. 1. egutegi txostena irakurri du. Horko puntu aipagarrienak aita Kardaberaz-en jaiotzaren III. mendeurrena, J.B. Merino Urrutia errioxar euskaltzain ohorezkoaren omenez *Laminiturri* Logroño-ko kultur elkarteak bertan Jardunaldiak egiteko zuzenduriko eskaria, Federico Baraibar arabar euskaltzalearen omenaldia eta Manuel Intxauspe zuberotar idazlearen mendeurrena izan dira. Nafarroan hiru kokagune aipatu dira: Irunberri, Artaxoa eta Miranda Arga, baina, gaurkoz, zenbait babesen zain, ez da finkatu, seguru asko hilerokoa leku baten eta batzordeak beste baten egin daitezke. Ohi bezala, hileroko bilerak, egoitzaz landa, herrialde guztietan aldiro egitea erabaki da.

3. Eskuartekoak

Batzordeei eskatu bezala, berauek euskaltzain urgazle berriak izendatzeko egini-ko proposamenak banatu dira, guztiak behar diren sinadurekin, datorren hilabetearen erabakitzeke.

Aldi berean, P. Salaburuk izendapen berriak egiteko aurkezturiko irizpideak ere aztertuko dira, gainerako euskaltzainek, haiei, idatziz, urtarrilaren 20rako, eginiko ohar proposamenekin batera. J.M. Satrustegik uste du bai batzordeetakoak eta bai gainerakoak berdin tratatu beharko lirakeela, guztiak ekitaldi berean izendatuz. P. Salaburu bat dator J.M. Satrustegirekin.

4. Azken ordukoak

Aurtengo abenduaren 17an, Baionako epaitegian euskararen ofizialtasunik ezaz protestatzera hiru euskaltzain joan zirela gogoratu da, hots, P. Xarritton, J.L. Davant eta Tx. Peillen. Azken honek, gainera, poliziaren aldetik tratatu arraz desegokia pairatu behar izan duela salatu da, gasa aurpegian jaso baitzuen, hargatik ospitalera eramana izanik. Gainerako euskaltzainek berauei atxikipena eta elkartasuna adierazi diete. Gertakari hauen aurrean, euskaltzainburuak 1994/VI/30ean Euskaltzaindiak Iparraldean ofizialtasuna jadanik eskatu zuela gogorarazi du. Sustapen batzordeak oraingo gertakari honegatik bere adierazpena egitean hori kontuan hartuko du. J.L. Davantek Baionako auzitegian esateko asmoa zuen gutunaren kopia ere aurkeztu du. Zoritzarrez, horretarako aukerarik ez zitzaion eman.

Gure hizkuntzaren aldeko bide berean, Erramun Bachoc-ek, Hizkuntza Kontseiluko lehendakariak Uztaritzen 2002.eko abenduan eginiko bileran Frantziako Hezkuntza nazionaleko ministroari bidaliriko gutunaren kopia banatu zen, euskarak irakas-kuntzan behar duen tokia eta arreta eskatzeko.

A. Urrutiak Nafarroako Gobernuarekin izandako azken bileraren berri eman du. Han Euskaltzaindiak hitzarmenaren arabera bete beharrekoak azaldu eta ontzat eman dira.

5. Zuzenbide eta administrazio lantaldearen lehen emaitza

A. Urrutiak zuzenbide eta administrazio lantaldearen 1. emaitza aurkeztu du Hiztegi Batuaren 2. itzulirako. Mahai gainean utzi da, aztertu eta eztabaidatzeko.

Batzarra 6,17etan amaitu eta, ondoren, Federiko Belaustegigoitiaren jendaurreko omenaldia hasi da.

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Bilbon, 2003.eko urtarrilaren 31an

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua,
Xabier Kintana, idazkaria,
Beñat Oihartzabal, Iker Sailburua,
Andres Urrutia, Jagon Sailburua,
Patxi Altuna,
Miren Azkarate
Andolin Eguzkitza,
Andres Iñigo,
Txomin Peillen,
Pello Salaburu,
eta Piarres Xarritton,
Jose Luis Lizundia idazkariorde-
-kudeatzailea.

Ezin etorriak: J.A. Arana Martija (ahala X. Kintanari), J.L. Davant (ahala Tx. Peillen), H. Knörr (ahala A. Urrutiari), J.M. Lekuona, F. Ondarra (ahala J. Haritschelharri) eta J.M. Satrustegi (ahala A. Iñigori).
Batzarra goizeko 10,10etan hasi da Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Akta onartzea

Eguraldi txarragatik anitz euskaltzainen ezin etorria dela eta, aurreko bileraren akta ontzat hartzea datorren bilerarako utzi da.

Eskuartekoak

A. Urrutia Ebazpen Batzordeko kide

Bizkaiko Foru Aldundiak A. Urrutia euskaltzaina Ebazpen Batzordeko kide izendatu berri duela jakinarazi du euskaltzainburuak. Akademiak bere zorionak adierazi dizkio.

Aita Kardaberaz III. Mendeurrena eta Euskaltzaindiaren XIII. Barne Jardunaldiak

J.L. Lizundiak 3.2. txostena irakurri du Kardaberaz III. mendeurrena eta Euskaltzaindiaren XIII. Barne Jardunaldien egitaraua azaltzeko. Otsailaren 27ko arratsaldeko 7etako jendaurreko ospakizuna izango da, agintarien ongi etorri, euskaltzainburen agurra eta P. Altunaren hitzaldiarekin.

Hurrengo bi egunetan batzorde guztietako buruek, datozen bi urteei begira eta programaren arabera, zeinek bere arloko egitasmoak, eginkizun estrategikoak eta batzordeak berriztatzea proposatu beharko dituzte. Bukatzeko, larunbatean, goiz erditik aurrera, Euskaltzaindiaren izaera eta egoerari buruzko txostenak aurkeztu aukera izanen da.

Horiei buruzko eztabaidek luze jo dezaketenez gero, Euskaltzainburuak uste du egun bat edo batzuk ezarri beharko liratekeela bat arratsaldez Euskaltzaindiaren egungo herronka berriez eta egokitzapenaz gogoetan jarraitzeko, erakundearen etorkizuna kontuan harturik, J.J. Ibarretxe Lehendakariari agindu zitzaionez.

Jacques Allières-en omenaldia

Tolosako Unibertsitateak J. Allières euskalariari (2000-8-31an hila), omenaldi bat egin berri dio urtarilaren 17an, *Hommage à Jacques Allières. Romania et Vasconia* argitalpena aurkeztuz. Hor, besteak beste, J. Haritschelhar euskaltzainburuak ere parte hartu du. Horrez gainera, H. Knörren iradokizunez, Euskaltzaindiak beste omenaldi txiki bat eskaini nahi dio, eta bere egoitzan, Azkue bibliotekaren zuzendaria den P. Garziaren ardurapean, okzitaniako Tolosako irakasle handi horren obra garrantzitsuenen erakusketa antolatu da.

IHOBE-ren ekitaldia

IHOBEk, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak bere 20 urteak ospatzeko eta Aenor-en eskutik ISO 14001 ingurumen kudeaketako ziurtagiria jasotzeko, jendaurreko ekitaldia antolatu zuen aurtengo urtarilaren 27an, Bilbon, Carlton hotelean. J.J. Ibarretxe Lehendakariak berak ere parte hartu zuen ospakizun horretan, aipaturiko enpresak euskaraz ofizialki baliozkoturiko ISO 14001 araua eskaini zion Euskaltzaindiari, Akademiaren izenean dokumentua idazkariak jasoz. Ondoren esker oneko hitzak esan eta, euskararen normalizazioaren alde, Euskaltzaindiak enprekin lankidetzan jarduteko gogoaz aldu zuen. Ekitaldian A. Eguzkitza eta A. Urrutia euskaltzainak eta J.L. Lizundia idazkariorde-kudeatzailea ere izan ziren.

D diplomaren berrantolaketa

Euskaltzaindiak hala nahi dutenen euskara-maila neurtzeko, Iparraldean oraindik ematen duen D diploma berrantolatzeko premia aipatu du P. Xarritonek bera bakarrik dagoelarik. Horretarako batzordeño baten laguntza beharko lukeela dio, adibidez, J.L. Lizundiak proposatzen dio Mikel Zalbide E.A.E.ko ordezkari bezala hartzea eta hiru-garren bat Nafarroatik Patxi Iñigo edo Paskual Rekalde, adibidez. Iradokizun hori beretzat hartzen du Euskaltzainburuak.

1.1. Hizkuntza arauak

Anbulatorio hitzari buruzko iritziak entzun ondoren, hitz hori oraingoz zerrendatik kentzea erabaki da.

Análogo-antzoki zerrenda aztertzen segitu da, eta euskaltzainek bidaliriko ohar guztiak ikusi dira. *Andui-antoju* arteko hitz guztiak erabaki dira.

Euskaltzain urgazleak hautatzeko irizpideen inguruan

Aurreko bileran P. Salaburuk euskaltzain urgazleak hautatzeko irizpideak finkatu beharraz egindako txostenaren osagarri, A. Eguzkitza eta X. Kintana euskaltzainek txosten bana aurkeztu eta irakurri dute, ohar batzuekin. Merezimendu akademikoez landa, euskararen ongilearen figura ere sortu beharko litzatekeela esan da. A. Urrutiak hori Fundazioarekin lotu beharra azpimarratu du.

Idazkariak ez du uste urgazleak izendatzean oinarritzat *numerus clausus*ik jartzea egokia denik. M. Azkarate beldur da P. Salaburu eta A. Eguzkitzaren gogoetek ez

ote lituzketen neurri zorrotzegiak ekarriko, eta malgutasunez jokatzeari nahiago luke. Era berean, Lege-ekonomia batzordeak ongilean kontua bere gain hartzeari ondo deritzo.

Urgazleak aukeratzeko arau berriak onartu ondoren, horiek Euskaltzaindiaren barne erregeletan sartu beharko lirakecela ere esan da. J.L. Lizundiaren ustez, lehenik oraingo barne erregeletan horretaz zer dagoen ikusi beharko da, hala behar izanez gero eranskinekin garatzeko. J. Haritschelharrek gorago proposatu bezala, bilkura egunetako arratsaldeak erabili beharko lirakeke era honetako arazoak eztabaidatzeko.

Bukatzeko, euskaltzainburuak hiru txostengileei eskerrak eman dizkie.

Urgazleak izendatzea

Ondoren, Batzordeetatik aurkezturiko euskaltzain urgazlegaien bozketa egin da. Horien curriculumak euskaltzainen artean aurreko bilkuran banatu ziren arren, oroigarri, J. Haritschelhar Literatura Batzordeak proposatuenez merezimenduez mintzatu da, pertsona horien guztien maila goraipatuz. Era berean, J.L. Lizundiak, J.A. Aranaren izenean, Azkue Bibliotekak eta Lege-Ekonomiak proposaturiko pertsonen merezimenak aipatu ditu.

Euskaltzainek beren botoak eman ondoren, pertsona proposatu guztiak ontzat hartu dira. Beraz, honako hauek izan dira oraingoan euskaltzain urgazle izendatuak:

Joseba Agirreazkuenaga Zigorraga (Bibl.), Kepa Altonaga Sustatxa (Bibl.), Aurlia Arkotxa (Lit.), Jon Aurre Azurmendi (Euskalk.), Gidor Bilbao Telletxea (Bibl. eta Onom.), Iñaki Camino Lertxundi (Dialekt.), Jon Casenave (Lit.), Xabier Erdozia Landa (Lege-Ekonomia), Izaskun Etxebeste Zubizarreta (Dialekt.), Juan Krutz Igerabide Sarasola (Lit.), Patxi Iñigo Ariztegi (Jagon), Iñaki Irazabalbeitia Fernández (Onom.), Alan Roy King (Gram.), Jesus Mari Makatzaga Eizagirre (Gram.), Koro Navarro Etxeberria (Hizt. Bat.), Maria Jose Olaziregi Alustiza (Lit.), Lurdes Otaegi Imaz (Lit.), Paskual Rekalde Irigoien (Sust. Euskalk. eta Hizt. Bat.), Koro Segurola Askonobieta (Dialekt.), Pello Telleria Zeberio (Zuzend.), Miriam Urkia Gonzalez (Hizt. Bat.).

Begoña Amundaraini omenaldia

Euskaltzaindiaren bulegari honek bere lanean 25 urte bete dituela eta, Euskaltzaindiak bere zilarrezko domina eman dio. Euskaltzainburuak, omenduaren lanerako ahalmena eta zintzotasuna azpimarratu ditu. Bai euskaltzainek eta bai egoitzako gainerako langileek ere txalotu egin dute Begoña Amundarain Uriarte andrea.

Ekitaldi batzuen atzerapena

Arratsalderako programaturik zeuden Jose Maria Jimeno Jurio euskaltzain ohoerzkoaren eta Ignacio Urkixo eta Pedro Berrondo euskaltzain urgazleen omenaldiak hurrengorako utzi dira, eguraldi txarragatik bere senide eta euskaltzain asko ezin etorriagatik.

R. Badiola Argitalpen eragileak eta Jon Artza Banaketa Zerbitzuko arduradunak ondoko liburuok banatu dituzte euskaltzainen artean:

1. *Morfología del verbo auxiliar suletino*, Pedro de Yrizarrek paratua.
2. *Foru-lege zibilak EAE eta NFK/ Leyes Civiles Forales CAPV y CFN*. Andres Urrutia euskaltzain oso eta Deustuko Unibertsitateko irakasleak dohaitua.

Batzarra eguerdiko 14,15etan amaitu da.

Euskaltzainburua
Jean Haritschelhar

Idazkaria
Xabier Kintana

Hernanin, 2003.eko otsailaren 28an

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua
Xabier Kintana, idazkaria
Jose Antonio Arana Martija, diruzaina
Beñat Oihartzabal, Iker sailburua
Andres Urrutia, Jagon sailburua
Patxi Altuna,
Miren Azkarate,
Jean Louis Davant,
Andolin Eguzkitza,
Patxi Goenaga,
Andres Iñigo,
Emile Larre,
Juan Mari Lekuona,
Txomin Peillen,
Pello Salaburu,
Juan San Martin,
Ibon Sarasola,
Jose Mari Satrustegi
eta Piarres Xarritton
Jose Luis Lizundia idazkariorde-
kudeatzailea, Juan Jose Zearreta
ekonomi eragilea eta Mikel
Gorrotxategi Onomastika
batzordeko idazkaria

Ezin etorriak: Henrike Knörr (ahala J.A. Arana-Martijari), Patxi Ondarra (ahala J. Haritschelharri) eta Patxi Zabaleta (ahala A. Iñigori).

Batzarra goizeko 10,10etan hasi da Hernaniko udaletxeko bilera aretoan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Akta onartzea

Aurreko bilera bien aktak ontzat eman dira.

Zorionak

Euskaltzainburuak zorionak eman dizkio Andres Iñigo euskaltzainari Nafarroako Hizkuntza-Eskolan lortu berri duen katedragatik.

Doluminak

J.L. Lizundiaren koinatuaren heriotza dela eta, Euskaltzaindiak idazkariordekudeatzaileari bere doluminak adieraztea erabaki du.

1.1. Onomastika:

A. Iñigok «San, santu, done eta ingurukoak» txostena aurkeztu eta irakurri du. Datorren hilean eztabaidatuko da.

2. Eskuarteak

2.1. Euskaltzainen artean **aloe-analogiko** zerrenda jadanik onartua banatu da.

2.2. **2002. urteko euskal herritar unibertsala.** Eusko Jaurilaritzaren Kanpo Harremanetarako Zuzendaritza Nagusiak eta Euskadiko Kutxak Euskaltzaindiari iazko herritar unibertsala izendatzeko eskariari erantzunez, Zuzendaritzak Roger Etchegaray kardinala proposatu du. Osokoak ontzat eman du. P. Salaburuk hurrengorako. USAC bezalako erakundeak ere kontuan hartzeko eskatu du. Era berean, epaimahaira, Euskaltzaindiaren ordezkari, H. Knörr euskaltzainburu-ordea bidaltzea erabaki da.

2.3. Espainiako Literatur Sari Nazionalak. Espainiako Kultura Ministerioak eginiko eskariari erantzunez Euskaltzaindiak epaimahai horretara zeintzuk ordezkari bidaliko dituen aztertu du. *Premio Nacional de las Letras Españolas* delakorako X. Kintana izendatu du. Gainerakoak bihar erabakiko dira, literatur batzordearekin bat.

P. Salaburuk esan du beti galdetu behar dela euskaltzainen artean inor joateko prest ote dagoen. A. Urrutiaren ustez zuzendaritzak proposamena egiteko eskubidea dauka. M. Azkaratek ongi deritzo, baina prozedura erabaki behar dela. A. Eguzkitzak uste du lehenengo euskaltzain osoen artean inor joateko gertu badago bera bidali behar dela, eta bestela, batzordearen esku utzi. J.L. Lizundiak esan du orain arteko prozedura hauxe izan dela: zuzendaritzak berea egiten duela literatur batzordearen proposamena, eta horrexek funtzionatu duela ongienik. P. Xarrittoni, A. Eguzkitzarekin bat, aurrenik euskaltzain osoen artean galdetzea iruditzen zaio zuzenena.

2.4. D mailako euskara-ziurtagiria. Idazkariak azaldu du, P. Xarrittonen eskariz, Eusko Jaurlaritzari eskari bat bidali ziola, Euskaltzaindiak iparraldean oraindik ematen duen D euskara-agiriari, irakasle-diploma barik, euskara gaitasun agiria izena eman ahal izateko. Erantzuna baiezkua izan da eta, beraz, hemendik aurrera D gaitasun agiria deituko zaio.

J.M. Satrustegik mamiari buruzko xehetasunak ongi finkatzea eskatu du. A. Iñigok oraingo erabaki honen berri Nafarroako Gobernuari ere idatziz jakinarazi behar zaiola gogorarazi du. J.L. Lizundiak gauza bera esan du, erabaki hori bertako buletinean argitara dezaten. Era berean, A. Iñigok azterketarien nortasuna egiaztatzea kome ni dela azpimarratu du, karneta, pasaporte eta antzeko dokumenturen bat eskatuz.

2.5. Eusko Jaurlaritzaren eskari bat ere jaso da, Euskaltzaindiak corpusgintzari buruz egiteko duen gogoeta lehenbailehen egin eta martxoaren amaierarako bidal diezaion, horren ondoren, Jaurlaritzak burutzeko dituen proiektu batzuk behar bezalako aurrera eramateko.

Idazkariak esan du Hitzarmenerako testua, zeinetan corpusgintzari buruzko aipamena agertzen den, ez zaigula oraindik Jaurlaritzatik heldu, eta ez dela itxurosoa guri presa eskatzea testua bidaltzeko inolako presarik hartu ez dutenean.

J.M. Satrustegik zehazki zer eskatzen zaigun galdetu du. B. Oihartzabalek azaldu dio eta pasarte hori geuk eskatua dugula, eta beraz, bidezkua dela guri hori betetzea eskatzea, epe kontuak gora behera. M. Azkaratek erantzuna pixka bat atzera daithekeela esan du, baina ez asko. Euskaltzaindiak lehenbailehen erantzuteko ahaleginak egingo dituela esan du.

2.6. Egunkariaren itxiera. Idazkariak joan den astean, Euskaltzainburuarekin eta Jagon sailburuarekin bat, presaz eginiko adierazpenaren berri eman du. Oraingo honetan beste testu bat, soseguz eta osokoak onartua prestatu behar dela uste du. Bezperan eginiko zirriborroaren gainean osokoak testu adostua moldatu eta prentsara ematea erabaki du.

3. Ekonomi egoera

3.1 Euskaltzaindik langileen gutuna. Euskaltzainburuak langileen ordezkarien eskutitza irakurri du. Horretan, Euskaltzaindiari ekonomi egoera larritik irteteko eta be-

ren alokairuak ordaintzeko orain arte egindako ahalegina eskertzeaz batera, beren kez-
kak azaltzen dituzte hemendik aurrera ere beren soldatak jasotzeko segurantzarik eza-
gatik, lehen ere (2002-7-30) igorritako gutunean esandakoa gogoratuz.

3.2.1. **Aurrekontuen berri.** J.J. Zearretak Euskaltzaindiaren ekonomi egoeraren
berri eman du. Bizkaiko Diputazioak dena ordaindu du eta horri esker langileei otsai-
leko soldatak pagatu ahal izan zaizkie. Gaur jakin du datorren astean Eusko Jaurleri-
tzaren partea ere jasoko dugula. Egoerak larri izaten segitzen du, eta oraindik ez daki-
gu segur zenbat jasoko dugun Madriletik eta Nafarroako Gobernutik.

Barne Jardunaldiak

Ohiko gaiak amaiturik, 12etan Barne Jardunaldiei hasiera eman zaie.

Hasteko, Euskaltzainburuak hitz batzuk esan ditu, Akademiaren egitekoak, Cor-
pusaren arazoa eta gure izaera-egoeraz egin beharreko gogoetaz oroitarazteko.

Ondoren, idazkariak **XIII. Barne jardunaldietan hausnartzeko** deritzon txoste-
na irakurri du, J.L. Lizundiarekin batera prestatua.

Horren hurrengo, Iñaki Seguroiak **OEH-ren aurreko liburuakien osatzeaz** ize-
neko txostena, laburturik, irakurri du. I. Sarasolak lehen bost liburuetan egindako al-
daketak oinari informatikoan aterako lirakeela azaldu du. P. Salaburuk azken tomoa
noizko aterako den galdetu du. I. Sarasolak 2004erako aterako dela erantzun dio.

Andolin Eguzkitzak, X. Kintanak eta B. Oihartzabalek OEHren atzerapen, luza-
pen eta gehipenez beren kezkek eta ikuspuntuak eskaini dituzte. I. Sarasolak guztiei
erantzun die.

P. Salaburu bat dator I. Sarasolaren proposamenez. Euskaltzaindiaren ohiko lan
arruntan artean hiztegi gintza moduko lan akademikoak ere sartu beharko lirakeela
uste du. J.A. Arana-Martija, horrelako lanen kontrol zailaz kezkatutik azaldu da, agin-
tariek funtzionatzeko jarri eta guk errespetatu behar dugun sistemaren arabera, hize-
gi gintza ez baita ohiko lan arrunta. J.L. Lizundiaren iritziz, hiztegiaren lehen partea
eraberritzeak hitzarmen berria eskatuko luke. X. Kintanak agian orain arteko editore-
kin, *copy right*-a dela eta, lege-arazoak izan genitzakeela susmatzen du. A. Urrutiak
ere antzeko errezeloa adierazi du.

Ondoren Jose Antonio Adurizek, **Hiztegi Batuko lantaldearen** izenean, **2003-
2004 urteetako jardunbidea** deritzon txostena aurkeztu eta irakurri du. A. Urrutiak
Hiztegi Batuko Batzordeari egiten zaizkion hitz berrien zerrendak UZEIri pasatzea pro-
posatu du, bertan azter ditzaten. B. Oihartzabalek UZEIren 1. hautabideari ematen dio
lehentasuna, hots, agerraldi gutxiko hitzak biltzeari.

Bilera 2,15etan eten da, bazkaltzera joateko. Arratsaldeko 4,13etan berriz ere se-
gitu du.

P. Salaburuk **Hiztegi Batua**ren 2. itzulia izeneko txostena irakurri du, hiztegi-
gintza azkartzeko proposamen batzuekin. Ondoren A. Urrutiak **Hiztegi Batuko 2. itzu-
lia: XIII. Barne Jardunaldirako gogoeta** ere aurkeztu du. Gehiegi luzatzeko arrisku-
tik iteteko, prozedura azkartzeko modua proposatzen du. P. Salabururen ustez gakoa

orain arte nahiko ordurik ez ematean datza, eta ez deritzo egoki prozedura aldatzeari. B. Oihartzabalek ere arriskugarri deritzo lehenagoko prozedurara itzultzeari.

Andres Urrutia, ohargileekin bildu ondoren, irakurraldi bakarraren alde agertzen da, eta oharrik idatziz egin ez dutenek prozeduraz isilik egon beharko luketela uste du. P. Salaburuk ohargileekin elkarriketatu ondoren, proposamen berria euskaltzain osoei jakinarazi beharko litzaiekeela dakusa, eta, hortaz, denbora gehiago utzi beharko litzatekeela. A. Urrutiak dio halere ohargileekin ahalik eta gehiena adostu beharko litzatekeela. M. Azkaratek P. Salabururen eta A. Urrutiaren proposamenak elkarren osagarri izan daitezkeela uste du. Webgunera oharrik gabeko hitzak berehala pasatuko lirake, paperera beranduago joan arren. A. Iñigok irtenbide berbera proposatzen du.

P. Goenagak ez ditu gauzak hain garbi ikusten. A. Urrutiak aurretiko lana arintzeko prozedura nolakoa izan daitekeen azaldu du. Edonola ere P. Goenagak ohargileen kopurua ez dela mugatu behar pentsatzen du. P. Salaburuk, bestalde, corpus eguneratuagoa behar dela esan du.

Jesus Mari Makatzaga bilera-aretoa sartu da, **gramatika batzordearen** egitasmoak eta kide berrien proposamenak egiteko. M. Azkaratek adierazi du ezingo duela datozen 2 urteetan batzorde horretan eskurik hartu. J.A. Aranak ongi deritzo lantaldeak murrizteari eta lan batzuk noizko amaituko diren jakin nahi luke. M. Azkaratek azpimarratu duenez, kontua ez da zenbat diren, zenbat doazen jakitea baizik.

B. Oihartzabalek **Euskaltzaindiaren Corpusak gaur eta bihar** txostena aurkeztu eta azaldu du. Martxoaren 27an, arratsalde, eztabaidatuko da. B. Oihartzabal bel-dur da ez ote den erabakia gehiegi luzatuko. P. Salaburuk Eusko Jaurlaritzaren eskaria gogoratu du eta berehala erantzun beharra dakusa, Jaurlaritzak bere konturik ezer erabaki baino lehen.

Andres Urrutiak gogoratu du eskari-gutunean aipatzen den protokoloa ez dugula oraindik jaso. P. Goenagak, bestetik, esan du, sinatua izan ez arren ere, halere, testu hori adostua dela, eta diru-laguntasuna jadanik bideratua dela, berehala ordaintzeko. A. Urrutiaren iritziz Euskaltzaindiak denbora behar du corpusarena nola eta norekin egin lasai erabakitzeko.

Euskaltzainburiak adierazi du M. Azkaratek esan diola protokoloa sinatzeko Gipuzkoa falta dela, eta eskari-gutuneko epea atzera daitekeela martxotik apirilera arte. Edonola ere, B. Oihartzabalek uste du txostenak presa duela eta martxorako prestatu beharko litzatekeela.

Gipuzkoaren sinadura falta dela eta, J.L. Lizundiak ohartarazi du arazo horrek ere presa duela, datozen hauteskundeengatik bertako Batzar Nagusiak laster desegingo direlako.

Corpusaren gaira itzuliz, P. Goenagak ere horrek presa duela esan du, Unibertsitate-enpresa batzuek hor interesa daukatelako. Erantzuna, bestalde, idatziz eman beharko lioke Euskaltzaindiak.

B. Oihartzabalek azaldu du bi txosten egiteko daudela, literaturarako testu-artxi-boak (presarik gabeak) eta corpora (testu biltegiak, hizkuntzaren corpusak), eta presatatu behar al diren galdetu du.

Andres Urrutiak martxoan txostenak eztabaidatu eta zuzenketak egiteko aukera egongo ote den galdetzen du. Baietz erantzun zaio. P. Xarritonek txostenak egiteko P.

Salaburu izendatzea proposatzen du. Eztabaidaren ondoan bi txostenak Iker sailburuak egitea proposatzen da. X. Kintanak uste du horrelako lan garrantzitsuak behar bezala egiteko, sosegua behar dela, kanpoko presiorik gabe. J.L. Davantek presa horrek uda-berriko aurrekontuetatik heldu dela azaldu du. B. Oihartzabalek bere gain hartzen du txostenak egiteko kargua.

Ondoren Gotzon Aurrekoetxeak **dialektologia txostena** aurkeztu du eta bertan orain arte egindako lanak azaldu ditu, eta bereziki Atlasaren liburuak nolako lantze-mailetan aurkitzen diren.

B. Oihartzabalek, hitza eskatuz, ondokoa adierazi du: duela 7 urte Atlas proiektuaren burutza bere gain hartu zuela. Orain, ordeza, ez du astirik lan horretan segitze-ko eta bere ordeza A. Eguzkitza proposatu nahi luke, lan hori berak bezain ongi bete dezakeelakoan. Proposamena ontzat eman da.

Onomastika batzordearen txanda helduta, aretorea Mikel Gorrotatxegi sartu da. Txostena A. Iñigok irakurri du. J.L. Lizundiak *Institut d'Estudis Catalans*-ean onomastikarako daukaten oinegotura azaldu du. M. Gorrotxategik 3 hilabetean 800 galde-ara heldu zaizkiola azaldu du, eta guztiei erantzun ezinik dabilela. P. Goenagak galde-tu dio ea edozeinek eginiko edozein galderari erantzuten al zaion. Erantzunez, ahal den neurrian baietz ihardetsi dio. Edozein kasutan, udaletatik heltzen diren guztiak erantzun ditu M. Gorrotxategik. J.L. Lizundiak Kanpo Harremanetarako Zuzendaritzan eta Kultura Sailordetzan daukaten ohitura salatu du, alegia, Amerikako Euskal Etxeetako kontsultak Euskaltzaindira bidaltzea aholkatzen dituzte eta. P. Salaburuk argitu du, ame-rikarren ohitura ere badela era horretako zerbitzuengatik kobratzea.

Literatura batzordearen txostena. J.M. Lekuonak irakurri du: Literatura termi-noen hiztegia, Euskal Literaturaren Historia Kritikoa, Literatura sarien epaimahaiak, omenaldi, urteurrenak etab. azalduz P. Salaburuk hor egiten diharduten hiztegiak gal-de-tu dio, Euskara Batuko hiztegian txertatzeko.

Ondoren Espainiako Kultur Ministerioaren Literatura Sariketarako epaimahaieta-rako ordezkari proposamena egin da.

Arratseko 7,55etan bilkura eten da.

Hurrengo egunean, martxoaren leian, bilkurari segida eman zaio.

Corpus batzordearen ordezkartzan, Jose Ramon Zubimendik irakurri du txoste-na. Batzordearen osaketa eta zereginak azaldu ditu. Txekak euskaraz betetzeko modua ere prestatua dute. Euskalkien lantaldea adierazpen bateratua prestatzen ari da, baina aurretik adituei aurkeztu nahi liekete, oharrak egin ditzaten. Komunikabideen lantalde-an ez da aurrerapen handiegirik egin. Izan ere, kazetariak interes handiagoa izaten dute lexikoan esapidetean baino. Jagonet zerbitzuaren datuak ere eman ditu: 2001. urtean 6.600 bisita izan ditu. Internet bidezko zerbitzua eraberritu denetik askoz ere hobeto funtzionatzen omen du. Erantzule-taldea eraberritzeko premia dakusa. Tipografia era-biltzeko erdua ere prestatua du. Edonola ere, denera iritsi ezinik dagoela esan du.

J.L. Davantek, A. Urrutiak eta X. Kintanak taloi-txeke hitzei buruzko kontsidera-zio batzuk egin dituzte.

Sustapen-batzordeko txostena. A. Iñigok irakurri du. 2003ko jardunaldiak «Eli-za eta euskara Iruñeko eta Tuterako elizbarrutietan» gaiaz izango dira eta 2004koak

«Eliza eta euskara Bilbo, Donostia eta Gasteizko elizbarrutietan» gaiari buruzkoak. Statutuari dagokionez, Euskaltzaindiak orain arte eginiko adierazpenen bilduma osatu eta argitaratuko dituzte. A Urrutiak argitalpen hori hitzaurre batez hornituko dela argitu du, tokian tokiko egoera soziologikoa kontuan izanda. J.L. Lizundiak Gasteiz-en izena lehenago jartzea eskatzen du, histori arrazoientzat.

Tx. Peillenek Jean Grenet-ek, Iparraldean trenbideetako seinaleetan elebitasuna jartzea ontzat eman duela jakinarazi du.

Ondoren, Pruden Gartzia, Azkue Bibliotekako zuzendariak, hartu du hitza. Bibliotekak dauzkan diru-problema azaldu ditu, liburu berriak erosteko orduan bereziki. Katalogatzen segitzen dute. Azkueren artxiboa jadanik erabat katalogatu da. Euskaltzaindiaren argitalpen guztien katalogo analitikoa ere ia egina da. Proiektu berezia egiten ari dira: Azkue bibliotekaren katalogazio-erregelak prestatu eta argitaratzea. B. Oihartzabalek, J.A. Aranek, Tx. Peillenek, J.M. Satrustegik eta A. Eguzkitzak galdera batzuk egin dizkiote, argitasun bila. P. Gartzia guztiei erantzun die.

J. Haritschelhar bibliotekarako dirurik ezaz kezkatutik dago eta hori zuzendari-tzan ikusi beharko dela uste du. Argitaratzen diren euskal liburu guztietatik Euskaltzaindiari ale bana emanez gero, Akademiak mesede eta laguntza handia jasoko lukeela aipatu da, eta bide hori landu behar dela. J.M. Satrustegik esan du nahi hori ez dela borondate hutseko kontua, eta garaia dela Euskaltzaindiak euskal argitalpenen kontrola legez izan dezan.

Rikardo Badiolak Argitalpen Batzordearen asmoak azalduz argitaratzeko asmoz dauden liburuen zerrenda eskaini du. Oso lanpeturik dagoela ere esan du eta lankide laguntzaile bat beharko lukeela.

P. Altuna kexu da Oihenarteren lanaren atzerapenagatik. P. Goenagak argitalpen batzuk paperean barik CD-ROMean jarri beharko lirатеkeela uste du (Irizarren azken aurkibidea, adibidez). P. Salaburuk argitalpen-politika hobetu beharra aipatu du, eta lan egiteko prozedura ere bai, artikulua eta txostenak disketean nahitaez ekarri (Euskaltzain osoen salbuespenaz). R. Badiolak originalak aurkezteko prozedura-arauak presaturik dauzkala azaldu du.

Lege-Ekonomia batzordea. J.J. Zearretak Akademiaren ekonomia egoera xeheki azaldu du. Aurtengo mentsa 539.325,54 €-takoa izanen omen da. Euskaltzaindiaren alde fundazioa dela eta, orain arte bildua eta oraindik hornitzeke dauden emaitzen berri eman du A. Urrutiak. Biok zalantzak argitu dituzte.

Euskaltzainburuak txostengileei eskerrak eman dizkie.

J.R. Zubimendik Euskaltzaindiaren egoera larria salatu du, eta Akademiak bere burua sustatu beharko lukeela uste du, daukan duintasunari dagokionez.

Idazkariak P. Ondarrak bidaliriko gutuna eta hari emandako erantzuna irakurri ditu.

J. Haritschelharrek Euskaltzaindiaren egoeraz kezkatutik gaudela esan du eta gogoratu du joan den irailean lehendakariari esan geniola Euskaltzaindia *de iure* onartua dela baina *ez de facto*, eta badela garaia gure egoeraz gogoeta egiteko garaia.

Hitza H. Knörri emanda, beronek *Larrialdi-gelatik behingoz atera* izeneko txostena irakurri du. Ondoren I. Sarasolak autokritikarik eza salatu du. Eskatzen den erdigunetasuna merezi behar da. Eusko Ikaskuntzaren eredu aipatu du, barne funtzionamendu berri, egokiago eta eraginkorragoa lortu du eta. Ez dago konforma azken salaketarekin (euskaltzain batzuen gristasunaz). Hitz gogorra itsusia izan daiteke, baina are okerrago dira salaketa faltsuak. Kulturapean zein lehendakaritzapean egotea berdintsu dela uste du.

J.L. Lizundia *Institut d'Estudis Catalans*-en kasuaz mintzatu da. Kexatu da guri ukatzen zaizkigun baliabideak besteri (Elhuyarri adibidez) ematen zaizkiolako.

J. Haritschelharrek Eusko Ikaskuntzaren eta Euskaltzaindiaren arteko aldeak nabarmendu ditu, eta gure lanak askoz ere hobeak direla esan du. B. Oihartzabalek Eusko Ikaskuntzak argitaratu dituen literatur kritikako lanak ez direla berek burutuak, Baiona-Gasteizetako Fakultateek antolaturiko jardunaldien emaitzak baizik.

Ez dago garbi, agintari eta administrazioen aurrean zein den gure egoera, ez eta zein bideri segitu behar zaion hori aldatzeko. Oraingo lege-egoeran ezin gara hortik atera, baina bistan da beste marko juridikoaren bila joan behar dugula. J.J. Ibarretxeri guk gauzak nola ikusten ditugun adierazi behar diogu, eta Euskaltzaindiaren oinarriko gastuak (langileen soldatak, etkeen mantenua...) seguratu behar ditugu. Alde batean argi eduki behar dugu 1) zer eskatu Jaurilaritzari eta 2) zein oinarri juridikotan ezarri behar dugun geure burua. Tx. Peillenek eta I. Sarasolak esan dute Eusko Ikaskuntza bere politika eta jokabidea aldatzen hasia dela bere buruaren kritika egin ondoren.

Andres Urrutiak ez deritzo larri Eusko Ikaskuntzaren lehiakidetzari, ez eta statusari ere. Arazo nagusia dirua da. Marko berria proposatu behar dela uste du, kontratamarkoa, sail-artekoa, eta proiektuetan sartu baino lehenago. Proiektu horietako batzuk zuzenik guk egitekoak lirateke, baina beste batzuetan kontratista-lana egin dezakegu, baldintzak ezarriaz. Gure arteko barne kontsentsua zaindu beharko genuke. Proiektuetan gutxienezko adostasuna jarri beharra daukagu geure artean. Jaurilaritzak %75a bermatu beharko luke, eta beste %25a kanpotik (Nafarroa eta Madriletik) geuk ekarri. Biziraupena bera dugu arriskuan. Eusko Jaurilaritzak atezutik atera gintuen, eta hori eskertzekoa da, baina ezin gaitezke urtero horrela ibil. Bestelako protokoloa behar dugu.

P. Salaburuk uste du hiru gauza gertatzen direla: Jaurilaritzak ez gaitu aintzat hartzen, baina gure lana ezinbestekoa bada, gure kostua ere halakoxea dela gogoratu behar zaio. Jaurilaritza konbentzitu behar dugu egiten duguna beharrezkoa dela eta hori modurik hoberenean. Bestalde, Euskaltzaindian, kanpotik ikusita, modurik egokienean erabiltzen al dira baliabideak? % 25a baldin bada akademi lanerako, zertan darabilgu bada gainerako %75a?

J.L. Lizundiak gogorarazi du Oñatiko hitzarmenean %86a bermatzen zitzaiola Euskaltzaindiari. Bere ustez, Euskaltzaindiak Elhuyar azpikontraturik eduki beharko luke. Euskaltzain osoek egun osoan Euskaltzaindiarentzat lan egiten ez dutenez gero, ikertzaileak, unibertsitatekoak batez ere, Akademiarekin elkarlanean ezarri beharko genituzke, bekadun gisa etab.

B. Oihartzabalek pentsatzen du geure burua engainatzen ari garela. Euskaltzaindiaren izaera aldatzen ez bada, ez gara sekula hemendik aterako, efikaziari dagokionez. Hobekuntzak egin beharra dakusa. A. Eguzkitzak uste du Euskaltzaindiari ez zaio-

la komeni hizkuntza industriarekin konkurrentzian jardutea. Euskaltzaindiaren berri-kuste-lana dirutan balioetsi behar da.

P. Goenagak dio Euskaltzaindiak garbi ikusi behar duela bere zereginak zeintzuk diren, horien arabera plan estrategikoak egin eta moduak optimizatzeko, beti ere bide-ragarritasuna gogoan. I. Sarasolak azpimarratu du efikazia bai, baina zabarkeria utzi-rik, eta kargudunekiko harremanetan lehentasunak garbi eduki behar ditugula. A. Urrutiak guztiok geure burua inplikatu behar dugula uste du.

J. Haritschelharrek, jardunaldia bukatzeko, batzordeek beren lana ongi erakutsi dutela esan du eta, orotara, lan ona egin dutela. Bestalde, gauza asko eztabaidatu dira eta bistan da gauza batzuk aldatu beharko direla. Geroari buruz, hiru premia nagusi agertu dira: corpusgintza, hiztegi batua eta Euskaltzaindiaren izaera eta egoera, aurtan ukitzeko. Horiek izango dira, martxotik aurrera, gure lehen aztergaiak.

Jardunaldia 1,28etan bukatu da.

Euskaltzainburua
Jean Haritschelhar

Idazkaria
Xabier Kintana

Bilbon, 2003.eko martxoaren 27an

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua,
Henrike Knörr, buruordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Antoni Arana-Martija, diruzaina
Beñat Oihartzabal, Iker sailburua
Andres Urrutia, Jagon sailburua,
Patxi Altuna,
Miren Azkarate,
Jean Louis Davant,
Andolin Eguzkitza,
Patxi Goenaga
Andres Iñigo,
Emile Larre,
Txomin Peillen,
Pello Salaburu,
eta Piarres Xarritton.
Jose Luis Lizundia idazkariorde-
kudeatzailea, Juan Jose Zearreta
ekonomia eragilea eta P. Telleria,
eragile teknikaria

Ezin etorriak eta ahalak: A. Iñigo (ahala A. Urrutiari), P. Ondarra (ahala J. Haritschelharri) J. San Martin (ahala J. A. Arana-Martijari), I. Sarasola (ahala P. Salabururi) eta P. Zabaleta (ahala J.A. Arana-Martijari).

Batzarra arratsaldeko 16,11etan hasi da Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzako batzar aretoan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

1. Barne karguen horniketa

1.1. Ordezkariek

Hiriburuetakoa Euskaltzaindiaren **ordezkariek** orain artekoak izaten segituko dute, Donostian, J.M. Lekuonaren laguntzaile, Ana Toledo ere izendatuz.

P. Xarrittonek, Baionarako beste laguntzaile bat eskatu du, Hizkuntza Gaitasun Agiriaren probak antolatzeko. Arazo hori Iparraldekoen artean konponduko dela esan da.

1.2. Batzorde-buruak, idazkariak eta kideak

Euskaltzaindiaren batzorde-organigrama (1.2.0) aurkeztu da, kide proposatu berrien curriculumarekin, bakoitzaren merezimendu eta berezitasuna azaltzeko.

P. Telleriak esan du J.M. Lekuonak Herri Literatura azpibatzerdeko karguak aldatzeko asmoa adierazi duela, bereziki batzorde-buruarena, baina oraindik aldaketarik proposatu ez duenez, besterik erabaki arte, oraingoz bere horretan utziko da.

Euskara Batuko batzordean, M. Azkaratek bere sailburu kargu berriarekin idazkari zereginak agian ezin bete litzakeelako, X. Kintanak bere burua eskaini du idazkaritzarako.

A. Urrutiak esan du idazkari izendapena hemendik aurrera jarduteko prozedurarekin bat eginik joan beharko lukeela, eta oreka eta Euskaltzaindiak kontsentsu bila joan beharko lukeela.

M. Azkaratek A. Eguzkitza batzordekide izatea proposatu eta hala onartu da. B. Oihartzabalek batzordeetan ahalik eta jende gutxien sartu behar dela esan du, eta beti prozedurari jarraituz. Onean edo txarrean joka daitekeela gaineratu du, baina ez dela komeni gauzak behartzea. P. Goenagak bere harridura azaldu du, bitxi baiteritzo eztabaidarik gabe proposamen berriak egiteari. P. Xarritonek proposamen kontu hau Zuzendaritzan tratatu behar dela dio, eztabaidak osora ekarri barik.

A. Eguzkitzak X. Kintana idazkari ordezeko jartzea proposatzen du. J. Haritschelharrek Zuzendaritzan arazo hau ez dela eztabaidatu azaldu du. P. Goenagaren ustez, barneko funtzionamenduak agindu beharko luke, hala komeni denean kargua baten edo beste baten esku utzirik. A. Urrutiak pentsatzen du prozedura eta izendapenak batera eztabaidatu behar direla. P. Salaburuk esan du euskalkiak ongi ordezkaturik egotea dela irizpide nagusia. Bere ustez, orain arte izandako prozeduraren kultura aipatu du, inor bere kargutik ez kentzekoa eta karguak izendapen berriekin ez zamatzea. Euskara Batuko batzordean lan egiteko moduari dagokionez, prozedura hori Hernaniko batzarrean erabaki zela esan du.

Idazkariak ez du uste horrelakorik erabaki zenik. A. Eguzkitzak akta irakurri eta ez zela erabakirik hartu ageri da. P. Salaburuk uste du, *erabaki* hitza erabili ez arren, bere iritziazen kontra, ontzat hartu zela. A. Urrutiak uste du puntu hori ez zela argi gelditu, eta horregatik prozedura eta batzordearen osaera batera tratatu beharra dagoela.

B. Oihartzabalek prozedurari jarraituz, boto ematera jo behar dela esan du. A. Urrutiak kontsentsua hobe dela botoak baino. X. Kintanak uste du prozedura adostea hobe dela idazkari kargua baino, eta bere burua aurkezteko arrazoia eman ditu. Erantzunez, M. Azkaratek esan du berari inork aurretik ez diola galdetu idazkaritza utzi nahi duen ala ez. P. Salaburuk X. Kintanari bere kandidatura erretiratzea eskatu dio. Elkarrizketa batzuen ondoren, X. Kintanak bere kandidatura erretiratu du, M. Azkarate Euskara Batuko batzordearen idazkari geratuz.

Euskara Batuko batzordearen lan-prozedura honela gelditu da:

- 1) Oharrik gabeko hitz guztiak, besterik gabe, ontzat emango dira.
- 2) Hitz ohardunak batzordekide eta ohargileei bidaliko zaizkie, aho batez adostu eta osora ekartzeko.
- 3) Hitz berezituak (berriak eta teknikoak) J.A. Adurizi pasatuko zaizkio, horiei buruzko txostenak egin ditzan.

Andres Urrutiak esan du horrek Zarautzen E.B.ko batzordearen lan egiteko onarturiko prozedura ere aldatzea dakarrela. P. Goenagak galdetu du ea adosturiko hitzak euskaltzain osoek berriz ikusiko ote dituzten. Baietz erantzun dio P. Salaburuk.

Gainerako batzordeen osaera ontzat eman da aurkeztutako zerrendaren arabera (ikus eranskina).

Ondoren Euskaltzaindiaren 2002.eko era guztietako bilkuren partaidetza taula ikusi da (1.2.2).

P. Telleriak JAGONET zerbitzuko erantzule-taldean, Hiztegigintzaren arloan, hutsunea dagoenez beste kide bat izendatzea komeni ote den galdetu du. Horretarako

X. Kintana onartu da eta Hiztegi Batuko Koro Navarro edo Miriam Urkia. Interesatuekin hitz egiteko geratu da.

2. Erakundearen egoera

J.J. Zearretak Euskaltzaindiaren 2002. urteko behin-behineko kontuen errendapena (2.1) eman du. Ondoren 2003rako aurrekontuen aurrikuspenak eta babesak ere aurkeztu ditu (2.2.). Aurreikusiriko aurrekontu idealak egin ezina azaldu du. Bestalde, autokontrolerako murrizketak eta erakunde batzuen laguntza txikiagoak ere aipatu ditu. Seinalatzekoa da harpidedunekiko salmenten beherapena, haiei hasieran aginduriko arau eskaintza aspaldian betetzen ez delako.

P. Salaburuk esan du irailerako bederen, Madrileko Gobernuagandik zenbateko laguntza izango dugun jakin bezain laster, aurrekontu errealeak prestatu beharko liratekeela. J.J. Zearretak oraingo aurrekontu hauek Eusko Jaurlaritzak jarririko irizpideen arabera egin direla argitu du. P. Salaburuk eskatua zuzena iruditzen zaio baina ez du uste egingarria denik. Sistema horrek, iazko salbuespenaz, ez du alde handirik azaltzen aurreikusiairen eta betetakoaren artean.

P. Goenagak mentsaren zergatiak argitzea eskatu du. J.J. Zearretak azaldu egin dizkio. Martxoaren bukaeran oraindik ez daki erakundeek zenbat emango duten. J. Haritschelharrek ekonomi eragilearen argudioak berretsi ditu. J.L. Lizundiak Akademiaren funtzionamendua bere izaera bereziak atzerarazten duela azaldu du: erakunde publikoa da, baina funtzionamendu pribatukoa. Alde horretatik, bere ustez, ezingo da aurrekontu kontsolidaturik egin Euskaltzaindiaren beraren oraingo izaera-kontsiderazioak honela dirauen artean.

P. Salaburuk esan du Akademia ezin dela ibili beti lehendakariagana jotzen diru eske. Euskaltzaindiaren gutxienezko gastu guztiak Jaurlaritzaren gain jarri beharko lirateke, gero Diputazioetatik laguntza jasoko bada ere. P. Xarritonek azaldu du iparraldean badirela subentzioak eta zergen ordezkio laguntzak. Hegoaldean horretarako Fundazioa martxan beharko genuke.

P. Goenagak aurrekontuen murrizketaz argitasunak eskatu ditu. J.J. Zearretak halaxe eman dizkio. J.L. Lizundiak azaldu du Unibertsitateak badituela ziurtaturik oinarritzko gastu batzuk, baina guk ez, eta hori gure izaera aintzat ez hartzearen ondorioa dela. Bere ustez, behin funtsezkoa seguraturik edukiz gero, Fundazioak gainerako defizita estal lezake.

3. Corpusgintza

P. Salaburuk «Euskaltzaindiaren corpusak gaur eta bihar» (3.1.0.) txostena irakurri du. B. Oihartzabalek azalpen batzuk egin ditu. Ontzat eman da. H. Knörrek azaldu du, araugintzaz landa, badirela hor artxibo-lanak ere, onomastikan, antroponimian etab.

Andolin Eguzkitzak bere txostena irakurri du (3.1.2) B. Oihartzabalek erantzun dio, eskatzen zituen argitasun batzuk emanez.

P. Xarritonek txostena Diputazioei ere aurkeztu behar zaiela uste du, eta diru bila Europara ere joan beharko lukeela Euskaltzaindiak. A. Urrutiak gogoratu du, protokoloaren arabera Jaurlaritzari eta 3 Diputazioei helarazi behar zaiela. M. Azkarate bat dator horretan.

Egindako txostenak, azalpenak eta proposamenak entzunda, B. Oihartzabal arduratuko da agintariei bidaliko zaien testuari azken ukituak egin eta bera prestatzeko.

Batzarra arratseko 8,27ean amaitu da.

Euskaltzainburua
Jean Haritschelhar

Idazkaria
Xabier Kintana

Bilbon, 2003.eko martxoaren 28an

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua,
Henrike Knörr, buruordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Antonio Arana-Martija, diruzaina
Beñat Oihartzabal, Iker sailburua
Andres Urrutia, Jagon sailburua,
Patxi Altuna,
Jean Louis Davant,
Andolin Eguzkitza,
Patxi Goenaga
Andres Iñigo,
Emile Larre,
Txomin Peillen,
Pello Salaburu,
eta Piarres Xarritton.
Jose Luis Lizundia idazkariorde-
kudeatzailea, Patxi Salaberri,
Onomastika batzordekidea eta
P. Telleria, eragile teknikaria

Ezin etorriak eta ahalak: M. Azkarate
(ahala P. Salabururi), P. Ondarra (ahala J.
Haritschelharri) J. San Martin (ahala A.
Iñigori), I. Sarasola (ahala P. Salabururi)
eta P. Zabaleta (ahala J.A. Arana-Marti-
jari).

Batzarra goizeko 10,10etan hasi da Eus-
kaltzaindiaren Bilboko egoitzako batzar
aretoan, ezkerreko zutabearen ageri diren
euskaltzainak bertan direla.

J.M. Satrustegiren hil berria

Hasieran J.M. Satrustegiren heriotzaren
berri eman du euskaltzainburuak. Heldu-
riko telegramak eta mezuak ere irakurri
ditu: Juan Jose Ibarretxe lehendakariare-
na, Javier Retegi Eusko Ikaskuntzaren

lehendakariarena, Euzkadi Buru Batzarrarena, Vahan Sarkisianena, Gotzon Lobera
Bizkaiko Diputazioko euskara sustatzeko Zuzendariarena, Pedro de Yrizarrena, Eus-
kara Kultur Elkargoa Fundazioarena, Manuel Montero, EHUko errektorearen, Adrian
Zelaiarena eta Vicente Etayo Iruñeko udalaren kultur zinegotziaren ahozko doluminak
ere bai.

Euskaltzainburuak, halaber, J.M. Satrustegi euskaltzain zenduarien hutsunea bete-
tzeko, hautagaiak aurkeztuz, bi hilabeteko epea hasten dela iragarri du.

Akta onartzea

Zuzenketa birekin aurreko batzarraren akta ontzat eman da.

Eskuartekoak

1. **Eusko Ikaskuntza - Euskadiko Kutxaren 2003 Sarirako kandidatura:** Eus-
ko Ikaskuntzatik helduriko eskariari erantzunez, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak sari
horretarako Juan San Martin euskaltzaina proposatu eta osokoak ontzat eman du. Hala
jakinaraziko zaie.

2. **Vianako Printzearen Sarirako izendapena:** Nafarroako Kultur antolakunde horren kandidatu gisa, Euskaltzaindiak Jose Maria Jimeno Jurio euskaltzain ohorezkoa, duela gutxi zendua, proposatu du.

3.- Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren sari nazionalak epaitzeko mahaikide gisa, Euskaltzaindiak, Literatura Ikerketa azpibatzaordearen iritzia kontuan izanik, Ministerioari Francisco Telleria de la Fuente (Literatura dramatikoaren Sarirako) eta Goizon Lobera Revilla (Itzulpen-Sarirako) proposatzea erabaki du.

4.- Joan Martí i Castell, *Institut d'Estudis Catalans*-eko Filologi Saileko buruaren gutuna irakurri da, joan den martxoaren 7an Bilbon Euskaltzaindiaren egoitzara egindako bisitaren oroigarri eta esker onez.

Hizkuntza Arauak

1. Onomastika

«San, santu, done eta ingurukoak» txostena dela eta, A. Iñigok J.L. Davant, X. Kintana eta B. Oihartzabal euskaltzainengandik jasoriko oharren berri eman du, hor iradokirik puntu batzuk onartuz. Ondoren bai ohargileek eta bai beste euskaltzain batzuek ere -P. Salaburu, P. Salaberri, A. Eguzkitza, J.A. Martija, M. Gorrotxategi, P. Xarriton, H. Knörr, J.L. Lizundia eta P. Goenaga- ahozko oharrak egin eta argitasunak eskatu eta eman dituzte. Azkenean, 8. puntua (*Done Mikeleko eliza*) hurrengorako utzi-rik, testua adostu eta onartu da.

2. Hiztegi Batua.

P. Salaburuk **análogo-antzoki** zerrendari egindako oharrak azaldu ditu, eta **antzu-arbindu** oharrak gabeko zerrenda onartua gelditu da. Gainerakoetan *antolagabe*-tik *antz*-erainoko hitzak berrikusi eta onartu dira.

Nafarroako apezpikutegiarekiko elkarrizketa

J.M. Satrustegi euskaltzainaren heriotza dela eta, arratsaldeko elizkizunen protokolorako, H. Knörr Iruñeko artzapezpikutegiarekin mintzatu da, bertako Orbegozo idazkari jaunarekin izandako elkarriketaren berri emanez.

Argitalpenak

Batzarra amaitzean euskaltzainen artean *Hondarribiko toponimia. Onomasticon Vasconiae*, 23 argitalpena banatu da.

Batzarra 1,51an amaitu da.

Euskaltzainburua
Jean Haritschelhar

Idazkaria
Xabier Kintana

Bilbon, 2003.eko apirilaren 25ean

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua,
Henrike Knörr, buruordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Antonio Arana-Martija, diruzaina,
Befiat Oihartzabal, Iker sailburua,
Andres Urrutia, Jagon sailburua,
Patxi Altuna,
Jean Louis Davant,
Andolin Eguzkitza,
Andres Iñigo,
Emile Larre,
Patxi Ondarra,
Txomin Peillen,
Pello Salaburu,
Piarres Xarritton
eta Patxi Zabaleta euskaltzainak;
Jose Luis Lizundia idazkariorde-
kudeatzailea, eta P. Telleria,
eragile teknikaria

Ezin etorriak eta ahalak: J. San Martin
eta I. Sarasola.

Batzarra goizeko 10,10ean hasi da Eus-
kaltzaindiaren Bilboko egoitzako batzar
aretoan, ezkerreko zutabearen ageri diren
euskaltzainak bertan direla.

Akta onartzea.

Aurreko bilkuraren akta ontzat eman da.

Eskuartekoak.

Miranda Argatik helduriko gutuna.

Andres Iñigo Nafarroako ordezkariak Mi-
randa Argako udalak bidali dion gutuna
banatu eta irakurri du. Kontua hau da: Bar-
tolome de Carranza mirandar ospetsuaren
V. mendeurrena dela eta herri horretan Na-

farroari dagokion aurtengo osoko bilkura eta ospakizuna egitea. Idazkariorde-kudeatzaile-
ak, joan den hilean Miranda Argako udaletxean, hango agintari eta Segundo Otazu argi-
taldari eta mirandar euskaltzalearekin Euskaltzaindiko arduradunek adostutako prestaketa
lanez idatzitako txostena ere eranstean da. Ondorioz, maiatzeko osoko bilkura eta Carran-
zaren omenezko ospakizunaren egitaraua aintzat hartzea erabaki da.

J.M. Satrustegiren heriotzagatiko doluminak.

Argentinako Laurak Bat euskal etxetik gutun bat heldu da, euskaltzainburuari zu-
zendua, akademiari, J.M. Satrustegi euskaltzainaren heriotzagatik, bere dolumina adiera-
ziz. Euskaltzainen artean horren kopia banatu da. Baita iritsi diren doluminen zerrenda.

Jose Mari Satrustegiren senideei eskaintza. Euskaltzaindiak honako hau era-
baki du: Jose Mari Satrustegi euskaltzain zenaren familiari behar duen aholkularitza
dohainik eskaintzea, bai eta haren ondare bibliografikoaren katalogoa egitea ere.

Hizkuntza Arauak

Hiztegi Batua: Arbiska-arloletze zerrenda. Oharrak gabeko hitz zerrenda aur-
keztu du P. Salaburuk, eta besterik gabe ontzat eman da.

Analogo-antzoki zerrendari egindako oharrak eta eztabaidarako sarrerak ere aurkeztu ditu P. Salaburuk. Guztiak aztertu dira. Ondoren **antzu-arbindu** zerrendako oharrak aztertzen hasi dira, *anu egin-tik apenas*-eraino helduz.

Onomastika: «*Done, san santu eta ingurukoak*» izenez onartutako testua banatu eta aurkeztu du A. Iñigok, azken bileran eginiko oharrak jasoz. B. Oihartzabalek 3. puntuan ohar bat egin du *Jondoni, Jondane* daramaten santu tradizionalen adibideekin, bai eta 7. puntuan ere, hor, *san* eta *done*-rekin batera santu ere sar dadin. Biak ontzat eman dira eta, horrela, behin betiko testua onartu da.

J.J. Ibarretxe lehendakariaren proposamenari buruzko erantzuna

Idazkariak jakinarazi duenez, J.J. Ibarretxe lehendakariaren idazkaritzarik dei bat jaso du, iazko urrian lehendakariak bake eta bizikidetasunerako aurkeztu zion proposamenaz Euskaltzaindiaren iritzia eskatuz. Hortaz, berak A. Urrutiak eta J.L. Lizundiak egindako eta apirilaren 24an zuzendaritzak onarturiko testua irakurri du. P. Zabaletaren eta beste zenbait euskaltzainen estilotzko ukitu batzuekin erantzunaren testua ontzat eman da.

Batzarra, arratsaldeko 2,23an amaitu da.

Euskaltzainburua
Jean Haritschelhar

Idazkaria
Xabier Kintana

Miranda Argan, 2003.eko maiatzaren 30ean

Henrike Knörr, euskaltzainburuordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Antonio Arana-Martija, diruzaina,
Beñat Oihartzabal, Iker sailburua,
Jean Louis Davant,
Andolin Eguzkitza,
Patxi Ondarra,
Patxi Goenaga,
Andres Iñigo,
Emile Larre,
Txomin Peillen,
Pello Salaburu,
Piarres Xarritton
eta Patxi Zabaleta.
Juan Jose Zearreta ekonomia eragilea
eta P. Telleria, eragile teknikaria

Ezin etorriak eta ahalak: J. Haritschelhar (ahala B. Oihartzabali); I. Sarasola (ahala P. Salabururi); A. Urrutia (ahala X. Kintanari).

Batzarra goizeko 10,20etan hasi da Miranda Argako Udaletxeko batzar aretoan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Akta onartzea. Apirileko batzarraren akta oharrik gabe onartu da.

1.1. Hizkuntza arauak. Hiztegi Batua.
P. Salaburuk aurkezturiko **arma-arrimu** zerrendako oharririk gabeko hitz guztiak aurkeztu eta onartu egin dira. Ondoren,

antzu-arbindu zerrendako hitz ohardunak aztertu dira, *apendu*-tik hasi eta *arbindu*-rainoko hitzak onartuz.

1.2. Hizkuntza arauak. Onomastika. Lexiko zerrenda amaitu denean, batzar aretora Mikel Gorrotxategi Onomastika batzordeko idazkaria sartu da eta «San, santu, done eta besteren erabilera euskaraz» (1.2.1.) onarturiko behin-betiko testua banatu du. Era berean, «Nafarroa Behereko herri izendegia»ren (1.2.2.1) 5. zerrenda aurkeztu du, hitz horiei dagozkien argitasun-txostenekin batera, eta biak mahaikideen artean banatu ditu (1.2.2.2. eta 1.2.2.3. dokumentuak). Oharrak ekainaren 15erako bidali behar dira.

2. J.M. Satrustegi euskaltzainaren hutsunerako proposamenak aurkeztea:
J.M. Satrustegi euskaltzainaren heriotzak Akademian sorturiko hutsunea betetzeko, J. Haritschelharek, Juan Mari Lekuonak eta Jose Antonio Arana Martijak Jose Luis Lizundia Askondo jaunaren proposamena aurkeztu dute, dagokion curriculumarekin batera.

Ez da beste proposamenik egin. Arautegiaren arabera, botazioa datorren hilean izango da.

3. Kardaberazen III. mendeurrena. Agustin Kardaberazen III. mendeurrenako ospakizunak direla eta, azaroaren 27an egitekoak, P. Telleriak horren inguruan antolatuko diren jardunaldi-programaren berri eman du. Horren arabera, Deustuko Unibertsitatearen Gipuzkoako Campusean Kardaberazi buruzko hitzaldi eta txosten batzuk aurkeztuko dira, haren bizitza eta obraren garrantzia azaltzeko. Hitzaldi eta txosten ho-

riek liburu batean argitaratzeko asmoa ere bada. Era berean, haren *Euskeraren Berri Onak* liburuaren edizio kritikoa plazaratuko da.

Batzarra 1,26an eten da, Udaletxearen hitzaldi aretoan Jose Luis Orella Unzue jaunaren hitzaldia entzuteko.

Arratsaldean, bazkalondoan, 4,30etan goizeko lexiko-lanarekin lanean segitu da. **Arbiska-arlotze** zerrendari ekinez, *arbiska-ardazu*-rainoko hitzak aztertu eta onartu dira.

Bilkura arratsaldeko 6,20an amaitu da.

Euskaltzainburuordea
Henrike Knörr Borràs

Idazkaria
Xabier Kintana Urtiaga

**EUSKALTZAIN URGAZLE BERRIEN IZENDAPENA
ETA DIPLOMA BANATZEA**

EUSKALTZAINDIAK EUSKALTZAIN URGAZLE BERRIAK IZENDATU DITU

Urtarrilaren 31n, Bilbon egin duen osoko bilkuran, euskaltzain urgazle berriak izendatu ditu Euskaltzaindiak. Orotara, 21 euskaltzain urgazle gehiago izango ditu Akademiak gaurtik aurrera.

Euskaltzaindiko Barne-Erregeletako 5. artikuluan esaten den legez, euskaltzain urgazle izendatzeko hautagaiek honako ezaugarriren bat izan beharko dute:

- 5.1 Euskaltzain urgazlegaiak orobak euskalaritzan ezagunak izango dira nahiz idazle hautak edo euskararen jagoletzan nabarmenduak.
- 5.2 Urgazleetarik batzuk atzerritarrak izan daitezke, nazioarte mailan akademia gaietan eskaini dituzten lan aipagarriak kontuan izanik aukeratuak.

* * *

Gauzak horrela, oraingo bilkuran, batzorde akademikoetako kideak izendatu dira. Hona hemen, beraz, Euskaltzaindiko osoko bilkurak onartutako euskaltzain urgazle berrien zerrenda, eta zein batzordetako partaide diren:

1. Aguirreazkuenaga, Joseba. Azkue Biblioteka.
2. Altonaga, Kepa. Azkue Biblioteka.
3. Arkotxa, Aurelia. Literatura Ikerketa.
4. Aurre, Jon. Euskalkiak.
5. Bilbao, Gidor. Onomastika eta Azkue Biblioteka.
6. Camino, Iñaki. Dialektologia.
7. Casenave, Jon. Literatura Ikerketa.
8. Erdozia, Xabier. Lege-Ekonomia.
9. Etxebeste, Izaskun. Dialektologia.
10. Igerabide, Juan Krutz. Literatura Ikerketa.
11. Iñigo, Patxi. Corpus.
12. Irazabalbeitia, Iñaki. Onomastika.
13. King, Alan. Gramatika.
14. Makatzaga, Jesus Mari. Gramatika.
15. Navarro, Koro. Hiztegi Batua.
16. Olaziregi, Maria Jose. Literatura Ikerketa.
17. Otaegi, Lourdes. Literatura Ikerketa.
18. Rekalde, Paskual. Hiztegi Batua eta Euskalkiak.
19. Segurola, Koro. Dialektologia.
20. Telleria, Pello. Batzorde koordinatzailea.
21. Urkia, Miriam. Hiztegi Batua.

EUSKALTZAINDIA ENTREGA LOS DIPLOMAS A LOS NUEVOS ACADEMICOS CORRESPONDIENTES

El 25 de abril de 2003, Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca ha entregado los diplomas acreditativos a los nuevos académicos correspondientes. Dicha entrega ha tenido lugar en el curso de un acto que ha comenzado a las 16:30 horas en la sede académica (Plaza Nueva, 15). Estos son los nuevos académicos correspondientes, que fueron nombrados en sesión plenaria celebrada el 31 de enero:

1. Agirreazkuenaga, Joseba. Azkue Biblioteka (Bizkaia).
2. Altonaga, Kepa. Azkue Biblioteka (Bizkaia).
3. Arkotxa, Aurelia. Literatura Ikerketa (Nafarroa Beherea).
4. Aurre, Jon, Euskalkien Lantaldea (Bizkaia).
5. Bilbao, Gidor, Onomastika eta Azkue Biblioteka (Bizkaia).
6. Camino, Iñaki. Dialektologia (Gipuzkoa).
7. Casenave, Jon. Literatura Ikerketa (Lapurdi).
8. Erdozia, Xabier. Lege-Ekonomia (Gipuzkoa).
9. Etxebeste, Izaskun. Dialektologia (Gipuzkoa).
10. Igerabide, Juan Krutz. Literatura Ikerketa (Gipuzkoa).
11. Iñigo, Patxi. Jagon Saila (Nafarroa).
12. Irazabalbeitia, Iñaki. Onomastika (Gipuzkoa).
13. King, Alan. Gramatika (Ingalaterra).
14. Makatzaga, Jesus Mari. Gramatika (Gipuzkoa).
15. Navarro, Koro. Hiztegi Batua (Gipuzkoa).
16. Olaziregi, Maria Jose. Literatura Ikerketa (Gipuzkoa).
17. Otaegi, Lourdes. Literatura Ikerketa (Gipuzkoa).
18. Rekalde, Paskual. Euskalkien Lantaldea eta Hiztegi Batua (Nafarroa).
19. Segurola, Koro. Dialektologia (Gipuzkoa).
20. Telleria, Pello. Batzorde koordinatzailea (Gipuzkoa).
21. Urkia, Miriam. Hiztegi Batua (Gipuzkoa).

URGAZLE BERRIAK

*Bilbon, 2003ko apirilaren 25ean
Jon Aurre, euskaltzain urgazle berria*

Jaun-andreok, euskaltzainok, euskaltzain urgazleok, lagun eta adiskideok: arrastu on!

Norbaiti egokitu behar eta, neuri egokitu zait gaurkoan hemen zuon aurrean jardutea.

Ni neurez ari naiz, baina, gehitxoago-gutxitxoago, gainontzeko euskaltzain urgazle izendatu berrien asmoa ere bilduko dudala uste dut. Halandaze, zuen aurrera bi eskaintza hauek dakartzat: eskerrak eta hitza edo berba.

Eskerrak ematen dizkizuegu gugan erreparatu eta gure izenak aurkezteko adorea izan duzuenoi eta, zelan ez, zuen baietzaz hain ohore handi egin diguzuen gainontzeko euskaltzainoi: bihotz-bihotzez eskerrak.

Hitza ere ematen dizuegu gutariko bakoitza euskararen erronkari tinko eusten saiatuko dela bere esparruan, bere lanean, bere jardunean, orain arte bezala –hemendik aurrera askoz arrazoi gehiagoz eta sendoagoz–. Berbea emoten deusuegu.

Eskerrik asko.

**EUSKALTZAINDIAREN
XIII. BARNE JARDUNALDIAK**

XIII. BARNE JARDUNALDIETAN HAUSNARTZEKO

Bilbon, 2003.eko otsailaren 20an.

X. Kintana, idazkaria.

J.L. Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea.

Joan den abuztuan, oporraldian, Euskaltzainburuaren proposamenez presaturiko eta irailaren 5ean, hots, Zuzendaritza J.J. Ibarretxe lehendakariarengana joateko zen egunean, Zuzendaritzakoei aurkeztutako txostenaren hasierako puntu hauek ekarri nahi ditugu gogora: «Euskaltzaindiaren abaguneaz txostena» deritzanetik, hain zuzen.

XII. Barne Jardunaldietan ohi bezala, antolatzaile J.L.Lizundia izan zenez gero, hau zioen:

«lehendabizikoak, 1979an Foruan zertarako egin ziren, hausnarketa gisa, horretarako mezu bat, bai L. Villasante euskaltzainburuak, Juan San Martinek egindako ildotik, alegia, hausnarketa bat behar zela egin erakunde barnera begira, gogo jardunaldi gisa», agian, zentzurik Ignaziotarreanean. Beharbada, horregatik, handik bi urtera frantziskotarren komentutik Loiolara joan ginen. Orduan lehendabiziko foru erakunde demokratikoak sortu berri ziren. Laster helduko zen II. Eusko Jaurlaritza. Eusko Legebiltzarra lehendabizikoz antolatu zen gure historian. Beraz, argi ageri zen aro berri baten aurrean geundela Foruan.

24 urte geroago, badirudi, erronka berrien aurrean geundela, eta euskaltzain batzuek horretaz idatzi dute, zenbait hausnarketa eginez, kanpora eta barrura begira. Beraz, datorren «Urtebikoari begira», geure gogoeta-bideari behako bat eginez gero, hasteko, Forutik Loiolara abiatu ginela ikusiko genuke, —eta Loiola garrantzitsua izan zen, orduantxe eratu baitziren batzordeak gaurko erara—, geroztik, Angostotik Lekarozera, Angelutik Lazkaora, Ziburutik Zornotzara, Larrabeatik Iraizotzera, eta azkenik Baionatik Lekeitiora arituz gai desberdinak ukitzen. Oraingoaren abiapuntutzat, Eusko Ikaskuntzako lehendakari berriak elkarriketa interesgarri baten dioena har genezake: «Eusko Ikaskuntzan ere komeni da horrelako hausnarketa estrategikoa sakona egitea. Eusko Ikaskuntzak hausnartu behar du etorkizunean zer izan behar duen. Erakundeek beste era batera lan egin behar dute».

Agian, Euskaltzaindiari ere etorri zaio antzerako hausnarketa egiteko tenorea. Beste pasarte batean honela dio:

«Eusko Ikaskuntza urrunekoa eta antzinakoa da eta hori gaurkotu egin behar da».

Guk ere gauza bera esan genezake. Beste pasarte baten:

«Garrantzitsua helburuak ondo finkatzea da».

Guk, ordea, eginkizunak desberdinak ditugunez, erronkak ere desberdinak. Barnera begira, gure hiru sailak, alegia, *Iker*, *Jagon* eta *Egiturazkoak*, banan-banan aztertu beharko genituzke. Begira diezaiegun, lehendabizi, Euskaltzaindiaren xedea eta izaera deitzen den lehen kapituluari eta lehendabiziko bi artikuluei:

Lehen art. *Euskaltzaindia Institutio bat da, 1918. urtean Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaiko lau Diputazioen babespean sortua. Honako xede hauek ditu helburutzat:*

- a) *Euskararen gramatika legeak ikertu eta mamitzea.*
- b) *Hizkuntza honen idazlangintzarako argibideak eta arauak ematea.*
- c) *Hiztegia biltzea.*
- d) *Bai hiztegian eta bai gramatika eta grafian ere, literatur hizkera batura heltzeko lan egitea.*
- e) *Euskararen enplegua aitzinatzea.*
- f) *Hizkuntzaren eskubideak zaintzea.*
- g) *Hizkuntza, gizarte maila guztietan gai bihurtzeko, lan egitea.*
- h) *Literatur eta ikas lehiaketak eragitea.*
- i) *Filologia eta linguistikako estudioak sustatzea, euskara eta euskal literaturaren katedrak bultzatuz.*
- j) *Euskarari dagozkionetan erakunde aholku emaile ofiziala denez, agiriak eman eta irizpen eta diktamenak luzatzea.*

Bigarren art. *Egiteko hauen arabera, bi sail ditu Euskaltzaindiak: Iker saila eta Jagon saila.*

Euskaltzaindiak gure politikarien eta erakunde politikoen aurrean bere erakunde-izaera eta esangura sozio-kulturala argi utzi beharko luke, H. Knörr buruordeak maiz azpimarratu duen bezala. Gure hizkuntza nazionalaren Akademia da, gure batasun kulturalaren sinboloa, hizkuntzaren erabilera zuzenaren instantzia gorena, eta bere egitekoak ezin dira epaitu ikuspegi ekonomizista hutsen bidez, *Euskal Irrati Telebista*, *Emakunde*, *Eusko Trenbideak* eta beste erakunde eta enpresa publiko batzuk, adibidez, horretara epaitzen ez diren bezalaxe.

Bere egiteko nagusiak mugatzean, kontuan hartu beharko genituzke, noski, munduko gainerako Hizkuntza Akademia guztien ohiko egitekoz gainera, —eta gramatika eta hiztegi arauemaileak noraezekoak dira— gure gizartearen egoera berezia, tokian tokiko egoera sozio-politikoak ahantzi gabe.

Aspaldian pairatzen dugun dirurik ezak zenbait gauzaz pentsarazi beharko gintuzke, hemendik aurrera loturik ez gelditzeko. Batetik, lan edo proiektu bat egiten hastean, horren finantziabidea argi eduki beharko dugu, aurrekontu orokorretatik kanpo ere, enpresa batzuk hor interesaturik egon daitezkeela ahantzi gabe. Hemendik aurrera, epe ertain eta luzeko proiektuak aparteko zuhurtziaz planteatu eta bideratu beharko ditugu, amaitu ezinik eta berengatik bururaino hipotekaturik gera ez gaitzen.

Bestalde, proiektuak egiteko kontratatzen diren pertsonen argi eta garbi eduki behar dute Euskaltzaindiak zertarako eta noiz arte hitzartzen dituen. Horregatik, gogoan izan behar dugu Euskaltzaindiak bere berezko helburuetarako egin behar dituela bere plangintza-programazioak, eta ez berak lehenago kontratatu dituen pertsonen mesederako.

Izan ere, gauza bat da, ahal delarik, gurekin lanean ibili direnetako baten bat edo batzuk, horretarako aukera badago, berriz ere kontratatzea, horien esperientzia baliotsua denean, baina beste bat, etengabeki pertsona horien finantziabidearen harlauza pisua geure gain hartzea, eta areago babesik gabe, horrela urteroko mentsa gehituz.

Euskaltzainon lanak, oinarritz eta funtsean, akademiko izan behar du, eta Administrazioak eta jendaurreko ekitaldiek ez digute geure denbora nagusia ebatsi behar. Ordea, guztiok asperturik gaude guztiok, azken urteotako egoera ekonomiko katastrofikoagatik, gauzak hankaz gora ikusten: euskara ikeritzen, hitzak erabakitzen eta arauak ematen ibili beharrean, burua hausten eta denbora ematen ari gara gure langileek, plantilakoek eta lan-hitzarmendunek, hurrengo hilabetean soldata kobra dezaten edo telefonoa edo argia motz ez diezaguten, guztiok erotuta, dirua nondik aterako dugun asmatu ezinik. Bistakoa denez, Zuzendaritzan, aspaldion ordu gehiago igarotzen ditugu horretan, gainerako gobernamendu arazoetan baino. Beraz, ez dezagun plan handiegirik egin, gero, horregatik, itorik ibiltzeko.

Ekonomiaren ildoak eramaten gaitu, bidezidorrean baino, errepide zabaletan, datorren urtebikoan erabakigarri izango zaigun puntura. Aurtengo diru igurikimenean, beste behin ere, begien bistan jartzen digute gure ekonomia-bideragarritasunik eza. Aldez aurretik iragarrita dauden zenbakiekin, aurtengo protokoloak diru-mentsa handia dakar gure gainera, lehenbailehen konpontzekoa. Horrek eskatzen du, besteak beste, gure egiturazko gastuak eta egitasmo nagusiak erakunde publikoek estaltzea. Esan gabe doa ere, gutxieneko kopurua behar duela ziurtatu Eusko Jaurlaritzak, gainerakoa bestelako administrazioek jarria. Helburua, dena den, Euskaltzaindiarentzako egonkortasun ekonomikoa ziurtatzea da. Hori gabe, alfer-alferrik izango dira gure ahalegi-

nak. Horrexegatik, Euskaltzaindiaren izaera dela eta, botere publikoekin hitz egin behar duenean, bi helburu argi izan behar ditu Euskaltzaindiak: lehena, erakunde izaera eta zerbitzua, Euskal Herri osoan euskararen corpusari eta statusari dagokiona; bigarrena, horrek daukan kostua. Hori da, hain zuzen ere, diruz bermatu eta hornitu beharrekoa. Horra ere, berehala jorratzeko puntua.

Iker Sailean lehendabizi, bost batzorde iraunkor ditugu. Lehen lau ziren, alegia, Hiztegegintza, Gramatika, Euskalkiak edo Dialektologia eta Onomastika. Literatura, *Jagon* Saitetik *Ikerrera* pasatu zen 1989an, Lazkaon egindako VI. Barne Jardunaldietan. Horiez gain, 1995ean, 1994ko Leioako Biltzarraren ondotik sortu zena, Euskara Batuko batzordeak, nahiz eta hau ere Lekeition, zeregin baterako bakarrik utzi, Hiztegi Baturako, alegia. *Jagon* Saila eta *Egiturazkoak*, geroago ikusiko ditugu. Une honetan *Jagon* Sailak bi batzorde ditu, bere lantaldeekin: *Egiturazkoak*, Argitalpen batzordea, Azkue Biblioteka eta Lege-Ekonomia aholkularitza. Gure ustez, iritsi da ordua, batzordeek eman duten emaitza oparoa ahaztu gabe, -beharrezkoak izaten jarraitzen baitute-, autokritika egiteko.

Price Waterhousek, Herri Aginteez eskatuta, Aditegia egin zigunean, batzordeak «taifa erreinutzat» jo zituzten. Geroztik, soluziobidean jarri dira. Horretarako eragile teknikari bat, Pello Telleria, hartu genuen eta eman du fruitua. Hala eta guztiz ere, batzorde bakoitzak, bere kasa funtzionatzen du. Bestalde, batzorde arteko begirunea ere falta izan da askotan.

* * *

Batzorde arteko kontsentsurik ez da izan, zoritxarrez eta, behin baino gehiagotan, aipatu dugu gai hau Zuzendaritzan ere. Koldo Mitxelenak, ordea, urte askotan *Iker* sailburu izan zelarik, estrategia eta taktika ongi bereizten zituen. Bazekien hark, estrategia baitzen, Euskaltzaindiak euskara batua aurrera atera behar zuela, eta urte haietan hori zela erronka nagusia. Ez soilki xedeen lehen artikuluko d) helburuak hori dioelako, baizik eta Erakundearen helburuak aurrera atera ahal izateko ere halaxe komeni baitzen. Hori dela eta, bere estrategia euskaltzainen artean aurrera ateratzeko, ezker-eskuin kontzesio taktikok egin ohi zituen zuhurki. Nola bestela ulertu, bere iritzia zenbait aldiz aurrera ateratzeko, bere iritziaren kontrako kontzesioren bat edo beste egitea? Bistan zeukan, Iparraldeko botoak behar zituela, Lojendioren, Arrueren edo Aingeru Irigarairenez gainera. Hori argi ageri zen Onomastikako Herri Izendegia egitean. Izendegia prestatzean, adibidez, taktikoki komeni zen Aingeru Irigarairi zenbait gauzatan amore ematen jakitea. Bestalde, orduan Iparraldeko Izendegia ondo egiteko mediorik ez genuenez, Mitxelenak Dassanceren zerrenda hartzea proposatu zigun, ondorioz, behin-behingo, horretara lortzen zuen kontsentsuaz baliatuz, gero beste helburu batzuei ere aplikatzeko.

Azken urteotan ikusi duguna, ordea, besterik da, hots, batzorde arteko kontsentsua, batzordekideen arteko bata besteenganako begirunea, ez dela

ondo jagon, barrutik eta albotik eztenka ibili garela, eta edozein unetan kanporatzeko arriskuan izan dela Euskaltzaindiaren barruko zatiketa.

Alde horretatik, euskaltzainon arteko harremanak hobetu beharra dago, jendea premiarik gabe mindu eta haserrarazi gabe, elkar errespetatuz. Inoren lana, gorago aipaturiko premisapean, aintzat hartu behar da. Euskaltzaindiaren barruko arazoak, bestalde, diskrezioz eta *pro domo* jokatzuz tratatu beharko genituzke beti.

Batzordeen proiektuekin lehentasun desberdinaz joka daitekeen arren, beti ere formaz eta tratuaz batzordeen arteko oreka mantentzen saiatu beharko genuke, inoiz gure artean aipatu izan zen «superbatzorde» kontzeptutik urruntzeko.

Horregatik, printzipioz, sail eta batzorde guztiek merezi behar dute aitormen berbera. Besterik da, lehentasun berbera izatea. Ez, ez gara horretaz ari.

Alde honetan, irudiz behintzat, berez elkarren aurkako ikuspuntuak ditugu: batzorde bakoitzaren beregaintasun eta autonomia, batetik, eta, bestetik, Akademia osoak bana-banako batzordeek egiten dutenaren gainean izan behar duen erantzukizun eta onespen kolegiatua. Horrek, noski, gutxienezko kontrola eta koordinazioa beharko lirateke. Nola gorde, ordea, batzorde bakoitzaren beregaintasuna, eta, aldi berean, bere lana onartu behar dion «osoak» eduki behar duen kontrola? Gure ustez, era praktikoa haxe izan liteke: batzorde bakoitzak proiektu bat aurrera eramanez aurretik, horren irizpideak, metodologia, epea etab. «osoaren» aitzinean aurkeztu beharko luke. Behin *nihil obstat* orokorra jaso eta gero, batzorde bakoitzak erabateko askatasun eta beregaintasunez lan egingo luke, beste «gainbegiratzerik» gabe. Horrek saihestuko liguke, adibidez, aurretiko «adostasunik» ezagatik ondorioetan gerta litezkeen sorpresak, zenbait hitzetan (animalia berezi batzuen izenetan adibidez) jaso daitezkeenak bezala.

Lehen batzordea Hiztegitzakoak izanik, eta, bistan denez, edozein Akademiaren lexikografiak daukan garrantzia kontuan hartuta, ordea, ezin da batzorde hori bere bolizko gazteluan gorde. Arazo hau ere aztertu beharko da euskaltzain guztien artean, *Orotariko Euskal Hiztegia* bere Z letrara, beraz, azkenera iristen hasi den une honetan, hasiak baitira, *OEH*ren Zuzendaritzari adierazi bezala, orainsu, beste erronka batzuk kontsideratzeko eskatzen.

Datozen bi urteei begira, gutxienez, hiruzpalau proiektu kontsideratu beharko genituzke:

a) *OEH* hiztegia bukatzea.

b) Hiztegi Batuaren bigarren pasaldia azkartu eta helburuak jartzea, urtez urte zer eta zenbat egin behar dugun jakiteko. Honi buruz, ikus aurrerago prozedura azkartzeko egiten den proposamena.

c) Euskara-euskara hiztegia ontzen hastea, Hiztegi Batuko lehen pasaldiko hitzak norabidetzat hartuta. Proiektua ondu eta finantziazioa ziurtatu beharra legoke.

d) Corpusaren aldetik baldintzak jartzea, corpus horrek noren eskutik eta nola egin behar den erabaki eta proiektu horren finantziazioa ziurtatzea.

Hiztegi Batuak bere bigarren itzulian badu estrategikoki bere egitekoa, alde batetik, eta, gero, Miren Azkarate, Xabier Kintana eta Andres Urrutiak, Hiztegi Bereziaz, deitutako aldetik. Hemen, uste dugu zenbait bilkuraren prozedura, Laudioako abendukoa lekuko, aldatu beharra legokeela. Hortaz, 1994ko apirilean, Gasteizko ordezkaritzan, egindako bilkuran proposaturikoa, eztabaida parlamentarioetan ezagutzen dena, gaurkotua, aplikatzea beharrezkoa dugu.

Egia da, neurri batean, ohardun hitzak besterik ez direla aztertzen; baina, eztabaidatzeko prozedurak oroitarazten digu, behinolako Poloniaren historian irakurritakoa, bertako Parlamentuaren eta Gobernuaren hondamendia ekarri zuena. Beraz, eztabaida-prozedura ere azkartu beharra dago. Denbora tasatuz, hiztunen partehartzeak, ponente eta ohargileen «erreplika» eta «dupliketara» mugatuz eta beste. Bestela ikaragarri luzatuko eta Hiztegi Batua ez da sekula santan bukatuko.

Beraz, Hiztegi Batuaren bigarren itzulia nola berrantolatu? Hiztegi Batuko Hiztegi Berezien hiru alorrak, nola txertatu? Hori ere eztabaidatu beharko da.

Bigarren pasaldi honetarako, egia esan, osoko bilkura baino lehen ohargileak P. Salabururekin bilduko balira, presentzia erreal edo informatikazko presentzia birtualaz, hitz gehienetan funtsezko adostasuna lortuko genuke hitz, osokoen bilkuran eztabaidatzeko oso hitz gutxi geldituz, eta horrek, zer esanik ez, prozedura arindu egingo liguke. Prozedura bizkorrago horretarako, proposamen zehatza aurkeztuko genuke martxoko bilkurarako, P. Salabururekin mintzatu ondoren.

Pasa gaitezen Dialektologiara. Dialektologian EHHAREN lehen tomoa, behingoz, atzerapenak atzerapen, azkenean aterako da eta ateratzen denerako, agian, beste erronkarik izan dezake, beste eginkizunik. Hau ere estrategikoki ikusi beharko da, agian, ez Hernanin, baina bai geroago.

* * *

Bigarren eta laugarren batzordera pasatuko gara eta apropos bikote berean jartzen ditugu Gramatika eta Onomastika, Onomastika eta Gramatika. Bistan da Hizkuntza Akademia batentzat garrantzizkoena Gramatika dela. Badirudi, Euskal Gramatika Orokorra lanean hasten bada, eta horretarako giza baliabideak ziurtatu, aurrerapauso estrategiko handia egingo duela Euskaltzaindiak. Baina, era berean, Onomastika batzordeari bere garrantzia eman behar zaio eta Akademiak ematen ez badio ere, gizarteak, erakundeek, maila

guztietako administrazioek ematen diote, eta hizkuntza normalizatu ez den baten kasuan, are gehiago. Orintsu azaroan Bartzelonan argi ikusi dugunez, hiru Akademiok Onomastika batzorde bana dugula, eta galego-katalanek horri garrantzia handia emanda gainera. Espainiakoak ez du, ez baitu horren beharrik, Estatuaren poderioz XIX. mendeaz geroztik, arlo hori oso ondo normalizatuta daukalako. Zer esanik ez Frantziak, dena hizkuntza bakarreko Onomastikan «normalizatua». Baina beste hiru hizkuntza ez normalizatuek, ordea, Onomastika alorra zaindu behar dute. Are gehiago, Katalunian sortua dute, duela zenbait urte «*Oficina d'Onomàstica*» batzordearen aldamenearn, bai Generalitat-ak eta bai gainerako administrazioen beharritaneie erantzuteko. Bi filologok osatua, denbora osoz, horiez gainera, administrari baten laguntza ere izanez.

Ez guke aiantzi behar, bestalde, hizkuntzaren normalkuntzarako berebiziko pisua daukala hizkuntza paisaia edo ingurunek. Horrek, nahitaez, Onomastika, Toponimia eta errotulazioaren eragina dakar eta bide horretan, zer esanik ez, irizpide argi eta ziurrak ematea Euskaltzaindiari dagokio. Euskararen kalitatea ere hortxe dago, deman.

* * *

Ehundaka eta ehundaka kontsulta egiten zaizkio gizarte orokorretik Euskaltzaindiari Onomastikako alor desberdinez, dela ponte izen, deitura, toki izen, kanpo izen eta abar. Honetaz, taktika aldatu beharra ikusten dugu, alegia, batzorde baten aldeko joerak erabateko gorakadak, ondorio desorekatu batzuk ere ekarri dizkigu eta, azken batean, Erakundea bera ateratzen zaigu gal-tzen.

Bide berean, gure ustez, Euskaltzaindiak begi-belarri zoliagoak eduki beharko lituzke gizartearen premietarako, eta epe ertain eta luzerako proiektu nagusiak horregatik baztertu gabe ere, gure gizartean eragin zuzen eta berehalakoa izan dezaketenak ere bultzatu beharko lituzke (merkatalgo izendegi berrikusia, neotononimo eta seinalizazio generikoa: *Balcón de Bizkaia*, *Puente Colgante*, *parque tecnológico*, *polígono industrial*, *área de servicio*, *área de descanso*, *centro comercial*...) ikusten eta entzuten diren falta nabarmenei buruzko noizik behinkako oharrak (agian prentsa-artikulu didaktikoen bidez, gogoan izan *Avui*-ren behialako *El llenguatge* hura), ez baita txantxetako geure kale-bideetan euskaraz ageri diren seinala eta idazki gehienak gaizki agertzea, gure hizkuntzaren erabilera publikoa oinarritzko optimizaziotik argi-urte-etara egonez.

Hemen, teknologia berriak laguntzaile bikainak gerta dakizkiguke zabal-tze lan horren eramaile lehenetsi gisa. Ideia moduan, Euskaltzaindiaren web orrian eztabaida forum bat sor daiteke, JAGONET zerbitzuak erakusten dituen kezak eta arrangurak oinarri hartuta. Itzultzaileek berek ere badute, dagoe-neko, halako tresna bat eta, antza denez, onuragarri zaie.

Lehendakariak, apaltasun eta irekiera handiz, bere proposamen politiko-rako oraintsu egin duen bezala, ez legoke gaizki euskalgintzan diharduten erakunde, elkarte, talde eta enpresei iradokizunak egiteko deia ere egitea, gizartearen kezka jasotzeko prest gaudela agertzeko.

Bada ondo kontuan hartu beharko genukeen beste premisa bat: gutariko inor ez da orojakile, eta gai batean edo bestean ezjakinak izaten garela. Euskaltzaindia inor baino hornituago dago filologoz eta unibertsitarioz, eta hori izugarrizko aurrerapausoa da, baina literatura gainerako arloei dagokienez, aski desorekatuak ageri zaigu. Kontuan izan behar dugu, alde batetik, gizarteko gainerako arazoekin erkatuz gero, euskal tradizioan eliza gaiek % gehien-goia izan dutela oraintsura arte, elizgizonak izan baitira, pastoralgintza arrazoiengatik eta, euskara gehien landu dutenak, eta merezimendu hori guztiok aitortu behar diegu. Halere, horrexegatik, beste gai batzuk, desorekatuak aurkitzen dira, segur aski sekularren erruagatik. Eta hori euskaldun zaharrek ondo dakite. Horrexegatik, literaturan islarik izan ez dutelako aitzakiaz, guk ezin geniezaioke uko egin gure etxeko, eskualdeko euskara patrimonialari, eta zenbait gaitan ahozko edo beste bidezko aberastasun hori ere euskara batuan txertatu eta integratu beharra dakusagu.

Hortxe dugu adibidez, foru ondarea: iturri horretatik nafarrek eta bizkaitarrok forutasuna galdu ez dugulako –Aiaran ere bai, baina zoritxarrez hor euskara ez da kontserbatzen– mendez mende hainbat hitz gorde, erabili eta erabiltzen dugunok, etxean ikasiak gainera, horietako asko frankismo garaietako udal administrazioan ere bizi-bizirik egonak ahozko hizkera gisa bederen, eta hori ezin daiteke galtzen utzi, are gutxiago, euskara administrazioetan ofiziala den heinean. Zoritxarrez, ondare hori –orain arte erabili ditugun irizpideekin behintzat– ezin daiteke corpuscan atzeman. Gure ohiko liburuetan horien aipamenak, gutxi, bakanak edo bakarrak direlako. Horregatik, gure corpusetan agertzen ez direlako arrazonamenduaz –gure egoera bereziagatik ezin ager zitezkeelako, hain zuzen– altxor hori baztertu nahi izatea errakuntza nazional historikoa litzateke.

* * *

Bada beste batzorde bat ere, iraunkorra gainera, hots, Literatura. Halere, askotan, bigarren edo agian, hirugarren mailakotzat jo dute erakundeek eta inoiz Euskaltzaindiaren barruan ere bai. Oraindik batzuk oroitzen gara, nola Eusko Jaurlaritzako arduradun batek, tertulia irizten zion Literatura batzordeari. Herri Literaturak bi urtez behin egin dituen Jardunaldiak, balio estrategikorik ez balute bezalaxe, edota Literatura Ikerketa taldeak aspalditik lantzen diharduen hiztegiak, baliorik ez balu bezala. Hemen ere, **bostak bat** esan behar genuke, eta bostak begirune berberaz eta Administrazioa ez da nor horretan balioak neurtzeko. Besterik da, jakina, Administrazioen beharrianetarako, batzorde baten egitasmoak, lehentasuna izatea. Baina, akademikotasunean guztiak berdintzat jo behar ditugu.

Jagon Sailak hasieratik balio estatutarioa izan du, eta hori Baionako XI. Barne Jardunaldietan *Jagon* Sailaren historiaz egin genuen txostenean garbi ikus daiteke. Horregatik, une honetan, bere eginkizun estrategikoak kontuan izan behar ditugu. Esate baterako, F. Franco hil geroztik, 1976tik, Nafarroan, Araban, Iparraldean, Euskal Autonomia Erkidegoan, nahiz besteetan Euskaltzaindiak egin dituen Adierazpen guztien bilduma, laster *Jagon* sortan argitaratuko dena. JAGONET, Miren Azkarateren garaian sortua eta, une honetan, EROSKI eta EUSKALTELi esker, martxan diharduena, erdizka bederen, zorritzarrez ez baitugu egun osoz pertsona bat, babesteko adina baliabidez. Bestetik, Euskaltzaindia ezin daiteke teknologia berrietatik urrun izan, eta arlo hau bereziki *jagon* beharra daukagu, berehala atzeraturik gelditzeko arriskupean.

Corpus batzordea halako adierazpen baten formulazio bidean dabil lanean aspaldian, euskara-batua/euskalkiak bikotearen arteko harremanak argitu nahian. Datozen bi urteotan horixe du eginkizun pisuzkoena. Lehen idaztaldia datorren hilerako onduko du. Horren ostean, berehala etorriko da gizarte eragileei hura igortzea, horien ekarriak ere batzeko. Jarraian osoko bilkurak horren berri izango du, Euskaltzaindiak gai honetan daukan doktrina gaurkotua izan dadin. Asmoa da Euskaltzaindiaren betiko iturrietan dagoena bildu eta egoera berriaren arabera (hizkuntzaren ofizialkidetasuna, euskararentzako esparru berriak...) egokitzea.

Beraz, bigarren artikulua kontuan izanik, *Jagon* Saila bi sailetariko bat da, baina Barne Erregelaren 34. artikulua honetara dio:

«Ordezkaritzei dagokie, neurri handi batean, –nahiz eta ez berei bakarrik–, bakoitzak bere eskualdean, Euskaltzaindiaren bi Sail nagusietarik baten arta izatea: hots, hizkuntzaren *Jagon* Sailarena (**Arautegiaren 2. Art.**)»

Beraz, arta hori, lurraldez lurralde, kontuan izan beharreko zerbait dugu, urte batzuetan pixka bat utzia izan bada ere.

* * *

Egiturazko batzordeak hiru dira. Bat, Argitalpenena, Eusko Jaurlaritza eta Diputazioek eskatuta, duela 18 bat urte egin zen, Arantzazun moldaturiko plan estrategikoaren arabera, hain zuzen. Euskaltzainburiak, Jose Antonio Arana Martijak, Ricardo Badiolak, Juan Jose Zearretak eta Jose Luis Lizundiak pres-tatu, ondoren Zuzendaritzak onartu, gero hileroko batzarrean kontu eman eta azkenean eskatzaileengana bidali zen. Halere, gaur da eguna Herri Aginteen-gandik ez duguna erantzunik jaso.

Argitalpen egitasmoak, Akademia batentzat garrantzitsuak dira, estrategi-koak esango genuke. Izan ere, biltzar, jardunaldi, arau, irizpen, ikerketa, adierazpen eta erabakiak argitaratzen ez badira, zertarako da Akademia? Oraindik, Herri Aginteen hitzarmenetan *Euskera*, *Argitalpenen Katalogoa* eta *Oroitidazkirako* finantziazioa besterik ez dugu sartzen aurrekontu arruntetan. Gainerako argitalpenetarako babes-laguntzak, banan-banan bilatu behar izaten ditugu. Jainkoak daki, zenbat ordu sartu ditugun argitalpenen babes bila, gobernuz go-

bernu, diputazioz diputazio, udalik udal edo kutxaz kutxa, banan-banan eta inoiz, gainera, guztiak batera.

* * *

Egiturazko egitasmoetan, Azkue Bibliotekaren garrantziaz, gure liburu-arxi-boaren ondoreaz, behin baino gehiagotan entzun diogu Jose Antonio Arana Martijari kexu samina, ez administrazioengatik, baizik eta Euskaltzaindi barruko batzuegatik ere. Babes faltan daukagu, halaber, Zuzendaritzan onartu eta gero *Lamiategi* egitasmoa. Beharbada, proiektu ere hau birformulatu beharko litzateke eta beste norabait, babes bila jo, adibidez, Industria Sailera. Ulertezina baita Jaurlaritzako Sail horretatik, berrikuntza teknologikoak direla medio, zenbait enpresa eta elkarte pribatuk dirutzak ateratzea, Euskaltzaindiarentzako babesik ez den artean.

* * *

Bada, orobat, egiturazko batzordeen artean hirugarrena, hain zuzen ere, Lege-ekonomiarena. Horren zeregin bereizia eta lehenetsia da, une honetan, Euskaltzaindiaren aldeko Fundazioa aurrera ateratzea. Horretan dihardu. Tamalez, oraindik ere ez du Euskaltzaindiak jaso zenbait erakunde publikoren diru-zuzkidura eta erabaki administrazioa, eurak ere partaide izateko egitasmo horretan. Hala ere, aurki izango dugu horren berri zehatza. Nolanahi ere hurrengo bi urteotan legez sortu eta nortasuna eman beharko diogu Fundazioari. Bestaldetik, gogoratu beharra dago, gure Akademiaren biziraupena jokoa dagoelako, gero eta harreman ziurragoak ondu behar direla Hego eta Ipar Euskal Herriko Euskaltzaindien artean. Izan ere, status juridikoa desberdina dute bata eta besteak. Horrek ez du eragozten, hala ere, batera ibiltzea eta diru-kutxaren batasuna gordetzea, batzuen eta besteen arteko gaizki ulertzeak eta irizkeriak egon ez daitezzen. Bide beretik dator, gauzak urrunegi eraman gabe, bi Euskaltzaindi juridiko horien artean halako elkarte formulak asmatzea, kasurako, Interes Ekonomiko Elkarte baten osaera, Euskaltzaindiak, horren bitartez, tresna erabilgarria izan dezan Europako zirkuituetan.

* * *

Azkenik eta, XIII. Barne Jardunaldiari begira, esango genuke, ez digutela Hernaniko jardunok denborarik emango, gai guztiak banan-banan eta osoki aztertzeko. Agian, hobe litzateke, heldu den hilabeteetan, batzorde batzorde, garatzea. Adibidez, hasi Hiztegi gintza, gero, beste *Iker* sailekoekin segi, *Jagon* Saileko bat edo *Egiturazkoak* tartekatuz. Bitartean, Hiztegi Batua atzeratuko luke horrek? Ez, baldin eta Hiztegi Batuari bestelako prozedura ematen bazaio. Gainera, Euskaltzaindiaren egiteko bakarra ez da araugintza, eta araugintzan ere ez da Hiztegi Batua dugun zeregin bakarra. Euskaltzainburuak, egoitzan, oraintsu egindako Zuzendaritza bilkura batean, aipatu zuen arratsaldeak gorde daitezkeela horretarako. Beraz, lasai eta patxada batean hartu beharko genuke gai hau, bidean gelditu barik baina.

**EUSKALTZAINBURUA
GASTEIZKO LEGEBILTZARREAN**

EUSKALTZAINBURUA LEGEBILTZARREAN

Vitoria/Gasteiz, 2002-XI-12an

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

Diputatu andere eta jaunak.

Juan Maria Atutxa Mendiola Lege Biltzarburuak gomitaturik, hemen nago zuen aitzinean, hain zuzen Europako gaietarako eta kanpo harremanetarako batzordekideen aurrean. Jakin ezazue ohore handi bat dela enetzat eta Euskaltzaindiarentzat iritzi emaile gisa hemen agertzea, horrek erakusten duela zer estimua daukan Eusko Legebiltzarrak Euskaltzaindiarentzat. Eskertzen zaituztet, beraz, bihotz-bihotzez.

* * *

Nizan, 2000ko abenduan onartua izan zen *Europa Batasuneko oinarri-ko eskubideen araudia*, garrantzi haundiko idazkia eta denbora berean Europa Batasunak erakusten zuen prest zagoela idekitzera, 15 estatuetarik 25etara joaiteko xedea hartzen zuela. Nizako itunaren ondotik gehigarriko 23. adierazpenak (2001eko otsailaren 26ekoa). Hauxe dio bere 3. atalean:

«Zabaltzearen bidea idekirik beharrezkoa da eztabaida zabal eta sakona Europa Batasunari buruz.»

7. atalak dio ere aurre-lan horiek bukatu-eta bertze itun baten beharra narbituko dela.

Eztabaida horretara gomitatua da Euskaltzaindia eta horretarako nago hemen.

Nola ikusten dudan zabaltze hori erranen dizuet, baina baldintza batekin, ikuspegi hori euskaltzain gisa ematen dudala eta, beraz, hizkuntzaz bereziki mintzatuko naizela.

* * *

I. EUSKALTZAINDIA AHOLKU EMAILE

Alabaina, dakizuen bezala Euskal Herriko lau diputazioek sortu zuten Euskaltzaindia 1918an, hain zuzen Nafarroako Foru diputazioak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundiekin batera. Frankismoaren garaia bukatu zelarik, Franco-ren heriotzaren hiru hilabeteren buruan, 1976eko otsailaren 26eko Errege Dekretuaren bitartez Erret Akademia bilakatu zen aitortzen zitzaizalarik Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako probintzietara hedatzen zela. Geroztik, 272/2000 Errege Dekretuak berretsi du aurreko hori eta Dekretuaren 1. artikulua hiru helburu hauek jarri ditu, besteak beste Euskaltzaindiaren ardurapean:

- Hizkuntza eskubideak zaintzea.
- Euskararen erabilera sustatzea.
- Hitzunek erabiltzeko moduko hizkuntza lantzea, euskara maila guztietara zabaltzea eta guztion komunikabide izan dadin.

* * *

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuak (1979-XII-18) hauxe derasa bere 6. artikuluko 4. atalean:

«Euskarari dagozkionetan, Euskaltzaindia izango da erakunde aholku emale.»

Nafarroan, 18/1986 Foru legeak aipatzen du Euskaltzaindia, hauxe diolarik 3. artikulua 3. atalean:

«Hizkuntz arauen ezartze ondoriatarako Euskaltzaindia izanen da erakunde aholku emaile ofiziala eta berari eskatuko dizkiote botere publikoek aurreko atalean ezarritakoa betetzeko beharrezko zaizkien txosten eta diktamenak.»

* * *

Iparraldean, berant balin bada ere, iduri luke gauzak aldatzen ari direla. Frantses Gobernuak ezagutu du Euskaltzaindia «onura publiko aitormendun erakunde» gisa 1995eko otsailaren 20eko dekretuaren bidez. Gehiago dena, 2000.urteko abenduan, Akitaniarekin eta Pirineo Atlantikoetako Kontseilu Orokorrearekin sinatu duen Hitzarmen berezian emaiten zaio Euskaltzaindiari diru-laguntza bere iker-lanetarako. Adibidez, sinata diren hitzarmenetan hona zer derasan Kontseilu Orokorrekoak:

«Pirineo Atlantikoetako Kontseilu Orokorrak:

- Gogoratzen du euskal hizkuntzaren eta kulturaren iraunpenari eta garapenari emaiten dien garrantzia.

– Aitortzen du Euskaltzaindiari dagokiola, batere dudarik gabe, euskararen grafia, araudi, hiztegi, hizkuntza sorkuntza eta tresneria bideak finkatzea, hizkuntza mintzatuaren erabilerak direnak direla.

– Azpimarratzen du bere hizkuntza politikaren alorrean Euskaltzaindiaren ganik igurikatzen duen lankidego garrantzitsua.»

Beraz, ezagutua delarik Euskal Herri osoan aholku emaile gisa badu Euskaltzaindiak zer erranik hizkuntz alorrean.

* * *

II. ZERTAN DEN EUSKARA

Azter dezadan orain zertan den euskara Euskal Herri osoan.

Konparatzen balin baditut Frantziako Lege Nagusiaren 2. artikulua:

«La langue de la République est le français».

Eta Espainiako Lege Nagusiak diona bere 3. artikuluan, 1. atalean:

«Gaztelania da Espainiako Estatuaren hizkuntza ofiziala, espainol guziek jakin behar dute eta erabiltzeko eskubidea dute». Ikus daiteke berdintsuak direla, baina frantsesa motz gelditzen balin bada, Frantziako beste hizkuntzak ez aipatuz, espainolak aldiz, baditu beste bi atal diotenak, bigarren atalean:

«Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien Erkidego Autonomoetan, berauen Estatutei dagozkien eran».

Eta hirugarren atalean:

«Espainiako hizkuntza moeta desberdinen aberastasuna kultur ondare bat da eta hura babes eta begirunegarri izango da».

Aise ulertuko duzue nolaz frantses hiritar naizen honek miresten duen espainol Lege Nagusiaren izpiritu zabala.

* * *

Hortik dator Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuak diona bere 6. artikuluan:

1. atalean: «Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera eta guztiek dute bi hizkuntzak ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea».

2. atalean: «Komunitate Autonomoko Erakunde amankomunek Euskal Herriko egoera sozio linguistikoaren ñabardurak kontuan izanik bi hizkuntzen erabilpena bermatuko dute, beroien ofizialtasuna erregulatuz eta beroein ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak eta medioak erabaki eta baliaraziko dituzte».

3. atalean: «Hizkuntza dela-eta ez da inor gutxietsiko».

Azpmarratu nahi dut bereziki 3. atal hau, erakusten duelakotz hizkuntza, ondarea izanez, denen ondarea dela, eta ez dela hizkuntzaren gatik nehor bazterten, are gutiago gutxiesten edo arbuiatzen.

Euskararen erabilpena araukatzeko oinarrizko legea da enetzat garrantzi handikoa. 10/1982 azaroaren 24koa. Alabaina, errepikatzen du Estatutuak derasana 6. artikuluan:

«Euskara Euskal Herriaren berenezko hizkuntza eta gaztelaniarekin batean hizkuntza ofizial izateak ez die, inola ere, bata gatik edo bestea gatik hartaz baliatzen ez diren herritarren eskubideei kalterik ekarri behar...».

Gero, azaltzen ditu, herritarren eta herri-agintaritzaren eskubide eta egin-beharrak hizkuntzaren alorrean.

Eskubideak dira: hizkuntza ofizialak hitzez nahiz idatziz ezagutzeko eta erabiltzeko ahala bai administrazioarekin edo edozein erakunderekin, ikasketetan, komunikabideetan, politikan, sindikatetan, edozein bilkuratan... orain bertan egiten dudana bezala.

Agintarien erantzuna eta eginbidea da bai:

- Administrazioan (6. art. 14. barne).
- Irakaskuntzan (15. art. 21. barne).
- Komunikabideetan (22. art. 25. barne).

Euskararen gizarte erabilpena eta erakunde alorreko beste alderdi batzuk garatzen direla 26. art. 30. barne.

Ez da berdin Nafarroan, berreskuratze eta hobetzeari buruzko lege organikoak azaltzen duela gaztelania dela Nafarroako hizkuntza ofiziala eta euskarak hizkuntza ofizialtasuna izango duela Nafarroako lurralde euskaldunetan (9. art.).

Euskararen Foru Legeak (1986eko abenduaren 15koa) hiru eremutan zatitzen du Nafarroa:

- Eremu euskalduna.
- Eremu mistoa, Iruñea barne.
- Eremu ez euskalduna.

Bakoitzean azaltzen direla herritarren eskubideak.

Berrikitan, 2002ko urriaren 30ean, Nafarroako Euskararen Aholku Batzordeak onartu du dekretu berria, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duena.

Iparraldea gelditzen da umezurtz. Egia erran, aspaldidanik hasi da frantses hizkuntza politika, François Lehenak 1539.an Villers-Cotterets-en hartu zuen erabaki delakoarekin, latinaren ordeztu jarritz frantsesa Administrazio eta bereziki justiziako hizkuntza bezala. Frantses iraultzak gogortu zuen erabakia bertze hizkuntzen kontra jotatz, harentzat frantsesa zela hizkuntza bakarra, herritar guztien biltzaile, Frantzia batu eta ezin zatituzkoaren finkatzaile. XIX. mendearen eta XX. mendearen lehen erdian eskola publikoa eta soldadogoa izan dira eragile suhar eta kartsuak.

Nahiz Lege Nagusiko 2.artikuluan sartzen den frantses hizkuntza lehen aldikotz hizkuntza bakar gisa, denbora berean euskara sartzen da irakaskuntzan D, B ereduetan % 21ra helduz, Estatuak pagatzen dituela ikasleentako irakasleak, B ereduaren hedatzen delarik eskola publikoetan eta pribatuetan, Unibertsitatean ere euskal filologian, Baionan, behar diren diploma ofizialekin, Bordeleko eta Pauko unibertsitateetan 2. hizkuntza gisa; aldiz guti erabilia da irratian (ordu bat egunero), kasik batere telebistan (minutu bat egunero) eta batere Administrazioan, salbu bide seinaleak elebidunak diren Lapurdin, Baxe Nabarren/Nafarroa Beherean eta Zuberoan. Horretan gaude Iparraldean. Bildu zelarik Miarritzen Euskaltzaindia 1994eko ekainean, galdegin zion frantses gobernuari onart zezan euskara hizkuntza ofiziala izan zedin Iparraldeko euskal hiru probintzietan. Erantzunik ez zuen hartu agintarien ganik.

Argi dago beraz Euskal Herriak ezagutzen dituen hiru eremuetan euskarak ez duela estatus bera, ofiziala Euskal Autonomia Erkidegoan, ofiziala bakarrik eremu euskaldunean Nafarroan, ezer ez Iparraldean. Euskarak daukan egoera beste hizkuntza batzuk badukete ere Europan, orotara 40 bat baitira gutxi erabiliak, haien artean euskara dela zaharrenetarikoa, zaharrena ez bada.

* * *

III. EUROPA MAILAN

Oraingo Europan, 15 estatuk egina, bada 40 milioi bat jende hizkuntza xume horiek erabiltzen dituztenak. Biharko Europan 10 bat estatu sartzeko prest direnak, zenbat milioi gehiago izanen dira ? Idek ditzagun begiak eta kontuan har dezagun hizkuntzei dagokienetan Europa berri horrek erakusten duela aurpegi berezi bat, aniztasunarena.

Aniztasuna jendeetan, aniztasuna kulturetan, aniztasuna hizkuntzetan. Behar du atxiki aniztasun hori, historiak eman baitio eta kultura edo hizkuntza bat altxor paregabe bat baita.

Hortakotz argi dago Europako hizkuntza guziek merezi dutela hizkuntza politika berezia hiru helburu finkatuz:

1. Errespetua: Bakoitza, edozein izan dadin, gutxi erabilia ala ez, errespetatua izan dadila eta ez arbuatua, hala gertatzen delarik non-nahi eta askotan.

2. Errespetatzen balin bada behar da gerizatua izan, erabilia familian lehenik, eskolan gero, ukan dezan bizi luze bat, ez dadin eror hiltzorian.

3. Errespetatu eta gerizatu baino gehiago behar da bultzatu, behar zaio eman merezi dituen baliabideak, izan ditzan diru baliabideak edo giza baliabideak.

Egia da Europa Batasuneko oinarritzko eskubideen araudiak diola bere 22. artikuluan Europa Batasunak errespetatzen duela aniztasuna erreligionetan, kulturetan eta hizkuntzetan (Nizan, 2000ko abenduaren 7an onartua). Ene us-tez ez da aski, beharrezkoa baita azaltzea ez direla bakarrik estatuen hizkuntza ofizialak, baina bai gutxi erabiliak diren hizkuntza guztiak.

Urrats batzuk eginak izan dira, hala nola Europako lurraldeetako edota gutxiengoen hizkuntzen Arau nagusia, dotzena bat Estatuk –Espainia barne– sinatu eta berretsi dutenak, Frantziak aldiz izenpetu duela bakarrik eta ez berretsi. Urrats bat gehiago behar da eman eta deitzen da ofizialtasuna edo hobeiki erran koofizialtasuna.

Espainia sartu da bide horretan bere Lege Nagusiari esker bere 3. artikuluan eta bereziki 2. eta 3. ataletan, aipatu ditudanak lehenago. Irakur dezadan berriz 3. atala:

«Espainiako hizkuntza desberdinen aberastasuna kultur ondare bat da eta hura babes eta begirungarri izango da.»

Europa Batasunak aldarrika dezake gauza berbera azpimarratuz aniztasunarekin doazela *aberastasuna*, *ondarea*, *babesa* eta *begirunea*.

Begiruneak edo errespetuak adierazten du beste printzipio bat: ez dela deus baztertzen, ez hizkuntzarik eta ez jenderik ere hizkuntzaren gatik. Hemen nahi nuke gogorazi Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua bere 6. artikuluan eta 3. atalean:

«Hizkuntza dela-eta ez da inor gutxietsiko».

Hitz hauek ere Europa Batasunak har litzake eredu gisa, zuzenki sartzen baita giza eskubideen adierazpen orokorrean.

Badakit koofizialtasuna aipatzen eta gomendatzen dudalarik hizkuntza gutxi erabilientzat ez direla enekin ados izanen jende asko, bereziki Frantzia, hain indartsua delakotz jakobinoen ohitura. Alta, beste estatu batzuetan hala

gertatzen da, Espainian bereziki, ahantzi gabe Belgika, Britainia Haundia, Italia eta abar...

Hain zuzen, frantsesek aldarrikatzen dutelarik beren lema: askatasuna, berdintasuna eta anaitasuna ez dira konturatzen edo ez dute konturatu nahi hizkuntza baten ofizialtasunak sortzen duela askatasuna hitzunarentzat, eskubidea ere eta beraz, askatasuna hizkuntzaren erabiltzeko hitzez nola idatziz Administrazioan eta, eman dezagun, bizitzeko garai guztietan, 1982ko euskararen legeak salatzen duen bezala.

Berdintasunari begira, oroitarazten dut Europa Batasuneko ministroen kontseiluak erabaki duela 200leko azaroaren 29an:

«Europako hizkuntza gutiak berdinak direla balioz eta duintasunez kulturaren aldetik bereziki, eta Europako kultura eta zibilizazioan sartzen direla osoki».

Denok badakigu badirela gehiago erabiliak diren hizkuntzak ingelesa, frantsesa, gaztelania, alemana, italiara eta abar... literatura aberats eta ederra sortu dutenak eta badirela beste batzuk gutxiago erabiliak, euskara adibidez; baina on da europar guztiek jakin dezaten hizkuntza guztiek ahal berdinak dituztela, bakoitzak bere historia daukala, baina printzipioz denak berdinak direla balioz eta duintasunez. Koofizialtasuna jokatzeko da berdintasunaren alde.

Anaitasuna berdintasunaren seme edo alaba da. Berdintasunak ez du onartzen baztertzeara, ukatzeara, mespretxatzeara, arbuiatzeara; koofizialtasunak sort dezake eremu berean erabiltzen diren bi hizkuntzen arteko anaitasuna. Euskaldun batek ez dezake ahantz Etxepareren oihua *Kontrapaseko* azken errepikan idazten zuelarik:

«Heuskara, jalgi hadi dantzara».

Orduan gomitatzen zuen euskara hizkuntza guztien dantzara, gomita berbera egin baitezake Europak bere baitan dituen hizkuntza guztientzat, koofizialtasuna lortuz denontzat.

Ez da dudarik holako hizkuntza politika baten bultzatzeko gehiengo kalifikatuan behar dela jokatu, ukatuz edozein estatuk, eza emanez, dena suntsitzen duela. Datorren itunak ezabatu behar du aho bateko erabakia eta ofizialdu gehiengo kalifikatua.

* * *

Ikusi duzuen bezala hizkuntzez bakarrik mintzatu naiz, hizkuntza baita Euskaltzaindiaren ardurapean, zainduz eta bultzatuz euskara. Ez naiz beste alorretan sartu ez bainaiz trebe haietan. Egin ditudan komentarioak eta oharak Europa Batasuneko oinarritzko eskubideen araudiari buruz eginak izan dira eta biharko Europari begira.

Giscard d'Estaing presidentearen ardurapean batzorde bat ari da Europa-ko Lege Nagusiaren apailatzen. Berak, berrikitan (ikus *Le Monde*, 2002ko urriaren 30ekoa) aurkeztu du Europa Batasunaren Lege nagusiaren ekei edo aitzin idazki bat bere adar nagusietan. Dirudenez 6. artikuluan sarraraz leza-ke Europa Batasuneko oinarritzko eskubideen araudia, Nizan onartua. Hala ere on liteke araudi horren garatzea euskarak, bretoierak, okzitaniera, katalanerak, kortsikerak... ukan dezaten Frantzian, euskarak, galegoak eta katalanerak daukaten koofizialtasuna Espainian. Hizkuntza gutxi erabili guztiek ukan dezaten garatzeko eta loratzeko ahala, bakoitzak bere aldetik eskainiz berea Europa Batasunari. Biharko Europan denak joan daitezela elgarrekin eta elgar sustatuz orkestra baten pare.

Hau da ene ametsa.

EUSKALTZAINDIAREN 2003KO EGUTEGIA

Laudion, 2002.eko abenduaren 20an

*J. L. Lizundia,
idazkariorde-kudeatzailea*

Kardaberazen jaiotzaren hirugarren mendeurrena betetzen dela eta, otsailaren 27tik aurrera, haren omenezko ekintzak izango dira Hemanin: 27an, Hernaniko Udaletxean ekitaldi berezia egingo da eta 28tik martxoaren 1era bitartean, Erakundearen XIII. Barne-Jardunaldiak egingo dira.

Gero, azaroan, Deustuko Unibertsitateko Donostiako kanpusean Kardaberazen omenezko jardunaldiak burutuko ditu Akademiak. Hauexek dira bertan izango diren hitzaldiak eta komunikazioak:

- Patxi Altuna eta Rosa Miren Pagolaren Hernaniko omenaldiko hitzaldiak.
- «Kardaberaz eta hizkuntza»: Bittor Hidalgo.
- «Kardaberazen terminologiaz»: Elixabete Perez Gaztelu (komunikazioa).
- «Kardaberazen hizkuntza ideiak»: Jose Ramon Zubiaur.
- «Erretorika Euskal “elegantzia” baterako urratsa»: Josu Bijuesca.

* * *

Federico Baraibar euskaltzalearen lanak berrargitaratu eta haren omenezko ospakizuna antolatu, urrian. RAE-ko akademiko izanda, Euskaltzaindiaren hastapenetan euskaltzain oso izateko hautagaietako bat izan zen, Arabaren ize-nean, baina 1918an hil egin zen. Arabako Diputatu Nagusi eta Gasteizko alkatea ere izan zen. Hori dela eta, Euskaltzaindiaren asmoa da Probintziaren Jauregian osoko bilkura egitea.

* * *

2002an, Manuel Intxauspe zuberotar euskal idazlearen mendeurrena bete da. Hori kontuan hartuta, ekainean edo uztailan bilkura egingo da, seguruenik Atharratzen.

* * *

Juan Bautista Merino Urrutia euskaltzain ohorezko eta ikerle errioxarren omenezko jardunaldiak. Laminiturri, Logroñoeko Elkarte Euskaltzalearen eskariz, VI. Onomastika Jardunaldiak egingo dira. Honetarako espero dugu haien antolaketan Errioxako Gobernuak «Instituto de Estudios Riojanos» Erakundearen eta Errioxako Unibertsitatearen laguntza izatea.

* * *

Beraz xehetasun eta proposamen hauek kontuan izanda, 2003ko urtean data erreserbak eginez, eta gainontziekoak txandaturaz, lau Bilbon, egoitzan, lau Gipuzkoan eta beste herrialdeetan bana, horrela aterako litzateke behin-behineko 2003ko egutegi akademiko nagusia:

- Urtarrilaren 31n, hileroko bilkura arrunta, egoitzan.
- Otsailaren 27 eta 28an, Kardaberaz III. mendeurrenaren hasiera eta martxoaren 1ean, hileroko bilkura eta XIII. Barne Jardunaldiak, Hernanin.
- Martxoaren 27an, hileroko bilkura arrunta, egoitzan.
- Apirilaren 25ean, Federiko Baraibarren ospakizuna eta hileroko bilkura, Gasteizen.
- Maiatzaren 30ean, hileroko bilkura arrunta, Donostian.
- Ekainaren 27an, Manuel Intxauspere mendeurrena eta hileroko bilkura, Atharratzen.
- Uztailaren 18an, hileroko bilkura arrunta, egoitzan.
- Irailaren 18an, Merino Urrutiaren omenez, VI. Onomastika Jardunaldiak, Errioxan.
- Irailaren 26an, hileroko bilkura, Donostian.
- Urriaren 24an, *Nafarroa Oinezarekin* batera, hileroko bilkura, Irunberri edo eta Federiko Baraizarren ospakizuna eta hileroko bilkura arrunta, Gasteizen.
- Azaroaren 27 eta 28an, Kardaberaz omenez Jardunaldiak, eta hileroko bilkura, Donostian.
- Abenduaren 19an, hileroko bilkura arrunta, egoitzan.

* * *

CALENDARIO DE EUSKALTZAINDIA PARA 2003

Tercer centenario del nacimiento de Kardaberaz. Con ese motivo, el próximo 27 de febrero se le tributará un homenaje, en el marco de un acto público que se celebrará en el ayuntamiento de Hernani. Con posterioridad al

mismo, del 28 de febrero al 1 de marzo, Euskaltzaindia realizará en esta misma localidad sus XIII Jornadas Internas.

En noviembre, jornadas en torno a Kardaberaz, en el campus de Donostia de la Universidad de Deusto. Este es el programa de las mismas:

– Conferencias de Patxi Altuna y Rosa Miren Pagola, pronunciadas en el homenaje de Hernani.

– «Kardaberaz eta hizkuntza»: Bittor Hidalgo.

– «Kardaberazen terminologiaz»: Elixabete Perez Gaztelu (comunicación).

– «Kardaberazen hizkuntza ideiak»: Jose Ramon Zubiaur.

– «Erretorika. Euskal “elegantzia” baterako urratsa»: Josu Bijuesca.

* * *

Reedición de las obras de Federico Baraibar, quien llegó a ser académico numerario de la Real Academia Española de la Lengua y fue propuesto, asimismo, para ser académico de Euskaltzaindia en sus comienzos, si bien esta posibilidad quedó truncada como consecuencia de su muerte en 1918. Baraibar fue, asimismo, Diputado General de Alava y alcalde de Vitoria/Gasteiz. Euskaltzaindia tiene previsto realizar su sesión plenaria correspondiente al mes de octubre en el Palacio Foral.

* * *

Acto de recuerdo del escritor suletino Manuel Intxauspe. En 2002 se cumplió el centenario de este importante estudioso de nuestra lengua, por lo cual Euskaltzaindia tiene previsto realizar una de sus sesiones plenarias –en junio o julio– en la localidad suletina de Atharratze.

* * *

Jornadas de Onomástica y homenaje al investigador riojano Juan Bautista Merino. A petición de la asociación cultural *Laminiturri* de Logroño, la Academia celebrará el próximo mes de septiembre en la capital riojana sus VI Jornadas de Onomástica, en recuerdo a este lingüista que, además, fue académico de honor de Euskaltzaindia. Para la organización de este evento, Euskaltzaindia espera contar con la colaboración del Instituto de Estudios Riojanos, así como de la Universidad de La Rioja.

NAFARROAKO EUSKARA KONTSEILUARI

NAFARROAKO EUSKARA KONTSEILUARI

Nafarroako Euskara Kontseiluak txostena egin behar du aurretik proposatutako Foru Dekretuaren testuari buruz, eta Euskaltzaindiko ordezkariak azaldu nahi dute zein izango den euren botoa

Euskaltzaindiak ordezkariak ditu Nafarroako Euskara Kontseiluan, eta, ordezkaritza horrek dituen Erakunde-ezaugarriak kontuan hartuta, Euskaltzaindiak agerrarazi nahi du zein izango den bere botoa eta horren arrazoiak.

Ildo horretatik, Euskaltzaindiaren ordezkariak hurrengo kontu hauek azpimarratu nahi dituzte:

1. Botoa emateko orduan, izaera bikoitza bereganatzen dute:

1.a) Alde batetik, Euskaltzaindiaren ordezkariak dira. Nafarroako Foru Diputazioak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru-aldundiekin batera, Erakunde ofizial hori sortu zuen 1918. urtean. 573/1976 Dekretuaren bidez, Euskaltzaindiari Euskararen Errege Akademia izatea aitortu zitzaion. Akademia horren jarduera-eremua Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako probintzietara hedatzen da. Berriki, 272/2000 Errege Dekretuak berretsi egin du aurreko hori. Are gehiago, 272/2000 Errege Dekretuaren 1. artikulua hiru helburu hauek jarri ditu, besteak beste, Euskaltzaindiaren ardurapean:

– *Hizkuntza-eskubideak zaintzea.*

– *Euskararen erabilera sustatzea.*

– *Hiztunek erabiltzeko moduko hizkuntza lantzea, euskara maila guztietara zabaldu eta guztion komunikabide izan dadin.*

1.b) Beste alde batetik, Nafarroako Euskara Kontseilu honen kideak dira. 135/1996 Foru Dekretuak sortu zuen kontseilu hori, eta haren 4. artikulua hurrengo eginkizunak aitortzen dizkio Kontseiluari: *hizkuntza-normalizazioa*, eta *euskara erabili eta sustatzea*.

2. Euskaltzaindiari ez dagokio dekretuaren testua aztertzea politikaren edo administrazioaren ikusmiraren egokieratik, hori Nafarroako Gobernuaren eskumenekoa baita.

3. Euskaltzaindiak bere botoa eman eta bere iritzia azaltzen du, Foru Dekretu berria indarrean jartzeak Nafarroako Foru Komunitatean euskarak duen

egoerari kalte egin diezaiokeelakoan, testua dagoen-dagoenean onetsiz gero bederen.

Bide horretatik, Euskaltzaindiak haxe adierazi nahi du:

3.1. Proposatutako testuak murriztu egiten ditu Euskarari buruzko 18/1986 Legean ezarritako oinarrizko helburuak. Izan ere, testu horren hizaurreak haxe aldarrikatzen du:

«Nafarroa bezala beren ondarean hizkuntza bat baino gehiago edukitzeaz ondratzen diren Komunitateak, altxor hori begiratu eta babestera behartuak dira, baita hura hondatu eta galtzea eragoztera ere. Baina ondare horren zaintzea ezin daiteke egin, ezta behar ere, hizkuntzen arteko borroka eta gatazkaren bidez; aitzitik eta Konstituzioaren 3.3 artikulua ezartzen duenari jarraiki, errespetu eta babes berezia behar duten ondarea direla aitortuz».

Bestalde, foru-lege berberak, lehendabiziko artikuluan, hitzez hitz aipatzen ditu legearen beraren funtsezko helburuak. Horien artean, honako hauek aipa daitezke:

– *Herritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestu eta eginkor bihurtzeko tresnak zehaztea.*

– *Euskararen berreskurapena eta garapena begiratzea, bere erabilpena sustatzeko neurriak adieraziz.*

3.2. Proposatutako testuak isildu egiten ditu 135/1994 Foru Dekretuan egindako aipamen batzuk. Aipamen horiek euskara arautzeko esparruari buruzkoak dira, eta puntu hauetan labur daitezke:

– Euskara Nafarroako berezko hizkuntza da; areago oraindik, euskal guzuek, hizkuntza ofiziala da. (Hitzaurrea).

– *Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak, 1992ko ekainaren 25ean, Eskualdeetako Hizkuntzen edo Hizkuntza Gutxiagotuen Europako Gutuna onetsi zuen, eta gutun horrek konbentzio-maila du. Urte bereko azaroaren 5ean, hamaika estatu kidek gutun hori sinatu zuten; horien artean, Espainiako estatuak. Bereziki aipatzekoak dira haren 10. artikuluan administrazio-agintariei eta herri-zerbitzuei buruz jasotako gomendioak. (Hitzaurrea).*

– *Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiari dagokio Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Departamentuen arteko koordinazio organo gisa aritzea, hizkuntza plangintza prestatzeko dagokionez. Halaber, lan-kidetzan ariko da toki entitateekin eta bertzelako administrazio publikoekin, hala eskatzen badute (4. artikulua). Halaber, Nafarroako Foru Komunitateko eremu mistoan, eta, zehatzago, bertako administrazioaren zerbitzu nagusietan, administrazio zirkuitu elebidunak ezarriko dira, erabiltzaileak hala nahi duenean bere zerbitzuak euskaraz eman ahal izatea bermatzeko aski (12.3 artikulua).*


– Eremu mistoan, agiriak, inprimakiak, irudiak, oharrak, argitalpenak eta abarrekoak *elebitan idatzi beharko dira* edo *elebitako erabilerara joko da* (12, 13, 14, 15 eta 16. artikulua).

– Euskara jakitea nahitaezkoa da lanpostu jakin batzuk eskuratzeko; orobat, euskal eremutik Nafarroako beste eremuetara joateko funtzionario-lehiaketan parte har daiteke; euskara jakitea ehunekoetan balioetsi behar da, Nafarroako Foru Administrazioaren lanpostu jakin batzuk eskuratzeko eta hurrengo lehiaketetan parte hartzeko (18, 19, 20, 21, 22 eta 23. artikulua).


4. Euskaltzaindia erakunde aholku-emaile ofiziala da euskarari dagozkionetan, eta Nafarroako Foru Komunitatearen Euskarari buruzko Legeak hala aitortzen du. Euskararen Errege Akademiak berriro adierazi nahi du bera prest dagoela Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean aritzeko, baldin eta, bi erakundeon arteko harremanei esker, euskara landu eta garatu nahi bada, Nafarroako Foru Komunitateko berezko hizkuntza izateagatik dagokion mailaren arabera.

5. Aurreko ohar horiek guztiak Euskaltzaindiak egiten dituen azalpenak dira proposatutako Foru Dekretuari ezezko botoa emateko. Halaber, Euskaltzaindiaren eskaria da idazki hau bileraren aktari eranstea.

Iruñean, 2002ko urriaren 30ean.



Stua.: Jean Haritschelhar Duhalde



Stua.: Andres Iñigo Ariztegi

AL CONSEJO NAVARRO DEL EUSKERA

Explicación de voto que formulan los representantes de Euskaltzaindia al texto del Decreto propuesto para informe al Consejo Navarro del Euskera

Euskaltzaindia desea dejar constancia del sentido de su voto dadas las características institucionales que concurren en su presencia en el Consejo Navarro del Euskera.

En este sentido, los representantes de Euskaltzaindia quieren subrayar los siguientes extremos:

1. Emiten su voto en una doble condición:

– 1.a) Como representantes de Euskaltzaindia, institución oficial creada en 1918 por la Diputación Foral de Navarra, juntamente con las de Alava, Guipúzcoa y Vizcaya, reconocida por Decreto 573/1976 como Real Academia de la Lengua Vasca cuyo ámbito de actuación se extiende a las provincias de Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya, decreto que ha sido ratificado recientemente por el Real Decreto 272/2000, en cuyo artículo 1.º se le encomienda expresamente, entre otros, estos tres fines:

– *Velar por los derechos lingüísticos.*

– *Promover su uso.*

– *Trabajar en la capacitación de la lengua a fin de que ésta pueda ser medio de expresión de la comunidad a todos los niveles.*

1.b) Y como miembros de este Consejo Navarro del Euskera, al que el Decreto Foral 135/1996 por el que se creó le atribuye en su artículo 4.º las funciones tendentes a la *normalización lingüística* y al *uso y fomento del euskera*.

2. Euskaltzaindia no entra a valorar la oportunidad política o de gobierno del Decreto Foral propuesto, que es competencia del Gobierno de Navarra.

3. Euskaltzaindia emite su voto y justifica su opinión únicamente desde la perspectiva del efecto negativo en la situación del euskera en la Comunidad Foral de Navarra que puede suponer la entrada en vigor del nuevo Decreto, en base al texto propuesto.

En este sentido, Euskaltzaindia constata:

3.1. El texto propuesto modula de forma restrictiva los objetivos esenciales establecidos en la Ley del Vascuence 18/1986. Afirma este texto en su Preámbulo:

«Aquellas Comunidades que, como Navarra, se honran en disponer en su patrimonio de más de una lengua, están obligadas a preservar este tesoro y evitar su deterioro o pérdida. Mas la protección de tal patrimonio no puede ni debe ejercerse desde la confrontación y oposición de las lenguas sino, como establece el artículo 3.3 de la Constitución, reconociendo en ellas un patrimonio cultural que debe ser objeto de especial respeto y protección».

Por otra parte, esta misma ley foral, en su artículo 1.º dice textualmente que son objetivos esenciales de la ley:

– *Amparar el derecho de los ciudadanos a conocer y usar el vascuence y definir los instrumentos para hacerlo efectivo.*

– *Proteger la recuperación y el desarrollo del vascuence en Navarra, señalando las medidas para el fomento de su uso.*

3.2. El texto propuesto omite una serie de referencias que realiza el Decreto Foral 135/1994 en el ámbito de la regulación del euskera:

– Al carácter del vascuence de ser lengua propia de Navarra y de ser lengua oficial en la zona vascófona. (Preámbulo).

– *A la Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias del Comité de Ministros del Consejo de Europa, adoptada el 25 de junio de 1992, con rango de convención, por el Comité de Ministros del Consejo de Europa y firmada el 5 de noviembre del mismo año por once estados miembros, entre ellos el español, y de modo particular las recomendaciones contenidas en su artículo 10 sobre autoridades administrativas y servicios públicos.* (Preámbulo).

– Al cometido expreso de la Dirección General de Política Lingüística para actuar como órgano coordinador entre los Departamentos de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra en lo que se refiere a la elaboración de la planificación lingüística (artículo 1.º.2.c), así como su colaboración en la elaboración de la planificación lingüística de las entidades locales y otras administraciones públicas (artículo 4.º) y al establecimiento de los circuitos administrativos bilingües que garanticen suficientemente la prestación de sus servicios en vascuence cuando el usuario así lo requiera en los servicios centrales de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra de la zona mixta (artículo 12.º.3).


– *Se redactará de forma bilingüe o se tenderá a la redacción de forma bilingüe en documentos, impresos, imagen, avisos, publicaciones, etc. en la zona mixta (artículos 12, 13, 14, 15 y 16).*

– A la preceptividad del conocimiento del vascuence para el acceso a determinados puestos de trabajo, a la posibilidad de concursar desde la zona vascofona a otras zonas de Navarra, a la valoración porcentual del conocimiento del euskera para el acceso a puestos de trabajo en la Administración Foral de Navarra y para concursos posteriores (artículos 18, 19, 20, 21, 22 y 23).


4. Euskaltzaindia, como institución consultiva oficial en materia de euskera, reconocida por la Ley del Vascuence citada, reitera su disposición a colaborar con el Gobierno de Navarra desde la perspectiva de una relación entre ambas instituciones que permita el cultivo y desarrollo del euskera con el rango que le corresponde como lengua propia de la Comunidad Foral de Navarra.

5. Con arreglo a las consideraciones anteriores, Euskaltzaindia formula esta explicación de su voto negativo al Decreto Foral propuesto y solicita se incorpore este escrito al acta de esta reunión.

Pamplona, 30 de octubre de 2002.



Fdo.: Jean Haritschelhar Duhalde



Fdo.: Andres Iñigo Ariztegi

BERRIAK

**BILBAO BIZKAIA KUTXA-EUSKALTZAINDIA:
LITERATURA SARIAK**

TXOMIN AGIRRE SARIA. ELEBERRIA
TORIBIO ALTZAGA SARIA. ANTZERKIA

* * *

AITOR ARANA LUZURIAGA

BOST AHIZPA

Egileak Agatha Christieren eleberrietako giro beltzean liburu hau nahita gitorurik, gurasoen herentzia jasotzeko etxe isolatu batean elkartzen diren bost ahizparen historia da bertan kontaktzen zaiguna. Liburuan zehar ustekabez ustekabe ibiliko da irakurlea eta azaltzen zaizkion galderen erantzunak asmatzen saiatuko da. *Bost Ahizpa* liburuan, hiltzailea nor den jakitea ez da garrantzizkoena. Aldiz, pertsonaien nortasunari antzematea eta ongi ulertzea da erronka.

LAGUN MINA

Gure gizarteko zurrunbiloan, bere burua defenditzeko gezur handi bat eraiki eta gezur honen barruan eroso bizitzen ohitu dena, prest ote dago bizitza honetan egiazko balorea duten gauzak ez galtzeko? Prest ote dago maitasuna edo adiskidetasuna ez galtzeko? Bi lagun minen arteko historia kontatzen digu antzezlan honek, traizio bihurtuko den adiskidetasunaren berri emanez. Aitor izeneko aktoreak bere bizitza kontatuko digu idazlan honen orrietan barrena, eta lagun min izan duen Seberena ere bai. Traizioa da gertakari guztien atzean nabarmen ageri den ekintza.

* * *

AITOR ARANA

Legazpin sortua, 1963an. Hamazazpi urterekin idazten hasia. Lau urtez (1983-1987) euskara irakasle izana Legazpiko AEK eta Udal Euskaltegian. Sei urtez Legazpiko *HOTS* kultur aldizkariko lankide eta zenbait urtez arduraduna. Azken urteetan literaturari erabat lotuta dabil eta idazletza du lanbide.

Liburu sortuak:

Azkonarren laguna (Elkar, 1987), *Loaren bidez* (SM, 1990), *Afrikako semea* (Elkar, 1991), *Jainko Txikia* (Elkar, 1994), *Ipuin lizunak* (Kriselu, 1994), *Urtegi misterioitsua* (Elkar, 1994), *Ipuin ilunak* (Kriselu, 1995), *Buztantzoren larrialdiak* (Elkar, 1996), *Haize gorria* (Kriselu, 1996), *Uxue eta Urtzi* (Ibaizabal, 1997), *Gaueko ortzadarra* (Pamiela, 1997), *Nitjerida eta Koomori saguzarrak* (Ibaizabal, 1998), *Herauskorritse* (Mensajero, 1998), *Onan* (Txalaparta, 2000), *Ipuin-entzulea* (BBK Fundazioa, Txomin Agirre saria 1999. urtean), *Atharratzeko erregina* (Hiria, 2000), *Erregina bahitua* (Edebe-Giltza, 2000), *Josu, Asier eta...* (Mensajero, 2000), *Amodioaren gazi-gozoak* (Ibaizabal, 2001), *Historia lazgarria* (BBK Fundazioa, 2001), *Sexuketan* (Hiria, 2002).

Itzulpenak:

Ixu, hortzik gabeko marrazoa (Elkar, 1993), *Gezi urdina* (Elkar, 1994), *Memorajhoj de euska bovino* (Asun Iraza SL, 1999 – B. Atxagaren '*Behi euskaldun baten memoriak*' esperantoz), *Bervalen gertatuak* (Hiria, 2000 – esperantotik euskarara zuzenean itzultitako lehen liburua, jatorriz, Louis Beaucairek idatzia), *Dracula* (Hiria, 2000), *Frankenstein* (Hiria, 2001), *Ganbarako loreak* (Gero, 2002), *Heroia izan nahi zuen mutikoa* (Ibaizabal, 2002), *Nimen uhartea* (Ibaizabal, 2002), *Oroimenaren azala* (Ibaizabal, 2002).

Testu liburuak:

Gerhard Bähr. Artikulu bilduma (HOTS kultur taldea, 1986), *Esperantoa ikasgai* (HOTS kultur taldea, 1991), *Zaraitzuko hiztegia* (Hiria-Nafarroako Gobernua, 2001), *Zaraitzuko euskara* (Hiria-Nafarroako Gobernua, 2002), *Izarbeibarko hiztegia* (Hiria-Nafarroako Gobernua, 2002).

Sariak:

Bilintx (1997), *Baporea* (1990), *Txomin Agirre* (1999 eta 2000).

MIKEL ZARATE SARIA. SAIOA

* * *

XIPRI ARBELBIDE MENDIBURU

JEAN PIERRE GOYTINO: CALIFORNIAKO ESKUAL HERRIA

1893an, uztaileko 15ean, Los Angelesen, *Californiako Eskual Herria* astekaria agertu zen. Euskara hutsez argitaratu zen, publizitatea barne. 1898. urtera arte iraun behar zuen. Egilea Jean Pierre Goytino mugazain semea zen, Ainhoan sortua. Fraile eta eskola publikoko irakasle izan ondoren, Ameriketara joan zen. Euskarazko aldizkaria sortu zuenean, *Le Progrès*, Los Angeleseko frantses astekariaren buru zen. Antza denez, oso irakurle gutxi izan zuen aipatutako agerkari horrek. Goytino Los Angelesko frantses ospetsuenetarikoa izan zen. Halere, ez da erreza jakitea nola pasatu zituen bere azken 22 urteak. Badakigu, jakin, miserian eta bakardadean hil zela, 1920ko apirilaren 14an.

XIPRI ARBELBIDE

Heletan, Nafarroa Beherean, sortua da, 1934an. Teologian lizentziatua, 1960an apeztu egin zen. “Afrikako misionestak” deituriko taldeko kide izana. Hainbat urtez Afrikako Boli Kostan misiolari ibili ostean, Pariseko Ecole des Hautes Etudes en Sciences Sociales-eko diploma eskuratu zuen. Garazin sei urtez izan zen, parrokian laguntzen.

Baionako Gure Irratia sortu zuen taldekidea izan zen Arbelbide eta 1982tik 1996 urtera arte bertan egin zuen lan. *Herria* astekarian hasi zen euskaraz idazten eta beste hainbat agerkaritan ere argitaratu izan ditu bere artikuluak. Euskaltzain urgazlea da, 1987an izendatua.

Liburu sortuak

Les Baoule d'après lerus dictons et leurs proverbes (1975); *L'Afrique sein et berceau du Christianiem* (1976); *Le Baoulé: résistance à la colonisation* (1978); *Euskaldun gazteria: 50 urte* (1978); *Irri solas* (1983); *Afrikako salbaien*

zuhurtzia (1983); *Piarres Lafitte* (1986); *Garazi* (1987); *Gerlako tresna bizidunak* (1986); *Mika eta Lipua* (1987); *Piarres Topet Etxahun: bizitza* (1987); *Piarres Topet Etxahun: bertso bilduma* (1988); *Terexa Desqueyroux* (1989); *Webs-terren euskal ipuinak* (1993); *Enbata: abertzalegoen historia Iparraldean* (1996)

Itzulpenak:

Mauriac-en Terexa Desqueyroux; Georges Pipkins-en Pete Aguerreberey_

Sariak:

Xalbador Saria (1981, 1984, 1986); *Irun Hiria* (1982) eta 1995ean aipamena; *Kafe Iruña, Saria* (1986, 1996); *Bizkaiko Kazetari Saria* (1989); *Zarautzeko Lizardi Sariko* aipamena (1986); *Rikardo Arregi* ohorezko saria (2001).

BBK - EUSKALTZAINDIA SARIAK

2002.abenduaren 13an, BBKren eta Euskaltzaindiaren 2002ko literatura-sari nagusien banaketa egin zen. Hona hemen irabazleak:

Sariaren izena	Saria zenbatekoa	Lan saritua	Irabazlea
Txomin Agirre (eleberria)	8.000 €	<i>Bost ahizpa</i>	Aitor Arana
Toribio Altzaga (antzerkia)	5.000 €	<i>Lagun mina</i>	Aitor Arana
Felipe Arrese Beitia (olerkia)		Eman gabe geratu da sari hau.	
Mikel Zarate (saiakera)	6.000 €	<i>Jean Pierre Goytino: Californiako Eskual Herria</i>	Xipri Arbelbide

Mahaiburuan hauek izan dira: Jean Haritschelhar, euskaltzainburua eta Juan Mari Lekuona, literatura batzordeburua Euskaltzainditik eta, Bilbao Bizkaia Kutxa Fundaziotik, Gorka Martinez eta Jose Ramon Bilbao.

BILBAO BIZKAIA KUTXA - EUSKALTZAINDIA

sari banaketa

Bilbo, egoitza, 2002-XII-13

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

Jaun-andereak, eguerdi on denoi.

Beti bezala gertatzen da abenduan, biltzen garela hemen, Bilbon, Bilbao Bizkaia Kutxarekin sarien emaitako. Lau sari ditugu hor, *Txomin Agirre* saria, eleberrikoa; *Toribio Alzaga* saria, antzerkia; *Felipe Arrese Beitia*, olerkia eta *Mikel Zarate* saria, saioa.

Ez dut gauza handirik erranen, bakarrik ikusten baitut hor prentsa dela, nahi ditut agurtu, heien beharra baitugu beti eta nahi diet erakutsi ongi etorri polita egiten dudala beti. Aurten gertatzen dena da, bi sari bakarrik ditugula eta gauza bitxi bat gertatu dela, oso arraroa, ez dakit sekulan holakorik gertatu den: idazle batek bi sari bereganatzen dituela. Beraz, zuri, nire zorionik hoberenak eta bihotz-bihotzez, uste baitut kasu berezia dela hori, bai alde batek eramaten baitu *Txomin Agirre* saria, erran nahi baita eleberriarena eta eramaten du *Toribio Alzaga* saria, antzerkiarena. Bigarrena hor dugu Iparraldekoa, Xipri Arbelbide aspaldiko adiskidea eta horrek eramane du *Mikel Zarate* saria, erran nahi baita saioa eta bat gelditzen da hutsik, hala erabaki baitute hor ziren epaimahaikoek, Jon Kortazar, Mikel Lasa eta Lourdes Otaegik. Beraz, hori gelditzen da eman gabe.

Hor dugu, nire eskuinean, BBK-ko jendea, Gorka Martinez eta Jose Ramon Bilbao, beti bezala eta aspaldi honetan elkarrekin lanean ari garela eta, dakidanez, hemendik aurrera ere segituko dugula, duda izpirik gabe. Beraz, ongi etorri zuoi ere. Hor zarete, guk materia grisa delako hori ematen dugu, zuok, esan dezagun, urrea eta zilarra, bederen, euroa. Baina elkarrekin behar den bezala lanean ari gara.

BILBAO BIZKAIA KUTXA - EUSKALTZAINDIA *sari banaketea*

Bilbo, egoitza 2002-XII-13

*Joserra Bilbao,
Bilbao Bizkaia Kutxako ordezkaria*

- Jean Haritschelhar, euskaltzainburu jauna.
- Juan M. Lekuona, euskaltzain jauna.
- Txomin Peillen, euskaltzain jauna.
- Gorka Martinez, Bilbao Bizkaia Kutxa fundazioburua.
- Aitor Arana eta Xipri Arbelbide, idazle jaunak.
- Jaun-andreak.

Egun on guztioi BBKren izenean. Eskerrik asko, etorri zarien guztioi, ma-haikideetatik hasita, hor zagozien idazleoi, kazetarioi, oso garrantzi handikoak zarielako zeregin honetan eta zelan ez, epaimahaikideei eta idazleen lagun edo familiartekoei.

Ekitaldi hau, ohikoa bada bere, beti dago sorpresarako lekuren bat. Aurren, sarituak lau izan beharrean, bi baino ez dira. Batetik, Aitor Aranak diana bi jo dauzalako letrazko geziakaz, elebarri- eta antzerki-sarien dianak, eta bes-tetik, olerki-sariari jagokon epaimahaiak, saririk ez emotea erabagi daualako. Hau berez ez da txarra, epaileen zorroztasuna adierazten deuskulako, sarike-tearen seriotasuna agirian itxita, baina penea da saria emon barik geratzea eta tristezi puntu bat ixten deusku danori.

Honek ez dau gura esan, bai Aitor Aranak eta bai Xipri Alberbidek, gure zorionik beroenik merezi ez dabenik. Zorionak bihotz-bihotzez. Aitorri, sari bi irabazi dauzalako eta erabat literaturara dedikatzeko ausardia izan daualako, eta Xipri, ez dalako nekatzen eta urteak aurrera joanarren, gero eta gazteago ikusten dogulako.

Euskaltzainburuari erantzunez, hau gurako neuke esan, Euskaltzaindiak sariketa honetako materia grisa imintzen badau, BBK-k materia metalikoa imi-niko dauala, hau da, gure hizkuntzearen akademiak babes intelektuala emoten dauan bitartean, BBK-k hor egoteko ahalegina egingo dauala, babes ekono-mikoa emoten.

Eta besterik ez, ikusten ez badogu Gabon zoriontsuak izan.

HAIZEAREN HEGALETAN:
YĔHUDAH HA-LEVI, XABIER KINTANAREN
LIBURU-AURKEZPENA

Bilbo, egoitzan, 2002-XII-19

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Eguerdi on denoi, jaun-andreak eta bereziki ere, gure egunkarietan ari zaretan kazetariok.

Hona hemen gara bilduak, Israelgo Enbaxadako jaun batekin, aurkezteko liburu hori Tuterako judu batek egina, aspaldian, dudarik gabe, eta Yĕhudah ha-Levi deitzen da eta idatzi du, bere denboran, *Haizearen hegaletan* eta horretan daukagu liburu eder bat gure Xabier Kintanak paratua eta hori aurkeztu genuen jadanik Tuteran eta berriz pentsatu dugu, beharrezkoa zela, hemen, Bilbon ere aurkeztea.

Dudarik gabe, lehenik, ongi etorri Eyal Sela jaunari eta dudarik gabe ere, nire eskuinean dagoen M. Montero jaunari, pozik garela, hain zuzen, Euskal Herriko Unibertsitatea eta Euskaltzaindia beti harreman onetan izan baitira eta dudarik gabe ere, nahi dizkiot nire zorionik gartsuenak eman Xabier Kintanari, behar den bezala paratu baitu, ederki paratu baitu, liburua.

* * *

Dos palabras en castellano también, para agradecer su presencia aquí, hoy, y sobre todo a la prensa, ya que hemos pensado que este libro de Yĕhudah ha-Levi, que tiene un título muy hermoso *Sobre las alas del viento* es de un judío de Tudela, que lo escribió hace muchísimo tiempo, desde luego, y que marca la presencia de los judíos en España, en un momento en que todavía podían vivir en España, es decir, antes de 1492. Este libro es interesante porque representa una poesía de judíos que vivían en España y al mismo tiempo, hemos pensado, después de haber hecho la presentación en Tudela, que hacía falta presentar este libro también, aquí en Bilbao, en presencia de alguien que venía de la Embajada de Israel en Madrid y a mi izquierda se encuentra el Sr. Eyal Sela que es el Agregado Cultural de la Embajada de Israel en Madrid. Pues le quiero dar el *ongi etorri*, es decir, la

bienvenida a nuestra casa, de la misma manera que lo hago con el Magnífico Rector de la Universidad del País Vasco, el Sr. M. Montero, que está a mi derecha, demostrando que la Universidad del País Vasco y Euskaltzaindia tienen lazos estrechos desde hace mucho tiempo y que tenemos que seguirlos. Que, gracias a esa Universidad, los lazos mucho más estrechos todavía; bienvenido, pues. Y, desde luego, no puedo dejar esta pequeña charla, felicitar a Xabier Kintana, porque ha hecho un trabajo enorme para la preparación de este libro y, creo que, como lo había dicho ya en Tudela, va a contar eso, con lo cual se manifiesta que Euskaltzaindia no es una Institución que se repliega en sí misma. No, no, como las 'alas del viento', también nosotros viajamos fuera.


Muchas gracias.

YĖHUDAH HA-LEVI, XABIER KINTANAREN
LIBURU-AURKEZPENA

Bilbao, sede, 19-XII-2002

*Eyal Sela,
Israelgo Kultura kontseilaria,
Agregado Cultural de Israel*

Egunon. Sr. Presidente, le respondo a su *ongi etorri* con *Todá Rabá*, que quiere decir ‘eskerrik asko’. Es un honor para mí representar a la Embajada de Israel en tan importante evento como es la presentación de este libro cuyo título en hebreo es: *Al Kanfei Haruaj* publicado por Euskaltzaindia y Euskal Herriko Unibertsitatea.





Esta obra representa para nosotros el trabajo de uno de los poetas judíos más importantes de todos los tiempos que a la vez también lo es para todos ustedes por ser un poeta español, un poeta de Tudela, que además en aquel tiempo, escribía en lengua hebrea. Un hebreo que a pesar de haber transcurrido casi mil años es tan similar al que se habla hoy en Israel y en algunas comunidades judías fuera del Estado de Israel, que nos permite a todos nosotros leer las inscripciones de las lápidas que se pueden encontrar en algunas ciudades de aquí y leer, también, estos versículos y poemas. Es sorprendente comprobar que hace casi mil años la gramática de la lengua hebrea era prácticamente la misma que la que se utiliza en la actualidad.

Yehudah-ha Levi y su poesía es asignatura obligada para los estudiantes israelíes en nuestros colegios. En mi época de estudiante de segundo año de secundaria, uno de los temas de literatura era lo que nosotros denominamos *Shirat Sefarad*, la poesía de Sefarad, la poesía de España, de la Península Ibérica. Hoy muchos de nuestros jóvenes pueden citar, si no la mayoría, sí una gran parte de la obra de este importante poeta.

Parte de sus poemas hoy son canciones conocidas en Israel, sobre todo los poemas de Sión, cuando él habla aquí en el Oeste, cuando recuerda su pasado en el Este, en Sión, que Sión quiere decir Jerusalem, es uno de los nom-

bres con el que se conoce a la ciudad de Jerusalem hoy. Pero además es un poeta que escribe sobre el amor, el vino, las bodas y otros temas generales. Muchos institutos en Israel llevan el nombre de Yĕhudah ha-Levi, también hay calles con su nombre, con el nombre de Benjamín de Tudela, de Ibn Gavirol, de Maimónides y de otras muchas personas que desde aquí, desde Sefarad, desde España, se encargaron de desarrollar el idioma hebreo, el pensamiento judío, la ciencia, la medicina. Yĕhudah-ha Levi además fue médico; todos ellos en conjunto son personas de gran valor por la labor que desempeñaron. Por eso estoy muy agradecido y felicito a Xabier Kintana, a la Real Academia de la Lengua Vasca, a la Universidad del País Vasco, por su trabajo, para que estas obras se puedan conocer, no solamente en hebreo o en castellano, a partir de ahora, también se conocerán en euskera.

Muchas gracias.

YĚHUDA HA-LEVI

Bilbo, egoitza, 2002-XII-19

*Xabier Kintana,
euskaltzaindiko idazkaria
eta liburukiaren paratzailea*

Jaun-andreok:

Ohore eta pozgarria zait gaur, zuen aurrean, Nafarroako, eta bereziki, Tuterako seme ospetsu baten lanak aurleztea. Izan ere, pertsona guztiok geure bizialdi laburrean pasatu egiten gara mundu honetatik, baina gure eginak, gure lan eta ahaleginen fruituak hor gelditzen dira, bai gure hats-luzapena daramaten seme-alabengan, eta bai gure izpirituaren kume diren bestelako ekintzetan ere mamiturik, eta horietan, artista-lanek, bereziki, horiek kontserbatzen eta estimatzen jakiten dugun neurrian behintzat, balio iraunkorra izaten dute ondoko belaunaldiotarako ere.

Eta hortxe da hain zuzen ere, Yĥudah ha-Levi kasua, bera ere artista batzen, hitzaren artista, idazle eta poeta. Gazterik utzi zuen bere jaioterria, baina Al-Ándalusen bizi izan zen aldian Tuteran ikasiriko hebreera landu eta Erdi Aroko poeta judu hoberenetako bat izatera heldu zen, era guztietako ber-soak eginez.

Kultura ahanzturaren aurkako borroka etengabea omen da. Gure egunotan harrigarri irudi dakigukeen arren, Tuterako kaleetan, euskara eta erroman-tzearekin batera, luzaro entzun ziren arabiera eta hebreera ere, eta on da garai hartako gizarteaz oroitzea, hura ere gure ondare historikoa baita.

Iraganaren eta orainaldiaren arteko lotura hori sinbolizatzeko, beraz, jatorrizko hizkuntzaz gainera, Nafarroako mintzaira ofizial bietan, euskaraz eta erdaraz, argitaratu ditu Euskaltzaindiak, Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntza eta lankidetasunaz, Yĥudah ha-Levi-ren hebreerazko poema ederrak, XI-XII. mendeko kultur ondare hori berreskuratu eta ezagutarazteko asmoz. *Haizearen hegaletan* izena darama liburuak, eta etorri, halaxe datorkigu nolabait Yĥudah ha-Levi-ren bertsoen oihartzuna ere, mende askotan isilik egon ondoren, denboraren estalki iluna zeharkatuz, argi-errainu distiratsua bezala.

Obrari eginikako hitzaurre ederretan Josemari Satrustegi nafar euskaltzain eta etnologo ezagunak eta Haim Beinart Jerusalemeko Hebrear Unibertsitateko historialari ospetsuak zehazki azpimarratzen dizkigute gure poetaren sentiberatasun eta iturri biblikoak, kezkek eta testuingurua, obra hau bere garaian hobeki kokatu eta ulertu ahal izateko.

Erdarazko itzulpena, bikaina benetan, Ángel Saénz-Badillos jaunari eta Judit Targarona Borrás andreari zor diegu, bai eta poemei buruzko ohar eta argitasun ugariak ere. Hebrear testua, arestian aipaturiko irakasleek prestatua, Alfaguara editorialaren kortesia izan da. Bidezkoa denez, beraz, zilegi izan bekit guztioi eskerrak ematea.

Bukatzeko, eneak euskarazko itzulpena eta aurkezpena dituzue, biok Tuterako seme honek merezi duen maitasun guztiaz burutuak, Ebro ondoko **Argia** ikastolaren aldeko ekintza gisa, beronek euskararen alde egiten duen lan txalogarria eskertzeko. Nahi nuke zuen gogokoa izatea, eta ene lana begi zorrotzegiekin ez epaitzea.

SOBRE YĔHUDA HA-LEVI

*Xabier Kintana,
Secretario de la R.A.L.V./ Euskaltzaindīd
y coordinador de la Publicaci3n*

Señoras y señores:

Es para mi un placer, al tiempo que un inmenso honor, poder presentar ante Vds., aquđ, en Bilbao, la obra de uno de los hijos mās ilustres e universales de Navarra, y mās concretamente de la ciudad de Tudela: YĔhudah ha-Levi. La mayorđa de los seres humanos transitamos por este mundo de una manera casi an3nima, dejando para la posteridad, en el mejor de los casos, nuestra descendencia vital, encarnada en nuestros hijos. Sin embargo algunos, especialmente los artistas, tienen la suerte de aportar algo mās de sđ mismos, su obra, criatura de su espđritu, que, en la medida que es recordada y estimada, constituye un valor duradero y motivo de orgullo para las generaciones siguientes.

Y es 3ste precisamente el caso de YĔhudah ha-Levi, ya que tambi3n 3l fue artista, orfebre de la palabra, un verdadero escritor y poeta. Aunque dej3 su ciudad natal en su juventud, durante el tiempo que vivi3 en Al-Ándalus tuvo ocasi3n de demostrar su buen conocimiento y maestrđa en el empleo de la lengua hebrea que aprendió en Tudela durante su niñez. Lleg3 a ser uno de los mejores poetas judđos de la Edad Media y tambi3n de todos los tiempos, como lo comprobará cualquiera que lea sus poemas.

Se ha dicho que la cultura es una lucha sin descanso contra el olvido. Aunque hoy pueda parecernos extraño, durante siglos el árabe y el hebreo fueron tambi3n idiomas comunes en Tudela, al igual que el vasco y el romance.

Todos somos deudores de los que nos han precedido. Yo reconozco que mi inter3s sobre los judđos en nuestro Pađs lo despert3 el ilustre tudelano Jos3 Joaquđn Montoro Sagasti, al que tuve la suerte de conocer en Pamplona durante mi 3poca de estudiante, al final de los aņos sesenta, persona que supo integrar en su gran patriotismo navarro el amor por la lengua vasca y el inter3s por las rađces judđas de su ciudad natal.

Todos esos elementos han sido y son factores complementarios de nuestra historia y cultura y asđ lo hemos entendido al preparar esta antologđa po3-

tica. Así pues, deseando simbolizar ese nexo de unión entre pasado y presente, La Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia ha publicado con la ayuda y colaboración de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, una muestra de los hermosos versos hebreos de Yĕhudah ha-Levi, traducidos a las dos lenguas oficiales de Navarra, al castellano y euskara, con ánimo de rescatar del olvido y dar a conocer ese gran valor cultural de los siglos XI y XII. La antología lleva por título *Sobre las alas del viento*, frase tomada de uno de sus poemas, pues nos parece que, de alguna manera, es así como llegan hasta nosotros, tras muchos siglos de silencio, los ecos de los versos de este gran poeta tudelano: como un rayo de luz luminoso que rasga el oscuro velo del tiempo.

Han prologado esta obra el prestigioso etnólogo navarro y miembro de Euskaltzaindia, Jose Maria Satrustegi, así como el eminente historiador israelí Haim Beinart, profesor de la Universidad Hebrea de Jerusalén, que ponen de manifiesto la gran sensibilidad del poeta, sus fuentes bíblicas, sus inquietudes y el contexto histórico-cultural de su vida, para ayudarnos a ubicarlo en su tiempo y comprender mejor su obra.

La excelente versión castellana se la debemos al profesor Ángel Sáenz-Badillos y a su esposa la doctora Judit Targarona Borrás, de cuyas manos proceden igualmente las numerosas notas de pie de página de los poemas. También es suyo el texto hebreo, publicado gracias a la cortesía de la editorial Alfaguara. Vaya pues hacia ellos mi agradecimiento más sincero.

Para terminar, quiero decir que yo me he encargado de la traducción vasca de los poemas y de la introducción del libro, ambas realizadas con todo el cariño que se merece este destacado hijo de Tudela, como homenaje y ayuda a la ikastola **Argia** de dicha ciudad, organizadora este año del **Nafarroa oinez**, que tanto está trabajando en favor de la lengua vasca. Desearía que mi trabajo sea del agrado del lector y que no lo juzgue con excesiva severidad.

תודה רבה גברתי ורבותי וחברי. שלום לכלם

Todah rabah, għirotai werabotai weh aħerai. šalom lekulkem.

Eskerrik asko jaun-andre eta adiskideok. Agur guztioi.

Muchísimas gracias señoras, señores y amigos todos. Un saludo cordial.

SOBRE LAS ALAS DEL VIENTO

Bilbao, 2002-XII-19

Manu Montero, UPV/EHU Erektorea

Sr. Presidente de Euskaltzaindia, Jean Haritschelhar	Euskaltzainburu jauna,
Sr. Agregado Cultural de la Embajada de Israel, Eyal Sela	Israelgo Enbaxadako Kultur-ordezkarria,
Profesor, Xabier Quintana.	Xabier Kintana, irakaslea.

Sres y Sras, Jaun-andreok,

Nunca se llegó a culminar la torre que luego se llamó Babel, como todos sabemos. Otra cosa es que alguien quisiera realmente acabarla. Jorge Luis Borges sospechó –o repitió sospechas de otros, poco importa: era Borges– que los nombres de la tierra de Senaar iniciaron la obra justamente porque buscaban, con plena conciencia del desafío, ser dispersados por el mundo. La diversidad de lenguas sería así el fruto de una voluntad radicalmente humana, del mismo género que la que antes había intentado hacerse con un árbol que aún hoy simboliza el conocimiento, y que, dicho sea de paso, es el emblema de la UPV/EHU.

Hoy presentamos la edición trilingüe de una obra poética escrita, en el idioma en que se recogieron estos mitos esenciales de la cultura occidental, por un nativo de Tudela: *Sobre las alas del viento*, Yĕhudah ha-Levi. Yĕhudah ha-Levi nació en la Tudela andalusí y murió, lejos de su tierra de origen, cuando Tudela, como Toledo o Zaragoza, eran testigos del desmoronamiento de Al-Andalus. El viajero que atravesara entonces lo que genéricamente llamamos Vasconia –o, cuando hablamos en euskera, Euskal Herria– podía perfectamente oír de labios de las gentes del país la lengua vasca y el gascón, el castellano y el romance navarro, el árabe y el hebreo, el occitano y el latín. La variedad de idiomas alcanzó entonces un grado de riqueza que nunca hemos vuelto a conocer en tiempos modernos. Que además estemos hablando de un fruto de la cultura hebrea nos hace vulgares. Vulgarmente participantes de la cultura de Occidente, pues, ¿quién podría comprender Occidente sin lo judío?

Ven Uds. que la presentación de este libro es, por muchos motivos, una satisfacción para la UPV/EHU. No lo es menos el hecho de hacerlo en la sede de Euskaltzaindia, con quien hoy renovamos, un año más, un fecundo acuerdo de colaboración. No quiero, Sr. Presidente, dejar de celebrar su hospitalidad y su disposición al trabajo conjunto con la Universidad. Y permitanme, para terminar, que felicite al profesor Kintana, artífice de esta hermosa edición y autor de su traducción al euskera.

Eskerrik asko, Xabier, lan bikainagatik.

Eskerrik asko guztioi.

NOMENCLÁTOR DE TREVIÑO / TREBIÑU

Delegación de Vitoria/Gasteiz, ordezkaritza, 12-II-2003

*Juan Carlos Aguillo,
Alcalde de Condado de Treviño*

Buenos días a todos los presentes:

En primer lugar deseo, como alcalde del Ayuntamiento del Condado de Treviño y a título personal, agradecer a la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, la realización de este trabajo de investigación, indagando en la memoria para aflorar una realidad histórica y dar a conocer el pasado de los pueblos del Enclave.

Treviño se encontraba inmersa en una región en la que se hablaba euskera y, por ello, tenía sus nombres en dicha lengua. Por desgracia hace dos siglos que se perdió el uso del euskera en Treviño, debido al avance de las lenguas romances. Sin embargo, en el transcurrir del tiempo se mantienen, aun hoy en día, vocablos o términos (localizaciones geográficas) de origen euskérico.

Este trabajo manifiesta una realidad histórica del enclave de Treviño que nos carga más de razón. En su día, el Enclave formaba parte de Álava, pero esto se ha perdido y hoy en día ni tan siquiera formamos parte administrativamente de la provincia. La gente debe saber que existe una historia y que estamos intentando recuperar nuestro pasado lingüístico y, si puede ser, integrarnos ya de forma definitiva en esa realidad.

Estudios como éste nos reafirman en la necesidad de seguir ahondando en nuestra historia para saber a dónde encaminar nuestro futuro. De hecho, la mayoría de los padres del enclave reivindican el aprendizaje del euskera para sus hijos. Esperamos que esta lengua vuelva a nuestros pueblos y esté presente entre nuestras gentes; su recuperación será posible si se une el impulso de las instituciones y el entusiasmo de la gente por recuperar una parte viva de nuestra cultura, de nuestra historia no tan lejana.

De nuevo, agradecer el esfuerzo y rigor empleado en la realización del *nomenclátor de Treviño*.

MORFOLOGÍA DEL VERBO AUXILIAR VASCO

Pedro de Yrizar

Baionan 2003ko urtarrilaren 31n

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

Jaun Andereak, egun on.

Eskerrak emanez hasiko dut ekitaldi hau, lehen aldikotz agertzen baita Euskaltzaindia Kontseilu Orokorrak Baionan duen egoitzako areto nagusi honetan. Eskerrak beraz, Kontseilu Orokorreko buruari eta bereziki etxe honetako arduradun andereari.

Agurtzen ditut prentsa, irrati eta telebistako kazetariak erantzun dutelakotz gure gomitari, agurtzen ere eta hau manera bereziki batez Pedro de Yrizarren semea, Madrildik etorria ekitaldi honetara eta Pedro de Yrizar bere obra guzian lagundu duen Artola jauna. Pozik ikusten zaituztet gure artean Iparraldeko hiru probintzietako aditzari buruz aurkeztzen ditugun sei liburukiak.

Denok ulertuko duzue zertako ez denez gurekin Pedro de Yrizar jauna. Alabaina sortua da Azkoitian 1910ean eta, beraz, 93 urte ditu. Industria ingeniari eta Ekonomia ikasketak egin zituen Madrilan, han kokatu eta familiatu. Baina ez baitu sekulan ahanzi bere sorteria euskal dialektologiari buruz egin eta agertu ditu artikulua asko. Ez ditut hemen denak aipatuko, al-diz Euskal Herria osoari eskaini dion lan nagusia, hamalau liburukitan banatua: *Morfología del verbo auxiliar...* Euskal Herriko zazpi eremuak biltzen dituela.

Egun, hemen, aurkeztzen ditugu sei liburukiok erakusten dute zertan den orain aditz laguntzailea Lapurdin (2 liburuki), Baxenabarren (3 liburuki) eta Zuberoan (liburuki bat). Bonaparte-ren ildotik ibili da gure ohorezko euskaltzaina, inkestak eginez lekukoak bilatuz –haietarik bat izana naiz Baigorriko hizkerarako– laguntzaile ona zuela jadanik aipatu dudana Artola jauna.

Obra ikaragarria, obra miresgarria uzten digu Pedro de Yrizar jaunak, azterketa sakon eta zientifiko honen bitartez. Hain zuzen uztartuko da Euskaltzaindiak egiten duen Euskal Herriko hizkuntz Atlasarekin. Pedro de Yrizarren

obra nagusia publikatuz, Euskal Herriko hizkuntz Atlasa eginez, Euskaltzaindiak erakusten duen euskalkiez arduratzen dela ez dituela batere arbuiatzen, beren toki osoa badutela euskara batuaren ondoan, beharrezkoa dugularik euskaldun guziak biltzen dituen hizkuntz amankomun bat.

Zorionak, bihotz bihotzez Pedro de Yrizar eta Artola jaunei.

**MORFOLOGÍA DEL VERBO AUXILIAR LABORTANO,
BAJO NAVARRO OCCIDENTAL, BAJO NAVARRO ORIENTAL
Y SULETINO**

Baiona, 13-II-03

Pedro Ramón de Yrizar ()*

Señoras y señores

Lamento sinceramente que, por mi avanzada edad, no me sea posible asistir personalmente a este acto, pero me encuentro muy bien representado por mi hijo Pedro Ramón.

Ante todo quiero mostrar mi profundo agradecimiento a Euskaltzaindia, a su Presidente Jean Haritschelhar, a su Vicepresidente Henrike Knörr y a su Ejecutivo de Publicaciones Ricardo Badiola quien, con su experto conocimiento y tenaz dedicación, ha hecho posible la publicación de estos tomos.

He pretendido completar la obra del Príncipe Luis Luciano Bonaparte, con la recogida y publicación en catorce tomos de las flexiones de los verbos auxiliares intransitivo y transitivo empleadas en todos los dialectos y variedades.

Los ocho tomos correspondientes a los dialectos *Vizcaino*, *Guipuzcoano*, *Alto-Navarro Septentrional*, *Alto-Navarro Meridional* y *Roncalés* se publicaron anteriormente.

Hoy se presentan los correspondientes a *Iparralde*:

Labortano (un tomo), *Bajo-Navarro Occidental* (un tomo), *Bajo-Navarro Oriental* (tres tomos) y *Suletino* (un tomo), para lo que he contado con la inapreciable colaboración de Koldo Artola.

He escrito también un *Compendio*, resumen de los catorce tomos, que contiene los mapas y cuadros de todos los dialectos. Contiene las relaciones completas de los colaboradores e informadores de cada dialecto.

Agradezco mucho la asistencia a cuantos han venido.

Eskerrak bihotzez danoi.

(*) Por razones obvias de edad, —el próximo 11 de agosto de 2003, 93 años— no ha podido trasladarse desde Madrid y yo, su hijo, os leo estas líneas escritas por mi apreciado padre.

PEDRO DE YRIZAR

MORFOLOGÍA DEL VERBO AUXILIAR BAJO NAVARRO OCCIDENTAL

(Estudio dialectológico)



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

PEDRO DE YRIZAR

Baiona, 2003ko otsailaren 13a

Koldo Artola

Egun on, jaun-andereok.

Egun, Conseil Général des Pyrénées Atlantiques Erakundearen Baionako egoitza honetan eta Euskaltzaindiaren eskutik, Pedro de Yrizar jaunak euskal aditzaren morfologiari buruz idatzi dituen lan batzuk aurkeztera gatoz. Lanok honako izenburuak dituzten liburuetan bildurik daude:

- *Morfología del verbo auxiliar labortano*, 1997an karrikaratua.
- *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro occidental*, 1999an plaza-ratua.
- *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro oriental*, 1999-2002ko epe-an argitara emana (hau hiru zatitan), eta
- *Morfología del verbo auxiliar suletino*, iragan 2002 urteko abenduan agertu berria.

D. Pedro, adinak dakarkion nekea dela-eta, Madrileko bere etxean hona ezin etorririk geratu bada ere, izpiritualki, gure artean beti bezain presente sentitzen dugu. Hala ere bere familiartekoen presentzia nabaria da hemen, ezin baitzitekeen bestela, hauen artean, gertueneko senide gisa, Pedro Ramón semea dugula.

Ricardo Badiola Institutzio honetako partaide eta argitalpenetarako arduradunak iradoki dit, Yrizarren laguntzaile hurbil gisa, zuei lan garrantzitsu honetaz hitz batzuk esatea, adierazpen batzuk ematea, alegia. Gomita, bistan denez, gogotik onartu dut, are gehiago hain hurbil sentitzen, maitatzen eta miresten den lagun baten ekarpenaz mintzatzeko izan denean.

Liburu hauetan biltzen diren lanak duela zenbait urte, 1991az geroztik hain zuzen, Hegoaldean argitaratu diren beste batzuen segida dira eta baita, ondorioz, lan osoaren bukaera ere. Izan ere, aipatu urte hartan gipuzkerari buruzko *Morfología* inprimatu zenetik agertuz ere joan diren bizkaierari, Iparraldeko zein Hegoaldeko goi-nafarrerari eta erronkarierari buruzko lanei gehituz joanik, Iparraldeko aditzak biltzeko emeki-emeki burutuz joan baitira.

Lan honetan zertzen den ekarpenak badu, dena den, bere hasiera aspal-diko urteetan; erran nahi baita ez dela gauetik egunera, ustegabeen edo, sor-turiko emaitza. Aski da ikustea liburu hauetako kontrazaletan agertzen den Yri-zarren euskal lanekiko kurrikuluma haren nondik norainoko bide ezin aberatsagoaz ohartzeko. 1947 urteaz geroztik abiarazi zuen bere ibilbide opa-roa egun 92 urte dituen Pedro gure lagunak, hainbat argitalpenetan bere arti-kulu mamitsuak eskainiz, harik eta, 1981ean, oraingo lan honen aintzindari izango zen *Contribución a la Dialectología de la Lengua Vasca* izenburuko lana (2 liburuki) argitaratu zuen arte. Lan honek ireki zion bidea, ezbairik gabe, oraingo beste honi, hura sakondu, aberastu eta, hitz batez, osatzeko ba-lio izan duena.

* * *

Eta orain, eskuartean dugun *Morfología...* izenburuko lanetara itzuliz, zi-legi bekit Yrizarrek eratu duen lanaren azpiegituraz bi hitz esatea.

Euskalki bakoitzari eskaini liburuetan ‘Aurkezpen’ bat agertzen da lehe-nik, ‘Zer non’ batez jarraikia. Ondoren ‘Hitzaurrea’ dator eta, jarraian, ‘Itu-riak’, non, aise antzeman daitekeenez, era askotako informazioak baliatu di-ren, batzuk eta besteak hainbat liburutatik zein informatzailerengandik bilduak. Hauen guztien ondoren aditzak biltzen dituzten ‘Koadroak’ agertzen dira -hauetan biltzen da, jakina, informaziorik handiena-, hondarrean koadrootan bildu informazioari buruzko ‘Oharpenak’ azaltzen direla, hauek, askotan, iruz-kinez gehituak.

Iparraldeko euskalki, azpieuskalki eta barietateak biltzen dituzten liburu hauetako datuen eraketa eta aurkezpena, gainera, Bonaparte Printzearen 4. sail-kapena oinarritzat harturik egin duela dio, ‘Aurkezpen’ horietan, Yrizarrek es-preski.

Lana, oro har, hamalau liburutan eman da argitara, azkeneko seiak izaki egun aurkezten direnak.

1997an jalgi zen hauetarik lehena, lapurtera biltzeko berariaz prestatua. Euskalki honen hedadura Bonaparte Printzeak bere karta miresgarrian erakus-ten duen sailkapenari egokitzen zaio guztiz, lan honetan ere Bidarte, Basusa-ri, Ainhua, Urdazubi-Zugarramurdi, Biriatu eta Hendaia herriek beren baitan biltzen duten lurraldeek zehazten baitute eremu hori. Hala ere, Baztan ibarre-ko euskara –Oronotz herrikoa izan ezik– gehitu izan zaio lapurterari, Bona-parteren azken momentuko iritziari jarraiki, antza.

Mendebaldeko behe-nafarrera biltzen duen liburukia, berriz, 1999an pla-zaratu zen. Honetan agertzen dira, Lapurdiko lurraldeetan egoki, Bonaparte-ren eta honen jarraitzaile Yrizarren arabera, mintzamoldez nafartar den hain-bat herri, hala nola Uztaritze eta Lekoneko barietateei dagokiena, Lekuine salbu. Eta jada Nafarroa Beherean gaudela, Baigorriko Kantonamenduari lo-

Pedro de Yrizar

MORFOLOGÍA DEL VERBO AUXILIAR SULETINO

(Estudio dialectológico)



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

turiko herriak, Irulegi, Anhauze, Lasa eta Azkarate izan ezik, hauek, Luzai-derekin eta Arnegirekin batera, euskalki honetatik atera eta ekialdeko behe-nafarreraren esparrura eraman izan direnez. Aezkoako euskara, alabaina, Ahuñamendiz beste aldera, euskalki honen baitan sailkaturik agertzen zaigu orain ere, Bonapartek egin bezala.

* * *

Hurrengo 1999-2002 urteetan, berriz, ekialdeko behe-nafarrerari buruzko lana argitara eman zen, hiru liburukitan banaturik. Izan ere euskalki honek, aski hedaturik egotean, Baiona ondoko hiriburutik hasi eta, behin Bardozeroa iritsi ondoren, iparraldetik hegoalderanzko norabidea hartuz, Arbela, Amikuzze, Oztibarre, Landibarre eta Garazi ibarretako mintzairak biltzen ditu, honi guztiari Zuberoako iparraldeko lauzpabost herri gehitu zaizkiola eta baita, orobat, Ahuñamendiz beste aldeko Zaraitzuko ibarra ere, beti ere Bonapartek eginitako sailkapenaren arabera, hau baita Yrizarrek -salbuespen ttikiren bat gora-behera- zintzo-zintzo jarraitu duena.

* * *

Azkenik, arestian karrikaratu den zubererarekiko liburua begibista aurrean dugula, Bonapartek egin sailkapena hemen agertzen dena bera da, Zuberoako ipar-mendebaldeko Etxarri eta Arüe herrietako mintzairak zubereratik atera eta ekialdeko behe-nafarreraren baitan kokatuak izan diren diferentzia xumearekin. Duela urte batzuk halere, 1992an hain zuzen, iragan mendearen hondarrean guztiz itzali den erronkarierari buruzko liburu bat plazaratu zen, zubereratik erauzitako euskalki autonomo gisa, halako maila edo kategoria baitzuen erronkarierak R. M. Azkueren eta hainbaten ustez, bai-eta P. Yrizarren beraren iritzian ere.

* * *

Eta honen guztiaren ondotik, lan osoaren laburpen gisa edo, 'Index' izeneko liburu mardul bat argitara eman nahi du P. Yrizarrek, obra guztiaren behin betiko bukaera izango dena. Azken argitalpenen honetarako ere Kontseilu Orokorrak honen aldetiko laguntza ekonomikoa oso garrantzitsua eta are eskertzekoa izango litzateke.

* * *

Eskerrak eman behar dizkiegu, bestalde, inkestatuak izan diren eraman handiko erantzuleei, bai-eta inkestak pazientzia handiz bururatzearaino eraman dituzten lagun prestu eta adoretzuei ere. Haien izenak, ttipi eta handiak, eta gainerako ezaugarriak liburuotako 'Iturriak' sailean ikus ditzake irakurleak.

* * *

Aurkezpen hau, baina, ez nuke inola ere amaitutzat eman nahi, ezin nezake gainera, hemen, aitzinean, dugun kriatura honen aita den Yrizar jaunari buruzko aipamen xume bat egin gabe. D. Pedroz hitz egiterakoan, alabaina, batek ez daki nondik hasi. Oso kultura zabaleko pertsona izan arren zinez apal eta gozo, hurbil eta jatorra da zentzurik zabalenean. Inori leziorik eman gabe beti entzuteko prest eta esaten zaiona gogotik hartzen dakiena, esalearen edo momentuko informatzailearen balizko maila apala gutxietsi gabe, alderantziz baizik. Haren laguntzaile eta adiskide izateko zorion eta ohorea dugunontzat benetan eredugarria.

* * *

Eta jada, bukatzeko, hemen bildu garenon sentimendua biltzen dudan us-tez, eskerrik beroenak eman nahi dizkiot D. Pedrori –eman nahi dizkiogu, beraz–, euskalgintzari oro har, aditzaren morfologiaren alorrean bereziki, egin dion ekarpen ikaragarriagatik, eginahal horretan guri guztioi erakutsitako adore eta kemen neurri gabekoagatik eta harreman pertsonalean ere erakutsi hurbiltasun eta gozotasun ezin handiagoagatik. Gure artean oraindik ere ahalik denbora luzeen izan dezagun desira helarazten diogu bihotz-bihotzez, senitar-tekoeen eta gu guztion maitasuna lagun duela.

R.M. AZKUE SARI BANAKETA

Bilbon, egoitzan, 2003-III-07

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

Urte guziet bezala banatuko ditugu egun *Resurrección María Azkue* sariak. Lehenik agurtzen ditut idazle gazte saridunak beren irakasleekin, erranez zein poz handirekin banatzen ditugun sari horiek, jakinik euskararen eta euskal literaturaren geroa idazle gazte horietan datzala.

Agurtzen dut ere prentsa, irrati, telebista, hots, komunikabide guztiak, haiei esker euskal munduak jakiten dituelakotz Euskaltzaindiaren berriak. Agurtzen eta eskertzen ditut, elkarrekilako harremanak behar baititugu atxiki.

Eskerrik bizienak nahi dizkiet eskaini epai mahaikideei lan ugari ukan dutelakotz, bereziki aurtan. Alabaina, orotara 388 lan aurkeztuak izanak dira, A mailako olerkian 40, narrazioan 188, B mailako olerkian 33, narrazioan 127. Eskertzen ditut, bihotz bihotzetik A mailako epai mahaikoak: Igone Etxebarria Zamalloa, Manu Lopez Gaseni, Amagoia Lopez de Larruzea Zarate; B mailakoak: Joseba Butron, Jabier Kaltzakorta eta Kirmen Uribe.

Ene inguruan ikusten dituzue jaun batzuk, hala nola BBKtik jinikako Jose Ramón Bilbao eta Gorka Martínez jaunak, Henrike Knörr, euskaltzainburu ordea eta ene eskuinean Kataluniatik etorri den Joan Martí i Castell jauna.

Katalunian bada «Institut d'Estudis Catalans» deitzen den Institutio bat. Bi adar dauzka, bat hizkuntzari dagokiona, bertzea kultura eta zientziak hartzen dituen. Hots, hemen banatuak diren Euskaltzaindia eta Eusko Ikaskuntza idurikoak. Joan Martí i Castell Institut d'Estudis Catalans-eko Filologia sailburua da eta beraz euskaltzainburu idurikoa Katalunian. Berrikitan izendatua izana da eta nahi ukan du harremanetan sartu Euskaltzaindiarekin eta euskaltzainburuarekin. Ongi etorri gutartean jauna. Hautatu balin badugu egun hau, martxoaren 7a, elkarretaratze honen egiteko da, hain zuzen, egun banatzen genituela *R.M. Azkue* sariak, erakusten dutela sari horiek bizi dela oraindik euskara gure gazteetan izan diten Hegoaldekoak edo Iparraldekoak eta maite zutela idaztea.

Hobeki jakin dezazuen nor den jaun hau erranen dizuet Filologia erro-manikoan doktorea dela, bere estudio guztiak egin dituela Katalunian, irakas-

le izana dela Bartzelonako Unibertsitate batean eta katedradun dela Tarragonako Unibersitatean. Gehiago dena, Tarragonako Unibertsitateko lehen errektorea izana da eta bi agintaldietan bete du leku hori. Orain, jadanik erran di-zuedan bezala Institut d'Estudis Catalans-eko Filologia sailburua da 2002ko azaroaren 15az geroztik. Ikusten duzuen bezala jaun hau gaztea da oraindik. Horrek erran nahi du Katalunian Euskal Herrian bezala beste belaunaldi bat agertzen dela arlo guztietan eta bereziki kulturaren.

Jaun honek euskararik ez baitaki eta jakin dezan nolako ongi etorria egin diodan emaiten diot hitza Henrike Knörr, euskaltzainburu ordeari, labur bilduz katalaneraz ene mintzaldia.

ACTE DE LLIURAMENT DELS PREMIS DE LITERATURA R.M. AZKUE

Bilbo, Divendres 7 de març de 2003.

*Joan Martí i Castell,
President de la Secció Filològica
de l'Institut d'Estudis Catalans*

Excel·lentíssim President d'Euskaltzaindia.

Il·lustríssims acadèmics.

Joves escriptors i escriptores.

Senyores i senyors.

Abans que altra cosa, vull expressar el meu agraïment més sincer per l'hospitalitat de què sóc objecte per part vostra i especialment del President d'Euskaltzaindia. Me'n sento realment feliç.

Us demano disculpes de no ésser capaç de parlar-vos en èuscar, una llengua tan singular, símbol per excel·lència de la vostra identitat; és un déficit que lamento especialment en aquestes circumstàncies, perquè justament sóc hoste del President de la màxima autoritat lingüística en aquest idioma. Espero que compregueu i que accepteu la meua incompetència.

* * *

Com a President de la Secció Filològica de l'Institut d'Estudis Catalans, l'Acadèmia de la Llengua Catalana, em satisfà pregonament de poder estar entre vosaltres, amb qui compartim treballs i fatigues per a impulsar la normalitat de les nostres llengües respectives. Som col·legues especials, perquè tant vosaltres com nosaltres hem de batallar per a defensar allò que hauria d'ésser entès per tothom com un patrimoni enriquidor de la humanitat. Consegüentment, som col·legues dissortadament especials.

Tanmateix, malgrat que vivim submergits en un món que vol empènyer-nos cap a l'empobriment del pensament únic, també mitjançant l'estratègia de difondre la ideologia per una llengua única, és reconfortant d'assitir en un acte en el qual es guardonen escriptors i escriptores en èuscar d'entre 11 i 17 anys. És esperançador, ja que, si promovem amb èxit que les generacions més jo-

ves i, per tant, les del futur, s'interessin pel respecte a la diversitat des de les arrels de la comunitat de cadascú i de cadascuna, la foscor de l'esdevenidor deixa filtrar llums de confiança.

* * *

És ben sabut que les llengües apareixen per a la interlocució oral i que és en l'oralitat on manifesten llurs recursos en primera instància. Però no ho és menys que la història lingüística de qualsevol idioma arriba al seu zenit únicament quan ha penetrat en l'escriptura i en tots els àmbits i registres, des dels més formals fins als més col·loquials, fins i tots els vulgars. Per la qual cosa, incentivar la creació literària no és solament apostar per un creixement cultural individual i col·lectiu, sinó també apuntalar i fer gran la llengua que serveix d'instrument per a la producció artística.

La nostra cultura, molt qués que no les d'altres països europeus, oblida la importància del saber dir, del saber parlar i escriure. I així ens van les coses... Si tenim en compte que el coneixement es consolida gràcies a la capacitat de la seva expressió lingüística, podem imaginar-nos fins a quin punt una competència pobra condiciona la pobresa cultural. Els nostres arguments per a descriure, analitzar i transformar positivament la realitat no són sinó paraula. Sense la paraula res no podem explicar ni explicar-nos. I sense la *nostra* paraula no és possible d'entendre el *nostre* entorn, diferenciat de la resta d'entorns. Saber és saber dir o escriure; conèixer-nos a nosaltres mateixos –condició indispensable per a poder conèixer els altres– és saber dir i escriure en la nostra llengua pròpia.

* * *

L'escriptura exigeix una unitat que en general no és tan imprescindible en l'oralitat. L'obra literària, que és allò que avui ens convoca aquí, reclama encara una disciplina major a favor de la cohesió. La subsistència de qualsevol llengua passa per superar la perillosa fragmentació que n'amença la dialectalització. No és fàcil que els escriptors i les escriptores ni els parlants tinguin prou la transcendència de la compacitat d'un idioma; per a l'idioma mateix i també per a la seva funció essencial de referent comunitari. La ponderació que sap combinar correctament la variació amb la unitat lingüística és una virtut difícil de practicar i de difondre, però totalment necessària perquè una llengua no es difumini fins a la seva desaparició. Així, doncs, és fonamental l'ús lingüístic amb la llibertat que ha de caracteritzar cada persona, cada indret geogràfic, però també amb l'acceptació de la normativa única que permet d'assegurar la continuïtat de l'idioma, que és la continuïtat dels pobles.

* * *

L'enhorabona a tots els qui heu merescut una distinció especial en aquests Premis de Literatura *Azkue*. L'enhorabona també als qui hi heu participat: no us deixeu vèncer; insistiu a concursar, és a dir, continueu escrivint, conreant l'èuscar.

L'enhorabona a Euskaltzaindia per la iniciativa magnífica i antiga, que se suma a tots els esforços persistents per a dignificar i normalitzar la vostra llengua, patrimoni de la humanitat, hi insisteixo, como ho són totes les llengües del món.

Gràcies per la vostra atenció.





2002KO AZKUE SARIEN BANAKETA

Bilbo, 2003-III-07

*Joserra Bilbao,
Bilbao Bizkaia Kutxako ordezkaria*

Eguerdi on guztioi.


Gaurkoan, niri dagokit amaiera ematea. Hasteko, eskerrak gura dizkizuet eman, idazle gazte hauei babesa ematera urreratu zaretenoi. Egia esan, ekitaldi honi Euskaltzaindiaren egoitzak berak, goi-maila berez ematen badio ere, eskertzekoa da Jean Haritschelhar, euskaltzainburu jauna, edota Joan Martí i Castell jauna, Institut d'Estudis Catalans-eko Hizkuntzalaritza arloko burua, berton izatea.

* * *

Irabazleei dagokienez, poztekoa da gaur hemen ikusten dugun euskal lurraldetasun zabala. Herri txikia baina Herri bat garenaren seinale. Eta txikitetasunak ba du bere abantaila eta interesa. Esate baterako, ohore handia da edozein idazlerentzat, saria Euskaltzainburuaren eskutik hartzea, euren hizkuntz akademiaren agintari gorenaren eskutik hain zuzen. Ohore handi hau, oso zaila izango litzateke zuen lanak erdaraz, frantsesez zein espainolez egin izan bazenituzten. Hauxe da txiki izatearen xarma eta holako gauzetan ere ipini behar dugu begia. Gainera, laster ikusiko duzue zuen izena, Euskaltzaindiaren babesa duen liburu batean, idazle zaretela aitortzen duen liburu batean. Hau ere ohore handia da. Beraz, segi idazten, segi euskaldunak izaten eta segi euskal idazleak izaten, harrotasun osoz, beste hizkuntzarik mespretxatu barik, baina geure buruan sinetsiz, txikiak ere handi garenaren uste osoan.

Beraz, zorionak Maiatza, Estibaliz, Aiora, Nahia, Uxue, Asier, Dioni, Lourdes, Ekiñe, Amaia, Iskander eta Jon, eta eskerrik asko zuen lanak burutzen lagundu dizueten irakasle eta lagunei. Hauek ere ezinbestekoak dira-eta.

* * *



Amaitzeko, maila pertsonalean baino ez bada ere, nire elkartasuna gura diet adierazi, hain lan militante eredugarria egin duten eta atzo langabezira joan diren *Egunkaria*-ko 149 beharginei. Baita ere, poliziaren eskutik pasatu diren 11 arduradunei, Martin Ugalde, euskaltzain ohorezkoari, Joan Mari Torrealdei euskaltzain urgazleari eta batez ere, hain txarto pasatzen ari den Pello Zubiria lagunari. Zuhurrak bagara –eta izango gara–, larriune honetatik indartuta irten behar dugu, euskarazko egunkari indartsuago bat kaleratuz laster. Geugatik eta eurakatik egin behar dugu.

Beste barik, eskerrik asko.

AMAITZEKO HITZAK

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

Eskerrak zuri, Jose Ramon Bilbao jauna egin duzun lekukotasunaren gatik eta, bereziki, nola aipatu duzun Euskaltzaindia. Aspaldi honetan elkarrekin ari gara lanean eta segur naiz segituko dugula hemendik aitzina luzaz. Bilbao Bizkaia Kutzari esker Euskaltzaindiak ematen ditu sari ederrak bai helduentzat eta bai ere gazteentzat egun agertu den bezala. Horrek sustatzen du euskal literatura idazteko gutizia emanaz, izan dadien elaberrian, antzerkian, olerkian edo saioan, ahortzi gabe hemen dauden gazte saridunak.

Ekitaldi hau bururatzeko berriz ere zorionak eskainiko dizkiet saridunei, ahortzi gabe haien aitamak eta ere haien irakasleak. Bai, zorionak denoi.

HONDARRIBIKO TOPONIMIA

prentsa oharra

Hondarribia, 2003-III-21

Amaia Okariz

Hondarribiko Toponimia izeneko liburua Euskaltzaindiak argitaratzen duen *Onomasticon Vasconiae* bildumaren 23. liburukia da. Hondarribiko toponimo historikoak eta egun bizirik dirautenak biltzen dituen lan horren egilea Jose Jabier Furundarena dugu. Maila teknikoan, Euskaltzaindiaren izenean, Andres Iñigo Onomastika batzordeburua aritu da lanaren gainbegirale eta koordinatzaile akademiko bezala. Liburua Hondarribiko Udalari esker kaleratu ahal izan da.

Liburu honen esparrua Hondarribiko udalerria izan da eta bere helburua ondoko hauxe: Hondarribiko leku-izenak biltzea, arautzea eta kokatzea. Lehenbizi, agirietan eta liburuetan gorde diren izenak lortu dira, bai eta gaur egun erabiltzen diren toponimoak jaso ere. Gero, izenaren forma arautu ondoren, planoetan kokatu eta jasotzen dira.

«Gure herriaren izana adierazten duten izenak biltzea, ikertzea eta arautzea, izen horiek behar bezala idaztea gure hizkuntzaren normalizazioaren, duintasunaren eta prestigioaren mesedetan».

Andres Iñigo batzordeburuak azpimarratzen duen bezala, hauxe dugu Euskaltzaindiko Onomastika batzordeko helburu nagusia. Hori dela eta, batzordeak, pozez hartu zuen gaur aurkeztzen den lanaren proiektuaren berri:

«Hondarribiko Udalak –dio Iñigok– asmatu zuen bere udalerriko toponimia lana egiteko erabakia hartu zuenean. Erabaki hori hartu zutenek bazekiten non-bait, batez ere hirigintzaren hazkundearen ondorioz, Hondarribiko paisaia geografikoaren aldaketak eragin izugarri duela leku izenetan, mendeetan iraun duten izen ugari urte gutxitan galtzeko arriskuan ikusten zituztelako.»

Horrenbestez, beranduago izan baino lehen, lanari ekin zion Jose Jabier Furundarenak. Berak egindakoa ikerketaren ondorioz, onomastika aldetik, altxor izugarria bildu da **Hondarribiko Toponimia** liburuan; bestetik hiztegi-gintzari dagokionez, ekarpen interesgarriak ere eskaintzen ditu. Lanaren aurkepenari dagokionez, toponimo bakoitzari buruzko informazioa zazpi ataletan banatua dela esan behar da: toponimoa bera; kontzeptua; iturriak; ebakera; adierakideak; kokagunea; eta oharrak.

Joxe Jabier Furundarena Salsamendi

Euskal Filologian lizentziatua, Deustuko Unibertsitatean (Donostiako EUTG). Euskara irakaslea da, egun Errenteriako Udal Euskaltegian. Hainbat herritan ibilia da toponimia biltzen: Zarautz, Segura, Zegama, Villabona, Anoeta, Olaberria, Zumaia, Lezo, Aduna... Donostiako toponimia arautzeko liburukia egina du, Luix Mari Zaldua Etxaberekin batera. Liburuxka bat argitaratua du, *Astigarragako hizkera* (etnotestuak), Astigarragako Udala, 1998.

HONDARRIBIKO TOPONIMIA

nota de prensa

Hondarribia, 21-III-2003

Amaia Okariz

El libro *Hondarribiko Toponimia* es el vigesimotercer tomo de la colección *Onomasticon Vasconiae* que edita Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca. El trabajo recoge el conjunto de topónimos históricos de Hondarribia, así como los que permanecen vigentes y ha sido realizado por Jose Jabier Furundarena. Por su parte y en representación de Euskaltzaindia, Andres Iñigo, académico de número y presidente de la comisión de Onomástica, ha sido el encargado de supervisar el trabajo, así como de llevar a cabo las labores de coordinador académico. El libro se ha publicado gracias a la colaboración del Ayuntamiento de Hondarribia.

* * *

Tomando como ámbito de trabajo el municipio de Hondarribia, el objetivo de este libro es claro: recoger, regular y ubicar los topónimos de Hondarribia. En una primera instancia, han sido recopilados todos los nombres que figuran en documentos y libros, así como los que se siguen empleando en la actualidad. A continuación, y una vez normativizada la forma correcta de los nombres, éstos han sido ubicados y registrados sobre los planos.

Según explica su presidente, Andrés Iñigo, la comisión de Onomástica de Euskaltzaindia realiza su trabajo en base a un fin primordial, cual es:

«Recopilar, investigar y normativizar los nombres que expresan en sí mismos el ser y la personalidad de nuestro pueblo; y escribir de fonna correcta esos nombres, en provecho de la normalización de nuestra lengua, de su dignificación y de su prestigio».

Así las cosas, recibió con la lógica satisfacción el proyecto que en su día presentó el Ayuntamiento de Hondarribia:

«Quienes adoptaron esa decisión conocían la importancia de las alteraciones toponímicas, habidas en su pueblo como consecuencia del cambio en el paisaje geográfico, sobre todo a partir del crecimiento urbanístico; sabían que existía la posibilidad de perder en unos años infinidad de nombres que han perdurado durante siglos. Porque el paisaje y los cambios en nuestros modos de vida van

unidos de la mano y a nadie se le escapa que tienen una incidencia directa en la pérdida de muchos nombres».

El libro encierra, desde el punto de vista onomástico, una inmensa riqueza, al tiempo que también introduce interesantes aportaciones lexicográficas.

Joxe Jabier Furundarena Salsamendi

Licenciado en Filología Vasca por la Universidad de Deusto (Donostia, EUTG). Es profesor de euskera en el Euskaltegi Municipal de Rentería. Ha investigado la toponimia de varios municipios: Zarautz, Segura, Zegama, Villabona, Anoeta, Olaberria, Zumaia, Lezo, Aduna... Junto a Luix Mari Zaldúa Etxabere, ha realizado un trabajo acerca de la toponimia de Donostia. También tiene publicado un libro, sobre *El habla de Astigarraga* (etnotextos), Ayuntamiento de Astigarraga, 1998.

HONDARRIBIKO TOPONIMIAREN AURKEZPENA

Hondarribia, 2003-III-21

*Andres Iñigo,
Onomastika batzordebura*

- Jon Elizalde, Hondarribiko alkateorde jauna.
- Jose Jabier Furundarena, liburuaren egile jauna.
- Udaleko zinegotzi jaun-andreak.
- Euskaltzaindiaren Onomastika batzordekideak.
- Jaun-andreak.

Arratsalde on guztioi.

Euskaltzaindia, euskararen akademia alegia, euskara lantzeko, ikertzeko eta arautzeko erakundea da. Bere ikerketa lanak: hiztegi, gramatika, literatura lanak, etab. batzordeen bitartez egiten ditu. Batzorde horietako bat Onomastika da, 1971n Koldo Mitxelena maisu errenteriarraren gidaritzapean sortutako *Izendegi batzordea* 1983an *Onomastika batzorde* bilakatu zena. Bere helburua gure Herriaren izana adierazten duten izenak biltzea, ikertzea eta arautzea da, izen horiek behar bezala idaztea gure hizkuntzaren normalizazioaren, duintasunaren eta prestigioaren mesedetan.

Onomastika batzordea bere sorreratik, bada, gogor ari da lanean honako bi atal hauetan:

- Antroponimian: pertsona izenak, deiturak,...
- Toponimian: leku izenak. Azken honetan bi atal bereizten dira:
 - Toponimia nagusia: udal, herri, auzo,... izenak.
 - Toponimia txikia: mendi, mendate, karrika, etxe, baserri eta abarren izenak. Atal honetan sartzten dira hainbat udalerritako toponimia bilketa.

Proiektu horietako bat da gaur aurkeztzen duguna: *Hondarribiko toponimia*. Gisa honetako lanak argitara eman ahal izateko sortu zuen *Onomastika batzordeak* 1986an *Onomasticon Vasconiae* bilduma eta Hondarribikoa dugu bilduma horren 23. alea.

Toponimia ikertzea eta arautzea ez da gauza erraza, Joxe Jabier Furundarenak lan hau hasi zuenetik amaitu arte egiaztatu izanen duen bezala. Zergatik diogu ez dela lan erraza?

– Alde batetik, euskara oraintsu arte hizkuntza ofiziala izan ez denez gero, artxibo guztietan izenak erdal grafian idatziak daude eta askotan nolanahi idatziak.

– Bestetik, belaunaldiz belaunaldi ahoz transmititu diren izen asko nahiko desitxuratuak daude. Zalantzarik ez dago Joxe Jabierrek elkarriketatu dituen informatzaileek, kasu askotan, izen bera modu askotara eman izanen diotela.

– Agirietan aurkitutako formak ahoz bildutakoekin lotu behar izaten dira, izen bakoitzaren forma arautua emateko. Begi-bistakoa da erabakiak hartzeko une horretan zalantza, arazo eta buruhauste franko sortzen direla eta zenbaitetan ongi asmatzea ez dela batere kontu erraza izaten.

Jose Jabier Furundarena dugu lan honen egilea. Antzeko lanetan aritua zenez gero, bazuen esperientzia, baina horrelako lan mardula burutu ahal izateko esperientzia eta lan metodologia ona izateaz gain beharrezkoak izaten dira beste dohain batzuk: ilusioa, gogoia eta konstantzia, besteak beste. Egileak inork baino hobeki daki zenbat arazo, zailtasun, zalantza eta atsekabe gainditu behar izan dituen liburu honetan agertzen diren datu guztiak biltzeko, bildu ondoren ordenatu eta sailkatzeko eta, arestian aipatu bezala, izen bakoitzaren aldaera arautua ongi asmatzeko. Ikerketa lan guztietan bezala, zenbait erabaki irristakor eta eztabaidagarri izan daiteke eta, legezkoa den bezala, hemendik aitzina aurkitu eta ikertzen ahal, diren datu berriek argitasun gehiago ematen ahal dute hartutako zenbait erabakiren inguruan.

* * *

Euskaltzaindiaren Onomastica batzordeak pozez hartu zuen lan honen proiektuaren berri eta, batzordeak hala izendatuta, lanaren gainbegirale eta koordinatzaile akademikoa izan naizen aldetik, egiaztatu ahal izan dut J.J. Furundarenak egindako lana serioa dela eta lortutako emaitza ona. Onomastika aldetik altxor izugarria dago liburu honetan agertzen diren leku, etxe, baserri, kale,... izenetan. Hiztegi gintzarako ere ekarpen interesgarriak eskaintzen ditu, besteak beste, objektu geografikoak adierazten dituzten bertako zenbait hitzek: *baxa, boharri, brankala, errioa, sabiarria, tunboa, txerkarria*,...

Hondarribiko Udalak asmatu zuen bere udalerriko toponimia lana egiteko erabakia hartu zuenean. Erabaki hori hartu zutenek bazekiten nonbait, batez ere hirigintzaren hazkundearen ondorioz, Hondarribiko paisaia geografikoaren aldaketak eragin izugarria duela leku izenetan, mendeetan iraun duten izen ugari urte gutxitan galtzeko arriskuan ikusten zituztelako. Paisaia eta bizimoduaren aldaketak elkarrekin lotuak daude, eta begi-bistakoa da zerikusi zuzena dutela hainbat eta hainbat izenen desagertzearekin.

ONOMASTICON VASCONIAE

23

J.J. FURUNDARENA SALSAMENDI

HONDARRIBIKO
TOPONIMIA



EUSKALTZAINDIA

2002

Horrenbestez, beranduago izan baino lehen, leku izenak biltzea, aztertzea eta arautzea, horien guztien erreperitorio osoa argitara ematea eta, ahal bada, bizirik dirautenak udalerriko mapetan kokatzea egin beharreko lana zen, herriaren izanaren hainbat eta hainbat izen behin betiko galdutzat eman nahi ez baziren.

Onomastika bazordearen poza bikoitza izan zen, lana burutu ondoren, Hondarribiko Udalak *Onomasticon Vasconiae* bilduman argitara emateko asmoa agertu zuenean. Erakunde honi esker hornitu ahal izan dugu gure bildumaren 23, liburukia.

* * *

Zorionak, bada, alkateorde jauna. Hondarribiko Udalari. Eskerrik asko, Udalaren ordezkari gisa lan honen ibilbidea, argitaratu den arte, hain hurbiletik segitu duen Koro Eraso euskara teknikariari eta Ricardo Badiola, Euskaltzaindiaren argitalpen arduradunari. Eta eskerrik asko eta zorionak Joxe Jabier Furundarena Salsamendi egileari. Zure lanari esker, orain dela urte batzuk asmo eta proiektu bat besterik ez zena gaur errealitate dugu, Hondarribiko izenen altxor hau herritar guztien eskura jarria.

HONDARRIBIKO TOPONIMIA LIBURUAREN AURKEZPENA

Hondarribia, 2003-111-21

J.J. Furundarena Salsamendi

Arratsaldeon guzti-guztiori, eta eskerrik asko etortzeagatik!

Gaur, egun handia da niretzat, pozak txoratzen nago, ohore handitzat dudalako *Hondarribiko Toponimia* liburua aurkeztea, non eta Onomasticon Vasconiae bildumaren barruan. Bilduma ezagutu nuenetik nire ametsa izan delako. Izugarrizko ilusioa eta izugarrizko inbidia izan baitut horrelako ale bat argitaratzeko. Bada, iritsi da eguna, eta gaur, ilusioa bete dut.

Liburua ikerlan baten azken emaitza da. Ikerlana, Hondarribiko Udalaren lan-kontratu baten bidez egin zen. Lana bi urte eta erdian burutu zen: 1991.ko urtarrilean hasi eta 1993.ko ekainean bukatu. Ia hamar urte joan zaizkigu, beraz, lana amaitu nuenetik.

Lana bukatu esan dut, baina horrelako lanik ez da inoiz bukatzen. Argitalpena prestatzen aritu naizen honetan ere datu berri mordoa sartu dut, eta arautzea goitik behera moldatu behar izan dut, irizpide berrietara.

HELBURUA

Ikerlanaren helburua Hondarribiko leku izenak biltzea, arautzea eta kokatzea zen.

AZTERTUTAKO EREMUA

Orduan, Hondarribian mugitu gara. Baina, Hondarribia hiri estrategikoa izaki, eta hiri-gutuna aski goiz lortu zuenez, Irungo, Pasaia (Donibaneko) eta Lezoko jurisdikzioa izan du mendeetan. Horrek izugarrizko nahaste-borrastea sortu zidan agiri zaharrak begiratzeko garaian, herri horietako toponimo mordoa jaso nuelako, «terreno concegil» edo antzeko zehaztapenak besterik ez bainituen, eta nik ez jakin nongoak ziren. Horiek denak lan originalean

geratu dira, baina ez ditugu liburu honetan sartu, jakina. Baten bat itzuriko ziztzaidan, hala ere. Barkamena eskatu beharko dut, beraz, horiengatik.

Itsasoaz ere bi hitz esan beharrean nago. Hondarribia lehorra eta itsasoa baita. Hainbat izen jaso ditut itsasokoak, eta liburuan sartzea pentsatu ere, pentsatu nuen, baina hain urri geratzen zenez, beste baterako utzi dut lan hori. Beste baterako, eta beste batentzako beharbada, gaur hemen dagoen beste batentzat, hain zuzen ere.

METODOLOGIA

Lehenbiziko lana, beraz, leku izenak biltzea da.

Aurrena, agiri zaharretan arakatu nuen, batez ere: Espainiako Ogasunaren Artxiboan, Jabego Erregistroan (eskrituretan alegia), Elizbarrutiko Artxiboan eta Udal Artxibo Historiko zoragarrian. Pena, izugarritzko pena geratu ziztzaidan, mina ez esateagatik, Oñatiko Protokoloen Artxibora ez nintzelako iritsi. Baina udal artxiboan garai bereko hainbeste agiri egonda, hauek aztertzeari nahikoa iritzi nion. Geroztik jakin dut, gainera, *Hondarribiko baserriak* taldekoek ederki miatu dituztela Oñatiko bazterrak. Beraz, lan hori ere egina dago.

Ondoren, liburuetan dauden izenak bildu nituen. Lehen ere esan dut, Hondarribia garrantzitsua izaki, eta asko argitaratu da Hondarribiari buruz, orduan eta hobeto guretzat. Atal honetan ez nuke bereizi gabe utzi nahi Florentino Porturen lan bikaina.

Gero, jendearekin hitz eginez, jendeak erabiltzen dituen leku izenak jaso nituen. Auzo bakoitzean gehien jakin zezakeen jendearekin hitz egiten saiatu nintzen Orokorrean, 65 urtetik gorakoak, bertan jaio eta hazitakoak, eta lanbidea mendia edo baserria izan zutenak... Ahal izan genuenetan, elkarrizketak tokian bertan egin ziren, toponimoak bere lekuan hobeto kokatzearren. Ingu-ru bera lauzpabost informatzailerekin ikustea izan zen nire asmoa.

Ondoren, izenaren forma arautzea dator. Eta arautzeak esan nahi du, hemendik aurrera, izen hori nola idatziko den zehaztea, beti modu horretara idazteko. Esate baterako: *Aranburunea*. Horrek ez du esan nahi hala esan behar denik, betiko moduan esan behar da: *Anbúnia*. Baina, idaztea gauza serioa da, eta idatzi behar da batera, eta esan bestera.

Arautzea lan nekeza da oso. Begiratu behar zaie agiritako datuei, nola erabili den gaur arte, zein den formarik zaharrena. Begiratu behar zaio egungo ahoskerari, nola esaten duten herritarrek. Izenak gastatzen-gastatzen joan dira, eta forma jatorrak berreskuratu behar dira, agiriekin horretarako bidea ematen badute. Baserrien izenetan zorrotzago jokatzeko da horretan, gainera.

Gaur egun, toponimia arautzeko ere, Euskaltzaindiak eman ditu zenbait irizpide, eta horrek beti errazten ditu gauzak, eta seguruago jokatzeko laguntzen dizu.

Beraz, hori da, azkenean, eta hitz gutxitan esanda, egin nuen ikerlana.

LIBURUA

Liburua ikerlanaren emaitza duzue, beraz.

Leku izen bakoitzari buruzko informazioa zazpi ataletan banatuta dator.

Lehenbizia, toponimoa dator buru-buruan; toponimoa arautua, hemendik aurrera erabili behar den forman idatzita, edo nik proposatzen dudana, berrintzat.

Bigarrena, izen hori zer den adierazten da, zer objektu geografiko den: mendia, erreka, iturria, baserria, etxea.... Horietako zenbait argitu beharrean izan naiz, bertako hizkeraren kontuak tarteko, edo objektu geografiko bereziak direlako. Esaterako, itsas bazterreko arroka motak: *altua*, *baxa*, *bobarria*, *brankala*, *giltzarria*, *kanpoarria*, *orrazia*, *plantaina*, *sabiarria*, *txerkarria*, *xaxiarria* eta izango direnak. Bada, berezitasun horiek guztiak sarreran zerrendatu eta azaldu ditut.

Hirugarrena, iturriak aipatzea da. Alegia, izen hori nondik atera duan, zein liburutan, edo zein agiritan agertzen zen.

Laugarrena, ebakera da. Herritarrek nola esaten duten jaso dugu hemen.

Bosgarrena, adierakideak ematea da; alegia, leku batek izen bat baino gehiago izan dituen kasuetan, bakarra aukeratzen da forma arauturako, eta beste izenetatik aukeratutakora igortzen da, oharren bidez. Horregatik, araututako sarreran adierakideen zerrenda agertuko da. (Sinonimoak esango bagenu bezala, hainbat izenek leku bera adierazten dute).

Seigarrena da kokagunea ematea, toponimo hori mapan non dagoen esatea. Diputazioaren 1:5000 eskalako planoak oinarri hartuta, kodigo baten bidez plano horietara jo dezakegu, toponimoa non dagoen ikusteko. Gainera, *Hondarribiko Mapa Toponimikoa* ere argitaratua dago, eta bertan izenak alfabetikoki emanak daude, eta toponimoak non diren ikustea erraza egiten da. Badakit, gainera, maparen edizio berri eta zuzendua argitaratzear dagoela.

Eta, azkenik, oharak datoz. Eta oharretan denetarik sartu dut: agirietaiko aipamenak, etimologiak, objektuaren deskribapena, informatzaileen istorioak, eta abar.

ZAILTASUNAK

Bakardadea da lan honek izan duen koskarik handienetakoa. Batzuetan gozagarria, artxiboan agiri ederren bat eskuartean nuenean, edota informatzailereren batekin une majiko horietako bat lortzen nuenean. Baina, ai!, datuak ordenadorean sartzeari etortzen zenean, edo formak arautzean iritsi zenean! Berebiziko horma jartzen zitzaidan aurrean, mendizaleek esango luketen bezala, eta hura igo behar. Orain, behintzat, honetan dabilen jende gehiago ezagutzen dut, eta zerbait gehiago argitaratu da eta jantzi zaitezke, baina garai hartan!

Hasiera-hasieratik argi izan nuen kaleko toponimia ere bildu behar nuela, ez baserri girokoa bakarrik (Jose Luis Lizundiak, ondo asko adierazi du gauza bera *Ermua-Eitzagako* liburuaren aurkezpenean). Eta ur handiak dira horiek Hondarribian. Aspalditik da hiri Hondarribia, lehen ere esan dizuet, eta nahaspila handia dago bateko kale izen zaharrekin, galdu diren kale edo kalexkekin, besteko etxeen izenekin, funditu zirenekin eta egin diren berriekin, besteko iturri zaharrekin, besteko hainbat txokorekin...

Toponimo berri-berriak eta exotikoak ere jaso nahi nituen, atzetik egurra emateko besterik ez bada ere. Lekuen izenak aldatu egiten dira, berriak sortzen dira, eta sorrera horren lekukotza utzi nahi izan dut. Horregatik jaso ditut: *Barrio chino* eta *Xangai*. Edo betiko izen arrunt jatorrak ordezkatzera etorri diren: *Iterlimen*, *El Molino*, *Las Bafieras*, *Malarranas* horiek.

Villen izenekin ere hor ibili naiz ezinean. Denak jasotzen hasi nintzen, baina hainbeste zirela ikusita, mende hasierako guztiak jasotzea jarri nion nire buruari helburu. Ez dakit, hala ere, lortuko nuen. Geratuko zen baten bat.

* * *

Itsasoa beste mundu bat dela esaten da askotan. Eta itsasoaren eta lehorren artean arroakak. Eta arroketan arrantzan aritzen dena arrokerora. Arrokerora instituzioa izan da Hondarribian. Eta arrokerook arroka bakoitza izenez ezagutzen du. Nekez jaso daiteke informazio hori. Arroka bertatik bertara ikusita ere, gero hori planoan zehatz-mehatz kokatzea ere ia ezinezkoa delako, guk ibili ditugun bitartekoeekin, behintzat. Itsasbazterra egiteko hegazkinetik ateratako fotografiez baliatu gara askotan. Hortik atera kontuak!

Eta arautzea. Lan zailik baldin badago horrelako lanetan, arautzea da. Hemendik aurrera zein forma erabiliko dugun erabakitzea. Bere garaian ez nuen laguntza handirik izan, eta gaizki pasatu nuen. Oraingoan, berriz, liburua taxutzerakoan, laguntza handia izan dut: Andres Iñigorena, Mikel Gorrotxategirena, eta *Hondarribiko baserriak* taldearena, baina esango nuke are zailagoa egin zaidala erabakitzea. Seguru asko, atzetik argitalpena zetorrelako, eta ardurak eragindako kezka izango zen.

Hondarribiko baserriak taldearen laguntza berebizikoa izan da. Zenbait izen hauek emandako datuetan oinarrituta arautu ditut. Adibiderik argiena *Apaiztxara* da. Nik banuen susmoa hala izan zitekeela, Federico Gebarak esaten duelako bere liburuan «*Apa-chara o Apaiz-chara jaro del Obispo*»). Baina Fermin Olaskoagak elizako artxibotik ateratako aipamenetan garbi ikusten zen *Apatxara* Apaiztxaratik datorrela.

Arriskatu beharra ere gertatzen da zenbaitetan, gurea ez delako zientzia zehatza. Neurriko arriskua jakina, beti datuetan oinarrituta lan egiten baitugu, baina izen batzuetan bi formen artean baten alde egin behar duzu, eta bataren aldeko datuak zein bestearen aldeko datuak dituzunean, zirt edo zart egin behar duzu, eta nekez, oso nekez hartzen dira erabakiak: *Zarpia* edo *Sarbidea*, *Sorgindegi* edo *Sorrondegi*.

ZER GERATZEN DA EGITEKO

Normalizazio lana geratzen da egiteko, alegia herriak leku izenak era arautuan erabiltzea. Eta hori udalaren lana da, eta badakit ari dela lan horretan, eta auzoen izenekin ari dela (*Jaitzubia*, *Arkolla*, *Zimizarga*, *Gornutz-Montaña*, *Amute-Kosta*, *Puntalea*,...). Baina ez da administrazioaren lana bakarrik. Komunikabideek (herriko aldizkariak, egunkariak, irratiek,...), kultur elkarteek, eskolek, auzo elkarteek eta abar lan handia egin dezakete normalizazioaren bidean.

Eta normalizazio horretan kokatzen dut nik zenbait izen nagusi ere aldatzea, auzoekin egin den eran. Horretarako bide ematen du nire lanak. Esate baterako: *Alamedak* (Ez Portukoak, Damarri ondokoak baizik) *Lamera* izan beharko luke. *Lamera* bai, susmoa dudalako izen hori ez datorrela *alamo* zuhaitzaren erdarazko izenetik. *Lamera* bai, Bermeon eta Elantxoben jarrita daukaten eran, *Lamera*. Eta badira gehiago, zenbait kale izen eta.

Normalizazio lana da erdarazko izen berrien aurka egitea: (*El*) *Molino*, *Las Bañeras*, eta *Playa de los frailes* bera, honek beste upeleko sagardoa dirudien arren. Izen jatorrak berreskuratuz, behar dira: *Artzuko portu*, *Izkiraputzu* eta *Asturiaga*. Izen jatorrarekin txartelen bat jarrita leku horietan edo, asmatu behar da moduren bat.

Eta ikerketarako gaiak ere geratu dira:

– kokatu gabeko toponimoak non diren zehaztu: *Zuzuarregi* baserriak adibidez. Ia-ia asmatu dugu azkenean zein diren, baina hortxe geratu dira, norbait atez ate eskriturak begiratzen hasteko zain.

– mila «sekretu» argitzeko: zer da *Amu* erroa? Hor dugu *Amute*, edo *Amuate* Federico Gebarak (De Yur.) dioen bezala, hor dugu *Amuaitz* edo

Amuko. Erramuzko dorrea, ez al da Erramugurutzeko dorrea? Ni seguru nago horretaz, baina datuekin frogatu behar da. Zer da *Aspunea*? Nondik dator?

– Alde Zaharreko kaleen eta etheen historia ere egin beharko da egunen batean. Oinetxez egin dira zenbait lan.

– Itxiak edo itsasoari kendutako eremuak ere alor interesgarria dira: *Itazar*, *Itzaundi*, *Itzaberri*, *San Pablo*, *San Joakin*, *San Joxepe*. Kronologia, zein teknika erabili zen egiteko, herritarren artean nola banatu ziren...

Hainbeste hari geratu dira, tiraka hasi nahi duenarentzat...

ESKERRAK

Aipamen berezia egin nahi nioke Koro Eraso, udaleko euskara teknika-riari. Lankide ezin hobea izateaz gain, beti aurrera egitera animatzen nindue-lako, beti aurrera. Liburuak mardulean zer bait baldin badu, bere errua ere bada hein batean.

Nire aurretik Hondarribian lan honetan aritu direnei esker ona adierazi nahi nieke, batez ere, Juan San Martini, Luis Mari Elosegiri, Maximo Sagar-zazuri (zenari esan beharko nuke euskara jatorrean, baina ez dakit seguru zein dauden gurekin, eta zein joan diren gure artetik, eta gainera nik beti gogora-tuko ditut bizi-bizirik), Maximo Sagarzazuri esan bezala, eta Jose Mari Gon-zalez Kamiori. Harrituta utzi ninduen haien eskuzabaltasunak, urteetako lana nire esku jarri zutelako inongo eragozpenik gabe.

Argitalpena prestatzeko garaian, berriz, laguntzaile ezin leialagoak izan ditut *Hondarribiko baserriak* taldekoak: Luis Mari Eloseg, Kote Gebara, Fer-min Olaskoaga eta Koldo Ortega.

Eskerrik asko, baita ere, Juan Pedro Irigarai delinearitzaileari, kartografia lanetan dena egin zidalako. Eskerrak, Kote Gebarari udal liburutegian, Bego-ña Andresi udal artxiboan, eta Maria Luisa Emazabeli eta Iñigo Azpirozi in-formatika arloan, laguntzaile ezin prestuagoak izan nituelako. Eskerrak etxe-koei, Marijo Maiz eta Arantxa Astiasuainzarra laguntzaile finei. Eskerrak Euskaltzaindikoei, batez ere Andres Iñigori, gure lana aztertzen emandako or-duengatik, baina baita ere, Mikel Gorrotxategiri, eta argitalpen arduradunari, Rikardo Badiolari. Eskerrik asko udaletxeko lankide guztiei. Eta, azkenik, mila esker lagundu zenidaten herritar guztioi. Behin eta berririo bihotza kizkurtze-raino hunkitu ninduzuen. Mila esker Juan Joxe, Bitoriano, Xeledoni, Bixente, Faustino, Joxe Luix, Florentina!

ESKAINTZA

Nire lana inoiz argitaratzen bazen, liburua gurasoei eskaini behar niela oso argi nuen, naizen guztia zor diedala uste dudalako; gainera, orain bada-

kit norainoko aztarrika den guraso izatea, eta eskertzeko moduko lana iruditzen zait.

Beti izan nuen hori buruan, baina lagun batek kendu zidan ideia hori burutik, orain dela zenbait urte, juxtu, argitaratzeko lanekin hasi ginen urtean. Urte hark semea eman zidan, eta laguna betiko kendu: hara zer den bizitza!

Joxe Mari Etxaniz Aranburu, Zumarragako Antioko *Landaburu* baserriko semea. Gizon azkarra eta jantzia, prestua, zintzoa eta leiala, euskalzalea, eta hark zuen euskara! Inork gutxik bezalako tornuia zuena. Lagun handiari eskaini diot liburua, lagunari eta bere familiari. Baina poetak esan zuen bezala, «besteetan baitan baizik ez gara bizi». Beraz, bion lagun onak ikusten ditudanez hemen bilduta, gure baitan bizi dugu Joxe Mari. Eta orain, badakit, aurkezpena bukatzen dudanean, eta zuek denok txaloka hasten zatzaizkidatenean, badakit nik bai, hura ere txaloka hasiko zaidala.

Eskerrik asko denoi etortzeagatik! Edo gosaltzen genuen okindegi-kafe-tegiko etxeakoandreak goizero-goizero hutsik egin gabe esaten zigun bezala, mila esker aunitz! Eta barkatuko didazue Hondarribiko hiritartasunarekin ibili dudana txantxa. Harpa jo nahi nien hain lagun sentitzen ditudan Udaletxeko lankideei. Eskerrik asko!

EUSKALKIA ETA HEZKUNTZA

Iker 13 liburuauren aurkezpena

Bilbo, egoitza, 2003-IV-24

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

Jaun-andereak, eguerdi on.

Eskerrak zuei ikusten baitut ari zaretela hemen bilduak liburu honen aurkezpenerako. Hemen, nire ondoan direnak, prentsatzten dut jadanik anitzek ezagutzen dituztela, nire eskuinean Juan Luis Goikoetxea, tesiaren egilea eta egun liburuauren aurkezpen honetan berea emanen duela; Gotzon Lobera jaun-a, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskararen Sustatze Zuzendaria; nire ezkerrean, Nora Dañobeitia andrea, Bilbao Bizkaia Kutxako Fundazioaren Kanpo Harremanetarako kidea eta Iñaki Gaminde, Mendebalde Alkarteko kidea eta tesiaren epaimahaikoaren idazkaria.

Ez dago dudarik tesi honek bere garrantzia daukala, oroi naiz, zeren eta tesi horretan epaimahaiburu bainintzen, behar den bezala irakurri duela tesia eta ikusi nuela ere zer ziren hor gauza berriak eta bereziki, hor ikusten zela, holako, nola erran nezake, ez borroka bat, baina behar zuela kontuan hartu, dudarik gabe, euskalkiak gure belaunaldian eta oroi naiz epaimahaian erranik, bai guk ere Iparraldean bereziki, ikusten genuela eta Seaskak ikusi zuela hori argi eta garbi, ez zela urrundu behar haurra bere ingurumenetik, erran nahi baita hor erraiten zela dakitenik edo zakitenetik ez zakitenerat eramatea. Baina badela hor lotura bat, eskola eta etxearen arteko lotura bat eta lotura hori behar zela zaindu, baina eraman behar zela gero haurra, emeki-emeki, euskalkitik, euskara batura eta hori zela Iparraldean genuen geraldian eta hain zuzen, galde egin baitit Juan Luis Goikoe-txeak aitzin solasa egitea, hori erraiten dut aitzin solasean, baina azpimar-ratzen dut ere, Euskaltzaindiak erraiten duena, agerralditik ikusi du euskara batu baten beharra, hori hizkuntza amankomuna dela, euskaldunon guz-tiontzat, izan ditzen mendebaldekoak edo ekialdekoak, izan ditzen iparralde-koak edo hegoaldekoak, baina denbora berean erraiten zuela eta ez zuela sekula baztertu euskalkiak, erraiten zuela euskalkiak eta tokian tokiko hiz-

kerak aztertu eta landu behar direla uste du Euskaltzaindiak, ortografia eta hizkuntzaren azpiegitura zainduz. Nik uste dut argi eta garbi direla gauzak, ori naiz ere eman geniola *apto cum laude* Juan Luis Goikoetxeari eta ez naiz ni gehiegi luzatuko eta ematen diot hitza tesiaren egileari eta liburua-
ren egileari.

EUSKALKIA ETA HEZKUNTZA... IKER 13

Tesiko liburuaren aurkezpena Euskaltzaindian

Bilbo, egoitza, 2003-IV-24

Juan Luis Goikoetxea Arrieta

Egunon deizuela!

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua eta tesiko epaimahaiko burua;

Gotzon Lobera, Bizkaiko Diputazioan Euskara Sustatzeko Zuzendari Nagusia;

Nora Dañobeitia, BBK Fundazioko ordezkaria;

Iñaki Gaminde, tesiko epaimahaian idazkaria eta Mendebalde Alkarteko ordezkaria;

euskaltzainak;

euskaltzale-lagunak; etxekoak eta komunikabideetako mezulariak.

Ondo etorri!

Eskuan izango dozue aurkezpenaren amaieran Euskaltzaindiak argitaratu deustan tesiaren liburua –CDagaz argitaratu dana–, argitaratu bere era txukunean, edizino jagonean –Ricardo Badiolaren profesionaltasunari esker–.

Amaia Okarizek gogoratu eragin eustanez –bide batez eskertzekoa da Euskaltzaindiko beharginek kontsulta egunetan eskaini deustien harrera xalodindot, gogora ekarri eustala argitaratutako liburua IKER 13 dala; Korrika bere 13.a ospatu dogula eta hor *Ez Dok Amairu* omendu dala, baina –harrigarria– Oteitzak –goian bego– izen horregaz bataiatu eban kantari taldea, bataiatu eballa halan, ordura arte 13 zenbakiak eukan zori baltza apurtzeko asmoz, berak, oster, Oteitzak ez dau gainditu eta Korrikako egunetan, kantuak aireratzeneban 13. zenbakiaren malefizioak eroan dau gureartetik.

Liburuak ikusi dau argia, defendatu zanetik urte bira –alaigarria dana– zedakizuen moduan, Aita Villasantek dinoanez *Peru Abarka* gure literaturako

gailurretakoa, idatzi eta handik ia 80 urtera argitaratu zan-eta. Euskal Herriko Unibertsitatean defendatu zan, Bizkaiko Irakasle Eskolan, Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika Sailean. Zuzendaria, Jon Kortazar. Epaimahaia: burua, Jean Haritschelhar; idazkaria, Iñaki Gaminde; kideak, Gotzon Garate; Beñat Oihartzabal eta Adolfo Arejita.

* * *

Poza da niretzat norbere ikerlana Euskaltzaindiak –Euskal Herri osoan hitzaren labela jagoten dauanak– tesi-liburua plazaratzea. 30 urte joan dira 1973ko urtarrilaren 28an Euskaltzaindiko D Mailako Euskal irakasle titulua aita Luis Villasanteren eskutik jaso nebala. Halan da ze, badira hiru hamarkada Erakunde honetan dihardudala, 1971 haretan Alfabetatze Kanpainetan hasirik, *Jagon* Sailean, Liburutegiko Batzordean edo Argitalpenekoan.

EUSKALKIA ETA HEZKUNTZA. DAKIGUNETIK EZ DAKIGUNERA EUSKAL DIGLOSIA IRAZIAN da tesiaren izenburua. Liburuaren azalean izenburua euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez dator; IKER sai-lekoetan, bigarrenez ingelesez bere.

Euskalkia eta hezkuntza: Euskararen kanpo-historiak eta bere barrukoak eraginik, ikerketa-lan nahiz doktore-tesi ugari argitaratu da azken urteotan euskalkien ganean. Euskalkia irakaskuntzan gaitzat hartuta, oster, oso gitxi, baina ez gure artean bakarrik, Europa zabalean bere aurrerakuntza franko oraintsu-oraintsukoa da-eta. Euskalkiaren eta Hezkuntzaren gaia, beraz, azterketa arlo barrien artean sailkatu geinke.


D Eredua bikoiztu egiten dogu, lehen hizkuntza euskara daben ikasleentzat atxikitze-eredu bilakatuz, eta lehen hizkuntza gaztelania edo frantsesa dabenentzat murgiltze-eredu bihurtuz. Tesi honen helburua irakaskuntzako atxikitze-ereduaren barruan kokatzen dogu, etxetik euskaradun izanik –euskalkidun oraingoan–, eskolaratzen diran neska-mutilen berbakeran. Eta horreen artean –Euskal Herri osokoak hartzen diran arren–, bizkaiera zein bizkaieradun ikaslea da nagusiki aztergaitzat hartzen doguna.

Tesia **dakigunetik ez dakigunera** doa. Ni eslogan hau garatzen ahalegindu naz. Mikel Zaratek eta Ander Manterolak –Karmelo Etxenagusiaz eta Lontzo Zugazagagaz batera– sorturik, Labayru Ikastegiak erabili ohi dau 1973. urtea ezker. Berez, ikastaroak 1970ean bere baziran. Dana-dala –*Nihil novum sub sole* Eklesiastes-ekoa baieztatzeko gogoratu daigun dakigunetik ez dakigunera lehenengo darabilena zientziaren teoria modernoaren sortzaile berbera dala, René Descartes, dinoanean bere *Regulae ad directionem ingenii* liburuan (1628an):

«Pentsamendu metodikoaren ideia zein urratsez urratseko ebidentziaz gidatua den eta EZAGUNETIK EZEZAGUNERA doan, sinpletik konplexora».

EUSKALKIA ETA HEZKUNTZA. DAKIGUNETIK EZ DAKIGUNERA
EUSKAL DIGLOSIA IRAZIAN
DIALECTO Y EDUCACIÓN. DE LO CONOCIDO A LO DESCONOCIDO
DENTRO DEL ENTRAMADO DIGLÓSICO DEL EUSKARA
DIALECTE ET ÉDUCATION. DU CONNU VERS L'INCONNU DANS LE
TRAMAGE DYSGLOSIQUE DE L'EUSKARA (LANGUE BASQUE)
DIALECT AND EDUCATION. FROM THE KNOWN TO THE UNKNOWN INSIDE
THE DIGLOSSIA INTERWOVEN CONNECTIONS OF EUSKARA (BASQUE LANGUAGE)

EUSKALKIA ETA HEZKUNTZA. DAKIGUNETIK EZ DAKIGUNERA
EUSKAL DIGLOSIA IRAZIAN
DIALECTO Y EDUCACIÓN. DE LO CONOCIDO A LO DESCONOCIDO
DENTRO DEL ENTRAMADO DIGLÓSICO DEL EUSKARA
DIALECTE ET ÉDUCATION. DU CONNU VERS L'INCONNU DANS LE
TRAMAGE DYSGLOSIQUE DE L'EUSKARA (LANGUE BASQUE)
DIALECT AND EDUCATION. FROM THE KNOWN TO THE UNKNOWN INSIDE
THE DIGLOSSIA INTERWOVEN CONNECTIONS OF EUSKARA (BASQUE LANGUAGE)



EUSKALKIA ETA HEZKUNTZA. DAKIGUNETIK EZ DAKIGUNERA
EUSKAL DIGLOSIA IRAZIAN
DIALECTO Y EDUCACIÓN. DE LO CONOCIDO A LO DESCONOCIDO
DENTRO DEL ENTRAMADO DIGLÓSICO DEL EUSKARA
DIALECTE ET ÉDUCATION. DU CONNU VERS L'INCONNU DANS LE
TRAMAGE DYSGLOSIQUE DE L'EUSKARA (LANGUE BASQUE)
DIALECT AND EDUCATION. FROM THE KNOWN TO THE UNKNOWN INSIDE
THE DIGLOSSIA INTERWOVEN CONNECTIONS OF EUSKARA (BASQUE LANGUAGE)

EUSKALKIA ETA HEZKUNTZA. DAKIGUNETIK EZ DAKIGUNERA
EUSKAL DIGLOSIA IRAZIAN
DIALECTO Y EDUCACIÓN. DE LO CONOCIDO A LO DESCONOCIDO
DENTRO DEL ENTRAMADO DIGLÓSICO DEL EUSKARA
DIALECTE ET ÉDUCATION. DU CONNU VERS L'INCONNU DANS LE
TRAMAGE DYSGLOSIQUE DE L'EUSKARA (LANGUE BASQUE)
DIALECT AND EDUCATION. FROM THE KNOWN TO THE UNKNOWN INSIDE
THE DIGLOSSIA INTERWOVEN CONNECTIONS OF EUSKARA (BASQUE LANGUAGE)

iker - 13

JUAN LUIS GOIKOETXEA ARRIETA

**EUSKALKIA ETA HEZKUNTZA.
DAKIGUNETIK EZ DAKIGUNERA
EUSKAL DIGLOSIA IRAZIAN**



EUSKALTZAINDIA
Real Academia de la Lengua Vasca
Académie de la Langue Basque

BILBO

2003

Edozelan bere, Mikel Zaratek, Lontzo Zugazagak, Karmelo Etxenagusiak eta Ander Manterolak abian jarriko bidea Ausubel guregan heldu baino hamar urte lehenagokoa da. Ni neure irakaskuntzako jardunean gero eta zordunago natxako lema horri. DAKIGUNETIK EZ DAKIGUNERA –metodo legez– ez jako inongo euskalkiri lotzen. Planteamendu honetan etxetik euskara dakarren guztia da aintzat hartua, jadanik dakian euskara Zegamakoa izan nahiz Txorierrikoa zein Sarakoa.

(Euskal Diglosia) Irazia deritxagu, ehundegian ehuna egitean legez gauzatzen dalako, euskara batuak, euskalki literarioak eta azpieuskalkiak bata besteari harien artetik bilbea igarota (1). Ezin ahaztuko dugu Fergusonek diglosia hizkuntza eta dialektoaren arteko harremanak azaltzeko sortu ebala.

Tesiko aurkibide nagusia: 1. Atala: Euskal Diglosia Irazia; 2.: Ikasketa Esanguratsua Hezkuntza Psikologian; 3.: Euskalkien Araketa Irakaskuntzan; 4.: Euskalkirako Curriculum; 5.: Garapenerako Iruzkina; 6.: Ondorioak; 7.: Bibliografia; 8.: Eranskinak.

* * *

Liburuan (*orain euskara batuko erregistroan jardungo dut*) Jean Haritschelharren «*Aitzinsolas*» gogoangarria dator lehenengo eta Jagon Sailburuaren «*Berbaurreko*» bide-erakuslea jarraian. Tesia euskalkiaren –bizkaieraren– eta euskara batuaren arteko korapiloa askatzetik abiatzen da- izan ere, marko teorikoa izan baita gaitzena.

«In the present study, two or more languages will be said to be IN CONTACT if they are used alternately by the same persons. The language-using individuals are thus the locus of the contact. Weinreich (1979: 1)

For the purposes of the present study, it is immaterial whether the two systems are «languages», «dialects of the same language,» or «varieties of the same dialect.»»

U. Weinreich-en Hizkuntzaren Ukipenaren Paradigma hartzen dugu, baieztatzeko, euskara batua eta euskalkia ukipenean direla, pertsona berak behin banan darabiltzalako. Ukipen gunea, beraz, pertsona da eta eskolari teorikoki berdin dio ikaslea Gernikan bizi den edo Barakaldon. Gainera, ukipenaren paradigmak baliotasun bera du euskalki-azpieuskalkietarako nahiz hizkuntza biren arterako.

Irakasleak egin beharko duena da, ikasgela berean eredu bietako neska-mutilak dituela, era desberdinean jokatu batzuekin eta besteekin. Etxetik berez zuzen dakarrena: *Ezin dut ikasi; Gustatzen zait ikastea; Banabil ikasten,*

(1) AZKUE, R. M. (1969): **Diccionario vasco-español-francés**. La Gran Enciclopedia Vasca: *irazi*: urdir el lienzo en el telar; ourdir le tissu sur le métier. AN-b-lez, B-a-o-ts, G-ber.

ez duzu euskaldun hori erdaldunak jabetzeko behar duen kurtso osoan ariкета alferrekoak egiten edukiko. Ezen eskolara berbetan jakinik datorrenak:

«... cualquier niño en edad escolar puede identificar, si bien no explicar, los errores estructurales que pueda haber en un texto, entendido éste en un sentido extenso (...). Ahora bien, reconocer éste hecho no equivale a decir que no necesita aprender y profundizar y ampliar sus conocimientos de lengua y, más evidentemente aún, sobre la lengua». Alvarez Mendez (1987:10).

Etxeko hizkera hori, ordea, ez da herrian herriko moldera idazteko eta ahozkoan ere forma osotuan eta arteztuan lantzekoa da:

«(...) nahi nuen irakaspide den euskara, ikastoletan eta ikastoletarik gora erabiltzen den euskara, ez daiteke izan, eta ez da, inoren amaren hizkuntza. Hizkuntza nolarebait batua da, nahiz batasun hori herri batekoa izan, eskualde batekoa edo Euskal herri osokoa. Bai, Zaloña. Ez diete ez zure haurrei ez besterenei ikastolan amaren hizkuntza irakasten, baizik eta mintzaera horretarik hurbilagoa edo urrutiagoa, baina bestelakoa, halaz guztiz. Zuk, esate baterako, *semiana* esango duzu eta zure haurrei *semearena* irakasten diote». Mitxelena (1970: 26)

Euskararen euskalkietan, batez ere, bizkaiera hartzen da aztergaitzat –gainerako euskalkiak ere ikertzen dituela– esanez, euskalkia, bizkaiera heteronoma dela, K. Mitxelena maisuak zioenez «dialecto de», nahiz eta euskalkiak autonomia duen: «Inoiz ikusi dudana gerra gogorrena» baino «Inoiz ikusi dudana gerrarik gogorrena» da bizkaieraren tolesteko era. Horrenbestez, bizkaiera ez da irakatsi behar beste berbete bat balitz legez, baizik eta idatzian –atxikitze-ereduko ikasleez ari naiz– euskara batua ardatz dela, bizkaiera aldamenean izanik eta ahozkoan, etxeko euskara ardatz dela eta euskara batua alboan.

Gertatzen den diglosiarako, C. A. Ferguson-en definiziora jo dugu:

«Hizkuntzaren dialekto desberdinen aldamenean, aldaki oso kualifikatu bat»

dela diglosiaren egoera adierazteko. Ulertzen da, barietate linguistiko biren arteko harreman egonkor bezala, bat gora (high) eta bestea behera (low).

Euskal Herrian den endoglosia (Txillardegi) hemen Diglosia Irazi legez lantzen da, ehundegian ehuna egitean bezala, euskara batua, euskalki literarioa eta azpieuskalkiak bata besteari haren artetik bilbea igarota.

Diglosia Funtzionala –funtzio batzuetarako euskara batua, besteetarako euskalkia– Erramon Baxoken ekarriaz baliaturik jorratzen da.

Diglosia Kateatua, L. J. Calvet-i jarraikiz, lehenik, euskara batuaren eta euskalki literarioaren arteko kateaketa gisa hartzen da; bigarrenik, euskalki literarioaren eta azpieuskalkiaren artekoa, hots, kateatua eta irazia.

D. P. Ausubel-ek dakarren ikuspegi aldaketa darabilgu ostean ikasketa esanguratsua bideratzeko, hortxe berton kokatzeko Dakigunetik Ez Dakigune-

ra goiburua, neska-mutilak etxetik dakarten berbetatik has daitezen. Horrek ez du esan gura adin batera arte euskalkia eta gero batua irakatsi behar direla, ez-pada ze biok batera, ikasketa-prozesu osoan uztarrian eroanik.

Euskalkiaren araketa egiten da irakaskuntzan, ikasleei galdeketa bete-araziz Mauleko ikastolan, *Xalbador* Ikastegian, Bergarako *Aranzadi* Ikastolan, Bermeoko *Eleizalde* Ikastolan, *Askartza* Ikastetxean, *Kirikiño* Ikastolan, *Getxo III* Institutuan, *Bermeoko* Institutuan eta *Txorierrri* Institutuan.

Euskalkirako *Curriculum*a jorratzen da jarraian, euskalkia ikasgelan erabiltzeko. Horretarako, bereizketa guztiz garrantzitsua eskaintzen da, alegia, Atxikitze-Ereduarena –etxetik euskaldun datozenena– eta Murgiltze-Eredua –familiatik erdaldun datozenena–. Beti ere, curriculum irekia jotzen da aproposentzat.

Garapeneko Iruzkinean, galdeketaetako emaitzak aztertzen dira marko teorikoaren argitan, baita euskal diglosiako zer eta zelan irakatsi ere.

Ondorioen artean, baieztatzen da, eskolak etxetik euskalkia jakinik dato-rren ikaslea dakienetik ez dakienera eraman behar duela, euskara batua euskalkiaren arartekotasunaz ikasirik –Ikasketa Esanguratsuaren arabera, arterik ezagun zaizkion sinboloen bitartez– eta horretarako familiako berbeta landu egin behar dela irakaskuntzan, ezen euskara batua jakiteak ez baitakar «per se» euskalkian alfabetatzea, hau da, etxetik bizkaiera dakitenentzat Atxikitze-Eredua proposatzen da, euskara batuan murgiltzeko ereduaren aurrean.

Gogoan hartu behar da Erramun Baxokek dioskuna:

«Behin betikotz jakin dezagula, jatorrizko hiztunek daukatela konpetentzia eta euskaldun zaharrak ez badira euskaldun, ez da euskararik, arima gabeko euskaranto hil bat baizik». Erramun Baxok (1985).

Hala ere, baieztatu duguna ez da oztopo, Martinet aipatuz Ninyoles-ek dioskuna onesteko:

«Como él advierte, ni la primera lengua aprendida ha de ser necesariamente la de la madre, ni tampoco es necesario que sea, por fuerza, la que el individuo usará con mayor facilidad en edad adulta.» Ninyoles (1972:159)

Familia erdaldunekoari euskara kanpotik barrurantz doakio, ikasgelatik bihotzerantz. Etxean euskaraz haziari, intimitateetik gramatikarantz. Jarraibide desberdinak. Bestalde, eskolari ezin eska dakioke dena konpontzea. Hala dio Fishman-ek:

«Garbi dago eskolak ezin duela bere gain hartu ez dagozkion aldaera funtzionalen sustapena, hala nola, izpiritu, bihotz eta intimitatearen esparruetakoak. Horregatik, hizkuntza batzuek bizirik irauteko, behar-beharrezkoa dute euren erabilera areagotzea, bai eskolara joan aurretik bai eskolaz kanpo bai eskola garaia bukatu ondoren ere». Fishman (2000:11)

Edozelan ere, irakasle guztiak ahozko berbetarako irakasle baliozko bila-ka daitezten, ezinbestekoa da Irakaskuntzaren Berbalizazioa deritzagun paradigman jokatzea.

Berbalizazioa deritzagu, ideiak, sentimenduak, gertaerak berbalizatzeari, elez adierazteari, hitzez iragartzera emateari. Ikasgelan mutu dautzan mahai, liburu, arbel zein koadernoak mintzoaren sarean sartzea da berbalizazioa. Gelan dihardugula dihardugunean, egoera komunikatiboa sortu behar da, heziketa mutua gainditzeko. Horretarako, goizeko egunonetik beretik eskatu behar dugu erantzuna, ez dakit tankerako topikoetan ezkutatzea gaitzetsiz.

Behin ahozko jardunean dihardugunean, euskalkia berez-berez azaltzen zaigu, ezen euskara idatzia bakarra bada ere –batuan batukoa, euskalkian euskalkikoa– euskara mintzatuak anitz baitira. Beraz, euskalkia zergatik baino zelan izango da auzia, nola gauzatu behar dugun euskara batuaren jorra eta nola euskalkiarena.

Hor agertzen da hiztunaren estrategia komunikatiboak lantzea, ikasgelan etxeko berbeta eta euskara batua –batzuetan etxekoa ere batua izango da– lantzea.

Horretarako, irakasleak ere metodologia parte hartzailea jarri behar du praktikan, irakaste magistrala alde batera lagata:

«Conviene que el profesor adquiriera un conocimiento elemental de la fonética y estructura de la lengua materna del niño, para poder darse cuenta de las divergencias lingüísticas entre esa lengua materna y la lengua de la escuela, y de las posibles interferencias de sonido y estructurales. La adquisición de éste conocimiento puede ayudar al maestro a comprender las dificultades prácticas y guiar al niño con mayor efectividad». C. Ching (1984:17)

Euskaldun mota bi ditugu gure artean, euskaldun kartesianoak eta euskaldun paskalianoak. Euskaldun kartesianoentzat «Cogito ergo sum» da formula, hau da, «Badakit euskara, beraz, euskalduna naiz», erdal elebidunak –Mikel Zalbideren terminologian–, euskaldun paskalianoentzat, oster, jakitea ez da bizitzea. Beraz, hauentzat, «Bizi naiz euskaraz, beraz, euskalduna naiz» da formula eta euskaraz bizi gura duenak, euskalkiagaz egingo du topo, baldin euskaraz bizi bada. Ondo dago *deutsut* erabiltzen dela eta ez *dautsut* jakitea, baina euskalkiaren ekarria, familiako euskararen transmisioa, hortik gora eta harago doa. *Madaria loran bete dago* ederto esana da, *Atea giltzean itxi* ere bai. Hori guztiori jaso, erabili, egin behar da, batez ere, betiko euskaldun ia elebakarrak gure artean diren.

Euskaldunon artean ez da ona bizigiroa, baina ezin hobea elkartzeko dautzagun gogoa.

Eskerrak Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa mezenas handiari; Gotzon Loberari Bizkaiko Foru Aldundiko Euskera Sustapen-Zuzendariari- euskalgintzan ikuspegi hain jasoa erakusteagatik; Euskaltzaindiari kulturaren abarotxeaa ate zabalik eskaintzeagatik.

Eskerrona tesirako lau urte bidean lagun izan ditudan guzti-guztientzat. **Galdeketetarako:** Mauleko Ikastolako Margarita Etxart eta Odette Etxegoinberri; *Xalbador* Ikastegiko Gillermo Etxebarria; Bergarako *Aranzadi* Ikastolako Justina Elexpuru; Bermeoko *Eleizalde* Ikastolako Jose Muruaga eta Aintzane Egaña; *Askartza* Ikastetxeko Bego Garaizar; *Kirikiño* Ikastolako Sebas Angoitia eta Miguel Angel Gaztelu; *Getxo III* Institutuko Joseba Butron; *Bermeoko* Institutuko Euskarako Mintegia.

Elkarrizketa Teorikoen erantzunetarako: Xabier Amuriza; Itziar Idiazabal; Miquel Siguan; Xabier Isasi; Jazinto Iturbe; Aita Fermin Iraolagoitia; Itziar Garaizar.

Eskerrona Jean-Louis Davanti, lapurtera, behe nafarrera eta zubererako zuzenketengatik; Beñat Oihartzabali ohar garrantzitsuengatik. Iñaki Gaminderi.

Ordenagailurako programengatik. Testuaren gainbegiraketagatik Rikardo Badiolari eta Iñaki Gaminderi.

Eskerrona adore etengabea eman didan Jon Kortazarri, tesiko zuzendariari;

Mendebalde Kultur Alkarteko kideei eta *Jagon* Sailekoei, lankidetzako saioetan eskainitako iradokizunengatik, eta zelan ez neure etxekoei. Eskerrona zuoi hona hurreratzeko jentilezia izan duzuenoi. Esker mila.

* * *

Bibliografia:

ALVAREZ MENDEZ, J. M. (1987): *Didáctica de la lengua materna*. Madrid: Akal.

AUSUBEL, D. P.; NOVAK, J. D.; HANESIAN, H. (1993): *Psicología Educativa*. Mexico: Trillas.

BAXOK, E. (1986), «Euskara Euskalkiak», in Nazio eta herri mailako barietateen erabilera. *ASJU-XXVIII*.

CALVET, L. J. (1987): *La guerre des langues et les politiques linguistiques*. Paris: Payot.

CHING, C. D. (1984): *Cómo aprende a leer el niño bilingüe*. Madrid: Cíncel.

DESCARTES, R. (1628): *Regulae ad directionem ingenii*, in ¿Existe Dios? HANS KÜNG. Madrid.1979.

FERGUSON, C. A. (1996): «Diglossia», in HUEBNER, T. (ed.) (1996) 25-39 or. (lehenengo, 1959an argitaratua, in *Word 15*, 325-340 or.)

FISHMAN, J. (2000): Elkarrizketa, in *IVAP-27*. Vitoria-Gasteiz.

MITXELENA, K. (1970): «*Pro domo*». *EGAN* 1-3.

NINYOLES, R. (1972): *Idioma y Poder Social*. Madrid: Tecnos.

TXILLARDEGI. (1990): «Soziolinguistika egunak», in *Hizkuntza/ Hezkuntza*. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitatea.

VILLASANTE, L. (1961). *Historia de la literatura vasca*. Bilbao. Editorial Sendo.

WEINREICH, U. (1979): *Languages in contact*. The Hague: Mouton Publishers.

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

Eskerrak zuri Juan Luis Goikoetxea. Liburu hau sartzen da Iker sortan, Euskaltzaindiaren Iker sortan eta 13. liburukia da, 13 niretzat zorionsua da. Eta entzun duzuen bezala horiek izan dira ere babesleak eta babesle hori, alde batetik, Bizkaiko Foru Aldundia eta bestaldetik ere, BBK. Beraz, babesleei emanen diet hitza.

EUSKALKIA ETA HEZKUNTZA

Bilbo, 2003-IV-24

*Gotzon Lobera,
Bizkaiko Foru Aldundiko
Euskararen sustatze Zuzendaria*

Eskerrik asko, Euskaltzainburu jauna; Juan Luis Goikoetxea jauna. Ma-haikideok. Lagun guztiok. Agur.

Orain lehenengo eta behin eskerrak eman nahi dizkiot Euskaltzaindiari betiko modura inbitatu gaituelako bere egoitza honetara. Beste alde batetik, zorionak eta eskerrak eman nahi dizkiot Juan Luis Goikoetxeari egindako lan-nagatik, gogoan dut bulegora etorri zitzaidanean kontu hau azaltzen, zelan ikusten zuen berak eta abar. Beste alde batetik, eskerrak eman nahi dizkiot, bereziki, Hezkuntza Sailari, benetan euskaraz izateko bakarrik, ez dakit nik ze-lan izango litzatekeen hitz teknikoak, baina nik esaten dutena... hizkuntza, ez dakit nik, baina hizkuntza esaten denez, beste zerbaiterako ere esan behar dela, Juan Luisek azaldu duen moduan eta erakutsitako jarreragatik batez ere, hau ere gure ikasle jendeari.

Eta esango dutue zergatik lagundu zuen Bizkaiko Foru Aldundiak lan hau?

Ba guk ikusi genuen gehien bat hor bazegoela hainbat eginkizun, Juan Luisek esan du dakigunetik ez dakigunera. Momentu honetan horrelako lan batek edo hori orain denbora gitxi, Labayru ikastegiak argitaratutakoa edo Mendebalde Alkarteak egindako formalizazioaren inguruko Jardunaldiak eta, nire ustez izan behar dutelako momentu honetan erreferente, ez dakigunetik edo dakigunetik ez dakigunera edo batzuek erabili beharrean erabiltzen dute-lako... Nire ustez, momentu honetan, ez dakigunetik dakigunera eta orduan, une honetan, uste dut, funtsezkoa dela... Esate baterako, behar bada ez da ka-sualitatea, baina herri aldizkarietan momentu hauetan ikusten den euskara era-bilera hori nondik nora abiatu behar den gidaliburu bat izateko, behar bada, makulu eske ari direlako hainbat, hor dagoelako makulu bat baino gehiago dena. Aipatu nahiko nuke momentu honetan eta, behar bada Juan Luis Goi-koetxea urrinekoa ez delako, lan aipagarria egiten ari dela Txorierriko herri aldizkaria, *Aikor* aldizkaria euskararen erabileran... Eta nik uste dut horrelako gauzak, hor aipatu beharrekoak direla eta ez direla kasualitatea. Hemen aipa-

tu da zortzigarren euskalkia daukagu momentu honetan borrokan, zein da zortzigarren euskalkia?

Nik esaten dudan ikastolako euskara edo D ereduko euskara. Behar bada, momentu honetan, batez ere, holako inguru erdaldunetan eta bizi garenok, horretaz oso jabetzen gara eta konturatzen gara horrelakoak izatea, benetan inportantea direla. Batez ere ikusten dugunean zer nolako erabilera egiten den momentu honetan horrelakoetan eta batez ere, horretarako.

Eta amaitzeko beste puntu bat hemen aipatu ez dena, baina niretzako egunduko garrantzia daukana eta da teknologia berrien erabilera. Ikuspide horretatik esan behar dugu, beste toki batzuetatik modernitateari buruz berba egiten denskunean...; ba nik uste dut, gaur goizean bertan, UEUren egoitzan izan gara aurkezpen baten frogatzeko edo erakusteko mundu guztiari zer nolako produkzioa egiten den euskaraz, zelan erabiltzen ditugun guk gaur egun teknikak... eskaintzen dituen aukerak eta momentu honetan baita ere, *Iker 13* bakarrik ez paperean, euskarri informatikoan argitaratzeak badaukala bere garrantzia ere, azpimarratu behar da.

Eta nik uste dut nahikoa esan dudala eta eskerrak eman berriro guztiei eta aurrera egin. Eskerrik asko guztioi.

*Jean Haritschelhar,
eukaltzainburua*

Eta orain emanen diot hitza Iñaki Gaminderi eta uste dut parte on bat hartu duela tesi horretan eta laguntzaile ona izanen dela. Beraz, uzten diot erraiten.

EUSKALKIA ETA HEZKUNTZA

Iker 13

*Iñaki Gaminde,
Mendebalde alkarteko
kide-ordezkarria eta tesiaren
epaimahaiko idazkarria*

Eskerrik asko. Egun danori eta zorionak Juan Luiseri beharra argitaratu-ta ikusteagatik, hori lehenengo eta behin.

Nik labur-labur ze ia gauza handirik ez jata lotzean, ba azpimarratuko nituzke tesi honen, niri iritziz, alderik garrantzitsuenak zeintzuk izan diren.

Orduan, batetik, lehen egia esan tesi hau ez da sortzen berez, lehen egon dira intuizioak eta aspalditik, baina lehenengoz ematen jaku marko teoriko oso bat jardunbide didaktikorako eta hortan dago niri iritziz honen garrantzia. Marko teoriko honek baditu gainera hiru oinarri nagusi, batetik, Juan Luisek berak aipatu duen moduan, diziplina askotik etorriko ekarriak biltzen ditu, baina ez bilketa sorta bat, ez bada ze irazirik eta ondo josita. Bestetik, bada, datu inpirikotan oinarritutako esperientzia bat, hor dago inkesta pila bat, testak eta test horiek eman dituzten emaitzak aztertuta metodo zientifiko batez eta azkenik, ez horregatik garrantzi gitxiengoena, esperientzia didaktiko luzea.

Orduan, hiru oinarri horietan funtsatuta ba marko teoriko sendo ematen zaigu euskararen irakaskuntzarako eta aportazio berri handi batekin eta da atxekitze ereduarena, ze ereduarena gauza zaharra zen gure artean, baina atxekitze ereduaren proposamena eta horrek dakarren guztia lehenengoz egin da.

Bigarren alderdi garrantzitsua da teoriatik praktikarako bidea ematen dela ezta eta orduan proposamen bat egiten da *curriculum* eredu bat euskalkia bera irakasteko danona dan euskara batuarekin batera. Tesia defendatu zanean, orain dela urte bi, ia ahaztuta egon gara, baina urte bi joan dira, ba ilungune batzuk ikusten ziren eta han tribunalean aipatu ziren, zorionez eta jardunbide eta tesiaren edo lanaren beraren ibilbideari esker, ilungune horietariko batzuk argituz doaz eta aipatuko ditut hiru: bata da marko teorikoak dakarren iraultza egiteko borondatea ete dagoen, borondatea eta prestakuntza irakasleon aldetik, hori badoa aldatuz hor zehar; material egokia hau gauzatu ahal izateko

eta material batzuk sortu dira ikusmolde honetatik... eta hirugarrena, han gelditu zena, ilundegian izan zen ahozkoaren arazoa eta ahozkoaren arazoa nahi-ko barruan gauzatuz doa edo behintzat teorizatuz doa, nahiz eta praktikarako saltoa oraindik egin behar dan.

Hirugarrena eta azkena, nire ustez oso garrantzitsua dana, teoria eta praktika uztartzeko da testuaren beraren idazkera, inork ez du aipatu, baina nik lehenengoz etxeko probak ikusi dodaz goiengo maila baten txertatuta, baina ez txertatuta alabu edo txatal torpe baten moduan, ez bada ze, salbu eta trebe eta hori eskertzekoa da, ze hori da eredu bat, liburuaren idazkera.

Eta bueno hori nabarmenduta ez dekot besterik esateko. Eskerrik asko.

EUSKALKIA ETA HEZKUNTZA

Iker 13

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainbura*

Badakit nihauk eta beste anitzek ere badakite zer den irakasle bizi batean tesi baten aurkeztea eta gero epaimahaien aitzinean defenditzea tesi hori eta gero ukaitea merezi duen saria. Merezi ukan duzu bikain *cum laude* eta zorionak, beraz, Zuri. Horrek erakusten du nola erabili den ikerketa Euskal Herrian, azken urte hauetan, sortu direlarik unibertsitateak eta unibertsitateek egin dutelarik euskarari buruz behar zen lana, baina ikerketa bat, tesi bat, ez baldin bada publikatzen, egoiten da bere esparru horretan, badakite horren berrri eta hortakotz esan nahi dut niretzat ere eta Euskaltzaindiaren sorta batean agertzea, ikusten dudala. Baina denbora berean ere, nahi ditut hemen eskertu babesleak, heiei esker agertu baita liburu hau eta beraz, bai alde batetik, Bizkaiko Foru Aldundiari eta beste aldetik Bilbao Bizkaia Kutzari, nire eskerrik beroenak. Berriz ere eskerrak eta eguerdi on denoi.

BILBOKO XXXIII.LIBURU AZOKA

2003/V/29 – 2003/VI/08

**ON KARMELO ETXENAGUSIARI
«URREZKO LUMA» EMOTEA.**

* * *

ENTREGA DE LA «PLUMA DE ORO»

Bilbo, 2003-VI-02

Lorentzo «Lontzo» Zugazaga

Egunon, guztioi:

*Bai dala pozgarria eta atsegina niretzat On Karmelok jasoko dauan
«Urrezko Luma» saria dala-ta, maisu izana eta aspaldiko lagun dodana es-
ker onez aurkeztea!*

* * *

Constituye para mí un gran honor y me resulta gratificante hacer esta breve presentación de D. Carmelo.

+ D. Carmelo nació en Iurreta (Bizkaia) el 24 de abril de 1932, en una familia euskaldun y vascoparlante. Su niñez se desarrolló exclusivamente en euskera, tanto en el ambiente familiar como en el vecindario y en el pueblo. El contrapunto lo puso la escuela, en la que toda la instrucción era en castellano. Como confiesa él, fue en la Iglesia (parroquia) donde se inició su lectura en euskera, cuando aprendía de memoria los tres grados del catecismo:

«Guraso biak euskaldun garbiak nebazan. Etxean, auzoan eta herrian beti euskera hutsa egiten genduan. Eskolan, ostera, dan-dana irakasten euskuen erderaz. Eleizan irakasten euskuen euskeraz kristinau ikasbidea, hiru mailak buruz ikasi arte. Horixe izan zan nik euskeraz irakurri neban gauza bakarra, Seminaria joan arte».

+ Ingresa en el Seminario de Artea/Arteaga-Gaztelu-Elexabeitia y pasa al Seminario de Vitoria/Gasteiz. Toda la formación del seminario la recibió en castellano. No obstante, ya desde los primeros años de «latín» comenzó a leer algunas obras de autores vascos, hasta que fue ordenado presbítero en el año 1955. Mientras realizaba los estudios de filosofía comenzó a escribir algo en euskera: cartas a su madre, diario...

«Seminarioan erdera hutsez zan irakaskuntza eta bizimodu osoa. Halan bere, Seminario txikian nengoala hasi nintzan euskerazko lehenengo liburuak irakurten: Zamarripa, «Lizardi», «Orixe»...Filosofian nengoala, zerbait euskeraz idazten be hasi nintzan: egunkaria, eskutitzak amari... Bape ordena barik, baina euskerazko liburu gehiago be irakurri nebazan, abade egin arte, 1955eko ekainaren 29an, S. Pedro egunez».

+ Recién ordenado, recibe el nombramiento de Formador y Profesor en el Seminario Menor de Derio. Ese mismo año ingreso yo en el seminario y creo que habré sido el primero en bailar el «zortziko» en dicho seminario. Ocurrió a instancias de D. Carmelo, en el «preseminario». Llegamos a bailar juntos, en pantalón corto, Zarrabe, Gabika, Arriola... Más tarde, formamos grupo, e incluso varios grupos bajo la batuta de J. A. Retolaza y Juan Mari Uriarte. Precisamente yo había aprendido a bailar en mi pueblo, Gámiz, con Juan Mari. Él era seminarista y, cuando yo tenía ocho años formó dos grupos de «dantzaris», uno de mayores (jóvenes) y otro de pequeños (niños).

En esos años Carmelo, además de ser formador (prefecto) e impartir clases de latín a los pequeños, imparte también algunas clases de euskera a los seminaristas mayores, aunque en condiciones un poco precarias.

* * *

Irakasle eta hezitzaile izan genduan, eta gogoratzen naz haserre egin behar euskunean, behin baino sarriago, gorritu egiten zala bera. Ez zan nonbait haserre egiteko eta haserrera joa gure mutila!!!

Aldi berean, euskera irakasten hasi zan. Berak dinoskunez:

«Derioko seminarioan euskerazko eskola batzuk emoten hasten naz, seminario nagusikoei, ganora handi barik eta argitasunez urri».

* * *

+ El año 1958 es enviado por la diócesis a la Universidad de Comillas, a realizar estudios de Derecho Canónico:

«Comillasera bialdu ninduen», «Ius Canonicum» ikasten, eta hantxe be euskeraz irakurten jarraitzen dot, baina ez gauza handirik».

* * *

+ Vuelve al seminario, con la licenciatura en Derecho Canónico, el año 1960, ahora ya como formador para el Seminario Mayor. Ejerce la docencia en el campo de las leyes eclesiásticas y también enseña lengua y literatura vasca. Confiesa que, al tener que enseñar, ha progresado y se ha capacitado mejor para la docencia del euskera. En estos años sesenta nacen y se publican sus primeras «criaturas», al hilo de los apuntes que prepara para las clases:

• *Bizkai'ko euskal-idazleak. Lorategia. Derio 1965 (policopiado).*

- *Gipuzkoa'ko euskal-idazleak. Lorategia*. Derio 1967 (idem).
- *Euskal idazleen lorategia*. Itz lauz. Donostia 1969.

* * *

1960. urtean barriro bihurtzen da Seminariora, nagusira orain:

«Euskerazko eskolak be emoten ditut, eliz legeakaz batera. Apurka-apurka –dino– emon ahala ikasi be egiten dot, eta gramatikeagaz batera euskal idazleak irakurten be hasten gara. Hortik sortuko dira nire «lorategiak»: bizkaierazkoa eta gipuzkoerazkoa, neure ikasleentzat, polikopiaz».

(Ondotxo gogoratzen naz «edizino» hareetako testu eta marrazkiez).

«Gero,–dino Karmelok– I. Beobidek irarkolan argitaratzen deust bion «ume» barria, alfabetatze kanpainarako».

(Gogoan al dozu Karmelo sasoi horretan zelan bultzatzen ginduzuan idaztera? Lehiaketa modukoak prestatzen zenduzan oporraldietan idatzi gen-gian eta sari mordoia izaten genduan; literatur-liburuak eskeintzen zeunskuzan, filosofia eta teologia ikasle ginan abadegaioi, irakurzaletasuna bultzatu guran. Holan eskuratu genduzan A. Santi Onaindiaren *Milla Euskal Olerki Eder* eta Orixeren *Euskaldunak* poema).

* * *

+ En los años '60, gloriosos en muchos aspectos, se celebra un gran acontecimiento eclesial, el Concilio Euménico Vaticano II (1962-1965), deseoso del «aggiornamento» de la Iglesia en aras de un servicio mejor del Evangelio al mundo contemporáneo. La Constitución «Sacrosanctum Concilium» sobre la Sagrada Liturgia supone un «giro» cualitativo en el área de la inculturación de la fe en toda su dimensión celebrativa. En esos años, llenos de ilusión y esperanza, *fervet opus* «hierve la tarea» en nuestras diócesis. Se han declarado oficiales para la liturgia las lenguas vernáculas. Ahí comienza una labor ímproba de traducciones al euskera: Misal, Rituales para los Sacramentos... (También se traducen materias, asignaturas de temas filosóficos y teológicos, cf. EHA, Euskal Herriko apaizgaiak, que traducen *Biología*, *Historia de la Salvación*, etc.).

Es un tiempo fecundo de gestación y de alumbramiento de todo tipo de recursos. En un primer momento, cada diócesis marcha un poco por su cuenta, pero en 1969 se configura un único equipo, de todas las diócesis vascas, de traductores de textos eclesiásticos. D. Carmelo ha trabajado durante muchos años en ese equipo, junto a otros preclaros sacerdotes vizcaínos, entre los que recordamos de forma destacada al Padre Lino Akesolo OCD (q.e.p.d.) y a nuestro amigo común Mikel Zárte (G.B.).

* * *

60. hamarkadako urteak arlo askotan izan dira aberats eta frutu emoileak. Elizarentzat ere urte bizi eta gogoangarriak doguz. Vaticano II. Kontzilioa ospatzen da, amets, asmo eta itxaropen ujelez gainezka, etorkizun hobe batera bultz egiten deuskula, eliza eguneratua gaurko munduaren benetako zerbitzari izan daiten. Gure euskerea bere, lehenengo aldiz, ofiziala da elizan. Eta horra hor, gure euskal erlijioso eta abadeak, akuluganaren eragin pean balira lez, bizkor eta eginkor, eliztarren artzain ardura estimagarritz, eliz-testuak euskeratzen, Jesukristoren Barrionaren mezu salbagarria ama-hizkuntzan, era ulergarriagoan eskeini guran.

Eta euskeratze mundu horretan sartzen da hasieratik gure Karmelo, Arratiako Aita Lino Akesolo eta beste batzuekin batera. Zenbat ekitaldi, zenbat batzar, zenbat izerdi, zenbat paper, zenbat kilometro, zenbat ardura, zenbat ekarpen eta zenbat konpontze-bide, euskalki ezbardinetako beste lankideekin. Baina era berean, zenbat pozaldi eta zenbat adiskide barri, harik eta Erromara bidiaia ere egin arte (Handiazabal, Larre, Lekuona, Etxezarreta, Akesolo, Zarabe, Zarate, Sarobe, Otxandorena...)...

Gerora bere, hor jarraitu dau Karmelok, zeregin askoren eta ardura astunen artean parte hartze urriagoa izan badau bere. Dana dala, jakin egizue, gaur Bizkaiko eliza guztietan irakurten dan «Irakurgai Liburua» (lau bat kilokoa) letraz-letra Karmelok bere makina txikian («golda» ez-elektrikoan) idatzia izan dala. Neu naz horren testigu. Eta holan isileko beste lan asko eta asko. Goztaitegiak berba egiten baleki...! Orain ere etorten da batzutan gure batzarretara, euskerazko baliabideak eratzen dihardugun taldearen ekitaldietara.

* * *

+ En 1969 se empieza a gestar una realidad fecunda y eficaz para la diócesis de Bilbao y para Bizkaia: «Udako Euskal Ikastaroa» de Derio. Nació de una constatación de que los sacerdotes (y personas de Iglesia dedicadas a la pastoral) no estaban alfabetizadas, por lo que no podían ejercer con dignidad su función de proclamación y educación cristiana. Ante la primera intuición que se la debemos a D. Julián Olazabalaga, Ander Manterola dialogó con Carmelo, con Mikel Zárate y conmigo que, a la sazón, dábamos clases de euskera en el Seminario de Derio. Ahí nació lo que después se convirtió en una gran institución, que ha alfabetizado a muchos sacerdotes y ha sido cuna de muchísimos profesores y escritores, con gran beneficio de la docencia de la lengua vasca en ikastolas, colegios, institutos e incluso en las universidades, con un auge considerable de obras literarias, ensayos y estudios críticos.

* * *

1969. urtean Bizkaiko elizbarrutiko Julian Olazabalagak, herri-eskualdetako pastoralgintzarako arduraduna zanak, kezka eta ardura larria bizi eban Bizkaiko herri txikietan euskeraz egiten ziran liturgikizunak eratzeko abade asko eta asko gauza ez zala ikustean. Gerra osteko abadeen belaunaldiak, ta-

malez, ez eban izan ezelango aukerarik euskal hizkuntza gaitan gitxieneko prestakuntza eskuratzeko.

"Hori zala-ta, euskeraren irakaskuntzan esperientzia eukun Seminario Txikiko eta Nagusiko irakasleengana jo eban. Irakasle taldeak idazkera, aditza, atzizkibidea eta deklinabidea lantzeko ikasgaiak eta ariketak eratu zituan, eta Bizkai-ko idazleen lorategitxo bat, testu-txatalen oinarri-oinarrizko azterketa eta zeregintxoekin. Ander Manterolak hartu eban erakuntza nagusiaren ardurea eta Karmelo Etxenagusiak eta Mikel Zaratek leporatu eben irakaskuntza arloa, Lorentzo Zugazaga material prestakuntzarako lagun ebela (ik. K. Josu Bijuesca «25 urtean» (1970-1989) in LABAYRU IKASTEGIA."

Derioko Udako Euskal Ikastaroa 17. or.).

Hogei urtetan izan da Karmelo Derioko udako ikastaroetan irakasle. Bera da «dekanoa» hango goi-mailako tituluen diplometan agertzen danetz. Hainbeste abaderen euskerea lantzen eta hainbako beste askoren (ikasle eta ostantzeko) trebatze lanean jardun izan dau etengabe hogei ikastarotan. Literatur lanak ezagutzen, irakurten, aztertzen eta gozatzen berebiziko laguntza jaso izan dabe urte horreetan Karmeloren ikasleak. Karmelo, gainera, ez da izan ikasleak estutu eta ito aginean jarri ohi dabezan irakasleetakoa. Bere irakasbidea bigunagoa, hurkoagoa, pedagogikoagoa izan da. Jakinmina eta egarria suspertuz bideratu izan dau autoreen ezagutza eta literatur-lanak ahogozatzen eta ahogoza eragiten jarri dau bere maisutasun bigun baina eraginkorra. Oraindik gogoan dodaz «Zatozkida Goi-Arnas...» «Txori banintz...»«Oi bart...» eta beste hainbeste kanta, Euskaldunak poema irakurtean guk ikasi eta zuk grabatu zenduzanak.

* * *

+ Más tarde, desde el Instituto Labayru y el Ikastaro de Derio le publicaron dos antologías más, especialmente para sus alumnos: la de escritores vascos en euskera vizcaíno y la de escritos y escritores de Iparralde. Así nos confiesa:

«Neure ikasleentzat beste antologia bi argitaratzen deustez, bizkaiko euskal idazleena eta iparraldekoa». *Euskal idazleak bizkaieraz* (Jon Kortazar y Aitor Etxebarriaren lankidetzaz), Bilbao 1980, eta *Iparraldeko euskal idazleak*, Bilbao 1988.

+ El año 1989 recibió el merecido y agradecido homenaje del *Ikastaro* de Derio.

XX. Udako Euskal Ikastaroko Ikas-ospakizuna da Karmelori Derioko Ikastaroak egindako omenaldiaren lekuko. Ander Manterola, Adolfo Arejita, Jose Mari Rementeria eta Lorentzo Zugazaga izan ziran –ginan– esker oneko hizlari ospakizun horretan (ik. LABAYRU IKASTEGIA, *Derioko Udako Euskal Ikastaroa* 271. or.).

+ Además de las obras –antologías– publicadas, Carmelo ha publicado algunos artículos, no muchos, en revistas como «Redención», «Agur», «Zer»..., y han sido muchísimas las homilías y charlas dadas en euskera en muchas parroquias de Bizkaia.

* * *

Berak autortzen deuskunez, «berbaldiak euskeraz sarritan emon izan ditut, hainbat eleizatan, baina idatzi eta argitaratu, oso gitxi: artikulu solteren batzuk aldizkari batzutan, baina gauza handirik ez».

* * *

+ Junto a ese denso entramado que refleja la relación entre D. Carmelo y el euskera, en la Curia Diocesana de Bilbao hay constancia de los muchos e importantes nombramientos y cargos, que manifiestan el servicio de nuestro homenajeado a la Iglesia y a la sociedad de Bizkaia:

- Formador del Seminario Menor: 1955.
- Estudios de Derecho Canónico en Comillas: 1958-60.
- Formador del Seminario Mayor: 1960.
- Delegado Diocesano de cinematografía: 5-10-1961.
- Capellán del Monasterio del Refugio, Begoña: 10-11-1963 (atseginez gogoratzen dot han bizi zineneko zure amaren irribarrea).
- Canciller Secretario de Cámara y Gobierno del Obispado: 27-11-1968
- Encargado Diocesano de Relaciones con Prensa y Radio: 27-11-1968.
- Vicario Episcopal Territorial de la Vicaría III: 27-09-1973.
- Curso de Formación Permanente del Clero, Salamanca: 10-1976.
- Vicario Episcopal de la Curia Diocesana: 15-11-1977.
- Poder general ante Notario para representar a la Iglesia Católica en su Diócesis de Bilbao, con totalidad de facultades: 14-12-1977.
- Vicario General de la Diócesis: 7-04-1980.
- Canónigo de la Santa Iglesia Catedral: 19-03-1982.
- Miembro del Consejo Diocesano de Asuntos Económicos: 30-03-1987.
- Miembro del Consejo Pastoral Diocesano: 20-02-1988.
- Párroco (Moderador) de la Parroquia-Basílica de Begoña: 1-09-1990.
- Responsable de la Parroquia de la Santa Cruz de Begoña: 14-08-1993.

- Obispo Auxiliar de la Diócesis de Bilbao: 8-09-1995. Ordenado Obispo el día 9 de noviembre de 1995.
- Presidente del Consejo de las Radios de la Diócesis: Radio Popular y Bizkaia Irratia.

* * *

Eta gauza guztien gainetik bere izakera eta bizikera goratu beharko neu-ke: apala, hurkoa, gizakoia, bakezale eta bakegilea, abegi onekoa eta gogor-keria mota guztien aurkaria. Ez litzateke ahaztekoa bere jokabide samur eta maitekorra D. Antonio Añoverosen gaixoaldi luzean. Eta gogoangarria eta es-kertzekoa nire makalaldian Benidormen berak eta Jose Mari Rementeriak eta hirurok lan eginez eta atsedan hartuz egin genduan egotaldia. Bai, badeutso zorrik gure elizbarrutiak On Karmelori, eta ez da txikiena berak gure gotzain izatea onartzea! Gotzain modura, itsasoz bestalde, Ameriketan bizi diren eus-kaldunekaz ere izan ditu hartu-emonak; aurtengo udaldian ere hara osterea egi-tekotan dogu.

Ez dira alde batera itzi beharrekoak bere afizino handiak ere: txirrindu-laritz (Barrutiatarrak dira auzoak), mendigoizaletasuna, igeriketa zaletasuna...

* * *

+ Os comunico también una noticia que puede constituir una primicia. Carmelo ha dejado en manos de Ander Manterola una serie de escritos no pu-blicados.

«Orain, Ander Manterolak eskatuta, neure idazlan mordo bat bere eskuetan itzi dodaz, libururen bat argitaratu nahi daua-la-ta. Bizkaiko euskal gotzain baten izenean argitaratzen dan lehenengoa izango ei da; ez dau beste merezimendurik izango» –dino, apal eta bare, gure On Karmelok–.

* * *

Conclusión

